Lanbide Heziketako euskal ereduaren bilakaera

Hilario Murua Cartón (Koordinatzailea)

Jon Altuna Urdin, Paulí Dávila Balsera,
Ana Eizagirre Sagardia, Iñaki Zabaleta Imaz



eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Lanbide Heziketako euskal ereduaren bilakaera

Lanbide Heziketako euskal ereduaren bilakaera



Lanbide Heziketako euskal ereduaren bilakaera

Hilario Murua Cartón (Koordinatzailea)

Jon Altuna Urdin, Paulí Dávila Balsera,
Ana Eizagirre Sagardia, Iñaki Zabaleta Imaz

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Lanbide Heziketako euskal ereduaren bilakaera [Recurso electrónico] / Hilario Murua Cartón (Koordinatzailea) ; Jon Altuna Urdin... [et al.]. – Datos – [Leioa] : Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, [2026]. – 1 recurso en línea: PDF (271 p.)
Ed. electrónica de la ed. impresa (2020)
Modo de acceso: World Wide Web
Bibliografía: p. 263-270.
ISBN: 978-84-1319-838-5

1. Formación Profesional – País Vasco. I. Murua Cartón, Hilario, coord. II. Altuna Urdin, Jon, coaut.

(0.034)377(460.15)

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzu

ISBN: 978-84-1319-838-5

Eskertza

Ikerketa-talde honetako kideek eskerrak eman nahi dizkiegu elkarrizketak egiten lagundu diguten guztiei, haiei esker lan honetarako informazio baliotsu ugari lortu baitugu. Hauek dira, alfabetoaren hurrenkeran:

Asier Aloria (Confebaskeko Prestakuntzako zuzendaria)

Joseba Amondarain (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren Zerbitzuko burua)

José Luis Aperribai (Lanbide Heziketako irakaslea eta LAB sindikatuko arduraduna)

Jorge Arévalo (Lanbide Heziketako sailburuordea)

José Ignacio Berrondo (Gipuzkoako Lanbide Heziketako ordezkari ohia)

José Carlos Crespo (Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuorde ohia)

Julen Elgeta (HETELeko zuzendaria)

José M.ª Elola (Tolosako LHIIko eta Ikaslaneko zuzendari ohia)

Itziar Etxeberria (Lanbideren Enplegurako Lanbide Heziketako arduraduna)

José Luis Fernández Maure (Tknikako Nazioartekotze arloko zuzendari ohia)

José Luis García Bengoa (Confebaskeko Prestakuntzako zuzendari ohia)

José Ignacio Hernández (AEGko zuzendaria eta AICEko lehendakaria)

Kike Intxausti (Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziako zuzendari ohia)

Xabier Irastorza (ELA sindikatuko irakaskuntza-arduraduna)

Iosune Irazabal (Bergarako LHIIko zuzendaria eta Ikaslaneko lehendakaria)

Jon Labaka (Tknikako zuzendaria)

M.ª Carmen Marín (Gipuzkoako Hezkuntzako ikuskatzaile ohia)

Arantxa Martínez (CCOO-Euskadi sindikatuko Lanbide Kualifikazioen Arloko arduraduna)

Iñaki Mujika (Tknikako zuzendari ohia)

Arantxa Niño, Joseba Muñoz eta Juan Carlos Diego (UGT-Euskadiko Prestakuntzako arduraduna eta ordezkari sindikalak, hurrenez hurren)

Patrizio Zubizarreta (Usurbilgo LHIIko zuzendari ohia)

Aurkibidea

Sarrera: lauburu berritzailea 13

I. Kapitulua: Euskal Lanbide Heziketaren aurrekariak eta lege-testuingurua
Paulí Dávila Balsera eta Hilario Murua Cartón 21

1.1. Arte eta Lanbide Eskoletatik frankismoaren garaiko Lanbide Heziketara 22
1.2. Lanbide Heziketa autonomia-esparruan 30
1.3. Lanbide Heziketa hezkuntza-sistemaren berrantolamenduan 34

II. Kapitulua: Lanbide Heziketako euskal planak: LH-ren horizonte estrategikoa Euskal Herrian
Iñaki Zabaleta Imaz eta Ana Eizagirre Sagardia 43

2.1. *Lanbidez:* Lanbide Heziketako I. Euskal Plana (1998/2003) . . . 43
2.2. Tradiziotik berrikuntzara: Lanbide Heziketaren II. Euskal Plana (2004/2007) 52
2.3. LH berria, herri-marka: Lanbide Heziketako III. Euskal Plana (2009/2011) 58
2.4. LH desberdin baterantz: Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana (2014/2017) 62
2.5. Lanbide Heziketaren IV. Euskal Planaren olatua eta jarraitutasuna 67

III. Kapitulua: Berrikuntza, euskal Lanbide Heziketaren nortasunaren ardatza
Paulí Dávila Balsera, Hilario Murua Cartón, Iñaki Zabaleta Imaz eta Ana Eizagirre Sagardia 71

3.1. Berrikuntzari buruzko ikuspegiak Lanbide Heziketan 71
3.2. Berrikuntza alderdi instituzionaletik 76
3.3. Tknika, berrikuntza- eta partaidetza-sortzaile (2005) 86
3.4. Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteak 95
3.5. Ikastetxeetako praktiketatik lantokietako praktiketara 112
3.6. Lanbide Heziketako irakasleen etengabeko prestakuntza 114
3.7. Lanbide Heziketako ikastetxeen kudeaketa-sistema: Erabateko Kalitatearen aldeko apustua 119
3.8. Sormenaren balioa euskal Lanbide Heziketan 124
3.9. Ekintzailetzaren erronka: Lanbide Heziketako ikastetxeak eta enpresak sortzea 132
3.10. Nazioartekotzea: berrikuntzaren erronka eta horizontea 145

IV. Kapitulua: Enpresaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremana
Hilario Murua Cartón 167

4.1. Etengabeko Prestakuntza eta Lanerako Prestakuntza 167
4.2. Enpresa-ekimenak zerbitzuak emateko gune gisa 185

V. Kapitulua: EAE-ko Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen historia eta bilakaera: eskola-uztetik «Kalitatera»
Hilario Murua Cartón 191

5.1. Lanbide Heziketako ikastetxeen historia, bilakaera eta eraldaketa . 192
5.2. EAEko ikastetxe integratuak: sorrera, garapena eta «kalitate»ranzko bilakaera 198

VI. Kapitulua: EAE-ko Lanbide-Heziketa datutan: 70eko hamarkadatik gaur arte
Jon Altuna Urdin eta Hilario Murua Cartón 231

6.1. Lanbide Heziketaren arautzea eta aukera dikotomikoa 231
6.2. Espainiako estatutik datozen jarraibideak eta Lanbide Heziketa Batxilergoaren aurrean finkatzeko hastapenak Euskal Autonomia Erkidegoan 232
6.3. Estatuak Lanbide Heziketa zentralizatzetik Eusko Jaurlaritzaren mendeko Lanbide Heziketara: ikastetxeen ekimena eta aldundien apustua 234
6.4. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak matrikulatutako ikasleen kuota hobetu du Batxilergokoaren aldean 235
6.5. Lanbide Heziketako ikasketen, mailen eta graduen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan 236

6.6. Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta pribatuen bilakaera Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan 237
6.7. Euskararen presentzia, garrantzia eta bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan 240
6.8. Lanbide-arloen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde eta lurraldeetan, 1970/2019 242
6.9. Lanbide Arloek badute generorik? 245
6.10. Enplegagarritasunaren bilakaera Lanbide Heziketako ikasleen okupazio-tasei dagokienez, lanbide-arloen arabera. 1999/2016 . 246

Konklusioak 249

Bibliografia 263

Sarrera: lauburu berritzailea

Hezkuntzaren arloan dihardugunok gehien estimatzen dugun leloetako bat «modu atsegingarrian irakastea» da; pedagogia modernoetan oraindik ere indarrean dago lema hori, nahiz eta Horaziok sortua izan Kristo aurreko I. mendean. Gainera, oraina biziz gozatzen dutenek hain maite duten *carpe diem* esaeraren lehen defendatzailea izan zen Horazio. Alabaina, gaur egun, eta «eskola aspergarria» bizi ondoren, ezinbestean onartu beharra dago irakasleak animatzaile soziokultural bihurtzen ari direla, gure ikasleak pantailaren aurrean nabigatzen ikusteaz gogaiturik. Orain, ikasleen arreta guztia bereganatzen duten lagun edo etsai birtual horiekin lehiatzea ala aliatzea da auzia. Ikasteko modu berri hori, sarean zehar nabigatzea, gaixotasun bat sortzen ari da irakasleen artean: nostalgia. Ikasgela baten epelean ezagutzaren leihoak zabaltzen zizkizun irakasle baten ahotsa entzunez eskolaratu zirenen artean ezaguna da jada nostalgia hori. Bestelakoak ziren garai haiek: ikastea oinarriak astiroago eta sakonago jartzeko prozesua zen, itxaropen-horizonte urrun batekin. Orain, berriz, ziurgabetasun-horizonte ezezagun baten aurrean gaude, eta etorkizun horri aurre egiteko modu bakarra azaleko ezagutza da, zeinak berekin baitakar ez jakitea zer balio duen ikasten denak, arrisku, arriskubide edo erronka berrien etengabeko eta etorkizuneko mehatxua aurrean dugula bizi baikara.

Lanbide Heziketako profesionalek gehien maite duten beste leloetako bat «eginez ikastea» da, uste izanik hori dela bide bakarra ikaskuntza-prozesu batean norberaren ahalmenak eta gaitasunak probatzeko, errorea non den ezagutzeko eta gauza berriak ikasteko, berritu beharra izateko, zeren eta ikasbidean erronka berri eta ustekabekoak sortzen baitira. Beti gogoratu izan zaigun bezala, bizitza, eta bai eskola ere, etengabeko ikaskuntza-prozesu bat baino ez da, non akatsetatik ikasi eta kalitatea

hobetzen baita etengabe jardutearen ondorioz. Irakasteko eta ikasteko bi modu horiek batu ahal izatea litzateke hezkuntzan dihardutenen desiorik handiena: irakaskuntza atsegingarri batez eta eginez ikastea. Ezin da gehiago eskatu.

Lanbide Heziketan, lelo horietaz gainera, oso sustraituta dagoen pentsamolde bat bizi da: ikaskuntzaren balioa, lanbidearen oinarriak irakatsi dizkigun tailer-maisu edo profesional gogotsu batekin ikasi izanaren ohorea. Pentsamolde hori gabe, ikaskuntzaren goiko mailek ez dute zentzurik. Transmisio-prozesu oinarrizkoena da, baina aberatsena, lanbidearen zailtasunak eta alaitasunak ezagutarazten dizkizuna, etorkizunean jarraitu beharreko bidea adierazten dizuna. Eta hori ez da eskolan bakarrik ikasten; beharrezkoa da fabrikekin, enpresekin eta ekoizpenaren errealitatearekin harremanak izatea. Horregatik, lan-munduaren eta hezkuntza-munduaren arteko harreman saihestezinarekin soilik azaldu daiteke Lanbide Heziketa. Beraz, atsegin emanez irakastea eta eginez ikastea arrakastatsuak izatea da Lanbide Heziketaren garaipenerako biderik onena. Hitz horiekin esanda, nahiko diskurtso xaloa dirudi, beharbada, baina horren atzean konbentzimendu bat dago: sinetsita gaude Lanbide Heziketaren analisiari ematen ari gatzaizkion hizkuntza berria ur horretatik edan izanaren ondorioa dela.

Posizionamendu pedagogiko hori eginda —Lanbide Heziketari balioa emateko aitzakia besterik ez da—, aitortu beharra dago ezen, Lanbide Heziketa aztertzeko, beharrezkoa dela irakaskuntza —eta ikaskuntza— prozesu hutsetik harago begiratzea. Alde horretatik, Lanbide Heziketako euskal eredua adibiderik onena da faktore guztiak aztertu ahal izateko: eragile instituzionalak, enpresak, ikastetxeak, irakasleak eta ikasleak. Izan ere, denak inplikatu dira, eta, horri esker, Lanbide Heziketako sistema moderno eta jasangarri bat lortu da, enpresen premietara oso egokitua. Errealitate hori, orain oso ohikoa iruditzen zaiguna, prozesu luze bat finkatzearen emaitza da, non ez den inoiz galdu hezkuntzaren eta lanaren arteko beharrezko lotura, betiere kontuan hartuta herriaren premietara egokitzea, prestakuntza-programetara moldatzea eta ikasleak barneratzeko estrategia.

Egia da Lanbide Heziketako euskal eredua erreferentzia dela ongi funtzionatzen duelako, ez bakarrik Estatuaren gainerakoan, baita Europan eta munduko beste herrialde batzuetan ere. Dagoeneko ohikoa da aldizkari ez-espezializatuetan eredu horren ontasunaz irakurtzea, dela kongresuren baten harira, dela plan estrategikoren bat aurkeztean, dela irakaskuntzaren esparru horretako arduradunei egindako elkarrizketetan. Erabiltzen den diskurtsoa bat dator lan honetan adieraziko diren baieztapen askorekin. Ez da kontakizun estatiko bat; aitzitik, dinamika iraunkor bat eskaintzen du, non honako hauek nabarmentzen baitira: plan estrategikoen balioa, ikaste-

txeek eta irakasleek egindako lana, berrikuntza elementu motibatzaile gisa, ikastetxeen eta enpresen arteko sareen bidezko lankidetza edo Lanbide Heziketak enpresen premiei ez ezik herriaren premiei ere eman behar dien erantzuna. Lanbide Heziketako ikasleek oso enplegagarritasun-tasa handia lortzen dute. Horrek adierazten du, beste ezerk baino hobeto, eredua eraginkorra dela eta funtzionatzen duela. Horretara iristeko, arrisku batzuei eta, batez ere, erronka batzuei egin behar izan zaie aurre, eta haiek sustatu dute zenbait erabaki hartzea eta zenbait ekintza gauzatzea.

Lan honetan lantzen den ikuspegi historikoak Lanbide Heziketaren erreferentzia-esparruak eta hainbat fenomeno garatu diren uneak ere finkatu nahi ditu. Fenomeno horiek zerikusia dute, batzuetan, Lanbide Heziketari buruzko hezkuntza-politikarekin; beste batzuetan, berrikuntza-prozesuekin eta lankidetza instituzionalaren prozesuekin, lotuak baitaude zenbait erakunde sortzearekin edo ikastetxeetan egindako lanarekin. Prozesu horretan, zenbait helburu lortzeko borrokatzeaz gainera, hizkuntza berri bat garatu behar zen, gauzatzen ari ziren berrikuntzak izendatzeko modu berri bat. Bestela esanda, badirudi hizkuntzaren gudua ere irabazi behar zela, adierazpen eta kontzeptu berriak erabiliz gertatzen ari ziren aurrerapenen berri emateko. Hau da, kalitatetik berrikuntzara, berrikuntzatik errendimendu handiko zentroetara, eta horrekin guztiarekin batera, lortutako aurrerapenen eta emaitzen berri emango zuen erakunde bat.

Aurkezten ari garen liburu honek galdera bati erantzun nahi dio, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruz ari garenean saihestezina den galdera bati: zein den arrakastaren zergatia, nolakoa den Europan eta beste herrialde askotan Lanbide Heziketa hobetzeko proposamenetan kontuan hartzen ari den eredua. Erantzuna sinplea da, baina aldi berean konplexua. Sinplea, ondo egiten diren gauzek bakarrik dutela arrakasta aitortzea delako. Eta konplexua, azken hamarkadetan jarraitutako eraldaketa-prozesu etengabeari egin behar diogulako erreferentzia, eragile instituzionalei (Lanbide Heziketako erakunde, instituzio edo plan estrategikoak sortzea), ikastetxeei (elkarteen, ikastetxeen, irakasleen eta ikasleen konpromisoa), irakaskuntza-metodoei, berrikuntzari eta abarri. Hau da, erantzunak jaso behar du funtzionamendu onak norabide berean lan egiten duen indar-amalgama bat behar duela. Alde horretatik, berrikuntzari buruzko kapituluak laburbiltzen ditu ondoen prozesu horren gakoak, eta horixe da euskal Lanbide Heziketaren «lauburu» berritzailea: kalitatea, ekintzailetza, sormena eta nazioartekotzea. Hori guztia ikastetxe, enpresa eta Eusko Jaurlaritzaren erakunde eta instituzioen lankidetza-esparruan.

Gako horiek gidatu dute liburu honen lanketa, bai eta Lanbide Heziketako euskal eredu horri koherentzia emateko ahalegina ere, betiere hurbileko ikuspegi historikoa kontuan hartuta, kasu gehienetan joan den

mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadatik harago joan gabe. Hala ere, jasotako informazioa antolatzeko orduan planteatu zaigun arazoetako bat aztertzen ari garen prozesu osoaren periodizazioa da. Ikuspegi historikoa garrantzitsua da, baina Lanbide Heziketako euskal eredua kategorizatzeko erabili ditugun irizpideak ere garrantzitsuak dira. Alegia, gure ustez zer elementuk osatzen duten eredu hori. Horregatik, lan-egituraren lehen zatiak irizpide kronologiko jakin bati jarraitzen dio nolabait, frankismotik hasi eta esparru autonomikoaren garairaino; gainerako kapituluetan, berriz, berrikuntza, kalitatea, nazioartekotzea edo enpresen eginkizuna lantzen dira. Aurkezpen horren bidez, gertatu zaharra ez den prozesu baten berri eman nahi dugu, non instituzio, eragile, erakunde, giza baliabide edo baliabide materialen sare batean sartu baita Lanbide Heziketa. Prozesu horrek, Euskadiko Lanbide Heziketaren arrakasta ez ezik, eredu baten sorrera ere azaltzen du, eta eredu hori erabilgarria gerta daiteke beste lurralde —eta ekonomia— testuinguru batzuetan.

Kontsultatutako lanen artean ez da erraza prozesu historikora hurbiltzea, aztertzen ari garen fenomenoa azaltzeko etapak ezartzea. Nolanahi ere, Mujikaren eta Intxaustiren 2018ko lana nabarmendu behar da. Hiru ziklo bereizten dira lan horretan, handi-handika, autoreen ustez haietako bakoitzaren ezaugarri batzuk nabarmentzeko balioko luketenak. Hala, 1980tik 1996ra bitarteko lehen ziklo bat aipa liteke, ezaugarri bereizgarritzat Lanbide Heziketa berritzeko ekintza multzo bat duena, osagai hauekin: ikastetxe-zuzendarien belaunaldi berri bat, enpresa-sarearekiko lotura eraginkorrago bat eta Hezkuntza Sailaren eta foru-aldundien parte-hartzearen hasiera. Beraz, *konfigurazio*-ziklo bat da, eta garai hartan indarrean zeuden elementu asko biltzen ditu. Elementu horiek hirurogeita hamarreko hamarkadako Estatuko legediaren mende zeuden, eta «birmoldatuz» joan ziren aldi berri bat hastearekin batera: estreinatu berria zen autonomia-esparrua da aldi horren erreferentzia. Egia da konfigurazio horrek bazituela arriskuak, baina une hartako protagonistek erronka gisa bizi izan zuten, eta gogo handiz ekin zioten. Ziklo luze bat izan zen, 16 urtekoa; justifikatuta dago, beraz, ziklo horretan sartzea LOGSE lege garrantzitsuaren promulgazioa (1990). Dena dela, gure ustez, egokiagoa dirudi, egiten ari garen planteamenduarekin, non lege-erreferentziek zenbait egokitzapen-politika ezartzen baitituzte, zikloa azken lege hori promulgatu zen urtearekin ixtea; izan ere, lege horren eragina zentro espezifikoetara eta Lanbide Heziketaren egitura berri batera eta curriculum-aldaketetara iritsi baitzen. Hala, egokiagoa iruditzen zaigu lege-esparruetako erreferentziak erabiltzea etapak bereizteko.

Bigarren zikloak (1997-2003) «erakundeen artikulazioa» du izena. Haren ezaugarriak hauek dira: Lanbide Heziketako Lehen Euskal Plana (1997), kualifikazioen sistema integratua, kalitate-sistema, Lanbide Heziketaren inguruko instituzioak eta finantziazioa. Beraz, *normalizazio insti-*

*tzional*eko prozesu bat da, instituzioen eta baliabide ekonomikoen multzo bat martxan jartzen den prozesu bat. Instituzio eta baliabide horiek aldi oso bat markatzen dute, laurogeita hamarreko hamarkadan jada sumatzen dena eta lurralde osoan ezartzeko lege organiko batean gauzatuko dena. Azkenik, 2004tik 2018ra bitarteko hirugarren zikloa dugu, «sistemaren helduaroa» izenekoa. Lanbide Heziketako Bigarren Euskal Plana du abiapuntu. Plan horren ezaugarriak hauek dira: berrikuntzaren aldeko apustu irmoa, Tknika sortzea, berrikuntza aplikatuko prozesuak, transferentzia eta nazioartekotze —eta jasangarritasun— helburuak. Beraz, *etengabeko berrikuntza*-prozesua da: planak bata bestearen atzetik gertatzen dira, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko erreferentzia-konstanteak eskaintzen dira. Beraz, egokia iruditzen zaigu hiru etapa horiek bereiztea, baina LOGSE legearen garrantzia nabarmentzen dugu, Lanbide Heziketan sartzeko eredu berri bat ezartzen baitu. Hiru etapen izenari dagokionez, ñabardurak egin daitezke, baina argi eta garbi adierazten dute bakoitzaren gakoa: 1980/1990, Lanbide Heziketaren sistemaren konfigurazioa; 1990/2004, normalizazio instituzionala, eta 2005/2018, prestakuntza-prozesuen berrikuntza.

Sarrera labur hau egin ondoren, liburuak dituen sei kapituluak deskribatuko ditugu. Lehen kapituluan, gure herrialdeko Lanbide Heziketak XIX. mendearen hasieratik gaur egun arte egin duen bide luzea aprobetxatuko dugu. Kapitulu hori baliagarria zaigu Lanbide Heziketaren jatorria, haren Arte eta Lanbide Eskolak eta hezkuntza mota horren inguruan garatu den lege-arkitektura ezagutzeko, hasi 1924ko Industria Irakaskuntzaren Estatututik eta 2013ko Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikora arte (LOMCE), hauetatik pasatuz: 1928ko Lanbide Heziketaren Estatutua, 1955eko Lanbide Heziketa Industrialari buruzko Legea, 1970eko Hezkuntza eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketaren Lege Orokorra, 1990eko Hezkuntza Sistemaren Lege Organiko Orokorra (LOGSE). Eta ez ditugu ahaztuko maila txikiagoko beste lege-xedapen batzuk, haien guztien artean sortu baitute Lanbide Heziketa izeneko «eraikin» handi hau, Euskal Eskola Publikoaren Legearekin (1993) eta 2018ko Lanbide Heziketaren Legearekin batera.

Bigarren kapitulua Lanbide Heziketako euskal planei buruzkoa da: hasierako «Lanbidez» planetik IV. planera arte, «LH desberdin baterantz». «Tradiziotik berrikuntzarantz» eta «LH berria, herri-marka» —II. eta III. planak, hurrenez hurren— orobat aztertuko dira azterlan honetan, eta, amaitzeko, «Lanbide Heziketa 4. industria-iraultzaren arloan» V. Planari buruzko aipamen labur batzuk egingo dira. Plan horren ezarpen-aldia 2018/2021 laurtekoa izango da. Kapitulu horretan, Administrazio publikoak erabakiak hartzearen garrantzia nabarmentzen da; gainera, Administrazio publikoak aktiboki hartzen du parte Lanbide Heziketaren inguruko eragile guztiak biltzen dituen dimentsio estrategiko baten diseinuan.

Berrikuntza izango da hirugarren kapituluaren ardatza, eta lau parte nabarmen bereiziko ditu. Lehen partea, nagusiki, berrikuntzan eta erakunde instituzionalen eta Lanbide Heziketako ikastetxeen sorkuntzan ardaztu da, Tknikak berrikuntza —eta ikerketa— zentro gisa duen funtsezko eginkizuna ahaztu gabe. Bigarren partean, prestakuntza duala, irakasleen etengabeko prestakuntza eta «kalitatearen kudeaketaren» bilakaera sartzen dira. Hirugarrenean, analisi garrantzitsu bat egiten da Lanbide Heziketaren arloko ekintzailetzari eta sormenari buruz. Eta azken atala euskal Lanbide Heziketak azken urteotan izan duen nazioartekotze-prozesuari buruzkoa da. Aurreko kapitulu hori hertsiki lotuta dago laugarren kapituluarekin, enpresaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremanari buruzkoarekin. Harreman hori «komenentziako ezkontza» bat izan da historikoki, eta ia ezin hobeto funtzionatu du. Ikusiko dugu enpresak ez ezik Administrazioa ere izan dela lan-arloko hezkuntza-sare horren parte.

Bosgarren kapituluak Lanbide Heziketako ikastetxeen bilakaeraren irudi bat ematen digu: zenbait arrazoiren arabera nola sortu, eraldatu edo desagertu diren erakusten digu. Amaitzeko, gaur egun Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu deritzenen errepaso historiko labur bat egingo dugu, eta, bide batez, ikusiko dugu zer prestakuntza mota eskaintzen duten gaur egun. Lanaren azken ondorioak azalduko ditugu azken kapituluan; haren aurretik, dena dela, euskal Lanbide Heziketaren beste ibilbide historiko bat egingo dugu, baina, kasu honetan, azterketa kuantitatibo hutsa eginez, mapa, grafiko eta taula ugarirekin, aditzera emateko nola garatu den hezkuntza-eredu hori 1970etik gaur egun arte. Datu horiek hainbat gairi buruzkoak izango dira. Adibidez, Lanbide Heziketa ikasi duten ikasleen kopurua Batxilergoa ikasi dutenekiko, ikasleek historikoki aukeratu dituzten Adar eta Familiak, ikasketak zein hizkuntzatan egin dituzten, euskaraz edo gaztelaniaz, ikasle horiek ikasketak bukatutakoan zer enplegu-indize duten, etab.

Amaitu aurretik, bi kontu. Ikerlan hau egiteko, hainbat artxibo eta liburutegitatik datozen informazio —eta dokumentazio— iturri askotara jo dugu, baina, batez ere, Lanbide Heziketaren historiaren oso etapa berria denez, testigantza pertsonal ugari izan ditugu, Lanbide Heziketaren hainbat esparrutatik ikuspuntu eta esperientzia pertsonalak eman dizkigutenak, dela kudeaketatik, dela ikerketatik edo berrikuntzatik, dela ikastetxeetatik edo enpresetatik. Era berean, entitate laguntzaile ugari izan ditugu, hala nola instituzioak, erakundeak, ikastetxeak eta enpresak, lan hau egiteko laguntza eman dutenak. Eskerrik asko guztioi parte hartzeagatik, laguntza eta lankidetzagatik. Azkenik, ohar bat egin nahi dugu izendapenei buruz. Ikusiko da lanean zehar Euskal Herriaren lurralde-errealitateari eta haren administrazio-banaketari buruzko izendapen desberdinak erabili direla, eta Euskal Herria, Euskadi, Euskal

Autonomia Erkidegoa edo Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa aipatu direla, jakinik lurralde-errealitate berari buruz ari garela. Bestalde, oinoharretako aipuei dagokienez, kontuan izanik liburu hau obra nagusiaren laburpena dela, adierazgarrienak iruditzen zaizkigunak aipatzea aukeratu dugu; zabalik dago beti jatorrizko obrara jotzeko aukera edozein kontsulta egiteko, hots, «El modelo vasco de Formación Profesional, claves de su reciente evolución», UPV/EHU-k argitaratua.

Donostian, 2020ko martxoan.

I. Kapitulua
Euskal Lanbide Heziketaren aurrekariak eta lege-testuingurua

PAULÍ DÁVILA BALSERA eta HILARIO MURUA CARTÓN

Lanbide Heziketaren bilakaerak ibilbide luzea du Erdi Arotik gaur egun arte. Dena dela, modernizazio —eta industrializazio— prozesua abiatu zenean hasi zen ezaugarri definitzaile garaikideak hartzen —alegia, duela ehun eta berrogeita hamar bat urte, ez gehiago— , hau da, gaur egun eragileak, instituzioak, tokiko eta lurraldeko politikak edo berrikuntza identifikatzen laguntzen duten ezaugarriak hartzen. Hasieratik gaur egun arte, konstante bat nabari daiteke denbora horretan guztian: Lanbide Heziketa euskal gizartearen premia ekonomiko, sozial eta hezkuntzakoetara egokitzea.

XX. mendean, hezkuntza-sistema nazionalak eraikitzeko prozesua sendotuz joan zen Europan, jakina denez, eta hezkuntza-mailak finkatuz joan ziren: haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta goimailako hezkuntza. Arkitektura horretan —eta, Espainiako kasuari dagokionez, XX. mendea oso aurreratua zihoan arte egon zen indarrean—, Lanbide Heziketak sistemaren ertzetan irauten zuen nola edo hala. XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkada iritsi arte —eta nabarmenago hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera— ez zen sartu Lanbide Heziketa hezkuntza-sistema formalaren barruan. Modalitate berezi bat izan zen; izan ere, titulazio akademikoez gainera, hezkuntza-sistemaren ertzetan zeuden beste lanbide-prestakuntza batzuk ere lor zitezkeen, hala nola etengabeko prestakuntza.

Hala ere, Estatua hainbeste denboran inhibituta egoteak beste hezkuntza-ekimen batzuk sortzea ekarri zuen, hala nola zenbait eragileren esku-hartzea; adibidez, eliza-erakundeena, udalena, aldundiena eta enpresena. Aldi berean, herrialdearen beharretara egokitutako zenbait curriculum-proposamen berri sortu ziren, eta, denborarekin, Lanbide Heziketaren arrakastarako erabakigarriak izan ziren, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan. Testuinguru horretan, nabarmendu beharrekoa da Arte eta Lanbide Eskolek XIX. mendean eta, hein handi batean, XX. mendean izan zuten funtzioa, 1955ean Lanbide Heziketa Industrialari buruzko Legea

indarrean sartu zen arte. Frankismoan, Estatuak abandonatuta eduki zuen Lanbide Heziketa, eta, horren ondorioz, lehen aipatutako eragileek esku hartu zuten Lanbide Heziketan. Egoera horrek agerian uzten du jada aurrekari horietan aurkitzen ditugula gaur egungo Lanbide Heziketaren oinarriak ezarri zituzten proposamenak. Euskal Autonomia Erkidegoa sortuz geroztik, arlo horri buruzko deliberamenduak erabakigarriak izan ziren.

1.1. **Arte eta Lanbide Eskoletatik frankismoaren garaiko Lanbide Heziketara**

Lanbide Heziketaren jatorriaz eta bilakaeraz aritzean, oraindik orain zenbait autorek leku komun batera jotzen dute (Brunet i Icart, Moral Martín, 2017): Mendebaldeko Europako Erdi Arora, non gremioek produkzioaren eta gizarte-antolamenduaren erritmoak markatzen baitzituzten bizitzaren arlo guztietan, hasi produkzio materialetik eta produkzio artistikoraino, edo, bestela esanda, ontziak edo katedralak egitetik unibertsitateraino. Gremio-eredu horrek XIX. mendearen lehen herenera arte iraun zuen. Euskadiri dagokionez, ezin dugu ahaztu XVIII. mendean Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak (RSBAP) egin zuen ekarpen nagusia (Recarte, 1990): erreforma batzuk egin zituen nekazaritza —eta industria— sarean, Europako ilustratuek aldezten zituzten ekarpenen ildoan. Irakaskuntza erabilgarriak ilustratuen diskurtsoan sartzen hasi ziren; hala, herritarrei zuzendutako kalitatezko Lanbide Heziketa ezinbesteko elementua zen Estatuaren zoriontasuna lortzeko.

Egoera horrek hala iraun bazuen ere, Espainian eta Euskadin, XIX. mendearen hasieratik, eta Frantziako Iraultzari esker, irakaskuntza liberalaren sistema eraikitzen hasi zen, uniformetasuna, derrigortasuna eta doakotasuna defendatzen zituen eredu frantsesaren gisara.

Hala ere, hezkuntza-sistema hori ez zen berehala ezarri, eta 1857 arte, Moyano Legea delakoarekin, ez zen behin betiko moduan antolatu. Lege hori 1970era arte egon zen indarrean. Hala ere, Lanbide Heziketak hezkuntza-sistematik kanpo jarraitu zuen. Eskolaldiak hiru urte irauten zuen, eta laneratzeko adina 10 urte zen. Urteak igaro ahala, Moyano Legeak hainbat erreforma izan zituen eskolatze-urteen gainean —1901ean, 9 urteko adinetik 12 urteko adinera igo zen— edo curriculumaren gainean (Puelles, 1980). Hezkuntza-sistema hori bat zetorren Espainiako XIX. eta XX. mendeetako errealitate ekonomiko eta sozialarekin.

Garai hartan, Euskadiko ekonomian industriaren bultzada hasi zen, eta, berarekin batera, industrializazio —eta modernizazio— prozesu bat abiatu zen. Hala, XIX. mendearen bigarren erditik aurrera, batez

ere 1876tik aurrera, urte horretan foruak galdu eta 1878an Ekonomia Ituna abian jarri ondoren, bultzada bat eman zitzaion Lanbide Heziketari, Arte eta Lanbide Eskolen bidez. Ekimen horrek garrantzi berezia izan zuen Euskadin. Esan dezakegu eskola horien sorrerarekin hazia jarri zela eta sustraiak hazi zirela, jatorria izan zirela Lanbide Heziketaren bilakaera eta gaur egun duen arrakasta azaltzeko. Lehenik, Bizkaia eta Gipuzkoa erritmo bizian industrializatzen ari ziren garaian sortu zirelako. Industrializazioa, izan ere, herrialdearen modernizazioaren eragilea izan zen, eta bizitza sozial, politiko eta kulturaleko beste esparru batzuei eragin zien. Bigarrenik, industria-ekoizpenarekin zerikusia duten zenbait eragileren parte-hartzea nabaritzen hasi zelako. Eragile horiek Lanbide Heziketari bide eman zioten, eta etorkizunean jarraitu beharreko ildoak markatu zituzten: foru-aldundien eta udalen laguntza —eta finantziazio— politikak, enpresen inplikazioa eta eskaria, eta Lanbide Heziketaren ikasteko malgutasuna; eta, hirugarrenik, ikastetxeen prestasuna eta lankidetza Lanbide Heziketa tokiko gizartearen beharretara egokitzeko (Dávila, 1997). Hiru elementu horiek XIX. mendearen amaieran hasi ziren nabaritzen Bizkaiko eta Gipuzkoako probintzietan, eta esan genezake etorkizunean Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketa izango zenaren hazia direla; izan ere, Estatuaren parte-hartze urria funtsezko elementua izan zen tokiko ekonomia, gizarte —eta hezkuntza— premietara egokituko zen prestakuntza-sistema bat eratzeko. Beraz, aurrekari horietan bilatu behar dira euskal LHren eredua definitzen duten ezaugarriak.

Euskadiko Arte eta Lanbide Eskolak 1879an eta 1880an sortu ziren, Bilbon eta Donostian, hurrenez hurren, eta modernizazio ekonomiko eta sozialeko garai batean Lanbide Heziketa herri baten tokian tokiko eta ekonomiako beharretara egokitzearen adibide dira (Castells, 1987). Bi eskola garrantzitsu horietaz gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko herri industrializatuenetan Lanbide Heziketako zenbait prestakuntza-eskola sortu ziren. Eskola horiek ere Arte eta Lanbide Eskola izendatzen zuten beren burua, eta tokian tokiko udalek eta aldundiek mantentzen zituzten, haiek arduratzen baitziren irakasleei ordaintzeaz eta tokiko industriari curriculum egokia eskaintzeaz. Eskola horien banaketa eskualde bakoitzeko herrien industriaren eta merkataritzaren garapen-mailari dagokio. Bizkaian, Bilboko Ezkerraldearen inguruan, eta Gipuzkoan, lurralde osoan. Halaber, emakumeei Lanbide Heziketan sartzeko aukera eman zien. Garai hartako hezkuntza-legeriatik kanpo garatuz joan zen erantzun bat izan zen, zeren eta 1924ra arte ez baitzen izan Espainian Lanbide Heziketari buruzko Legerik.

Bilboko Arte eta Lanbide Eskolaren lehen berrogeita hamar urteetan, 56.314 gizonezko eta 41.786 emakumezko matrikulatu ziren, hau da, 98.100 ikasle guztira. Curriculumari dagokionez, Bilbon eta Donos-

tian izan ezik, non industria, arte eta merkataritza irakaskuntzak curriculum profesional osoa baitzuen, herrietako eskola gehienek goi-mailako eta lehen mailako eskolen sare eskasa osatzeko balio izan zuten. Arte eta Lanbide Eskoletako curriculuma, funtsean, alfabetatze grafiko bat besterik ez zen. Matrikulatutako ikasle gehienek Geometria eta Marrazketa irakasgaiak ikasten zituzten, modalitate guztietan, Aritmetikaz gainera. Hala, lanbide-irakaskuntzak hezkuntza-sistemaren gabezia nabari bat betetzen zuen, sistema ez baitzegoen oso egituratuta garai hartan lehen hezkuntzaren ondorengo mailetan, bigarren hezkuntza alde batera utzita, azken horrek beste ikasle mota batzuk hartzen baitzituen eta lanbidea ez zen beste helburu batzuk baitzituen.

Arte eta Lanbide Eskola horiek garatzen jarraitu zuten I. Mundu Gerraren ondoren Euskadin izan zen hazkunde ekonomikoaren testuinguruan. Urte horietan, matrikularen igoera eta eskola horien ospea nabari dira, sortzen ari ziren lanbide aldakorretara egokitutako curriculuma eskaintzen baitzuten. Urte horietarako, Lanbide Heziketak bazuen nolabaiteko egonkortasuna eta normalizazioa Euskadin, eta eskaintzen zuen lanbide-prestakuntzak eskari handia zuen ikasleen eta enpresen artean (Dávila, Naya, eta Murua, 2014). Une hartan, enpresek, udalek, foru-aldundiek (Lozano, 2008) eta kongregazio erlijioso batzuek —salestarrak eta salletarrak— lankidetza-prozesu batean jardun zuten (Dávila, Naya eta Murua, 2009).

Bestalde, Estatua, Primo de Riveraren 1923ko kolpe militarraren ondoren, Lanbide Heziketari buruzko legeak egiten hasi zen. Denbora-tarte labur batean, Industria Irakaskuntzaren Estatutua (1924) eta Lanbide Heziketaren Estatutua (1928) onartu ziren. Biek «langileen lanbide-heziketaren arloan Estatuaren esku-hartze handiko etapa berri bat ezarri zuten» (Rico, 2012), gero eta nabarmenagoa baitzen lan-merkatuaren beharretara egokituko zen eskulan kualifikatuaren beharra. Industria Irakaskuntzaren Estatutua indarrean sartu zenean, erantzukizuna Lan, Merkataritza eta Industriako ministerioen mende gelditu zen. Dena dela, hiruretatik nagusia azkena izan zen. Haren mende zegoen Industriako Goi Batzordea, «Aprendizgo Eskolak edo Oinarrizko Lan Eskolak», «Hobekuntza edo Industria Eskolak» eta «Industria Ingeniaritzako Eskolak» kontrolatzeaz arduratzen zena. Ikasle gutxik jo zuten irakaskuntza-eredu horretara: 1930ean, «Espainiak Lanbide Heziketa Industrialeko 189 eskola zituen, eta industria-peritajeko 27 eskola; guztira, 36.893 ikasle zituzten, haietatik 5.885 peritajekoak. Garai berean, Frantzian hamar aldiz handiagoak ziren industria-perituen heziketari buruzko adierazle horiek: 272 eskola eta 54.550 ikasle» (Rico, 2012).

Hala, Primo de Riveraren legeriak 1955eko legera arte indarrean egon ziren hiru zutabeak ezarri zituen: lehenengoa, heziketa teknikoa eta indus-

triala uniformizatzea eta zentralizatzea Lan Ministerioaren kontrolpean, sortzen ari ziren alternatiba partikularren aurrean; bigarrena, langileen heziketa, tailer egokietan, zentzu praktiko eta teknikoarekin; eta, hirugarrena, heziketa-gune berri bat sortzea, «Lan-eskolak» deiturikoak, ordura arteko Arte eta Lanbide Eskoletatik urrun. Hala ere, Estatuaren esku-hartze hori, estatu korporatiboaren berezkoa, ez zen gai izan proiektu jasangarri bat antolatzeko, eta Lanbide Heziketa, ordura arte bezala, ekimen partikularraren esku utzi zuen.

1924 eta 1928ko bi lege-xedapen horiek argitaratu bitartean, 1926an, SEV-EI Sociedad de Estudios Vascos/Eusko Ikaskuntzaren IV. Kongresua egin zen, eta Lanbide Heziketan jarri zuen arreta (Eusko Ikaskuntza, 1926). Gai hori aukeratzea izan zen EIren antolatzaileek aurkitu zuten azken baliabidea, gutxien gatazkatsua baitzen, euskal hizkuntzari eta kulturari buruzko gaiak jorratzeko nahiaren kontra, ordura arte egin ohi zuten bezala. Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan egindako Erakusketan, Euskadiko Lanbide Heziketaren arloko zenbait erakunde, instituzio eta eskolak hartu zuten parte.

Bigarren Errepublikaren aldarrikapenak aldaketa aipagarri bat ekarri zuen: ordura arte Lan eta Aurreikuspen Ministerioari atxikita zegoen lanbide-prestakuntza eta -hobekuntza Irakaskuntza Publikoko Ministerioari esleitu zitzaion. Primo de Riveraren garaiko estatutuen ondorioz sortutako Oinarrizko Lan Eskolak 59 izatera iritsi ziren 1936an, eta Espainia osoan banatuta egon ziren, baina batez ere herri garrantzitsuetan eta probintzia-hiriburuetan. Euskadiri dagokionez, horrelako eskolak zeuden Bilbon, Eibarren, Donostian eta Bergaran (Novo, 1933). Eskola horiek «Lanbide Heziketa Arautuko Sistemaren» hasikina izan zitezkeen, baina asmoa porrot bat izan zen, Estatuaren esku-hartzea oso txikia izan baitzen, eta marjinala izan zen hezkuntza-sisteman. Horren ondorioz, egoera horrek «iraun egin zuen harik eta, 1963tik aurrera, 1955eko Lanbide Heziketaren Legea ezarri arte» (Viñao, 2004).

Hala ere, Gerra Zibila amaitu ondoren, Francoren agintaldiaren hasieran Lanbide Heziketa Irakaskuntza Publikoko Ministerioaren mende egoteari utzi eta Lan Ministeriora itzuli zen; hala, 1924ko Industria Irakaskuntzaren Estatutuaren oinarriak berreskuratu ziren: industria-prestakuntza teknikoa Lan Ministerioaren mende uniformizatzea eta zentralizatzea, langile-prestakuntza tailer egokietan egitea zentzu tekniko eta praktikoarekin, eta Lan Eskola batzuk sortzen jarraitzea, eskola horiei kasu handirik egin ez bazitzaien ere.

Frankismoak ez zuen joera handirik izan estatuak Lanbide Heziketan esku har zezan. Dena dela, hezkuntza-legediak zenbait lege-mugarri izan zituen aldi horretan; aipagarrienak Lanbide Heziketa Industrialari buruzko 1955eko Legea eta 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra izan zi-

ren; azken horrek aldaketa bat ekarri zuen Lanbide Heziketa hezkuntza-sistema formalean kokatzeari dagokionez (Echeverría, 1993). Lanbide Heziketak prozesu horretan guztian izan zuen egoerak arazo bera planteatzen du berriro: irakaskuntza ertainak eta lanbide-ikasketak bereiztea. Frankismoaren lehen aldian Lan Batxilergoari buruz izandako interesak erakusten du ez zegoela Lanbide Heziketari buruzko politika argirik. Era berean, garai bakoitzean hezkuntza-sistemaren bilakaeran lagundu zuten familia politikoen eraginez, Hezkuntza Ministerioa kontrolatzen zuten talde politikoek ez zuten jarraitu Lanbide Heziketa zuzentzen; beraz, Lanbide Heziketak gero eta erlazio handiagoa izan zuen Falangearen Erakunde Sindikalarekin eta, jakina, Lan Ministerioaren mende egotearekin. Egoera hori argitzen hasi zen 1955ean, baina, hala ere, 1970era arte ez zen argi azaldu Lanbide Heziketa, legez, Hezkuntza Ministerioaren mende zegoela. Alde horretatik, esan daiteke «Estatuaren erabaki gabeko esku-hartzearen» aldi batetik «Estatuaren esku-hartzearen» aldi baterako iragate bat izan zela, aldi hartan zenbait tresna eta lanbide-prestakuntzaren eremuko erakunde batzuk sortzearen ondorioz (Rodríguez Herrero, 1997).

Lanbide Heziketa ez zen ukitu 1949ra arte. Urte horretan sartu zen indarrean Irakaskuntza Ertainaren eta Lanbide Irakaskuntzaren Oinarriei buruzko Legea. Honela laburbiltzen ziren haren helburuak: Irakaskuntza Ertaina ahalik eta ikasle gehienengana eramatea, ikasleak abiaraztea lanbide-teknika modernoaren praktiketan eta ikasleak gaitzea Eskola eta Zentro Teknikoetan sartzeko. Hala ere, horren ordez, irakaskuntza ertainak hiru ikasle taldetan banatzea lortu zen: «Oinarrizko Batxilergoa» egiten zutenak, «Lan Batxilergoa» ikasten zutenak eta «Unibertsitate Batxilergoa» egiten zutenak. Lan Batxilergoak arrakasta eskasa izan zuen hasieratik; 1955/56 ikasturtean, 91 Lan Institutu zeuden Espainian (Ikasketa Sindikalen Zentroa, 1958). Azken batean, oso asmo apaleko proposamena izan zen Lanbide Heziketak behar zuenerako. Lan Institutuekin estu lotuta, Lan Unibertsitateak sortu ziren, Falangearen kontrolpean (Lan Ministerioa, 1959). 91 ikastetxe horietatik, sei Euskadin zeuden.

1955ean Lanbide Heziketa Industrialari buruzko Legea onartu zen, baina ez zuen lortu bere hasierako helburuak betetzea; esan daiteke 1928ko Lanbide Heziketaren Estatutua berregokitzea zela. Hala ere, Lanbide Heziketa hezkuntzaren esparruan kokatzea lortu zuen; hala, formaltasun handiagoa eman zion. Lege horren hitzaurrean, orduko gobernu-agintarien ezinegona eta aurre egin beharreko arazoak ageri ziren: «Industria gero eta garatuago zegoen, eta lan-arloko legeria soziala hobetzen ari zen, baina teknika modernoaren eskakizun ugariei erantzuteko gai zen eskulanaren eskasia zegoen» (Melendo, 1962). Le-

gea abian jartzeko ahaleginak egin arren, berandu aplikatu zen; izan ere, 1963ra arte ez ziren onartu ikasketa-planak. Dena dela, dena ez zen negatiboa izan, Lanbide Heziketako irakaskuntzak harrezkero izango zituen hiru etapak ezarri baitziren: Aprendizgoaurrea, Aprendizgoa eta Maisutza; azkenekora sartzeko, 18 urte eduki behar ziren gutxienez. Lege horren bidez ezarri zen, halaber, «Ikastetxe Ofizialen» (Estatuaren mendekoen) eta «Ikastetxe Ez-ofizialen» (pribatuen) arteko aldea, eta azken horiek, bestalde, «Baimenduen» eta «Aitortuen» artean banatu ziren. 1955ean, era horretako 141 ikastetxe zeuden Espainian, honela banatuta:

1. Taula

Ikastetxe motak Lanbide Heziketako graduaren arabera Espainian 1955ean

LH-ko ikastetxeak	Aprendizgoa	Maisutza	Guztira
Ez-ofizialak	34	13	47
Ofizialak	39	55	94
Guztira	73	68	141

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Ikasketa Sindikalen Zentroa (1958).

Bestalde, 1955eko Lanbide Heziketa Industrialaren Legeak bide eman zuen eragileak dibertsifikatzeko eta instituzio batzuekin lotzeko. Euskadiri dagokionez, ikastetxeak lege horren arabera nola birkalifikatu ziren adierazten da 2. taulan, eta instituzioen eta eragile sustatzaileen ugaritasuna erakusten (Estatua, Aldundiak, Udalak, Eliza eta Enpresak), baita banaketa geografikoa ere. Ikastetxeak berriro birkalifikatu ziren LOGSE indarrean sartu zenean:

2. Taula

Lanbide Heziketako ikastetxeen birkalifikazioa, ikastetxe kopurua eta kokalekua, 1955eko legearen arabera

Birkalifikazioa	Espainia	Euskadi	Herria
Lan Eskolatik Maisutza Eskolara	40	2	Donostia (Estatua) Bilbao (Estatua)
Lanbide Heziketako Eskola Ofizialetik Maisutza Eskolara	6	2	Baracaldo (Estatua) Éibar (Estatua)
Lanbide Orientaziotik eta Aprendizgotik Aprendizgo Eskolara	18	2	Bilbao (Estatua) Tolosa (Estatua)
Aurrerantzean Maisutza Eskolatzat hartuko dira	13	3	Gasteizko Jesús Obrero, Jesusen Lagundikoa (Eliza) Arrasateko Lanbide Eskola (Administrazioa) Deustuko Salestar Lanbide Eskola (Eliza)
Aurrerantzean Aprendizgo Eskolatzat hartuko dira	22	7	Amurrioko Salbatore Eskolak (Enpresa) Gasteizko Ekintza Katolikoko Aprendizgo Eskolak (Eliza) Hernaniko Lanbide Eskola (Administrazioa) Donostiako San Ignazio Langile Institutua (Eliza) Zarauzko Lanbide Eskola (Eliza) Durangoko San Josef Lanbide Eskolak (Eliza) Indautxuko Kimikako Aprendizgo Eskolak (Eliza)
Enpresen Prestakuntza Eskolatik Aprendizgo Eskolara	12	3	Arrasateko Unión Cerrajera (Enpresa) Sestaoko Bizkaiko Labe Garaiak (Enpresa) Sestaoko Sociedad Española de Construcción Naval (Enpresa)
GUZTIRA	111	19	130

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Ikasketa Sindikalen Zentroa (1958).

Oro har, 1955eko Lege horrek oso harrera ona izan zuen; izan ere,«ikuspuntu praktiko baino gehiago teoriko batetik, lege ona ez baizik eta oso ona izan zen, noiz promulgatu zen kontuan hartuta. Ikuspuntu kualitatibotik, ofizial eta industria-maisu onak lortu ziren» (Martínez Usarralde, 2002). 1966/67 ikasturtean, ikasle kopurua 125.577ra iritsi zen; 1955ean, berriz, 41.197 zen. Urte haietan, Enplegu eta Gizarte Sustapeneko Zuzendaritza Nagusian ikastaroen, ikastetxeen eta prestakuntzarako bekak jasotzen zituzten pertsonen jarraipen zorrotza egiten zen (Lan Ministerioaren Artxiboa, 1965). Gainera, Langileen Sustapen Profesionalerako Plan Nazionala (PPO) ere martxan jarri zen 1964an. Plan hori Lan

Ministerioaren mende zegoen, eta Armadaren parte-hartzea ere izan zuen. Armadak, bere ikastaro eta dirulaguntzekin, laguntza eman zuen langileak sektore ez hain produktiboetan prestatzen (Fernández de Pedro eta González de la Fuente, 1975). Beste ekimen bat Prestakuntza Ekintzaren Zerbitzua (SAF) sortzea izan zen, 1973an, Lan Ministerioan. Zerbitzu horrek PPO planaren funtzioak hartu zituen, eta 1978an sortutako Enplegu Institutu Nazionalaren (INEM) aurreko erakundea izan zen.

Lanbide Heziketa Industrialaren Legearen xedea azaldutako egoera hobetzea izan zen, esan dugun bezala, eta Espainiako lanbide-heziketaren eta prestakuntza teknikoaren egoera kritikoa aldatzen ahalegintzea. Horretarako, lege berriak enpresa pribatuen, Elizaren erakundeen eta OSE Espainiako Erakunde Sindikalaren arteko lankidetza bilatu zuen. Hau da, lehen aldiz onartu zen Hezkuntza Ministerioak zuela eskumena Lanbide Heziketa koordinatzeko eta zuzentzeko. 141 ikastetxe horietan biztanleria osoaren % 1,66 zegoen. Alemanian, berriz, % 37,82, Austrian, % 14,88, eta Herbehereetan, % 13,34, Unescok 1952/53 ikasturterako emandako datuen arabera. Kopuru horiek hutsalak ziren, baina kezkagarriagoak ziren ikasketak amaitu zituzten ikasleen datuak: Lan Eskoletan matrikulatutako 19.695 ikasleetatik, 1.406k bakarrik amaitu zituzten ikasketak 1954/55 ikasturtean.

Hala ere, erakunde sindikalaren kontrolpean zegoen Lanbide Heziketak hazten jarraitu zuen. Datu orokorrak Lanbide Heziketa Industrialean ziharduten 71 ikastetxeri buruzkoak dira, 15.142 ikasle guztira. Ikastetxe horietatik lau Gipuzkoan zeuden; Bizkaiak hiru zentro izan zituen. 1970ean, erakunde sindikalak bere ikastetxeei eusten zien oraindik, eta beste 6 ere ireki zituen; guztira, kontrolpean 13 ikastetxe izatera iritsi zen (Murua, 2015). Elizaren mendeko ikastetxeak dira gehienak eta ikasle gehien hartzen dituztenak. Horrek adierazten du enpresek eta Estatuak berak bazter utzi zutela Lanbide Heziketa, eta erlijio-ordena eta -kongregazioek, berriz, interesa zutela hezkuntzaren esparru horretan.

Frankismoan, Lanbide Heziketari buruzko azken lege-mugarria 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra (LGE) izan zen, baina ez zen izan Lanbide Heziketak behar zuen pizgarria. Lege horrek balio izan zuen ikasleek 14 urte bete arte hezkuntza-sisteman jarrai zezaten, ezin baitziren sartu lan-munduan. Egoera hori konpontzeko, Lanbide Heziketako hiru maila ezarri zituen Legeak: 1. mailako LH —beren espediente akademikoagatik Batxilergo Bateratu Balioaniztunean (BBB) sartu ezin ziren ikasle gehienak han sartzen ziren—, 2. mailako LH —hara iristen ziren gehienek 1. mailako LH egina zuten, eta gaitasun profesional jakin eta kualifikatu batzuk hartzeko balio zuen—, eta LHko 3. maila —ez zen sekula abiatu, eta benetako porrota izan zen—. Nolanahi ere, eta hezkuntza-eredu horretako ikasle kopurua handitu bazen ere, 1969/70 ikasturtean —Hezkun-

tza Lege Orokorraren hasieran— izan zuen ikasle kopurua, 150.997, oso urruti dago urte horietan Batxilergo Orokorrak izan zuen ikasle kopurutik, 328.010 eta 1.371.078 (Viñao, 2004). Alde horretatik, Hezkuntza Lege Orokorrak, garaiko testuinguru garapenzalean, giza kapitalaren teorien defentsaren eta teknokraziaren inperioaren garaian, hezkuntza-sistema osoa batera hartzea lortu zuen, Lehen Hezkuntza bateratu eta Oinarrizko Batxilergoa ezabatu baitzuen 14 urte arteko eskolatze bakarra ezarrita; hala, irizpide horiekin, Lanbide Heziketa hezkuntza-sisteman txertatu zuen.

Testuinguru horretan, eta garai hartako soziologoek nabarmendu zuten moduan —eta hala egiaztatu da geroago egindako azterketetan—, hautespen soziala nabaria zen. Izan ere, goi-mailako gizarte-klaseko ikasleek Batxilergoa egiten zuten; Lanbide Heziketako ikasleak, berriz, gutxitan ziren goi-mailako klasekoak, eta horrek, aldi berean, autokontzeptu hobeko edo interes txikiagoko portaera psikosozialak eragiten zituen, hurrenez hurren, eta, ondorioz, eskola-porrot handiagoa (Ovejero, Gracia eta Fernández, 1994). Dena dela, 1970eko Legearen lorpen nagusia Lanbide Heziketa Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan sartzea izan zen. Berrikuntza horrek Lanbide Heziketako ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua ere aldatu zituen. Legeak izendapen-aldaketak ere ekarri zituen. Aurreko etapan Ikastetxe Ofizial eta Ikastetxe Ez-ofizial izendapenak erabili ziren; hurrengo etapan, berriz, Ikastetxe Estatal eta Ikastetxe Ez-estatal izendatu ziren.

Hala ere, Hezkuntza Lege Orokorraren ontasunari buruz emandako iritzi guztiak ez dira berdinak, ez lantze-prozesuari dagokionez, ez ondorengo gauzatzeari dagokionez. Hala, zenbait autorek diote hezkuntza-kontrarreforma bat izan zela (Viñao, 2004), 1972ko krisi ekonomikoagatik ez ezik, frankismoaren azken urteetako ministro-aldaketengatik ere, aldaketek kontrarreforma hori erraztu zutelako; izan ere, «legearen aplikazioak gatazka korporatibo handiak sortu zituen, eta, beheragoko graduetan, agerian utzi zuen zaila zela lanbide-ikasketak hezkuntza-sistema formalean txertatzea eskola moduan eta enpresa-mundutik at» (Viñao, 2004). Hezkuntza-kontrarreforma horren giltzarria 1974ko martxoko Lanbide Heziketaren lege-antolamenduari buruzko 995/74 Dekretuan aurkitu daiteke. Dekretu horrek nabarmen aldatu zuen Lanbide Heziketaren izaera hezkuntza-sistemaren barruan, mailak eta haien arteko sarbideak hutsaldu baitzituen. Hezkuntza Lege Orokorraren pixkanakako aplikazioa 1975/76 ikasturtera arte iritsi zen.

1.2. **Lanbide Heziketa autonomia-esparruan**

Francisco Franco diktadorearen heriotzak, 1975ean, hasiera eman zion formalki trantsizio demokratiko deritzonari, eta aldi hori 1982an amaitu

zela jotzen da, hitzarmenez, alderdi sozialistak (PSOE) hauteskundeak irabazi zituenean. Trantsizio horrek zenbait elementu izan zituen, eguneroko bizitzako arlo guztietan eragina izan zutenak. Erregimen autoritario batetik erregimen demokratiko batera igarotzea, gerora, adostasun politikoaren adibide gisa aurkeztu da, adieraziz ezen, batez ere 1978ko Konstituzioarekin —Euskadin ez zuen izan gehiengoaren aldeko botoa—, interes demokratiko guztiak biltzea lortu zela. Garai hartako leloak oso ezagunak ziren; irudiz, mundu berri bat sortu zuten, non askatasuna, amnistia eta autonomia-estatutuak baitziren konstituzio-erreferendumaren aurretik jasotako eskaera nagusiak. Euskal Autonomia Erkidegoan, 1979an, Gernikako Estatutua onetsi zen: erroldatuen % 58,5ek hartu zuten parte, eta, haietatik, herritarren % 90,27k aldeko botoa eman zuen.

Hezkuntzaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoari Gernikako Estatutuaren 16. artikuluan aitortzen zaizkio eskumenak. Artikulu horren arabera, Euskadik eskumena du irakaskuntzan, esparru osoan, maila eta gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, Estatuari erreserbatutako mugekin, hala nola goi-ikuskaritza. Aitortza hori Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legean mantendu zen. Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntza-sistemak erronka aipagarriak gainditu ditu hezkuntza-transferentzien hasieratik: hasi ikasleen eskolatze-mailatik eta hiru eskola-sareren iraupeneraino: publikoa, pribatua eta ikastolak —ikastolek publifikazio-prozesu bat jasan zuten, kasu askotan mingarria—. Horretaz gainera, eskola-ereduak ezarri dira, «D» ereduaren aldeko bilakaera progresiboarekin (euskara hutseko irakaskuntza), eta ikasleen eta irakasleen euskalduntze-prozesua gertatu da, berrikuntza pedagogikoaren defentsaz, hezkuntza-inklusioaz eta IKTen erabileraz gainera. Prozesu hori guztia 1980tik gaur egun arte gertatu da.

Era berean, autonomia-estatutua indarrean sartu eta handik pixka batera, irakaskuntza-zerbitzuak transferitu ziren; Hezkuntzari zegozkion transferentziak 1980ko abenduaren 29an gauzatu ziren, Francisco Tovar Mendoza Transferentzien Batzorde Mistoko idazkariaren oniritziarekin. Eskualdatutako zerbitzu eta erakunde horietatik, Lanbide Heziketari zegozkionak hauek izan ziren: ikastetxe publikoen titulartasuna; inbertsio-programen exekuzioa eta kontrola; planak, ikasketa-programak eta orientabide pedagogikoak prestatzea eta onartzea; testuliburuak eta gainerako material didaktikoak onartzea; ikastetxeak sortu, eraldatu, handitu, sailkatu eta ezabatzea; eta aurrekontu-kredituak.

Transferentzien testuinguru horretan eta garai hartan zabaldu zen egoera orokor berrian koka ditzakegu Lanbide Heziketa berria ekarri zuten aldaketak. Ziurgabetasun-garaia zen, baina baita erronkena ere, kalitatezko Lanbide Heziketari balioa emateko borondatearekin batera. Alde horretatik, garai hartako protagonista batzuek adierazten dute gogotsu aritu zirela

hezkuntza-egitura zaharrak aldatzen. Horretarako, hainbat proiektu antolatzeko gai izan zen Eusko Jaurlaritza bat behar izan zen, baina, batez ere, irakasleen belaunaldi berri bat, sinistu zuena Lanbide Heziketan aurrera egin zitekeela instituzioek eta enpresek laguntzen bazuten: «1980ko hamarkadan, Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak erabat jabetu ziren Lanbide Heziketaren estrategiak krisialditik ateratzeko zuen garrantziaz... Belaunaldi-aldaketa bat gertatu zen Lanbide Heziketako ikastetxeetan, oposizio batzuen bidez. Horren ondorioz, irakasleria gaztetu egin zen, eta zuzendarien eta zuzendaritza-taldeen belaunaldi berri bat sortu zen» (Mujika eta Intxausti, 2018). Ildo beretik mintzo da Mari Carmen Marín[1]; ikastetxeetan bizi izan zuen berak aldi hura, eta, gero, hezkuntza-erantzukizuneko postuak bete zituen. Urte batzuk geroago, 1983tik aurrera, Usurbilgo Lanbide Eskolak proiektu horietako bat abiaraztea lortu zuen; zehazki, enpresetan praktikak eginez gauzatu zena. Enpresa horietako lehena Lasarteko Michelin izan zen, 1986an, txandakako praktikak egiteko aukera eman zuen akordioa formalizatu zenean. Urte gutxiren buruan, egoera horretan 720 ikasle izatetik 7.765 izatera pasatu ziren 1990ean. Hezkuntza Sailak eta Confebaskek 1991n esparru-hitzarmen bat sinatu ondoren, egoera hori sendotu egin zen, eta 3.500 enpresa baino gehiago bildu zituen (Mujika eta Intxausti, 2018). Halaber, aldundiek, Gipuzkoakotik hasita, Hezilan planarekin, ikastetxeen ekipamendurako laguntza ekonomikoa eman zuten.

Bestalde, Euskal Kontseilu Nagusia eratuz geroztik abiatutako transferentzia-prozesu horren bidez, nolabaiteko normalizazio-aldi bat hasi zen, eta erregularizatu egin ziren Lanbide Heziketako ikastetxeetan aldi horretan egin ohi ziren praktikak. Hezkuntza-arloko zenbait erabaki politiko hartzeko garaia ere izan zen. Abian jarri zenetako batek izen hau zuen (1980ko urtarrilean): «Euskadiko Lanbide Heziketa aztertzeko proposamena. Gizarte-premien azterketa eta etorkizuneko aurreikuspenak. 1990eko horizontea». Euskal Kontseilu Nagusiko Hezkuntza Sailaren eskaera bat zen, eta garai hartako Lanbide Heziketaren egoerari buruzko informazio fidagarria lortu nahi zuen, beharrezko ekintzak planifikatzeko behar ziren erabakiak hartzeko. Azterketa hiru euskal lurraldeetan eta haien eskualde-banaketan oinarritzen zen, eta kontuan hartzen zituen prestakuntza-premiak, premia ekonomiko eta sozialen arabera. Azken txostenak 1982ko otsailetik 1983ko maiatzera bitartean egin ziren[2].

---

[1] Mari Carmen Marín, Donostian 2019ko ekainaren 20an egindako elkarrizketa

[2] Eskerrak eman nahi dizkiogu SIADECOko Juanjo Allur-i egindako txosten guztiak (11 liburuki) emateko prestasunagatik; izan ere, ezinbesteko iturri dira 80ko hamarkadako lehen urteetako Lanbide Heziketaren egoera eta prospektiba ezagutzeko, zaila baita etapa horretako hezkuntza-eredu horri buruzko informazioa lortzea.

Txosten horiek ematen duten informazioa honako hauei dagokie: egitura demografikoa, hezkuntza-maila bakoitzeko irakaskuntza-maila, itxaropen profesionalak eta 2000. urtera arteko hezkuntza-premien azterketa. Laburbilduz, eta SIADECOk emandako datuak ikusita, nabari da denboraldi horretan ikastetxe, ikasle eta irakasleen kopurua hazi zela, baina hazkunde horretan badira aldeak Hala, Arabak antzeko portzentajeak izan zituen hiru elementu horietan; Bizkaia, berriz, ikastetxetan hazi zen, eta jaitsi, berriz, ikasle eta irakasletan. Gipuzkoan, ordea, portzentajeak txikiagoak dira, baina Bizkaiaren profil berdina du ikasleen igoerari dagokionez, taula honetan ikus daitekeen moduan.

3. Taula

Lanbide Heziketaren arloko ikastetxe, ikasle eta irakasleen bilakaera 1973tik 1981era

Probintzia	Ikastetxeak		Ikasleak		Irakasleak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	9	16,6	3 581	16,2	178	17,7
Bizkaia	31	57,4	10 600	47,9	495	49,2
Gipuzkoa	14	25,9	7 951	35,9	333	33,1

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Siadeco (1982).

Datu horiek guztiak zehaztu egin behar dira zentro motaren arabera, estatala edo ez-estatala, Espainiako egoerarekin alderatuta irakaskuntza ez-estatalaren portzentajea handiagoa baita: «huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu... irakaskuntza estatala nabarmen gainditu dela Espainiako Estatuko gainerakoan. Horrek esan nahi du Espainiako estatuaren aldeko inbertsioa eta ahalegina handiagoa dela Autonomia Erkidegoaren aldekoa baino. Hau ez da berria. Herri honetan, ekimen pribatua gehiengoa izan da, oro har, eta bere irakaskuntza ordaindu behar izan du» (SIADECO, 1982). Eskualdeei dagokienez, halaber, zehaztu egin behar da; izan ere, gune industrializatuenek ikastetxe, ikasle eta irakasle portzentaje handiagoak dituzte. Emaitzak ikusita, ohar bakar bat: bigarren sektorean matrikulatutako ikasle kopuru handiak argi erakusten du Lanbide Heziketak Euskadiko industriarekiko duen mendekotasuna. Informazio horretatik abiatuta, etorkizunari begirako hipotesi batzuk egin zituen txostenak. 80ko hamarkadan izandako prozesua eta 1990ean LOGSEk ezarri zuen hezkuntza-erreforma kontuan hartuta, baliorik gabe gelditu zen egindako prospektiba; dena dela, etorkizuneko profil profesionalak nabarmendu zi-

tuen, non hirugarren sektorearen presentzia handiagoa iragartzen baitzen. Halaber, ez dakigu nola erabili zen txosten hori Lanbide Heziketari buruzko erabaki politikoak hartzeko orduan, 80ko hamarkadan.

1.3. **Lanbide Heziketa hezkuntza-sistemaren berrantolamenduan**

1970eko Hezkuntza Lege Orokorrak Lanbide Heziketa hezkuntza-sistemari atxikitzeko mugarri garrantzitsu bat ezarri bazuen ere, 1990eko LOGSEk ere hezkuntza-sistemaren eta Lanbide Heziketaren etapa garrantzitsu baten hasiera adierazten du. Hala ere, bi data horien artean lege multzo bat proposatu eta onartu zen, eta haiek osatu dute hiru hamarkada horietan lege-esparrua. Kontuan izan behar dugu lege organiko deritzenek 1978ko Espainiako Konstituzioaren kapituluren bat garatzen dutela eta Estatu osoan nahitaez bete beharreko arau juridikoak direla; beraz, autonomia-erkidegoetako lege-garapenei eragiten die. Beraz, lege horiek aipatuko ditugu lehenik, eta, ondoren, aplikazio-eremua EAEn duten bi lege.

Hala, 1980ko ekainaren 27an indarrean jarri zen Ikastetxeen Estatutua arautzen zuen Lege Organikoa (LOECE), baina lege horrek ia ez zion ekarpenik egin aztertzen ari garen hezkuntza-ereduari. LOECEk gogorarazi zuen Lanbide Heziketa, Eskolaurreko Hezkuntzarekin, OHOrekin eta Batxilergoarekin batera, Espainiako lau hezkuntza-mailetako bat zela. 1985eko Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoak ere (LODE) ez zion ekarpen handirik egin Lanbide Heziketari, beste alderdi batzuetan jarri baitzuen arreta; adibidez, ikastetxeetan, irakaskuntzaren programazio orokorrean, ikastetxe publiko edo itunduetako gobernu-organoetan. Euskadiri dagokionez, hezkuntza-arloko eskumenak eskualdatu eta Lanbide Heziketako Estatuko Ikuskaritza Teknikoa arautu ondoren, 1983an Lanbide Heziketako Kabinetea sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoan.

Estatuko legeria erakunde estatalen planen eta sorreraren inguruan ari zen diseinatzen. Adibidez, 1985ean gobernu-kontseiluak egindako Lanbide Heziketako eta Lanbideratzeko eta Lanerako Lanbide Prestakuntzako I. Plan Nazionalaren proposamena, 1988an indarrean sartu zena, edo 1986an Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusia sortzea: kontsulta-organo bat zen, erakundeek parte hartzeko eta Lanbide Heziketa Arautuaren eta lanerako lanbide-prestakuntzaren arloan Gobernuari aholku emateko. Besteak beste, neurri hauek ezarri ziren: Lanbide Heziketako programak gazteentzat eta iraupen luzeko langabetuentzat; lanbideratzeko programak sortu ziren lehen enplegua eskatzen zuten gazteentzat; eta eskolatzea berreskuratzeko eta txandakako irakaskuntzako programak sortu ziren. Eta probintzia-mailako sare bat ere antolatu zen, lan-

bide-orientazioa emateko eta lanbideratzeko sustatzaile talde batek osatua; sare horren ardura izan zen, besteak beste, lanerako prestakuntzako ekimenak sustatzea eta ikastaroak amaitutakoan lortutako emaitzak ebaluatzea. Alde horretatik, aukera-leiho bat ireki zen: «Orduko Lanbide Heziketa hasierako prestakuntzako ikasleekin lan egitera mugatzen zen, salbuespenak salbuespen, eta ez zuen erlaziorik inguruko enpresekin. Testuinguru hartan, hiru elementuk lagundu zuten agertoki berri bat irekitzen LHrako: txandakako praktikak, etengabeko prestakuntza eta inplementazio esperimentala» (Mujika eta Intxausti, 2018). Hala, txandakako praktiken programan parte hartu zuten ikasleen kopurua 1986an 720 izatetik 2.479 (1987), 5.871 (1988), 7.809 (1989) eta 7.765 (1990) izatera igaro zen. Hezkuntza Sailak, Lan Sailak eta Confebaskek esparru-hitzarmen bat sinatu zuten 1991n, harrezkero txandakako prestakuntza finkatuta utzi zuena. 1995/96 ikasturtean, Lanbide Heziketako 162 ikastetxetako 12.365 ikaslek txandakako prestakuntza egin zuten 3.500 enpresatan baino gehiagotan.

1990eko urriaren 3an Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoa (LOGSE) promulgatu aurretik, Lanbide Heziketa Arautuko Batzorde Probintzialak sortu ziren eta Lanbide Heziketako eta Lanbideratzeko Plan Nazionala arautu zen; plan horri, gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berehalako azterketa eta proposamenak egin zizkion 1991ko uztailaren 2an egindako topaketa batean, non parte hartu baitzuten Ministerioko eta Saileko zenbait pertsonak, Lanbide Heziketako eta enpleguko beste aditu batzuez gainera (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1991). LOGSEk, hitzaurrean, adierazten zuen Espainia modernizazio-prozesuan zegoela eta, gero eta argiago, Europa izeneko horizonte komun baterantz zihoala. Azpimarratzen zuen ezen, ezagutzaren eta kultura —eta ekoizpen— prozesuen aldaketa bizkorra menderatzeko, beharrezkoa zela oinarrizko prestakuntza luzeagoa izatea, moldakorragoa, etengabeko hezkuntza-prozesu baten bidez egoera berrietara egokitzeko gai izatea, eta herritar bakoitzaren premia espezifikoei erantzuteko gai izatea herritarrek ahalik eta garapen handiena lortu ahal izateko.

Ondorioz, aldaketa horiek guztiak hezkuntza-sistemaren erreformaren aldeko arrazoi nahikoak ziren berez; izan ere, zenbait gabezia zeuden, hala nola derrigorrezko eskolatzearen aurreko tartearen hezkuntza-egitura, eskolaldia amaitzearen eta gutxieneko lan-adinaren arteko desfasea, OHOren amaieran titulazio bikoitza izatea — diskriminatzailea izateaz gainera, bide ematen zuen OHO ondo bukatzen ez zutenak Lanbide Heziketara bideratzeko—, eta Lanbide Heziketa bigarren mailako bide gisa konfiguratuta egotea baina, aldi berean, akademikoegia eta ekoizpenaren mundutik urrutiegi egotea, eta abar. Hala, LOGSEk Lanbide Heziketaren erreforma zabal bati ekin zion, eta I. tituluko IV. kapituluan landu

zuen, jakinik indarrean zegoen hezkuntza-sistemaren arazoetako bat zela, irtenbide sakonagoa eta presazkoagoa behar zuela eta ekoizpen-sistemaren etorkizunerako garrantzirik handieneko esparru bat zela. Horren ondorioz, LOGSEk kontuan hartu zituen Oinarrizko Lanbide Heziketa, Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiei zuzendua, eta Berariazko Lanbide Heziketa, erdi-mailako edo goi-mailako zikloetan antolatuko zena. Hala, erdi-mailako zikloetan sartzeko, beharrezkoa izango zen oinarrizko hezkuntza amaitzea eta Bigarren Hezkuntzako titulua izatea, hau da, Batxilergoan sartzeko baldintza bera. Baldintza horrek desagerrarazi zuen OHO bukatzean zegoen aukera bikoitz hori, Lanbide Heziketan hain eragin negatiboa zuena. Era berean, goi-mailako zikloetan sartzeko, beharrezkoa izango zen Batxilergoko titulua izatea.

LOGSE indarrean sartu zenean hartu zen beste neurrietako bat heziketa-zikloak diseinatu eta planifikatzea izan zen. Ziklo horiek prestakuntza praktikoko fase bat izango zuten lantokietan, eta gizarte-eragileen partehartzea sustatuko zuten. Erabaki horren ondorioz, hezkuntza-arloko eskumenak erabat beretuak zituzten autonomia-erkidegoek —eta hori zen Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua— ardura guztiz erabakigarria hartu zuten hezkuntza-erreforma hori diseinatzeko eta abiarazteko zereginean. Beraz, une horretatik aurrera, hezkuntza-sistema araubide orokorreko irakaskuntzetan eta araubide bereziko irakaskuntzetan egituratuta gelditu zen. Araubide orokorreko irakaskuntza hauek ezarri ziren: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza —eta, haren barnean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa—, Goi Mailako Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Hezkuntza.

LOGSEk Lanbide Heziketari ekarri zionari dagokionez, Legeak esaten zuen hezkuntza-eredu horrek barnean hartuko zituela lanbideak modu kualifikatuan betetzeko gaitzen duten irakaskuntzak, enpresetako etengabeko prestakuntza barne, eta lagungarria izango zela langileak lan-mundura bideratzeko eta lan-munduan berriro sartzeko. Lege horrek, Lanbide Heziketari dagokionez, zioen Lanbide Heziketaren helburua izango zela ikasleak lanbideren batean jarduteko prestatzea eta ikasleei aldaketetara egokitzeko aukera emango zien balio anitzeko prestakuntza ematea. Testuinguru horretan, proposamena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara (DBH) eta Batxilergora zabaltzen zen, ikasle guztiek lanbide-arloko oinarrizko prestakuntza jaso zezaten; Berariazko Lanbide Heziketak, berriz, moduluka antolatutako iraupen aldakorreko prestakuntza-ziklo batzuk izango zituen, eta ziklo horiek jakintza-arlo teoriko-praktikoz osatuko ziren lanbide-arloen arabera. Gainera, Berariazko Lanbide Heziketa hori gazteei bizitza aktiborako trantsizioa errazten saiatuko zen, herritarren etengabeko prestakuntzan lagunduko zuen eta ekoizpen-sistemaren kualifikazio-eskaerei erantzungo zien (Sarasola, 1996).

Euskal Autonomia Erkidegoan sistema antolatzean, ezarritako parametroei jarraituz, zenbait ezaugarri sartu ziren Lanbide Heziketako euskal ereduan (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2001): batetik, ikastetxeek askatasun-tarte bat izan zuten moduluak emateko, Hezkuntza Administrazioari zegokion curriculumaren % 55etik % 15 ikastetxeei eman baitzitzaien, eta, bestetik, ziklo guztietan sartu zen Kalitateko eta Etengabeko Hobekuntzako modulua. Berariazko Lanbide Heziketaren barruan irakaskuntzan jardun ahal izateko, Bigarren Hezkuntzarako behar zen titulazio bera izan behar zuten irakasleek, baina zenbait arlotan irakasle espezialistak kontratatzeko aukera utzi zen, haien kualifikazioa eta sistemaren premiak kontuan hartuta.

Bestalde, Berariazko Lanbide Heziketaren diseinuan eta planifikazioan, gizarte-eragileen parte-hartzea sustatzea proposatu zen, programazioan ikastetxeen ingurune sozioekonomikoa kontuan hartuta. Gizarte-eragileen parte-hartze horrek hezkuntza-eredu berriaren beste helburuetako bat erraztuko zuen: Berariazko Lanbide Heziketan prestakuntza praktikoko fase bat sartzea lantokietan. Horretarako, eduki zientifikoak, teknologikoak eta antolaketakoak integratzea sustatuko zuen metodologia bat proposatuko zen, eta ikasleari bere kabuz ikasteko eta taldean lan egiteko gaitasuna emango zitzaion. Hori da, hain zuzen ere, Euskal Lanbide Heziketaren gaur egungo ereduaren oinarrietako bat.

Baina, LOGSE indarrean jartzeaz gainera, 90eko hamarkadan beste neurri batzuk ere jarri ziren martxan, hala nola Estatuko probintzia guztietan *Lanbide Heziketa Arautuko Batzorde Probintzialak* sortzea. Ekoizpen-sistemaren giza baliabideen eskaerari erantzun egokia emateko premiaren ondorioz, hezkuntza-sistema behartuta zegoen bere burua etengabe berrezartzera eta birdefinitzera. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, egoeraz jabeturik, kide anitzeko organoak sortzea proposatu behar zuen, Lanbide Heziketaren egoeraren azterketa orokorra egiteko eta, gainera, gizarte-eragileei, tokiko erakundeei edo garapen-erakundeei parte hartzeko aukera emateko, eta, aldi berean, enpresaren eta prestakuntza-zentroen arteko harremanak estutzeko.

Espainia 1986an Europako Erkidegoan sartu zenean, araudi berriek eragina izan zuten erabaki guztietan. Hala, 1990ean Lanbide Heziketako eta Lanbideratzeko Plan Nazionala arautzen zuen 1618/1990 Errege Dekretua indarrean sartu zenean, Europako Kontseiluaren 4255/88 Erregelamenduak onartutako Europako Gizarte Funtsa arautzen zuen araudi berriak baldintzatuta zetorren Plan hori. Europar Batasuneko kide izateak zenbait egokitzapen egin beharra zekarren berekin, eta biztanleria aktibo kualifikatu eta mugikortasunerako eta zirkulazio askerako egokia lortzeko ildoak ezarri ziren, merkatuen globalizazioaren eta informazioaren gizartearen etengabeko aurrerapeneko panoramaren barnean. Beraz, garai ha-

ren araberako legeak egin behar ziren, eta Estatuko agintariek Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Lege Organiko Nazionala onartu zuten 2001ean. Lanbide Heziketaren, Kualifikazioen eta Egiaztapenaren sistema integrala antolatzea zuen helburu lege horrek, prestakuntza-modalitateen bidez eskaera sozial eta ekonomikoei eraginkortasunez eta gardentasunez erantzuteko. Zenbait jarduera-ildo zehaztu ziren; besteak beste, Lanbide Heziketari puntu hauetan oinarritutako orientazioa ematea: garapen pertsonala, lanerako eskubidea, lanbidea edo ofizioa askatasunez aukeratzeko eskubidea, eta bizitza osoan ekoizpen-sistemaren eta enpleguaren premiak betetzeko aukera. Testuinguru horretan, beharrezkotzat jotzen zen gizarte-eragileek botere publikoekin parte hartzea eta lankidetzan aritzea prestakuntzako eta kualifikazio profesionaleko politiketan. Kualifikazio horren irizpideak Europar Batasunak ezarriko zituen, eta merkatu bakarraren eta langileen zirkulazio askearen helburuen arabera zehaztekoak ziren.

Gizarte-eragileen parte-hartze hori funtsezko elementua izan zen, eta hala jaso zuen legeak berak, honela azpimarratu baitzuen: «enpresen eta administrazio publikoen, unibertsitateen, merkataritza-ganberen eta prestakuntza-erakundeen arteko beharrezko lankidetza sustatuko da. Enpresek banaka edo taldeka parte hartu ahal izango dute, beren ordezkaritza-erakundeen bidez». Enpresek eta beste erakunde batzuek Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionalean izan zuten partaidetza arlo hauetan garatu zen: irakasleen prestakuntza, ikasleak lantokietan prestatzea eta beste praktika profesional batzuk egitea. Lankidetza zenbait hitzarmen eta akordioren bidez gauzatu zen. Azken finean, lege horrek Lanbide Heziketa «berri» bat sortu nahi zuen, lanbideak modu kualifikatuan betetzeko gaitzen zuten prestakuntza-ekintzen multzoa barne hartzeko eta, hala, enplegua lortzea eta herrialdeko bizitza sozial, kultural eta ekonomikoan aktiboki parte hartzea errazteko. Lanbide Heziketa horrek barnean hartu behar zituen Hasierako Lanbide Heziketa, Lanerako Lanbide Prestakuntza —langileak lanbideratzeko eta berriro lan-munduan sartzeko ekintzak barne hartuta— eta enpresetako Etengabeko Lanbide Heziketa, zeinak balio izango baitzuen langileek lanbide-gaitasunak eskuratzeko eta gaitasun horiek etengabe eguneratzeko.

Gobernuen kolorea aldatzen denean hezkuntza-legeekin gertatzen diren gorabeherekin jarraituz, 2004an hauteskunde orokorren deialdi bat izan zen, non inkestek gehiengo osoa ematen baitzioten Alderdi Popularrari; hala ere, hiru egun lehenago, Madrilgo atentatuak gertatu ziren (11M), eta inkesta horiek behera etorri ziren Alderdi Popularreko arduradunen kudeaketa txarragatik, zeren eta inolako lotsarik gabe gezurra esan baitzieten Espainiako herritarrei atentatuaren egiletasunari gainean. Horren ondorioz, popularrek hauteskundeak galdu zituzten, PSOEren onerako, eta berehala indarrean sartzeko prestatua zuten legea bertan behera gelditu zen Garai hartan, popularrek prestatua zuten 2002ko Hezkuntza-

ren Kalitaterako Lege Organikoaren (LOCE) erreforma, baina, hauteskunde-porrotaren ondorioz, aukera galdu zuten, eta 2006an Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE) sartu zen indarrean. Lege horrek, hitzaurrean, aitortzen zuen LOGSE ezartzeak ekarri zuen lana, eskola-derrigortasunaren aldia 10 urtera luzatu baitzen, baina, batez ere, aitortzen zuen Lanbide Heziketari eman zion bultzada eta ospe profesional eta soziala; horri esker, Espainia inguruko herrialde aurreratuagoekin parekatu ahal izan zen. Beraz, LOGSEren filosofiari jarraituz, Lanbide Heziketaren aldeko apustuari eutsi zion, eta Legearen oinarri izango ziren printzipio hauek ezarri zituen: bi sexuetako herritar guztiei hezkuntza-sistemako maila guztietan kalitatezko hezkuntza emateko exijentzia, hezkuntza-komunitateko kide guztiek prozesu horretan parte hartzea eta lankidetzan aritzea, eta Europar Batasunak hurrengo urteetarako planteatutako hezkuntza-helburuekiko konpromiso sendoa.

Espainiako hezkuntza-sistemak hurrengo urteetan bere jarduerak egokitu behar zituen Europar Batasuneko kideekin partekatutako helburu horiek lortzeko, eta, horretarako, zenbait norabide osagarritan jardun behar zuen. Hasteko, bizitza osoan garatzen zen prozesu iraunkor gisa ulertu behar zen prestakuntza. Aprendizgoa, tradizioz, haurtzaroko eta nerabezaroko jardueratzat hartzen zen, baina, Lege hori inplementatzeko unean, planteamendu hori ez zen nahikoa. Horretarako, kontuan hartuta ikasteko gaitasuna bizitzan zehar mantentzen dela eta aldaketa ekonomiko eta sozialek eragindako premiek herritarrak beren prestakuntza etengabe zabaltzera behartzen zituztela, helduen arreta areagotu beharra zegoen. Norabide osagarri horietako bat prestakuntzatik lanera eta lanetik prestakuntzara pasatzea zen, edo bi horietatik beste jarduera batzuetara pasatzea; horretarako, beharrezkoa zen hezkuntza-sistemaren malgutasuna areagotzea, ordura arte oso zurruna baitzen eta ez baitzien erraztasunik ematen joan-etorriko bideei. Hezkuntza-sistemaren malgutasun horrek berekin ekarri behar zuen ikastetxeei autonomia-gune propio bat ematea. Ikastetxeek autonomia-gune propio bat izan behar zuten, aukera emango ziena beren jarduera beren egoera zehatzetara eta ikasleen ezaugarrietara egokitzeko, ikasle guztientzako eskola-arrakasta lortzearren.

Praktikan, 2006ko lege horrek Lanbide Heziketari malgutasun handiagoa ekarri zion, besteak beste, hezkuntza-eredu horretara iristeko moduei eta eta haren azpisistemen arteko harremanei dagokienez. Beraz, hezkuntza-sistemaren malgutasun hori handitzeko eta Etengabeko Prestakuntza bultzatzeko, zenbait lotura ezarri ziren hezkuntza orokorraren eta Lanbide Heziketaren artean. Garai hartan, 10 irakaskuntza-maila zeuden Espainian, eta Lanbide Heziketa Bigarren Hezkuntzaren barruan zegoen, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan, zehazki. Hala, DBHko laugarren mailara iristean, ikasleen gurasoek edo legezko tutoreek honako irteera hauetako bat aukeratu ahal izango zuten: Batxilergoan has-

teko ikasketa akademikoak edo Lanbide Heziketan hasteko irakaskuntza aplikatuak.

LOE indarrean sartzearekin batera, Lanbide Heziketa aukeratzen zuten ikasleek aurkituko zuten eredu horrek barnean hartzen zuela lanbideak modu kualifikatuan betetzeko, enplegua lortzeko eta bizitza sozial, kultural eta ekonomikoan aktiboki parte hartzeko gaitasuna ematen zuten prestakuntza-ekintzen multzoa. Lanbide Heziketa berri horretan, hasierako lanbide-heziketaz gainera, langileak lanbideratzeko eta berriro lan-munduan sartzeko ekintzak sartzen ziren, bai eta enpresetan etengabeko prestakuntzara bideratutakoak ere, lanbide-gaitasunak etengabe eskuratu eta eguneratu ahal izateko.

Indarrean dagoen azken legea Alderdi Popularrak 2013an garatutakoa izan da. Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa da (LOMCE). Lege hori inplementatzeko zailtasun handiak izaten ari dira hezkuntza-eragile askoren eta Hezkuntza Ministerioaren beraren arteko desadostasun handiak direla eta. LOE legearen erreforma bat da, baina ia ez dio eragiten Lanbide Heziketari; beraz, ez dugu aztertuko. Hala ere, egokia iruditzen zaigu argitzea zergatik planteatu duen Ministerioak lehendik dagoen lege bat erreformatzea eta ez lege berri bat idaztea. Aurreko lege baten erreforma izatearen arrazoia Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) egindako gomendioa da; erakunde horrek uste du ezen, beren hezkuntza-sistemetan emaitza hobeak dituzten beste herrialde batzuen jarraibideetan oinarriturik, egokiagoa dela, lege berri bat egin beharrean, egonkortasun-esparru orokor baten gainean erreforma bat egitea gabeziak nabaritu ahala edo premia berriak sortu ahala.

Orain arte, Espainiako Parlamentuan onartutako eta beraz estatu osoan bete beharreko lege organikoen ezaugarriak azaldu ditugu handihandika. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak beste lege batzuk onartu ditu, bere lurralde-eskumenen esparruan eragina dutenak. Lanbide Heziketan eragina duten bi legeak aipatuko ditugu: 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legea (EEPL) eta 2018ko Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren Legea. Hala, Eusko Jaurlaritzaren eskumeneremuan, 1993ko otsailean jarri zen indarrean 1/1993 Legea edo Euskal Eskola Publikoaren Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe guztiei zuzendua. Lege horrek honela definitzen zuen euskal eskola publikoa: «askotarikoa, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizartean eta kulturan bere ingurunean errotua, partaidetzazkoa, desberdintasunen berdintzaile eta dibertsitatearen bateratzailea». Legeak ez zuen ia aipamen espliziturik egiten Lanbide Heziketari buruz, nahiz eta onartzen zuen ikastetxeen antolaketaren barruan sindikatu —eta enpresa— erakundeek parte har zezaketela, eta halaber adierazten zuen ezen, ikastetxeen autonomia pedagogikoari dago-

kionez, Berariazko Lanbide Heziketa duten ikastetxeetan Arautu Gabeko Lanbide Heziketari buruzko helburuak eta orientabideak jaso zitezkeela.

Batetik, 1990ean promulgatutako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoak (LOGSE), hezkuntza-sistemaren erabateko aldaketaren esparruan, Lanbide Heziketaren eredu berri baten oinarriak ezarri zituen, bai eta Lanbide Heziketaren ikuspegi integrala ere; bestetik, 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak, Lanbide Heziketari dagokionez, funtsezko garrantzia izan zuen LHko ikastetxe integralen konfigurazioan, eta hori da Euskadin azken hamarkadetako Lanbide Heziketaren ibilbidea aztertzean nahitaez azpimarratu beharreko beste mugarrietako bat.

Lanbide Heziketa ere Euskal Eskola Publikoaren parte bazen ere, Legeak ez zion arreta handirik eskaini, baina kontuan hartu behar da Lege hori indarrean sartu eta hilabete batzuetara Lanbide Heziketako eta Lanbideratzeko Plan Nazionala onartu zela Estatuan eta plan horrek ezarri zituela Lanbide Heziketaren oinarriak. Plan Nazional horretan onuragarritzat jotzen ziren Lanbide Heziketaren funtzionamendu egokirako abian jarritako neurrietako batzuk. Besteak beste, hauek: Lanerako Prestakuntza autonomia-erkidegoetara eskualdatu izanaren ondorioz lortutako esperientzia, solaskide sozialek erantzukizun-maila handia bereganatu izana soldatako langileei Etengabeko Prestakuntza ematean, eta Lanbide Heziketa Arautuaren eta Lanerako Lanbide Prestakuntzaren arteko osagarritasuna ziurtatzeko premia. Beste kapitulu batean, Etengabeko Prestakuntza aztertzen dugunean, toki gehiago eskainiko diogu Lanbide Heziketako eta Lanbideratzeko Plan Nazional horri.

1993ko otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak funtsezko garrantzia izan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako ikastetxe integralen konfigurazioan. Lege-esparru egonkor bat sortu nahi zuen, modu eraginkorrean erantzun ahal izateko LOGSEk bultzatutako hezkuntzaren erreformak sortu zituen eskariei. Lege berriak bazituen zenbait helburu, hala nola herritarrak prestatzea eta kalitateko kualifikazio-maila lortzea Europarekiko konbergentzia-prozesuaren ondorioz; eta ekoizpen-sektoreari ere erantzun nahi zion, presa handiz «profesional moldakorrak» behar baitzituen sektoreak. Bestalde, Euskal Eskola Publikoaren Legeaz bezainbatean, LOGSEk Lanbide Heziketaren antolamenduari dagokionez ezartzen zuena zehazki aplikatzetik harago joan zen eraldaketa, eta beste esparru batzuetara iritsi zen. Esparru horiek bereziki onuragarri gertatu zitzaizkion LH publikoari, historikoki ez baitzuen izan kudeaketa-malgutasunik eta ezin izan baitzuen abian jarri autonomia-maila altuko ekimen onarturik; ezaugarri horiek, berriz, Lanbide Heziketa pribatuaren sektorearen bereizgarriak ziren. Zehazki, lege horren V. tituluak ikastetxeen autonomia bermatzen du. Bereziki garrantzitsua da, ka-

pitulu honen hasieran Lanbide Heziketako ikastetxe integralen eraketari buruz esan genuenaren ildotik, Legearen 55. artikulua. Honela dio: «Berariazko lanbide-heziketako irakaskuntza ematen duten bigarren hezkuntzako ikastetxeek, arauz ezartzen denaren arabera, arautu gabeko lanbide-heziketa eman ahal izango dute».

Izan ere, Iztuetak dioenez (Iztueta, 2016), legearen irismena bere neurrian baloratzeko, komeni da garbi bereiztea EAEk irakaskuntzan izan dezakeen autonomiaren edo autonomia-mailaren eta ikastetxeen kudeaketa-autonomiaren artean. Hain zuzen, LOGSEk, lanbide-heziketa berria txertatzeko esparru orokorra antolatzeaz gainera, dio ezen, ikastetxeen autonomia pedagogikoa sustatzeaz gainera, antolamendu-autonomia eta ekonomia-autonomia ere sustatu beharra dagoela, eta Euskal Eskola Publikoaren Legea gai horiek Autonomia Erkidegoan nola aplikatu arautzera mugatzen da.

Legerik berriena Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren Legea izan da, eta Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketari buruz dituen plan estrategikoen barnean kokatuta dago. Ekainaren 28ko 4/2018 Lege hori azken mugarri garrantzitsuenetako bat da. Legearen zioen azalpenean adierazten denez, ezagutzaren gizarte berrirako erronka bat da, hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailea duen Europa batean. Adierazten da, halaber, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legea osatu nahi dela, Lanbide Heziketari buruzko eremu berrietan garatuz. Horretarako, adierazten da Euskadik Lanbide Heziketako sistema malgu bat behar duela, etengabe aldatzen ari den gizarte eta ekonomia batean egokitzeko eta bere helburuak betetzeko gai izango dena.

Lege hori, beraz, Lanbide Heziketako politiken multzoa arautzeko gai den esparrutzat aurkezten da, eta nabari ageri da, ezagutzaren gizarteari dagokionez ez ezik, gizarte-kohesio handiagoa lortzeko bide emango duen enplegu egonkor eta kalitatezko bat sortzeari dagokionez ere. Hamar kapitulutan egituratuta dago legea, eta puntu hauek lantzen ditu: hezkuntza-eredu horren helburuak, Europako esparrura nola egokitu, Lanbide Heziketako sistema koherente bat eratzea, sailen arteko organo bat sortzea hezkuntza-sistemaren eta enplegurako prestakuntzaren eskumenen koordinazioa bermatzeko; Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua birmoldatzen duen lankidetza-esparru bat, Lanbide Heziketako euskal sistemaren nazioartekotzea, eta, horretaz gainera, sistema horretan Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen presentzia egokitzea, haien presentzia normalizatua bermatzen saiatzeko. Era berean, lege horretan ez da falta ikerketarekiko, berrikuntzarekiko eta hobekuntza-prozesuekiko kezka, ezta Lanbide Heziketako programen ebaluazio-sistema bat ere.

II. Kapitulua
Lanbide Heziketako euskal planak: LH-ren horizonte estrategikoa Euskal Herrian

Iñaki Zabaleta Imaz eta Ana Eizagirre Sagardia

2.1. *Lanbidez.* Lanbide Heziketako I. Euskal Plana (1998/2003)

Lanbide Heziketako Euskal Planak funtsezkoak dira EAEko LHk izan duen bilakaera ulertzeko, eta nahitaezko erreferentzia dira azken hamarkadetan LHk izan duen garapena azaltzeko. Lehenengo plana onartzea benetako inflexio-puntua izan zen, Lanbide Heziketako euskal eredua diseinatzeko abiapuntua izan baitzen. Eredu hori, garapen estrategikoko horizonte batekin, forma hartuz joan da urteekin, eta nortasun-ezaugarri bereizgarriz hornitu. *Lanbidez* (1988) plana laurogeiko hamarkadatik egindako ahaleginak sendotu zituen ziklo baten erreferente nagusia da (Mujika, I.; Intxausti, K., 2018); Lanbide Heziketaren arautze-esparru berri batean bultzada emango zion legeria bat izateaz gainera, azpimarratzekoa da bazegoela arlo horretan inplikatzeko tradizio bat, hala hezkuntza-sektoreena nola gizarte eta instituzioena, bai eta eraldaketa-behar eta -nahi bat ere, politikaren, enpresen, sindikatuen eta profesionalen arloetan adostasun zabala zuena. Era berean, euskal gizartea garatzeko LHk funtsezko dimentsio estrategikoa zuela ulerturik, aipatzekoa da 1994an Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortu zela, «erakunde arteko eta partaidetza sozialeko izaerarekin». Kontseilu horrek hartu zuen bere gain EAErako LHko Plan Orokor bat egiteko lana. Aipatzekoa da, halaber, Etengabeko Lanbide Heziketaren arloan dokumentu bat sinatu zela 1995ean. Haren emaitza izan zen hurrengo urtean *Hobetuz* sortzea, Langileen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioa. 1996ko Industria Politikako Plan Estrategikoa ere sortu zen, eta eragina izan zuen LHn, zeren eskatzen baitzuen ekoizpen-ingurunearen lehiakortasun —eta garapen— premietara egokitzea LH, bai eta Eusko Legebiltzarrak Lanbide Heziketako sistema integratu baten alde egitea ere.

Ikuspegi integral horrek hezkuntzaren eta lanaren dimentsio bikoitza hartzen du kontuan, eta, beraz, LHn aldaketa sakonak egiteko premia, LH osatzen duten azpisistemen arteko konbergentzia lortzeko; eta alda-

keta horiek askotariko eragileen artean —instituzioetakoak, hezkuntzakoak, gizartekoak eta enpresetakoak— adostu beharrekoak dira. Kontuan hartzen du, orobat, LHko ikastetxeek funtsezko protagonismoa bereganatu beharra. Europan jatorria duten orientazioak jasota, helburu hauek zituen Planak: irtenbide integral bat lortzea Lanbide Heziketa Arautua eta Etengabeko Lanbide Heziketa, eta LHko ikastetxeak eta lan-mundua elkarbidean jartzeko; «giza kapitala bizitza aktiboan zehar balorizatzea» printzipioan inspiratzea; lanbide-gaitasunak aitortzea, nola lortu diren alde batera utzita; langabeziaren[1] eta gazteen gizarte-bazterketaren arazo larriari modu eraginkorrean erantzutea; lan-merkatuaren kualifikazio-premiak aurreikustea; sektore pribatu eta publikoaren arteko lankidetza sustatzea; eta Administrazioaren laguntza —eta errazte— zeregina sustatzea, hala enpresen nola herritarren, oro har, —eta, bereziki, langileen— prestakuntza-premiak asetzearren, prestakuntza langileen eskubide gisa integraturik. *Lanbidez* planak hiru puntutan laburbildu zituen bere helburuak: oinarrizko prestakuntzaren maila handitzea, Hasierako Prestakuntzaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arteko konbergentzia lortzea, eta prestakuntza-sistemak modu eraginkorrean egokitzea. Horretarako, prestakuntza orekatua, kulturala, zientifikoa eta teknologikoa behar zen, administrazioak, sektore pribatuak, enpresak eta langileak inplikatzea, eta gizarte-eragile guztiek akordioak egitea gaitasunak aitortzeko sistema malguei buruz (Lanbidez, 1998).

Integrazioaren, prospektibaren, egokitzeko gaitasunaren, malgutasunaren, globalizazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren printzipioek inspiratuta (Lanbidez, 1998), I. Planak erantzuna eman nahi izan zien kualifikazioa eta Lanbide Heziketa integratzeko premiari, gaitasuna eskuratzeko moduei eta LHren eskaintza instituzionalari, «Sistema Integratu» bat osatu ahal izateko. Lanbide Heziketaren egoerari buruzko diagnostiko batetik abiatuta, non funtsezko hiru oinarri ezartzen baitira eragiteko —sistemaren koordinazioa eta egituratzea, enpresa-mundua eta LHko ikastetxeak—, sistemak «lurra ukitu» nahi zuen errealitate desberdin hauek agerian jartzen diren egoera batean: lan bera lan-bizitza osorako dela pentsatzearen desegokitasuna, lan-modu klasikoak aldatzea, lanerako behar den prestakuntza aldatzea, enpresak antolatzeko moduak eraldatzea eta lana kudeaketa-eredu berritzaileen markon hautematea, non lehentasunezko ardatzak baitira kalitatea, ekonomiaren mundu osoko perspektiba eta prestakuntza-premiak aurreikusteko exijentzia. LHk historian zehar izan duen gizarte-estimazioa eta gizarte-errotzea berreskuratzeko erronka saihestezina planteatzen zuen Planak. Horretarako, frogatu behar zen ekoizpen-sistemaren premiei erantzuteko gaitasuna zuela eta biztan-

[1] Eustat Euskal Estatistika Erakundearen datuen arabera, langabezia % 20tik gorakoa zen, eta, gainera, populazio gazteari eragiten zion batez ere.

leei benetako prestakuntza-aukerak ematen zizkiela bizitza osoan enplegua izateko.

Lanbide Heziketaren kalitatea hobetzeko, egituraren eta funtzionamenduaren eraldaketak behar ziren. Lankidetza apustu estrategiko bihurtu zen, eta haren mende jarri zen sisteman lortu nahi zen errotiko aldaketa erdiesteko erronka: Administrazioaren eta gizarte-eragileen arteko lankidetza, Administrazioaren eta prestakuntza-eragileen artekoa, eta prestakuntza-eragileen beren artekoa. Erabakigarria izan zen LHko ikastetxeen, publiko zein pribatuen, sare bat ehuntzea, ikuspuntu globaletik begiratuta prestakuntza arautuan eta lanerakoan zeuden beharrei erantzungo ziena, eta erabakigarria izan zen, halaber, LHko irakasleen lankidetzarako inplikazioa ere. Baina Planak zituen helburu guztien artean, honako hau da asmo handienekoa: helburua gauzatzea posible egingo zuten esparru eta egitura egokiak lortuko zituen sistema bat sortzea. Horretarako, «gutxieneko legedia» behar zen, eta, horrekin batera, LH-sistema osoa Sistema Integratu izango denaren barruan konfiguratzea, eta Lanbide Kualifikazioen Sistema deritzona martxan jartzea, arloan sor litezkeen erronka guztiei erantzun estrategikoa eman ahal izateko.

Administrazioko, enpresa-munduko edo lan-munduko zenbait sektorek eta, batik bat, Lanbide Heziketaz zuzenean arduratzen ziren sektoreek —ikastetxeak eta irakasleak— aintzat hartu zuten *Lanbidez* planak bazituela «ontasun» batzuk; baina bereziki bati eman zitzaion garrantzia: Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sare bat sortzeari. Lanbide Heziketa Arautua —edo Hasierakoa—, Lanerakoa eta Etengabekoa bilduko zituen sare bat izango zen. Identitatearen dimentsioa ere aipatu behar da, «LHren identitatea»; izan ere, Planak nabarmendu egiten zuen identitate hori, eta ikastetxeei eskatzen zien «trakzio-funtzioa edo lidergoa» bereganatzea. LHko ikasketak eskaintzen zituzten Bigarren Hezkuntzako institutuak kanpoan geratzeko beldurra ere bazegoen, baina honela konpondu zen alderdi hori: «Sistema ikastetxe-sare batean oinarritzen da, eta Gobernuak ikastetxeen gutxieneko egitura bat behar du sistemak funtzionatuko badu. LHko ikastetxe indartsuen sare horrek espezialitate guztiak eskainiko ditu, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen laguntza ere izango dute» (Lanbidez, 1998). Zalantza askorekin, baina, azkenean, ados jarri ziren sindikatu eta enpresarien ordezkaritzak, ikastetxe publikoak, ikastetxe itunduak eta foru-aldundiak sintesi batera iristeko. Jaurlaritza arduratu zen sintesia egiteaz. Han adierazitako terminoetan ez zen aipatzen LHko ikastetxe integralen sarea, baizik eta Sistema Integratuaren barruko Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sarea. Sistema horrek hainbat funtzio zituen; besteak beste, hauek: gaitasunak lortzeko moduak nola ziurtatu eta nola aitortu behar diren identifikatzea, zer kualifikazio-premia dauden identifikatzea, LHko prestakuntza, berrikuntza eta garapena nola ordenatu, kudeatu eta antolatu behar diren finkatzea, kalitatea

ebaluatu eta egiaztatzea, gizarte-eragileen parte-hartzea, erantzukizun partekatua eta parte-hartzea bermatzea eta kualifikazioen eta LHren planifikazio integratua egitea (Lanbidez, 1998). Funtzio horiek betetzeko behar zen egituran, enpresek eta LHko ikastetxeek funtsezko zeregina zuten lanbide-gaitasunen araberako irizpideei erantzungo zien heziketa-eskaintza antolatzeko. Eskaintza horrek Kualifikazio Profesionalen Sistemari zuzenean lotutako Katalogo Modular bat izan behar zuen, gainera[2]. Asmoak adierazteaz gainera, ekintza-plan bat behar zen (Lanbidez, 1998), *Lanbidez* planak proposatzen zituen helburuak azalduko zituena euskal LHren paisaia errotik aldatuz: besteak beste, Lanbide Heziketaren Sistema ikertu, aztertu eta prospekzioz hornitzeko aukera lukeen Behatoki bat sortzea, eta «Kualifikazio Sistema» bat diseinatu eta ezartzea, gaitasun-mailak hobetzeko, ekonomia hobetzen lagundu dezaten, Lanbide Heziketaren kalitatea hobetuz gero kualifikazio profesionalak ere hobetuko bailirateke.

Lanbidez planaren helburuak ziren, batetik, LHko ikastetxe integralen sare bat eratzea, ekoizpen-inguruneari lotua eta Lanbide Heziketako eskaintza modu integratuan antolatzeko premiari erantzuteko gai, eta, bestetik, errealitate horren berri euskal gizarte osoari jakinarazteko informazio —eta orientazio— sistema bat sortzea. I. Plan horrek, gainera, «gaitasun-karpeta indibiduala» diseinatzea eta martxan jartzea aurreikusten zuen, lan-bizitzan eskuratu diren gaitasunak jasotzeko eta, ondorioz, dagokien aitortza lortzeko. Beraz, Planak Europari begiratzea gomendatzen zuen, formula egokiak bilatzeko. I. Planaren beste alderdi garrantzitsu bat Kalitatea Hobetzeko Programei buruzkoa zen. Laurogeiko hamarkadan Lanbide Heziketako ikastetxe askok —baita irakaskuntza publikokoek ere (Intxausti, Elola, Larrañaga, Mujika, 2000)— hasitako tradizio bati jarraipena emanez, Lanbide Heziketaren kalitatea hobetu nahi zuen planak, irakasleak eguneratzeko zereginari ere helduz, eta ikasleak lantokietan trebatzeko aukera emanez LHko ikastetxe integratuen erantzukizunpean, haiei emanez egin beharreko ikastaroak diseinatu, antolatu eta kudeatzeko ardura. *Lanbidez* planak, gainera, «LHren Erabateko Kalitatearen ereduan oinarritutako kudeaketa-sistema bat» ezartzeko beharra adierazi zuen, sistema horrek ustez zituen ontasunak jakinaraziz eta hobekuntza ulertzeko modu horretara erakarriz ikastetxeak zein irakasleak. Euskal Lanbide Heziketaren unibertsoan hainbesterainoko garrantzia zuen kalitatearen gaiak ezen I. Plana errealitate berri bat itxuratzen hasi baitzen. Sarramona (2003) kalitatezko euskal eredu bat aipatzera ere iritsi zen, estatuan lehena, epe labur samarrean indartuko zena. Eta hor sumatu zen bazela eraikuntza-lerro koherente bat, plan hau Lanbide Heziketaren II. Euskal Planarekin lotzen duena.

---

[2] LHko ikastetxe integralek arduratu behar zuten heziketa-eskaintza hori prestatzeaz, eta horrek nolabaiteko ezinegona eragin zien eragile sindikalei.

*Lanbidez*en ekintza-planak Hasierako Prestakuntzako programak ere biltzen zituen; horretarako, Lanbide Heziketa Arautuak eskualdeko eta tokiko garapenari lotuta egon behar zuen, eta, ondorioz, inguruko gizarte-eragileen inplikazioa behar zuen, bai eta ekipamendu —eta espazio— hornidura egokia eta beharrezko baliabide eta material didaktiko guztiak ere. Prestakuntza-plana lantokietan egitea zen Planaren ardatz nagusia, ikaskuntza eraginkorra eta benetakoa dela bermatzeko, benetako ekoizpen-ingurune batean egiten denez. LH arautua urrutitik eskaintzeko aukera ere ekintza-planaren beste alderdietako bat zen. Irakaskuntza presentziala eta urrutiko prestakuntza konbinatzeko aukera gisa planteatzen zen, aldi berean helduen «lorpen profesionalak» aintzat hartuko zituena, haien lan-esperientziaren araberako lanbide-moduluak konbalidatuz. Hasierako Prestakuntza Ez Arautuari ere eskaintzen zion arreta *Lanbidez* planak, titulurik ez zuten gazteek ere kualifikazioa eskatzen duten lanak egin ahal izan zitzaten[3]. Planak zenbait neurri jasotzen zituen: Hasierako Prestakuntza ikastetxeetan ematea, Lanbide Hasierako Tailerren eta «Lanbide Etxeen» programa eta «Lanbide Tailerren» modalitatea, besteak beste. Neurri horien guztien helburuak ziren Erdi Mailako heziketa —zikloak ikasteko aukera ematea enpleguaren arloan lanbide-kualifikazioak lortzeko, edo eskola— eta lan-ingurunera egokitzeko zailtasunak zituztenei aukera bat eskaintzea. Ekintza-planari buruzko kapitulua amaitzeko, Etengabeko Prestakuntzaren programak aipatu behar dira. Halako programek garrantzia ematen zioten prestakuntza bizitza osoan eskaintzeari, bai langabezian zeuden langileei[4], bai lanean zihardutenbaina eguneratzeko premia zutenei. Beraz, Lanbide Heziketako hutsuneak betetzea eta lanean jardunez heziketa jasotzeko aukera uztartzea bilatzen zuten.

Lanbide Heziketako I. Euskal Planak berariazko kapitulu bat eskaini zion kalitateari eta ebaluazioari. Planak dio LHko ikastetxeek berek izan behar dutela beren kudeaketaz eta hobekuntzaz arduratzeko erantzukizuna, lan-munduaren beharretara egokitzeko erantzukizuna —ekoizpena eta enplegua kontuan hartuta—, eta euskal gizartearen prestakuntza —eta kualifikazio— eskaeretara egokitzeko erantzukizuna. Lanbide Heziketaren eskola-ikuspegi tradizionala albo batera utzi eta ikuspegi malguago bati heldu nahi zion, prestakuntza-eskaintza ikastetxe bakoitzaren ingurunera egokitzeko aukera emanez, garapen ekonomikoa eta enple-

---

[3] Gutxieneko kualifikazioa lortu aurretik hezkuntza-sistematik ateratzea eta titulaziorik ez duten gazte asko egotea bi arazo larri dira, eta I. Planak arazo horiei heldu nahi zien.

[4] Nahita ez dugu esan «lanik gabeko», esanahi peioratiboa duelakoan; askotan, langileari berari leporatzen zaio lanik gabe egotearen ardura, eta saihestu egin nahi izan dugu hori.

gua bultzatzeko. Horrek guztiak etengabe uzten du agerian beren iritzia adierazi diguten eragile instituzional, profesional eta sozialen ikuspuntua: LHko ikastetxeak oso garrantzitsuak dira; ez bakarrik prestakuntza-erakunde gisa, baita garapen ekonomiko eta sozialeko eragile gisa ere (Navarro, 2014). Irakasleen kualifikazioa ere oinarrizko kalitate-faktoreetako bat zen, eta *Lanbidez* planaren helburuetako bat zen irakasleak irakaskuntza/ikaskuntza metodoen kalitatea hobetzera erakartzea. EAEn, enpresetan trebatzeko ordu gehiago ezarri ziren, eta irakasleek modulu guztietan izango zituzten beharrezko orientabideak (Intxausti, E. 1996). *Lanbidez* planaren nahia zen sistema osoaren ebaluazioa egitea, LHko ikastetxea funtsezko ardatza izanik, ikastetxeek lantokietan egiten duten prestakuntza-prozesua kontuan hartuz, eta populazio aktiboaren kualifikazioen, titulazioen eta gaitasunen indarraldiaren balorazioa egitea. Horretarako, ikastetxe bakoitzean kudeaketa-eredu bat ezartzea komeni zen, eta horrek prestakuntzaren arduradun profesionalen inplikazioa eskatzen zuen, lortzen ziren kalitate-mailak balioetsi ahal izateko. Planak EFQM kudeaketa-ereduaren alde egiten zuen, ikastetxe bakoitzaren ebaluazio zehatza egitea ahalbidetzen baitu, ikastetxearen jarduera nahi den norabidean bideratu ahal izateko.

Plana abian jartzeak ekarriko lukeen aurrekontu-ahaleginak eztabaida piztu zuen Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan. Kideek nork bere ikuspuntua adierazi ondoren, agerian geratu zen denek ikusten zutela funtsen eta eskumenen transferentzia eskatzeko beharra. Adostu zuten EAEk bere gain hartuko zuela bere eskumenekoak soilik ziren arloen kostua —irakaskuntza arautua, langileak, LHko ikastetxeen funtzionamendua, etab.—, baina, Etengabeko eta Lanerako Lanbide Prestakuntzari dagozkion gaietan, beste administrazio batzuen mendekoak zirenez, «planak bermatu beharko zuen», nolanahi ere, finantza-baliabideen premiak asetzea.

Bestetik, Lanbide Heziketaren sistema bere osotasunean bilduko duen esparru arautzaile bat behar zen, sistema osatzen zuten hezkuntza —eta lan-esparruei lege— estaldura emango ziena. Esparru hori lortzeko, ezinbestekoa zen zegozkion transferentziak gauzatzea eta administrazio publikoen eskumen-eremua mugatzea. Oso adierazgarria da ikustea bereizi egiten zirela bi kontzeptu: batetik, EAEk aukera mugatuekin kudea zitzakeen gaiak —sistemari euskarria ematen zion esparru juridiko eta politikoaren berezko gai konstituzional, legal eta erregelamenduzkoak—, eta, bestetik, egitura —eta antolakuntza— mailako beste gaiak, zeinak bere gain hartzen baitzituen «onartutako LH eredua» hobeto aplikatu eta garatu nahian (Lanbidez, 1998). *Lanbidez* planak, bere araugintza-gaitasunaren mugak onartzen bazituen ere eta transferentziak gauzatu gabe zeudela ikusita ere, planteatzen du ezen baduela gaitasuna araugintza-arkitektura eraikitzeko, eta, hala, Lanbide Heziketako I. Euskal Plana aktibatzeko;

hain zuzen ere, egitura —eta antolakuntza— mailako gaiei zegokienez[5]. Arlo horretan zituen Euskal Eskola Publikoaren Legeak aukerarik handienak hezkuntza-erreforma aplikatzeko; Lanbide Heziketa Ez Arautuko eskolak emateko zituen aukerei esker, batez ere. Hori gauzatzeko, lege-erreforma egin beharko litzateke antolakuntzaren ikuspegitik, euskal esparru zehatzari zegokionez. Beste horrenbeste gertatuko litzateke LHko euskal ereduaren ikuspegitik berariaz pentsatutako erakundeak eta egiturak sortzeari zegokionez (Unzurrunzaga, 2012). Euskal Administrazioak ez zuen asko atzeratu erantzuna. 1998ko ekainean Planari legezko onespena eman aurretik ere, sortua zuen Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia, eta handik pixka batera sortu zuen Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua. Lanbide Gaitasunak Egiaztatzeko Liburuxka ere berehala arautu zen. Ildo berean, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integralen sarea sortu zen, berehala sortu ere, aipagai dugun araudi-garapenaren esparruan.

Halako ikastetxeek zeregin esanguratsua zuten Euskal Lanbide Heziketaren arkitekturaren pixkanakako ezarpenean, errotiko eraldaketaren bultzatzaile zirenez. *Lanbidez* planaren oinarrizko beste ardatz estrategiko bat dinamizatu behar zuten gainera, Euskal Lanbide Heziketaren identitatearen adierazle izan behar zuena: kalitatea. Administrazioak funtsezko zeregina izan behar zuen kalitatearen garrantziaren berri zabaltzen eta ikastetxeak kalitatera erakartzen, heziketa-zikloetan modulu berariazko bat sartze soilaz harago (Hik Hasi, 1996). Kalitatearen berri zabaltzea, sustatzea, aholkatzea eta motibatzea zeregin arrakastatsuak izango baziren, ikastetxeek beren kudeaketa —eta ebaluazio— sistemak onartu eta aplikatu behar zituzten. Erabateko Kalitatea —bikaintasuneko EFQM eredua— lortzea zen apustua, inguruneko ekoizpen —eta enpresa— ehunaren bilbetik zuzenean sortuta. Baina apustua irabazteko, ikastetxeek ere bere egin behar zuten erronka; horregatik zuten hain rol erabakigarria lanbide-heziketako ikastetxe integralek[6].

Lanbide Heziketako I. Euskal Plana egitea izan zen Eusko Jaurlaritza eratzeko sinatutako koalizio-akordioaren helburuetako bat, baina ezin izango zen lortu parte hartu izan ez balute zenbait eragile instituzionalek (foru-aldundiek, kasurako), gizarte-eragileek eta, batez ere, LHko ikastetxe publiko nahiz itunduek. Eragile horiek guztiak pozik zeuden orienta-

---

[5] Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko zenbaitek desadostasuna adierazi zuten «ez baitzegoen borondate berariazkorik sistema hori estatuko eta Europako homologoekin ituntzeko, nahiz eta premiazkoak eta interesgarriak izan».

[6] Kalitateari dagokionez LHko ikastetxeek zuten protagonismoa Plana bera baino lehenagokoa da. Haien ekimenez eta bultzadaz garatutako proiektuak —HETELen integratutako sare pribatukoak nahiz SAREKAn parte hartzen zuten ikastetxe publikoetakoak— pizgarri izan ziren Lanbide Heziketako euskal sistema osorako.

zioa ikusita, eta planaren balioa azpimarratzen zuten, EAEko LHren eboluzioan jauzi kualitatiboa baitzen. Planaren inguruko eztabaida tentsioz beteta egon zen arren, akordioa lortzeko espiritua nagusitu zen prozesuan. Gainera, alde zituen Eusko Jaurlaritza, foru-aldundien ordezkaritza, enpresariak, UGT sindikatua eta LHko ikastetxe publiko zein itunduak[7]. Eusko Jaurlaritzaren iritzirako, I. Plan horren diseinua eta prestaketa une hartako legegintzaldiko lorpen nagusietako bat izan zen hezkuntza-arloari dagokionez. Jaurlaritzak orobat azpimarratu zuen Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua eta Lanbide Heziketako Ikastetxe Integralen Sarea sortu izana (Euskadiko Eskola Kontseilua, 2001). Euskadiko Eskola Kontseiluaren ustez, plana onartzea bat zetorren LOGSEk eragindako erreformak agintzen zuenarekin. Lanbide Heziketako ikasketak bakarrik ematen zituzten ikastetxeen ikuspuntutik begiratuta, halako ikasketak espresuki emango zituzten ikastetxeak sortzea eta, gainera, sare gisa antolatzea mugarri ikaragarria izan zen, euskal LH indartzeko balio izan baitzuen; gainera, horri esker, arreta eraginkorragoa ematen zitzaion, bai Hasierako Prestakuntza Arautuari, bai Lanerako Prestakuntzari eta Etengabeko Prestakuntzari[8]. Hala hauteman zuten ikastetxe publikoek, bai eta itunduek ere. Batzuk zein besteak biltzen dituen sarea osatzen zuten ikastetxe horiek existitzea EAEko LHren berezko ezaugarria zen, eta lanbide-heziketa enpresa-mundura eta gizartera hurbiltzea ahalbidetu zuen[9].

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak agerian utzi zuen Lanbide Heziketako I. Euskal Planaren garrantzia, «oso ekintza garrantzitsuak» definitu behar baitzituen. Haren ustez, gainera, emaitzarik aipagarrienetako bat Lanbide Kualifikazioen Sistemaren sorrera izan zen, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuaren sorreraren ondoren (IVAC, 1999). Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzako sailburuak ere *Lanbidez* plana onartu izanaren balioa baieztatu zuen: «aldaketa-prozesu global eta integratu baten hasiera izan da, eragin handia izan duena lan-

---

[7] CCOO sindikatua abstenitu zenez, ezin izan zen aho batez onartu. ELA eta LAB ez zeudenez, ezin esan akordioa erabatekoa izan zenik, baina horrek ez du «baztertzejarrerarik» eragin, ez orain, ez gero (Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a).

[8] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a. Mujikaren iritziz, sare hori eraiki izanak ahalbidetu zuen euskal LHren ezaugarri berezi den beste errealitate bat sortzea: ikastetxeen arteko lankidetza, publiko edo pribatuen artean bereizi gabe, eta proiektu partekatuetan elkarrekin lan egitea. Nolanahi ere, Amondarainek agerian uzten duen bezala, sareko lana ez zuen, beste errealitate asko bezala, Planak «asmatu»; aitzitik, baziren lehenagotik beste ahalegin batzuk, eta, haien arrakasta frogatua zegoenez, apustu horren berme izan ziren (Jose Amondaraini egindako elkarrizketa, Donostia, 2018ko ekainaren 28a).

[9] Julen Elgetari egindako elkarrizketa, Durango, 2019ko uztailaren 12a.

bide-heziketaren hiru sistemen egituraketan (LH Arautua, Lanerakoa eta Etengabea), eta haiek enpleguarekin duten harremanean» (IVAC, 1999). I. Planean aurreikusitako helburuak onartu eta denbora gutxira gauzatu ziren. Horrek garbi uzten du zenbateraino zen plan hori garrantzitsua Eusko Jaurlaritzarentzat. Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuak «aitzindaritzat» jo zuen plana, eta honela azaldu zuen Jaurlaritzaren iritzia: «heziketa-sistema gero eta eraginkorrago eta efizienteago baten giltzarrietako bat da plana; sistemak bere barnean elkartzen dituen interes-taldeentzako erantzunak ematen ditu: enpresak, langileak, gizarte-eragileak, etab.» (IVAC, 1999). Interes-talde horiek nabarmentzen zuten, hain zuzen, Planaren garrantzia. Enpresa-munduaren ikuspegitik, Lanbide Heziketako euskal planak eta, oinarrizko ibilbide estrategikoari hasiera ematen dion heinean, *Lanbidez* plana giltzarriak dira EAEn LHk izan duen bilakaera ulertzeko (IVC, 1999). *Lanbidez* plana prestatzen parte hartu zuten sindikatuak ere pozik zeuden, nabarmen, patronalaren eta sindikatuen arteko adostasunari esker iritsi zirelako egoera horretara. Plana onartu zenean abstenitu bazen ere, CCOO sindikatuak aitortu zuen jauzi kualitatibo bat zela «Lanbide Heziketaren arloan plan estrategiko bat izatea planteatzen hastea zelako», eta horrek agerian uzten zuen «Lanbide Heziketari herrialde honetan eman nahi zitzaion transzendentzia»[10].

Ikuspuntu instituzionalago batetik begiratuta, Arévalok[11] nabarmentzen du Plan hau, eta ondoren etorri zirenak, LHko ikastetxeen esperientzian oinarritzen zela, eta Planaren arrakastak lotura zuzena zuela ikastetxeek bertan parte hartu eta lagundu izanarekin. Mujika[12] ere ados dago iritzi horrekin, bai eta EAEko Lanbide Heziketa «barrutik» bizi izan zuten beste protagonista asko ere. Euskadiko Eskola Kontseiluak ere, alde batetik, azpimarratu zuen zein baliotsua zen *Lanbidez* planak egindako diagnostikoa, prestakuntza-eskaintza arautuaren eta garapen ekonomikoaren nahiz enpleguaren artean zeuden desorekak zuzentzera bideratua. Eta nabarmendu zuen, bestetik, prestakuntzaren kalitatearen alde Planak egiten zuen apustua (Consejo Escolar de Euskadi / Euskadiko Eskola Kontseilua, 2001), bai eta, Planak bere sorreratik ekoizpen-munduarekiko zuen interesaren erakusgarri, Erabateko Kalitatean oinarritutako kudeaketa —eta ebaluazio— sistemen kalitatearen alde egin zuen apustua ere. Kontseiluak orobat azpimarratu zuen garrantzitsua zela aurre egitea lan-merkatura iristeko prestakuntzarik ez zuten gazte askok hezkuntza-sistema bertan behera uz-

---

[10] Arantxa Martínezi egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko otsailaren 20a.

[11] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a. Eredu britainiarrak, lanbide-heziketaren eredu integratu gisa, Planean izan zuen eragina nabarmendu zuen.

[12] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

teko zuten joerari. Amaitzeko, nabarmendu nahi dugu ezen handik urte batzuetara, eta, proiektuak burutu ondoren, hasieran asmo baten adierazpena besterik ez zenari denborak eta ebaluatzeko gaitasunak eskaintzen duten perspektibatik begiratuz, Angeles Iztuetak, Jaurlaritzak (EAJ eta EAren arteko koalizioz) bere VII. legegintzaldian izan zuen hezkuntza-sailburuak nabarmendu zuela lehen Euskal Plana iraultzailea izan zela lanbide-heziketaren arloan, eta, izan zituen lorpenei esker, aintzatespena jaso zuela nola Estatutik, hala Europatik.

2.2. **Tradiziotik berrikuntzara: Lanbide Heziketaren II. Euskal Plana (2004/2007)**

Lanbide Heziketaren II. Euskal Planaren izendapenak berak EAEko LHk berrikuntzaren bidea jorratzeko zuen espirituaren neurri zehatza ematen du. Eragile instituzional, profesional eta sozialen askotariko ahaleginak uztartzen zituen tradizioa aintzat hartzeaz batera, Angeles Iztuetak adierazpen esplizitua egin zuen EAEko Lanbide Heziketak egiaztatua zuen kalitate gorenari buruz, LHk ezin hobeto erantzuten baitzion oinarrian zuen hezkuntza-sistemaren eta ekoizpen-sektoreen arteko harreman beharrezkoari (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2005). «Gure Lanbide Heziketa Europako onenen artean» dago esatearen autokonplazentziatik harago, sailburuordeak etengabeko hobekuntzaren beharra jo zuen aldaketa atergabeei —sozial nahiz ekonomikoei— eraginkorki erantzuteko giltzatzat, ezinbestekoa baitzen aukera malguak eta kalitatezkoak etengabe sortzeko gai izatea; beraz, berrikuntzak izan behar zuen, nahitaez, LHren funtsezko filosofia. EAEko Lanbide Heziketak errotiko eraldaketa jasan zuen XX. mendearen azken hamarkadan, eta oinarri ekonomiko eta antolaketazko sendoak izatera iritsi zen, baina euskal LHk beti harrotasunez erakutsi duen dinamismo horrek erronka berriei egin behar izan zien aurre. Ekoizpen-sistemak lanbide-kualifikazioari dagokionez zituen eskakizunei LHk hobeto erantzuten ziela onartu arren, Plan berri honek etengabeko «alerta-egoera» baten behar estrategikoa azpimarratzen zuen, hiru elementu hauei zegokienez: etengabe aldatzen den testuinguru batean zer prestakuntza-behar dauden hautematea, eragile instituzional, hezitzaile eta sozialen arteko lankidetza eta koordinazioa lortzea eta azkar eta eraginkor erantzuteko gai diren azpiegiturak izatea. Plan hau onetsi aurreko hamar urteetan eraikitako egitura sendogarri izan zen, zalantzarik gabe, EAEko LHrentzat. Esate baterako, Lanbide Heziketako sailburuordetza sortuz geroztik, EAEko LHk funtzionamendu-esparru autonomoagoa izan zuen, eta horrek hurrengo urteetako garapenaren norabidea finkatu zuen. Oinarri horiek erabiliz eta Euskal Lanbide Heziketaren lurzorua estrategikoki aprobetxatuz, II. Planak bilbe bat eraiki nahi zuen, elementu hauek uztartuko zituena: ezagutzaren, prestakuntzaren eta merkatuaren arteko

harreman nahitaezkoa, LHren ikastetxeek ardatz estrategiko gisa duten protagonismoa, ezagutzaren eta heziketaren etengabeko berrikuntza eta teknologia berriak.

Lanbidez planaren oinarrizko lerro estrategikoetako batzuk mantendu arren, II. Planak berrikusi eta optimizatu nahi izan zuen sortutako jarduketa-esparrua, eta, horretarako, esparruaren irismena aztertu eta, beraz, lan-ildoak berritzeko komenientzia analizatu nahi zuen. Hori dela eta, zenbait arlo estrategikori heldu zien, euskal LH eguneratzera eta hobetzera bideratuak: kualifikazioen eta lanbide-heziketaren sistema integratua, kalitatearen aldeko apustua, berrikuntzaren kultura eta IKTen sustapena. Planaren lehentasunetako bat kualifikazioen eta lanbide-heziketaren sistema integratua eguneratzea eta hobetzea zen, hau da, gaitasunak identifikatzea eta sisteman integratzea, eta, horretarako, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Kontseiluak izaera publikoa bereganatu behar zuen «heziketa-politikak ezartzeko eta diseinatzeko eskuduntzak eskuratu». Beraz, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokiari eskatu zitzaion rol estrategikoago bat izatea, hiru erreferentzia hauek oinarrizkotzat hartuz: lan-munduan txertatzea, merkatuaren analisia egitea eta lanbide-kualifikazioen ikuspuntutik erabakigarriak ziren alderdi guztiak ikertzea. *Lanbidez* planak finkatutakoari jarraituz, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Institutuak katalogo bat landu zuen II. Plana martxan jarri aurreko lau urteetan. Heziketari buruzko katalogo hura baliagarria izan zen elkarrengana hurbiltzeko lanbide-heziketa eta enpresetatik zetorren prestakuntza-eskaera. Estrategiaren ikuspuntutik zetorren hurbiltze-premia hori; beraz, Institutuak zeregin garrantzitsuagoa zuen orain, ekoizpen-moduen bilakaera ikertu eta lanbide-kualifikazioak nola eralda zitezkeen finkatu behar baitzuen. Horretarako, ezinbestekoa zen Behatokiaren lankidetza. Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak, bestalde, proiektu berri bati ekin zion; «ikaskuntza ez-formalak eta informalak aintzat hartzeko, ebaluatzeko eta egiaztatzeko tresna» garatzeari, alegia. Helburua zen LHko ikastetxe integralak heziketaz arduratu ez ezik I+G+Bko proiektuak garatzeaz ere arduratuko diren inguruneak izatea. Haien irakasleen eta baliabide didaktiko eta teknologikoen potentziala kontuan hartuta, eta lortu zuten arrakasta eta garapena ikusita, garrantzi handia eman zitzaion ikastetxeen zentraltasunari; izan ere, ikastetxe integratuek zeresan handia zuten kualifikazioei lotutako prestakuntza ezartzeko esparruan. LHko ikastetxe integralak toki ezin egokiagoa ziren «irakaskuntza/ikaskuntza prozesuetan I+G+B proiektuak garatzeko, kudeaketa-ereduak eta teknologia berriak aplikatzeko edo fabrikazio aurreratua ezartzeko». Hori izan zen Lanbide Arlo bakoitzaren esparruan erreferentziako ikastetxe gisa hautatu zirenen kasu berezia. Ikastetxe horiek, ikuspuntu estrategikotik begiratuta,

erreferentziazkoak ziren, irakasleen prestakuntzari zegokionez, beti ere helburu hartuta kualifikazioen sistema integratua eta LHko ikastetxeen eta lantokien arteko harremana. Kudeaketa malgua, zegokion finantzazioa eta ikastetxeen funtzionamendu egoki eta eraginkorra lortzeko, premiazkoa zen araudia lehenbailehen garatzea, eta planteatuko ziren plan estrategikoek behar besteko malgutasuna izatea, instituzioen «gerriko estua» askatuta, kasu askotan jarduteko ahalmena mugatzen baitzuten. Hori guztia, jakina, ikastetxeen jarduera zainduko zuten gizarte-eragileen kontrol eta parte-hartze nahitaezkoarekin, eta, beti ere, gardentasunaren aldeko borondate garbiarekin.

Euskadiko Lanbide Kualifikazioen Sistema ezarriz geroztik pilatutako esperientzia baliatuta, II. Planak Kualifikazioen Katalogoa prestatzeari ekin zion, kalitate-maila gorena lortzeko asmoz. Testuinguru horretan, prestakuntzari buruzko Katalogo Modular Integratua egin zen, jakintza-alor berriak eta etengabe ikasteko gaitasuna kontuan hartzeko komenientziaren ondorioz. Planaren beste asmoetako bat zen aktiboan zeuden langileen gaitasuna ere aitortzea eta balioestea Kualifikazio Sistemako ziurtapen batzuen bidez, haiei esker langileek beren gaitasunaren egiaztapena lortzeko. Ildo horretan, oinarrizko gakoa zen zenbait estrategia ezartzea herritarrak irits zitezen onartzera Etengabeko Prestakuntza edozein lan-jardueraren garapenaren parte saihestezina dela; Lanbide Heziketako irakasleak ere barne harturik. Irakasleentzat funtsezko giltzarria zen beren Etengabeko Prestakuntza, Heziketa Arautuaren eremutik harago[13], prestakuntzaren beste eremu batzuetara ere iristeko ikuspegi metodologiko berritu eta berritzaile batez; horrekin batera, eta logikari jarraituz, ezagueraren eta bilakaera teknologikoaren ikuspuntutik eguneratu beharra zegoen, eta lankidetzarako jarduketa-esparru bat sortu, enpresa-mundua, unibertsitatea eta institutu teknologikoak besarkatuko zituena.

Bigarren Planaren beste ildo estrategikoa kalitatea da. *Lanbidez* planak jada kontuan hartu zuen, dena dela. Lehenengo urteetan, hainbat lan egin ziren LHko ikastetxeetan: barne-ikuskapenak egin ziren EFQM ereduari jarraituz, Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak LHren sistema ebaluatu zuen, ematen ari ziren prestakuntza Kualifikazio Sistemara zenbateraino egokitzen zen ebaluatu zuten, eta zenbait kanpo-ikuskapen egin ziren, Aenor eta Euskaliten eskutik, besteak beste. Sailburuordetza sortu «berri»aren protagonismoak garrantzia irabazi zuen, Lanbide Heziketaren sistemaren hainbat dimentsio uztartzen zituelako eta talde konplexu baten gidaritzari erabateko gaitasunez ekin ziolako. Euskal Lanbide Heziketaren arkitekturan, erdigunean zeu-

[13] Edozein kasutan, heziketa arautuak ekoizpen-sektore guztien etengabeko eraldaketetara egokitzeko premiari erantzun behar zion.

den LHko ikastetxeak, eta, horri esker, azken finean proiekzioak besterik ez zirenak —herrialdearentzat ustez abantailatsu eta positiboak— eraginkorki gauzatzeko bultzada eman zuten. Ikastetxeak planaren arretagunea dira, baita kalitatearen ikuspegitik ere, eta ikastetxeei beren barnean kalitateko ereduak ezartzeko egindako «ahalegin eskerga» aitortzen zaie eta lortutakoak goraipatzen. Planak, beraz, ikuspegi horren aldeko apustua egin zuen berriro ere, Erabateko Kalitatearen esparruan. Asmo handiko apustua zen, LHko ikastetxeek bikaintasuneko estandar gero eta zorrotzagoak lortzea baitzuen helburu, bai kudeaketan, bai etengabeko hobekuntzan, bai errendimenduaren ebaluazioan, bai prozesuetan, bai subjektuen parte-hartzean, baliabideen erabileran, eta abarretan. Hori dela eta, euskal LHk «kalitatea hartu nahi du berrikuntzaren eta etengabeko hobekuntzaren erreferentetzat» (Navarro, 2013).

Berrikuntza da Planak bildutako asmo guztien funtsezko zutabe estrategikoa. Berrikuntzak hainbat arlo biltzen ditu, luze-zabal: lanbide-heziketaren edozein azpisistematan eskaintzen diren ikastaroak, haien diseinua eta benetako irismena (errendimenduari eta gaitasunak eskuratzeari dagokienez), ikasgelan zein lantegian dauden aukera didaktiko-metodologikoak edo erdietsitako efizientzia-maila, ingurune sozial eta ekonomikoari eskaintzen dizkion zerbitzuak, laguntza-zerbitzuak, ikastetxeen eta egituren kudeaketa, profesionalen eta ikasten ari diren pertsonen kudeaketa, etab. Lanbide Heziketaren etengabeko hobekuntzak arlo horien guztien analisia eta ebaluazioa egitea eskatzen zuen, eta, hala, indarguneak are gehiago sendotu, norabidea kalitatearen zeruertzean jarria zuten auditoriei esker jardunbide egokiak hautemanez eta behar zen tokietan zuzenketak eta hobekuntzak proposatuz. Agertoki horretan, euskal LH «estatuko aurreratuena eta Europako punta-puntakoena» (Navarro, 2013) zen, baina ez luke bertan goxo alferrik egon behar, baizik eta lanean jarraitu agertoki hori sendotzeko, ikastetxeek —euskal LHren ezaugarri den lankidetzaren oinarrizko printzipioari jarraituz— sarean egiten duten lana baliatuta[14].

Berrikuntzari, beraz, arreta zuzena eta berariazkoa eskaini zion Planak hirugarren arlo estrategiko gisa, etengabeko hobekuntzaren prozesuaren barruan sartu behar zela sinetsita. Agertoki berezi bat behar zen, arlo ugari bilduko zituena: prestakuntza-prozesuek berrikuntza teknologikoa behar zuten, irakasleen funtzioaren eta ikaskuntza-sistemen kontzeptua berritu egin behar zen, prestakuntza-ibilbideak birpentsatu behar ziren, berregokitzapen berriek zer eraldaketa eskatuko zuten aurreikusi

[14] Planak agerian utzi zuen «sareak proiektu-talde gisa itxuratu direla eta, oro har, talde-lanaren metodologiarekin eta diziplinarekin lan egin dutela, ezarritako proiektu estrategikoei jarraituz».

behar zen, LHko ikastetxeen eta enpresa-munduaren arteko lankidetza-esparrua aberastu eta berriro balioetsi, ikastetxe horien sarea ezagutzaren sare gisa konfiguratu, etab. Azkenik, eta LHk herrialdean zuen garrantzi estrategikoa ikusirik, «Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Zentroa» sortzeko egin zen apustua nabarmendu behar da. Zentro hori berrikuntza-proiektuak garatzeko erreferentzia bat izango zen LHko ikastetxeentzat. Horren ondoren, ikuspegi estrategikoak forma hartu zuen handik gutxira, eta, 2005ean, Tknika sortu zen, EAEko LH hemen aipatzen dihardugun dimentsio estrategikotik modu adierazgarri batean ordezkatuko zuen elementu bereizgarria.

II. Planaren amaieran, planaren finantziazioa zehatz-mehatz xehatzeko gaia azkenerako utzita, hainbat gairi heldu zitzaien: teknologia, ekipamendua, plangintza, lan-moduak, instrukzio-materialak, gastu-optimizazioa, LHko ikastetxeen administrazioa, irakaskuntzako baliabideen erabilera edo ikaskuntzarako euskarriak. Lanbide Heziketan teknologia berriak erabiltzeak oso eragin positiboa izan zezakeelako pertzepzioa zen gai horien gakoa. Prestakuntzari ikuspegi berritzailez ekitea zen kontua, eta, ikuspegi horretatik tiraka, informazioaren gizartearen testuingurua baliatuta, e-Learning deritzonera iristea. Ez zen bakarrik arlo teknologikoari zegokion zerbait; ikastetxe zein profesionalen inplikazio aktiboa ere behar zen, azken finean eragile ordezkaezinak baitziren biak ala biak, halako euskarri baten ahalmen guztia behar beste ustia zedin. Ildo horri jarraituz, arestian aipatu dugunaren emaitza litzateke irakasleak hobeto prestatzea eta eguneratzea —nola teknologikoki, hala didaktikoki—, ikastetxeak baliabidez eta ekipamenduz hornitzea eta hori guztia EAEko LHren sare batean uztartzea, ondorioz sarearen eragile eta bereizgarri izango den printzipio bat mamitzeko: elkarlaneko irakaskuntza eta ikaskuntza, nola LHko ikastetxe bakoitzean, hala ikastetxeen artean.

Lanbide Heziketako II. Euskal Planak berebiziko dimentsioa eman zion EAEko Lanbide Heziketaren panoramari aurreko garaiekin alderatuta, eta jauzi kualitatibo handia eragin zuen berrikuntzaren erronkari erantzun nahi zionez (Mujika, Intxausti, 2018). Hala, berrikuntza zen, zalantzarik gabe, euskal Lanbide Heziketaren nortasunaren adierazgarria. Eta garrantzitsua zen hori Lanbide Heziketaren euskal ereduaz hitz egiteko orduan. Mujikak asko nabarmentzen du II. Plan horren garrantzia arestian adierazi dugunari lotuta[15]. Arévaloren ustez, berriz, Estatuari itxaron gabe, euskal LHk aurrea hartu zuen gai horretan, nolabaiteko lidergoa erakutsiz, eta horrek are sendotasun handiagoa ematen zion euskal Lanbide Heziketaren eredu gisa definitzen zenaren berezitasuna berrikuntza zelako ideiari: «II. Planak estaldura handiagoa eman

[15] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

zion heziketaren arloari, eta gizarte-eragileekin, Jaurlaritzarekin eta aldundiekin hitzartutako eremu berri bat ireki zuen; horri esker, ordura arte gure esku ez zegoen eremu bat jorratu ahal izan genuen … berrikuntza»[16].

II. Plana idazteko prozesuan —*Lanbidez* planaren kasuan bezala— sumatu zen adostasunerako borondatea nabarmendu zuen Iztueta sailburuordeak. Lankidetza euskal LHren ezaugarri nagusietako bat izan zen, nabarmen. LHren berariazko identitatea sortzen lagundu zuen pieza funtsezkoetako bat izan zen. Confebaskek berak ere honela definitu zuen XXI. mendearen bigarren hamarkadaren amaieran: «euskal LHren arraskaren eta Europan lortutako ospearen gakoa da» (Larrañaga, 2019). Lankidetza hori agerian geratu zen II. Plana aho batez onartu zenean, ELA eta LAB sindikatuak orduan ere bertaratu ez arren; izan ere, lankidetza ez da «berezko» zerbait, «sortu» egin behar da. Adostasun hura prozesu baten emaitza izan zen, zeinean, LHren sailburuordetzak egindako lehen proposamena oinarri hartuta, Kontseilua osatzen zuten eragile askoren ekarpenen % 94 biltzera iritsi baitzen. CCOOk «alde guztiek» erakutsitako ahalegina baloratu zuen, eta gizarte-eragileen parte-hartzea nabarmendu, UGTk bezala, zeinak Planaren izaera pozgarria azpimarratu baitzuen. Enpresarien ordezkariek, berriz, Planaren izaera estrategikoaren balioa[17] nabarmendu zuten. Asmo handiko dimentsio hori dela eta, foru-aldundiek beren adostasuna eta lanerako gogoa erakutsi zuten.

Hala ere, Plana arrakastaz gauzatzeko ate guztiak ireki zitzakeen giltza ziren heinean, Lanbide Heziketako ikastetxeei zegokien garrantzia eman behar zitzaien. Adibidez, AICE ikastetxe itunduen elkarteak garrantzitsutzat jo zuen LHko ikastetxeek gidalerro batzuk izatea, haien lana gidatuko zutenak. HETEL ikastetxe itunduen beste elkarteak hitz hauek erabili zituen Planaz hitz egitean: «oso tresna egokia Lanbide Heziketa garatzeko». Ikastetxe publikoen ordezkaritzak pozik hartu zuen lortutako adostasuna-maila, eta lankidetzaren bidetik lanean jarraitzeko prestasuna adierazi zuen, euskal LHk aurrera egiteko funtsezkoa zela iritzita. Sailburuordeak berak ere oso hitz ederrak erabili zituen nabarmen uzteko zein garrantzitsua zen lankidetza lortzea instituzioen —Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak— eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluko kide guztien artean, Euskadirentzat hain estrategikoa zen erronka horretan hitzarmenak bilatu eta lortzeko, «egintzetan» oinarritutako estiloari eutsiz. Gure elkarrizketetako lekuko ia guztiek behin eta berriro nabarmendu digute «egitea» ez ezik «egiteko modua» izan zela elementu esangura-

---

[16] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[17] Confebask-en ordezkariak nabarmendu zuen Planak, haren ekarpenez jasotzen duen «enpresa-munduko filosofia»

tsuena: lankidetza, hitzarmenak, proiektuetan parte hartzea eta autonomia izatea, taldeko kide izatearen sentimendua, taldeko lanean protagonista sentitzea eta, azken finean, herri-izaera izatea.

Plana onetsi eta denbora gutxira, 2002/2004 denboraldiari zegokion txostena idatzi ondoren, Euskadiko Eskola Kontseilua «LHren Euskal Planaren garapenari hauspoa ematearen» alde agertu zen (Consejo Escolar de Euskadi / Euskadiko Eskola Kontseilua, 2006). Hurrengo urteetan, positiboki balioestekoa iruditu zitzaion Eusko Jaurlaritzak eta euskal instituzioek lehentasunezko arreta eskaini izana Lanbide Heziketari hezkuntza-sistemaren barruan, LHk EAEn zuen izen onaren alde egiten zelako horrela. Eta horren isla izan zen plan estrategikoa finantzatu izana, ezarritako helburuak lotzen lagunduko zuelakoan (Consejo Escolar de Euskadi / Euskadiko Eskola Kontseilua, 2006). Aipamen berezia merezi du, orobat, Tknika sortu izanak. Lanbide Heziketako II. Euskal Planaren helburu garrantzitsuena izan zen, eta Euskadiko Eskola Kontseiluak arreta berezia eskaini zion 2006/2008 denboraldietako irakaskuntzaren egoerari buruzko txostenean, zeinean azpimarratu baitzituen haren lehentasunezko jarduera-ildoak, berrikuntzarena izanik denen zehar-lerroa (Consejo Escolar de Euskadi / Euskadiko Eskola Kontseilua, 2006).

2.3. **LH berria, herri-marka: Lanbide Heziketako III. Euskal Plana (2009/2011)**

Plan hau onartu zenean (2011), testuingurua ez zen erraza: batetik, 2009an gobernua aldatu izanak[18] aldaketa nabarmena eragin zuen euskal politikan eta, ondorioz, hezkuntza-politiketan, baita Lanbide Heziketaren esparruan ere; bestetik, ekonomiaren globalizazioa nagusitzen ari zen, eta testuinguru horrek gako garrantzitsu batzuk ezarri zituen, euskal ekonomiak garai hartan bizi behar izan zuen egoera ulertzen laguntzen dutenak, egoera oso larria baitzen (Aranguren, Navarro, Peña, 2013). Planak nabarmentzen zuen bazela «ozeano ekonomiko global bakar» bat (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2011), eta testuinguru hartan ulertu behar zela krisia eta enpresa-mundua nazioartera zabaltzeko «premia». Euskal LHk ere erreferentzia nagusi hartan nabigatzen ikasi behar zuen. Testuingurua azkar eta errotik eraldatzen ari zenez, «erantzun arrakastatsuak» emateko erronkari erantzun beharra zegoen; horretarako, aldaketa kultural batzuk egin beharra zegoen, eta euskal LHk nahitaez kokatu behar zuen agertoki berri horiei erantzuteko, hala nola kualifikazio-premiari, ekin-

[18] Gobernu-aldaketa ezker abertzalearen ilegalizazioaren ondorio eta konstituziozaletzat hartzen ziren alderdiek Eusko Jaurlaritzatik euskal abertzaletasuna kentzeko bat egin izanaren ondorio izan zen, funtsean.

tzailetzari, etengabeko prestakuntzari, eta abarri. Nolanahi ere, erantzunek, arrakastatsu izango baziren, ezinbestean erantzun behar zioten asmo handizale bati: bikaintasuna lortzea. «Arrakasta» lortzeko, beraz, nahitaezkoa zen EAEko Lanbide Heziketak ordurako egiten hasia zuen ibilbideari sendo eustea: begirada Europan jarrita zeukan, eta, hango kualifikaziorako betebeharrak asetzeko, lanbide-heziketa eraldatu behar zen, eta, «norberaren lan-sustapena, enplegagarritasuna eta gizarte-kohesioa» lortzeko, irmo egin behar zen bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren alde (etengabeko ikaskuntzari lege-izaera eman zitzaion gero).

Europara «begiratzeko» komenientzia baino gehiago estrategia komun bat izatekoa azpimarratu zen. 2000an Lisboako Estrategia aurkeztu zen, eta 2005ean berriro plazaratu. Aurrekari horiek ikusirik, 2020ko Europa Estrategia gauzatu zen, eta horrek ezarri zuen Plan honen norabide estrategikoa. Aurreko planarekiko jarrera kritikoa hartuz, Plan honek hobekuntza batzuk proposatzen zituen «Estatu eta Europa mailako estrategia eta prozesuetan aktiboki parte hartzeko» (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2011). Europar Batasunaren helburu estrategikoak bere egiteaz gain, Estatuak berariaz proposatu zituenekin ere bat egiten zuen Planak. Nolanahi ere, III. Planaren abiapuntuko egoera oso aldekoa zen. Gainera, ordura arte egindako ibilbide historikoa hartu behar zen kontuan, zeina beste inguru batzuekin alderatu besterik ez baitzegoen agerian uzteko LHk osasun ona zuela EAEn[19]. Osasun hori are gehiago indartzeko, Planak proposatzen zuen zenbait zuzenketa egitea ordura arteko norabidean. EAEko LH modernizatzea beharrezkoa zen; izan ere, herritarren kualifikazio baxuen ondorioak konpondu behar ziren lehiakortasuna hobetuko bazen, biztanleria gero eta nagusiagoarekin konektatu beharra zegoen LH, gizarte-kohesioa hobetu behar zen, gizarte-bazterkeria eragin zezakeen pobrezia-arriskuari aurre egin behar zitzaion eta, azkenik, lan-munduaren eskakizunei erantzun behar zitzaien. Kopenhageko prozesua erreferentziatzat hartuta, eta 2020rako ezarritako helburuei begira, EAEko LH modernizatzeko kualifikazio-sistemak behar ziren. Hau zen Kopenhageko prozesuaren helburua: «irakaskuntzaren eta lanbide-heziketaren arloetako lankidetza indartzea, interesdun alderdi guztien parte-hartzea bilatuz, eta hala tokiko eskalan nola eskualde, estatu eta Europako eskalan lan eginez» (Morales, 2010). Kualifikazio-sistemak erabilita, aukera egongo zen gaitasunak eta lanbide-kualifikazioak egiaztatzeko eta kreditatzeko hainbeste modu egoteak dakarren zatiketa gainditzeko. Hala, Lanbide Heziketako sistema sendo bat garatuko zen,

[19] Lanbide Heziketako graduazio-tasak Estatuko handienak ziren zalantzarik gabe. Gaitasunak aintzat hartzeko mekanismoak ere oso emaitza onak ematen zituen, eta euskal enpresek iritzi positiboa zuten.

askotariko prestakuntza-aukera gehiago aitortuko zuena, eta ase egingo ziren, hala, prestakuntza-prozesuetan murgilduta daudenen eta lanmerkatuaren premiak.

LH modernizatzeak orobat esan nahi zuen LHren zenbat elementu indartzea, aukera erakargarria izan zedin biztanleentzat. Hiru faktore nagusi hauetan oinarritu behar ziren jarduera-ildoak: a) prestakuntza-ibilbide erakargarriak aukeratzea, eskainitako prestakuntzaren kalitateagatik eta ibilbideen kudeaketagatik bereizten ziren erakundeetan; b) prestakuntza-aukerak, enplegagarritasuna eta enpleguarekiko egokitasuna bat etortzea, eta c) pizgarri ekonomikoak, prezioak, laguntzak eta zerga-pizgarriak. Horrek eskatuko zuen aukera hori egin zezakeen pertsonak informazio egoki guztia izatea, neurri eraginkorrak hartzeko bere lanbide-orientazioari dagokionez. Baina zatikatzea hain handia zenez gai horretan, emaitzak ez ziren izaten nahi bezalakoak. Hori konpontzeko, zerbitzu guztiak sistema batean integratu behar ziren («LH berria, herri-marka», 2009). Planaren proposamenetako bat zen behar horri erantzungo zion mahai tekniko bat eratzea, gizarte-eragileak eta LHko ikastetxeak bilduko zituena, Eusko Jaurlaritzaren begiradapean. Lanbide Heziketaren modernizazioari zegokionez, III. Planak irakaskuntzaren kalitatearen garrantzia eta heziketaz zuzenean arduratzen direnen profesionalizazio egokia azpimarratzen zituen; izan ere, profesionalizazio horrek berekin zekarren ulertzea nolako zailtasunak zituzten irakasleek gero eta eskakizun handiagoak ezartzen zizkien testuinguru batean. Eskakizun haiek irakaslearen ohiko rola gainditzea eskatzen zuten. Izan ere, irakaskuntzako profesionalen prestakuntzak beste eremu hauek ere jorratu behar zituen: gizarteratzea, berrikuntza, ekintzailetza, ikerketa, enpresarekiko harremana, Hasierako Prestakuntza, Etengabeko Prestakuntza, eleaniztasuna, gobernantza eta abar. Ikuspuntu pedagogiko eta didaktikotik begiratuta, gakoa zen ikasleari zentraltasuna ematea, eta hari begira egitea prestakuntza-prozesu osoa. Horretarako, malgutasuna behar zen metodologia aldetik, baina ahaztu gabe zein garrantzitsua den komunitatearekiko eta enpresa munduarekiko lotura sortzea, horien prestakuntza-premiak ere ase behar baitira.

ET2020 esparrua helburu hartuta, Lanbide Heziketako III. Euskal Planak jarraitutasuna eman zien *Lanbidez* planarekin hasitako denboraldiko ezaugarri estrategiko nagusiei, ekarpen bat edo beste eginez, hala nola garai berrietara egokitzeko eguneraketa gehituz, edo, aurreko politiken balantzeari eta identifikatutako erronkei jarraituta, norabide-aldaketa batzuk eginez. Isabel Celaá Hezkuntzako sailburuordeak argi utzi zuen Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak egindako lanaren garrantzia, eta nabarmen jarri zuen «hainbat urtean lozorroan egondako zerbait aktibatu izanaren balioa», aipamen argia eginez, ukitu kritiko batekin, aurreko Eusko Jaurlaritzaren politikari. Orobat, azpimarratu zuen ezen plan berriari esker «Lanbide Heziketaren premia garaikideekiko konexioa» lor-

tuko zela. Lanbide Heziketako sailburuordea ere oso kritiko agertu zen aurreko gobernuaren jardunarekiko. Baina ez LHri zegokionez; LHren kudeaketari zegokionez, aldeko iritzia zuen. Izan ere, haren esanetan, Estatuan ez bezala, hemen ikastetxeen sarea lurraldeari eta bertako errealitateari oso lotuta zegoen, sarea kalitatezkoa zen, ikastetxeek ekipamendu onak zituzten eta, gainera, «ekoizpen-munduarekiko lotura» egokia zuten. Hori zen «gure desberdintasunaren muina»[20]. Aldiz, aurreko Jaurlaritzaren Sailburuordetzak hainbat arlotan izan zuen ikuspuntuarekikoak ziren haren kritikak, hala nola ikastetxeen finantzaketarekikoak eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren jarduerarik ezarekikoak; sailburuordearen esanetan, «Kontseilua hilzorian utzi zen, eta lanbide-heziketa erabat gelditu zen». Hain zuzen ere, II. Planak ez zuen jarraipenik izan 2004/2007 indarraldia amaitu zenean, eta, sailburuordearen ustez, Lanbide Heziketako III. Euskal Plana sortzea beharrezkoa izan zen hutsune nabarmen hura betetzeko.

Ikuspuntu ez nahitaez politiko batetik begiratuta, Lanbide Heziketako III. Euskal Planak bazuen bere balioa; izan ere, Tknikarekin hasitako lana indartzeko balio izan zuen (Astigarraga, E.; Agirre, A.; Carrera, X., 2017). Ez dugu ahaztu behar II. Planaren emaitza eta ondoren sortutako jardueraren emaitza izan zela Tknika. Hala ere, harrigarria da ikustea LHko Sailburuordetzak bazuela nolabaiteko deskonfiantza Tknikaren jarduerarekiko eta haren «nazioartekotzeko grina»rekiko. Azken dimentsio hori gogotsu landu zuten Sailburuordetzaren aurreko arduradunek. Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuarentzat ere (EEI), EAEko LHren berrikuntza-indarguneetako bat zen nazioartekotzeko grina hori (EEI, 2013), beste hainbat gairekin batera: Lanbide Heziketaren Sistema Integratua, ekoizpen-ingurunearekiko harremana, etab. Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak III. Plana aztertu zuen, eta oinarrizko arlo hauek izan behar zituela nabarmendu zuen: a) ekoizpenaren eta kudeaketaren eremuetan gertatzen diren eraldaketei egokitzeko, prestakuntzan nahitaez hartu behar zuten parte eraginkorra eragile ekonomiko eta sozialek; b) lanbide-heziketari eta kualifikazioari dagokionez LHren eskaintza zabaltzeko informazioa eta orientazioa emango zuen sare bat behar zen; c) ikaskuntza —nola formala hala informala— aintzat hartzeko, sistema batzuk aktibatu beharko ziren ekoizpen-sisteman sortutako trebakuntza-premiei erantzuteko; d) azkenik, LHko ikastetxeetan eta Lanbide Heziketako eta Etengabeko Hezkuntzako Sailburuordetzan egiten zen guztiaren egokitasuna ebaluatzeko eta horren jarraipena egiteko sistemak sortu behar ziren.

---

[20] José Carlos Crespori egindako elkarrizketa, Santander, 2019ko uztailaren 18a.

Adostasuna eta lankidetza-espiritua ziren Planaren giltzarriak, eta halaxe nabarmendu zuen Gemma Zabaleta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuordeak, zeinak ez baitzeukan ahaztuta eskakizun aspaldiko bezain beharrezko baten garrantzia: testuinguru hartako politika aktiboen transferentziak lortzea. Hala, sailek eta Jaurlaritzak berak lortutako akordioek balio handiagoa lukete; izan ere, denen ahaleginak batuko lituzkete, baita gizarte-eragile, enpresari, sindikatu eta, nola ez, Lanbide Heziketako ikastetxeenak ere. Eusko Jaurlaritzaren eta UGT eta CCOO sindikatuen jarreren arteko adostasuna nabaria da, haien ordezkariek Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan egin zituzten adierazpenak irakurrita. Adostasun hartan partaide zen, orobat, enpresarien ordezkaritza, zeinaren ustez III. Plana etorria baitzen euskal LHren norabiderik ezaren arazoa konpontzera, «umezurtzaldiari» amaiera emanez. Ikastetxe itunduek, berriz, aspalditik zetorren ziurgabetasuna aipatzen zuten. Nolanahi ere, aho batez onetsitako Plan horrekin aurreko ziurgabetasun guztiak konpontzen ziren; izan ere, LHko ikastetxeek, baita publikoek ere, plan estrategikoetan kontuan hartuak izateko «agiri» bat eskatzen zuten, hau da, Plan hori bera. «Ikastetxe guztiak norabide berean jartzea zen» azken helburua.

2.4. **LH desberdin baterantz: Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana (2014/2017)**

Aurreko Plana gauzatzeko epea agortu aurretik, Jaurlaritza berriak, 2012an hautatuak, hamalau plan estrategikoko egutegi bat onartu zuen legegintzaldi berrian (Eusko Jaurlaritza, 2013). Plan horien artean zegoen Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana (Eusko Jaurlaritza, 2014). Beste planekin batera, Lanbide Heziketari buruzko Plana ere lehentasunezko jarduketa-esparruetako bat izan zen, Euskadirentzat izaera estrategikoa zuela ulertuta. Testuinguru politiko berrian[21], ezin da ukatu bazela nolabaiteko gogoa EAEko lanbide-heziketaren gidaritza berreskuratzeko[22]. Gobernu berriaren ustez, «Lanbide Heziketa faktore

[21] Aurreko gobernuen ezaugarriak ez bezalakoak zituen gobernu bat lortu zutenen artean ez ziren akordio batera iritsi, eta hautsi egin zen gobernua. Gainera, ETAk armak behin betiko utzi zituen, eta hauteskundeak aurreratu ziren. EAJ gobernua «itzultzea» izan zen emaitza.

[22] Hauteskundeak aurreratu zirenez, aurreko gobernuak ezin izan zuen Plana gauzatu, eta krisi ekonomikoak ere zeresan handia izan zuen horretan (José Carlos Crespori 2019ko uztailaren 18an egindako elkarrizketa. Santander), nahiz eta lanbide-heziketa ondo finantzatutako arloa izan tradizioz. Ez dugu ahaztu behar euskal LHko aktore eta eragile asko oso kritiko agertu zirela sozialisten legegintzaldian egin zenarekin eta egin ez zenarekin.

giltzarria da herrialde baten lehiakortasunerako; hori dela eta, gobernu-politiken estrategiaren parte izan behar du». Gainera, Euskadik krisi ekonomikoaren ezpatapean jarraitzen zuen, eta horrek erantzun irmo bat merezi zuen: prestakuntzaren arloan zenbait neurri behar ziren herrialdea bizkortzeko, herritarrak eta haien enplegagarritasuna bultzatuz, bai eta euskal ekonomiaren hainbat sektoreren lehiakortasuna indartzeko ere. Eusko Jaurlaritzak euskal LH eraldatzeko helburua jarri zion bere buruari, baina eraldaketaren oinarrian zegoen filosofia planen hurrenkeran beste aurrerapauso bat ematea baino zerbait gehiago zen, eskakizun kategoriko hau baitzuen: «Euskadik bere Lanbide Heziketa berrasmatu behar du» (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2013).

III. Plana gauzatzea amaitu aurretik, Eusko Jaurlaritzak *LHren Agenda Estrategikoa Euskadi 2015* aurkeztu zuen (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2013) eraldaketarako bidea zabalduz. Agenda horrek markatu zuen EAEko Lanbide Heziketak hurrengo urteetan hartuko zuen norabidea. Lanbide Heziketako Plan berri bat prestatzea izan zen Agendaren lehentasuna, Agendaren testuinguru horretan LH «berrasmatzeko» asmoz. Estatu mailako oinarrizko araudiak definitutako mugei aurre egin behar izanda ere[23], IV. Euskal Planak «Lanbide Heziketako Euskal Eredua sendotzeko urratsak egitea» zuen helburu. LHko euskal sistemaren eraldaketa bideratzeko tresnatzat hartu zen, etorkizunean sistema horri nazioarteko erreferentzialtasuna emateko helburuarekin (*LH desberdin baterantz*, 2014). Adostasun zabalez ikusten zen IV. Plan hori mugarri zela euskal LHren bilakaera historikoan, lehenaldia eta geroaldia bereizten baitzituen. Planetako lehena ibilbide estrategiko baten lehen urratsa izan zen EAEko Lanbide Heziketaren etorkizuna eraikitzeko bidean, eta IV. Planak, berriz, egoera goitik behera eraldatzea lortu zuen, eta erabateko aintzatespena eskuratu —ez bakarrik Euskadin, baita nazioartean ere—, izaera erabat berritzailea zuelako. Aurreko plan guztien emaitza aldaketa etengabea izan zen, ahalegin ekonomiko handiz egina eta, bereziki, LHko ikastetxeen eta irakasleen inplikazio irmoan oinarri-

---

HETELen ustez, Lanbide Heziketako III. Euskal Planak ez zuen ezer aipagarririk ekarri (Julen Elgetari 2019ko uztailaren 12an egindako elkarrizketa. Durango). Kritika zorrotzenetako bat Intxaustik egin zuen (Kike Intxaustiri 2019ko maiatzaren 6an egindako elkarrizketa. Donostia): LHko ikastetxeen autonomia-galera salatu zuen. Arévaloren ustez, Eusko Jaurlaritzak gauzak geldiarazteko jokabidea erakutsi zuen, eta larriminez bizi izan zuten EAEko LHko hainbat sektorek. Tknika erabat gelditzera ere iritsi zen, ia-ia ixteraino (Jorge Arévalori 2019ko martxoaren 28an egindako elkarrizketa. Errenteria).

[23] LOMCE legeak eztabaida eragin zuen EAEko espektro politiko ia guztian, eta Euskadiko Lanbide Heziketaren unibertso ia osoan (instituzio, gizarte-eragile, LHko ikastetxe, irakasle...). Horregatik, legea onartu zenean, bazegoen beldurra atzerapausoak emango zirela eta lehertu egingo zutela nazioarteko erakundeek ere eredugarritzat jotzen zuten errealitate hori, eta beldur hori berariaz nabarmendu behar dugu .

tua. Horren ondorioz, LHk kokapen indartsua lortu zuen krisia eta etengabeko aldaketak nagusi ziren testuinguru batean. Testuinguru horretan, hain zuzen, eskatu zuen Euskadiko LHk urrats berri eta handinahi bat egitea, bere indarguneak baliatuz, baina albo batera utzi gabe etengabe berritzeko premia. Ildo horretan, IV. Plana tresna egokia zen LHri norabide egokia emateko, eta euskal sistema «LHren nazioarteko erreferente gisa behin betiko ezartzeko».

Europa 2020 Estrategia (Europako Batzordea) erreferentziatzat hartuta, Planak aurrez aurre zituen erronkei heldu nahi zien; izan ere, eraldaketak azkar gertatzen ari ziren, baita maila globalean ere, eta eragin nabarmenak izaten ari ziren enpresen lehiakortasunean eta herritarren enplegagarritasunean. Erronka horiei erantzuteko, ezinbestekoa zen goitik behera itxuraldatzea Lanbide Heziketako Euskal Sistema bera, zenbait arlotan: prestakuntzaren orientazioa, berrikuntza, ekintzailetza, nazioartekotzea eta Lanbide Heziketako ikastetxeen sarea (*LH desberdin baterantz*, 2014). Plan horren helburua zen LHn egin nahi zen eraldaketa hori Lege batean jasotzea, Euskadiko Lanbide Heziketaren Lege batean, behar bezalako sendotasuna eta tinkotasuna emateko. Hauek lirateke Lege horren oinarriko printzipioak, azpian dagoen filosofiaren erakusgarri: a) Lanbide Heziketaren ikuspegi integratua, b) pertsona funtsezko helburu gisa, c) ezagutzaren eta berrikuntzaren aldeko apustua, d) epe luzeko jasangarritasuna eta epe laburreko inpaktua, e) enpresekiko hurbiltasuna, f) gizarte-erantzukizuna eta inguruarekiko konpromisoa, g) esperimentazioa, h) ahaleginak uztartzea eta i) koordinazioa eta lankidetza. IV. Planaren funtsezko helburuak, berriz, oinarri hauek zituen: «Euskadiko gizon-emakume guztien enplegagarritasuna ahalbidetzea, eta, aldi berean, euskal ekoizpen-sarearen lehiakortasuna indartzea» (*LH desberdin baterantz*, 2014).

Planaren esparruan, bi arlo estrategikok dute garrantzi berezia: Prestakuntza Integratuari dagokiona eta Lanbide Heziketako ikastetxeen ardatz estrategikoari dagokiona. Lehenari dagokionez, prestakuntzaren espezializazioa eta espezializazio horrek enplegua errazago lortzeko duen balioa ziren planaren zutoinak. Halako prestakuntza lortzeko, ikastetxe-eredu berri bat garatu behar zen, autonomiaz eta behar den funtzionamendumalgutasunez erantzuteko gaitasuna izango zuena, eta kudeaketa aurreratuko ezagutza-unitate bihurtuko zena «gai izanik adimen lehiakorreko prozesuak barneratzeko eta sormena eta pentsamendu eraikitzailea indartzeko» (*LH desberdin baterantz*, 2014). Ikastetxe espezializatu publiko nahiz itunduen sare bat eratu behar zen horretarako, beren ekoizpen —eta berrikuntza— esparrutik abiatuta erantzun estrategiko bat emateko, ekoizpen-sektoreei laguntzeko proiektu zehatzei lagunduz. Bazen IV. Plan horren eremu estrategikoak zeharkatzen zituen zehar-lerro bat, planaren beraren muineko zutarria agerian uzten zuena: LHko ikastetxeek beren

misioan zuten zentraltasun ukaezina eta norainokoa. Planak ez zuen ezer «berririk» adierazten LHko ikastetxeen balioaz; izan ere, horietako askok eta bertako irakasle askok agerian utzi izan zuten ikastetxeek hainbat hamarkadatan EAEko Lanbide Heziketaren eraldaketan izan zuten protagonismoa, LHren funtzio estrategikoaren ikuspegitik. Planak, protagonismo hori LHko ikastetxeen sare osora zabaltzeaz gainera, ikastetxeen posizioa sendotu eta indartu nahi zituen, protagonismo hori sendotu egiten baita «berrasmatzen» denean.

LHko ikastetxeak funtsezkoak ziren enpresen berrikuntzarako, eta elkarrekin jardun behar zuten lankidetzan ekintzailetza sustatuko zuen akuilu gisa, enpresa-proiektuak ere garatuz, edo LHko euskal sistemaren ezinbesteko oinarri gisa, sistema nazioartera zabaltzeko helburuz. Enplegua lortzeko prestakuntzaz arduratzeaz gain, ikastetxeek beste zenbait funtzio zituzten, hala nola zerbitzu teknikoak ematea, ikerketa aplikatuko proiektuak egitea eta hainbat proiektutan parte hartzea (berrikuntzakoak, enpresak sortzekoak edo lurraldekako estrategiak garatzekoak) (Navarro, 2014).

Planaren kudeaketa-, jarraipen —eta ebaluazio— eredua bi eragileren arteko lankidetzaren emaitza zen: Lanbide Heziketako Sailburuordetza eta Lehendakaritzako Idazkaritza Nagusiko Koordinazio Zuzendaritza. Planaren Gobernantza ezinbesteko elementua zen bidaia horri ekiteko. Gobernantza gogotik saiatu zen Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailen arteko lankidetza (Hezkuntza, Enplegua eta Garapen Ekonomikoa) eta dimentsio operatiboa uztartzen. Dimentsio operatibo hori gauzatzeko, Plana Kudeatzeko Batzorde bat eratu zen zenbait erakunderekin (Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentzia, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua eta Tknika (*LH desberdin baterantz*, 2014). Horretaz gainera, jarraipen —eta ebaluazio— sistema egoki bat behar zen, Eusko Jaurlaritzak finkatutako eskakizunei ondo erantzun ahal izateko. Sistema horrek, aldi berean, III. Planaren ebaluazioak egin zuen ekarpen hura jaso behar zuen, hau da, «Lanbide Heziketako ikastetxeetan eta Sailburuordetzan garatuko diren programetan ebaluazio —eta jarraipen— sistemak jasotzea». Sistemak inpaktuaren adierazleak jasotzen zituen, Euskal Lanbide Heziketak Europako testuinguruarekin alderatuta zeukan bilakaera ebaluatzen laguntzeko, bai eta jardueraren adierazleak ere, Planaren helburuak noraino lortzen ziren eta jarduera-ildoak noraino betetzen ziren jakiteko.

Beraz, aipagai dugun ikuspegi estrategikoari jarraituz, Lanbide Heziketako IV. Euskal Planak gailurrera iristea ahalbidetu zuen euskal lanbide-heziketa pausoz pauso hobetuz joateko goranzko ibilbide hartan, baina hori ez ezik, bidezidor berriak irekitzen joateko aukera eman zuen, artean deskubritzeko zegoen etorkizuneranzko bidean; izan ere, «Planak euskal

ekonomiaren hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaileari bultzada ematea» zen asmoa (Arévalo, 2015), bi ideia garbi izanik helmuga: Euskadiko enpresen lehiakortasuna hobetzea eta herritarren enplegagarritasuna handitzea. Lanbide Heziketako II. Euskal Plan hark berrikuntzaren aldeko apustua egiten zuen, berrikuntza inkrementala helburu hartuta. IV. Plan honek, berriz, beste jauzi bat egin zuen ikuspegi estrategiko globalari zegokionez, euskal LHko ikastetxeen ahalmena ustiatzera bideratua, gaitasun handia baitzuten Euskadiko industria-sarean positiboki eragiteko, kasu honetan berrikuntza disruptibo batez[24].

Ezin da ukatu Planak ziurgabetasuna eragiten zuela (Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko Koordinazio Zuzendaritzaren txostena, 2014) eta konplexutasun-maila handia ikusten zitzaiola. Baina ezin da ukatu, ezta ere, Lanbide Heziketaren sistema bera eraldatu nahi bazen «*kemenez ausartu*» beharra zegoela EAEko LH garapen bidean jartzeko. Ausardia horrek, hala ere, bazuen indargune fidagarri bat: egindako ibilbide historikoaren aitortza, zeinak aukera ematen baitzuen etorkizun zen horretara hurbiltzeko. Indargune hori giltzarri zen berrikuntzaren ikuspegi berri horretan; izan ere, berrikuntza «eredu berri batean oinarritzen zen, Agenda Estrategikoak ordurako abian jarria zuen ereduan, Lanbide Heziketako eredu konbinatuan. Lanbide Heziketa ez da dagoeneko Lanbide Heziketa soil-soilik (arautua nahiz enplegurako prestakuntza), baizik eta hiru osagai hauek batera dituen eredu bat: prestakuntza, berrikuntza eta ekintzailetza»[25].

Halako asmo batek etorkizunean izango lituzkeen arrisku nabarmenak ikusita, ausardia eta ausarkeria ez nahasteko premia aipatu beharko genuke, Administrazioko zenbait arduradunek eta gizarte-agente batzuek nabarmendu duten bezala. Izan ere, Planaren giltzarrietako bat LHko ikastetxeak ziren eta, nola ez, bertako irakasleak, eta lehenak izango ziren erronka berriei aurre egiteko erabakia hartzen, gaiak zituen eragozpen guztiak ikusita. Testuinguru horretan, ikastetxeen autogestiorako benetako gaitasuna, konfiantza, sareko lana, ikastetxeen arteko lankidetza, ikastetxeen eta inguruko enpresen arteko lankidetza eta haien garrantzi sozialaren aitortza ezinbestekoak izango lirateke erronkei erantzuteko:

---

[24] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a

[25] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a. Berrikuntzaren ideia berri horretan, «berrikuntza aplikatua»ren kontzeptua agertu zen. Gai horrek mesfidantza nabaria sorrarazi zuen, ia-ia erabateko aurkakotasuna eragiteraino, eragile sindikalen artean. Sindikatu guztiak bat etorri arren Jaurlaritzaren eta Confebasken artean zegoen nolabaiteko afinitatea aipatzean, ELAk kritikatu zuen egoera, inork baino nabarmenago agian, zuzenean salatu baitzuen Eusko Jaurlaritza bazter utzi zuelako Lanbide Heziketak izan beharko lukeen berezko xedea, hezkuntza-xedea (Xabier Irastorzari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko ekainaren 4a).

zerbitzuak ematea, berrikuntza, sormena, proiektu berriak abian jartzea, etengabeko hobekuntza, etab. (Arévalo, 2015). LHko ikastetxeak ordezkatzen zituzten elkarteen artean, erabateko sintonia zegoen; beraz, esan genezake sare bereko kide izatearen sentimendua partekatzen zutela. Eragile instituzionalek —barne harturik foru-aldundien eta gizarte-eragileen ordezkariak— poztasun eta ikusmin berarekin hartu zuten Planaren onespena, bakoitza bere ikuspegi espezifikotik, baina guztiek Plana ondo garatuko zelako konfiantzarekin eta, helburu gisa «Lanbide Heziketaren Euskal Sistema indartzea eta sustatzea» harturik, Plana «krisitik ateratzeko gakoa» izango zelako konbentzimenduarekin (Arévalo, 2015). Gure ustez, gehitu beharko litzateke ez dela gehiegikeria esatea krisitik ez dela ateratzen (ilusio hutsa litzateke), baizik eta krisian bertan indartu behar duela LHk bere balioa, etengabe arazoei aurre eginez. Planaren funtsezko ardatz den testuinguru horretan, hau litzateke helmuga: berrikuntza lehiakorra lortzea lankidetza oinarri hartuta[26].

2.5. **Lanbide Heziketaren IV. Euskal Planaren olatua eta jarraitutasuna**

LHko IV. Euskal Planak progresioa planteatzen zuen Lanbide Heziketaren Euskal Eredua sendotzeko bide gisa, eta, horretarako, aurreikusitako iraupena amaitu eta gero ere tresna erabilgarria izateko pentsatua zegoen. Horregatik zen beharrezkoa onestea 2018an Lanbide Heziketaren arlo bereziari buruzko lege bat, euskal lege bat. Eta berdin egitea 2019an Lanbide Heziketaren V. Euskal Planarekin, zeina IV. Planaren garapenetik ondorioztatutako behar baten emaitza baino ez baitzen, Arévaloren hitzetan. V. Plana aurrekoaren osagarri da, beraz. Ez da plan berri bat; IV. Planak estreinatu zuen berrikuntza disruptiboaren ikuspuntutik berrikuntzan aurrera jarraitu baino ez du egiten.

Lanbide Heziketaren 2018ko Legearen helburua zen Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana garatzeko premiari erantzutea, eta, beraz, ezinbestekoa zen lege-esparru zabal eta berariaz Euskal Autonomia Erkidegokoa zen bat antolatzea. EAEn indarrean zegoen legeria osatu beharra zegoen Lanbide Heziketaren esparruan lege berariazko bat garatuta, helburu honekin: «Euskadi gai izatea Europan helburu den eredu ekonomiko berrian baldintzarik onenetan kokatzeko, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaile batean oinarritutako ekonomia bat bultzatuz horretarako, eta, aldi berean, enplegu egonkorra eta kalitatekoa sortuz, gizarte-kohesioa hobea izan dadin».

---

[26] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

Legea apustu estrategiko gisa aurkeztu zuten haren bultzatzaileek, eta Lanbide Heziketaren IV. Euskal Plana abian jarri zenean hautemandako premia bati erantzutera zetorren. Administrazioarentzat, nahitaez izan behar zuen lege-gorputza zuen, eredu berean konbinatuz Lanbide Heziketa, berrikuntza aplikatuko ikaskuntza (Navarro, 2018) eta ekintzailetza aktiboa. Gainera, baliagarria zen Euskadin lan-merkatuak behar zuen erregulazioa lortzeko, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legearekin batera. Nazioartekotzeari ere arreta berezia eskaintzen zitzaion jarduera-esparru zabal baten arabera: irakasleen eta ikasleen trukea, prestakuntza nazioartean eskaintzea eta ezagutza eta esperientzia «esportatzea», beste herrialde batzuen lanbide-heziketaren sistema garatzeko. Legeak, gainera, bi elementu jorratzen zituen, LHko euskal planek izan zituzten identitate-seinaleak markatzen zituztenak, batez ere bigarrenetik hasi eta IV.ean gailurra jo arte. Hona hemen bi elementuok: «Lanbide Heziketari buruzko ikerketaren garapena bultzatzeko premia, eta heziketa-eskaintzak berritzeko eta hobetzeko eta, oro har, lanbide-heziketaren sistema osoko prozesuen garapena bultzatzeko beharra».

Ezin aipatu gabe utzi denboraldi luze horretan euskal LHren ezaugarri izan ziren eta Euskadiko Lanbide Heziketan garatutako politikek konpondu ezin izan zituzten (agian ez direlako ikuspegi estrategikotik landu) bi gaiak: hizkuntzaren auzia eta emakumerik eza. Legeak «genero-estereotipoak edo orientazio afektibo edo sexualeko estereotipoak gainditu nahi ditu, ikasten ez jarraitzea eragin dezaketelako, eta genero-profil tradizionalak ere gainditu nahi ditu». Esan gabe doa LHren ikasketetan ikasle emakumezkorik ia ez egotea Euskadiko Lanbide Heziketak dituen ahulezia nabarmenetako bat dela. Harrigarria da kontu horri ikuspegi estrategikotik heldu ez izana, emakumeak «gizonezkoen lurralde» horretara —edo, hobeto esanda, gizonezkoak nagusi diren lurralde horretara— erakartzera zuzendutako publizitate-ahaleginez haraindi.

Hizkuntzaren ikuspuntua ere garrantzia du, eta ezin da saihestu, nahiz eta euskal Lanbide Heziketan euskarak historikoki izan duen bazterreko presentzia aipatu besterik ez egin[27]. Bazterreko presentzia hori urtez urte errepikatzen zen errealitate bat da; izan ere, LH salbuespen bihurtu da EAEko hezkuntza-sistemaren euskalduntze-prozesuan. Beraz, Lanbide Heziketari buruzko Legeak helburu hau ezarri du: «Lanbide Heziketaren sisteman euskararen presentzia normalizatua bermatzea». Eta nabarmentzen du komeni dela «hizkuntza-eredu bat edo bestea ezartzea lanbide-heziketaren eta enpresa-munduaren berezitasunak eta eskakizunak kontuan hartuta». «Lanbide-heziketara igarotzean aurreko etapetan egindako

[27] Egoera horri buelta eman nahian, LANEKI gisako ekimenak sortu ziren LHko ikastetxeek bultzatuta, edo Jakinbai plataforma eta EIMA programa.

hizkuntza-aukerekiko etena gertatzen dela» kontu agerikoa zenez, Legeak planteatzen du beharrezkoa dela LHrako hizkuntza-plangintza berariazko bat egitea eta zenbait arlotan sortutako arazo horiek konpontzera bideratutako neurriak hartzea. Lanbide-heziketaren arloan beste hizkuntza batzuk ere kontuan hartzen dira; bereziki, ingelesa. Eleaniztasuna ardatz bihurtu zen euskal LHko prestakuntza-prozesuetan, eta Legeak lehentasunezko helburutzat ezarri du atzerriko hizkuntzak kontuan hartzea, errealitateak eskatzen duen lanbide-gaikuntzaren parte delako hizkuntzak ikastea.

V. Plana onetsi izanak IV. Planaren «luzapen» gisa irakurtzera behartzen gaitu[28]. Honela dio V. Planak berak: «IV. Planak indarrean jarraitzen du, eta hark markatutako jarduera-ildo guztiek inplementazio-bidean jarraitzen dute». 4. Industria Iraultzak Lanbide Heziketa egokitzeko beharra sortu zuen, eta IV. Plana ere itxura berri baten bila ari zen «aurrea hartzeko eta disrupziorako gaitasuna» indartu nahian (Irekia, 2019). Testuinguru soziala etengabe aldatzen ari da, eta eraldaketak bata bestean ondotik datoz; hori dela eta, beharrezkoa da errealitate gordinari egokitzeko eta, zergatik ez, aurrea hartzeko gai izatea. Horregatik, are beharrezkoagoa da euskal Lanbide Heziketaren hobekuntzan sakontzea talentudun pertsonei, sortzaileei eta berrikuntzaren bidea jorratzeko gai direnei erreparatuz, berrikuntza izango baitu ardatz etorkizunak ere. IV. Planaz gero airean zebilen leloa errepikatu egiten da, are biziago: euskal ekoizpen-sarearen lehiakortasuna eta aurrerapena eta herritarren enplegagarritasuna, eta Lanbide Heziketak garrantzi estrategiko ukaezina du horretan.

Euskal LHk erronka berriei egin behar die aurre, aldaketa disruptiboak eraginez, nola ekoizpen-ereduan hala zerbitzuetan. Baina erronka horiek 4.0 industriaren eremuan berebiziko garrantzia hartzen doazen teknologien eskutik etorriko dira. Berrikuntza disruptiboa helmuga saihestezina izango da aurrerantzean. Euskal enpresa-sektorearen eta Eusko Jaurlaritzaren beraren bultzada du, eta sortzen dituen aukerak aprobetxatu nahi ditu, nahiz eta ez duen konpontzen errealitate berri horrek dakarren ziurgabetasuna. Ekonomia eta enplegua suspertzea helburu duen ikuspegi estrategikotik begiratuta, prestakuntza apustu horren zehar-ardatzetako bat da (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2017). Beraz, Lanbide Heziketako V. Planak garrantzi berezia hartzen du, euskal LHren ibilbide historikoarekin bat eginez. Beraz, aurrean dugun ereduak jakin du jarrera positiboa hartzen denbora luzez, nola Euskadiren perspektibatik begiratuta, hala nazioartetik begiratuta; izan ere, gogoeta etengabean jardun du, behin eta berriz sortuz joaten diren eta prestakuntzaren perspektibatik erantzunak eskatzen dituzten erronken argitan. Lanbide Heziketako Eus-

[28] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

kal Sistema egokitzeko beharrari sistemak gaur egun duen, eta beti izan duen, bizkarrezurrak eusten dio, hau da, LHko ikastetxeek. Ikastetxeek etorkizunera begira jarri behar dute, eta beren burua berrantolatu, eraikitako ezagutzen transmisore izateko ez ezik, «datorrena» ulertu eta gauzatzeko gai diren erakunde ere izateko, prestakuntza norabide horretan gidatzeko. Horrek guztiak sortzen duen ziurgabetasunak eta kezkak argitzeko, LHko ikastetxeek beren burua prestatu eta pertsonak gaitu behar dituzte, etengabe eta modu zehaztugabean aldatzen ari den egoera arazotsu bati aurre egiteko. Elkarlaneko ikaskuntza ezinbesteko estrategia da, eta, horretaz gainera, berrikuntza lehiakorrari ateak irekitzen dizkion giltza da[29]. Elkarlaneko berrikuntza IV. Planaren ezaugarri nagusia zen, eta kasu honetan berretsi baino ez da egiten. Orain arte esandako guztia gauzatzeko, LHko ikastetxeek beren buruaren beste ikuspegi bat behar dute, norabide jakin batean eboluzionatzeko: Errendimendu Handiko Ikastetxe bilakatzea (Ethazi).

[29] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

III. Kapitulua
Berrikuntza, euskal Lanbide Heziketaren nortasunaren ardatza

Paulí Dávila Balsera, Hilario Murua Cartón,
Iñaki Zabaleta Imaz eta Ana Eizagirre Sagardia

Kapitulu honetan, Lanbide Heziketaren euskal ereduaren gai giltzarrietako bat aztertuko dugu: berrikuntza. Gai zabala da, eta, duen garrantziagatik, luze eta zabal lantzea komeni da. Hala, berrikuntzaren gakoak sintetizatu nahi ditugu, Euskal Lanbide Heziketaren nortasun-ezaugarri gisa. Horretarako erabili dugun planteamendua enpresei eta ikastetxeen bilakaerari buruzko gainerako kapituluekin erlazionatu behar da, baina hemen azpimarratuko duguna kalitatearekin, ekintzailetzarekin, sormenarekin eta nazioartekotzearekin lotuta dago. Gai horiek guztiek garrantzia hartzen dute administrazioak sustatutako dimentsio estrategikoarekin eta prestakuntza —eta berrikuntza— zentroek (Tknika, esaterako) proiektu berritzaileetan parte hartzeko gaitasunarekin lotzen baditugu.

3.1. **Berrikuntzari buruzko ikuspegiak Lanbide Heziketan**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren azterketara hurbiltzen garenean behin eta berriz gehien aipatzen den gaietako bat berrikuntzak zentzu guztietan hartzen duen garrantzia da, halako moldez non hezkuntza-eredu horren ezaugarririk bereizgarrienetako bat baita. Egia da ezen, batez ere 2005etik aurrera, Tknika sortuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren berrikuntza hain zuzen ere berrikuntzarako zentro deitutako batean gauzatzen dela, eta horrek, une horretatik aurrera, beste harreman mota bat ezartzen duela ikastetxeen, prestakuntzaren eta berrikuntza-zentroaren artean.

Hezkuntza-berrikuntzaz ari garenean, zenbait plano bereizi daitezke, esanahi desberdinak dituztenak. Hala, *banakako eta taldeko berrikuntzak* ikasgelarekin eta ikastaroarekin zerikusia dutenak dira, eta zuzenean erantzuten diete ikasleen premiei eta gai profesionalei. Ikasleek zuzendutako mintegietan, laborategiko simulazioetan eta abarretan oinarritzen dira

haien ikasketa motak; *diziplina bakoitzeko ekimenak* elkarte eta talde profesionalek babesten dituzte, eta erakunde horiek proposatutako edukiak txertatuak izan ohi dituzte; *baliabide teknologikoen bidezko hezkuntzari erantzuten dioten berrikuntzek* teknologia berriak aprobetxatu ohi dituzte, eta teknologia horiei lotutako materialak eskuratu edo garatzen dituzte; *curriculumak eragindako berrikuntzak* egitura modularraren edo seihilekoaren premiak asetzeko ezartzen dira, eta ikasketa-arloen eta garapen diziplinartekoen eduki-aldaketei erantzuteko; azkenik, *ekimen instituzionaletan,* arauak aldatzeko erabakiak eta lanbide-garapeneko prozesuak sartzen dira (Hannan eta Silver, 2005). Ikusten dugu, beraz, nola aldatzen den berrikuntza terminoa hezkuntza-sistemaren barnean helburuaren arabera, eta, aldi berean, haren definizioekin ohituz joaten gara, eta ikusten dugu berrikuntzaren plano horiek eragile, ikasketa-plan eta abarrek elkarrekiko duten erlazioa markatzen dutela.

Bestalde, ministerioek, sailek edo CEDEFOP zentroak berak eskaintzen diguten definizioa hartzen badugu, ikusten dugu berrikuntza definitzean jokoan jartzen den elementu sorta nabarmen aldatzen dela. Beraz, esan dezakegu oso definizio zehatzak direla, Lanbide Heziketaren arloan diharduten erakundeen proposamenei aplikatuak, baina «berrikuntzaren kultura» dei genezakeenaren irudi nahiko egokia ematen dutela; kultura hori oso errotua dago, ez bakarrik ekoizpen-sisteman, baita hezkuntza-esparruan ere, eta, bereziki, Lanbide Heziketan. Hala, definizio gehienak bat datoz puntu batean: berrikuntza terminoa aldaketa-prozesua da; beraz, beti egongo dira erronkari aurre egiteko prest dauden pertsonak. Berrikuntzaren ikusmolde zabal horri esker, Lanbide Heziketan beste bi berrikuntza mota oso garrantzitsutara hurbilduko gara: *berrikuntza didaktikoa* eta *berrikuntza teknologikoa*; etengabe eboluzioan eta moldatzen jardun behar dute biek, prestakuntza lehiakor eta balioaniztun baten bidez gizarte-aldaketetara egokitzeko.

Antzeko iritzia eman zuen Europako Batzordeak Rigan 2015. urtean, esan zuenean berrikuntzak Lanbide Heziketaren modernizazioaren printzipioa izan behar zuela. Hala, Lanbide Heziketako Europako politikak berrikuntza sustatzen du maila guztietan, hainbat modutan: ikasteko metodo berriak erabiliz, teknologia erabiliz edo finantziazio-mekanismo berriak aplikatuz. Gainera, lankidetza handitzea sustatzen du laneko ikaskuntzan, bereziki, eta Lanbide Heziketako erakundeen, goi-mailako hezkuntzaren, ikerketa-erakundeen eta enpresen artean (CEDEFOP, 2015). Alde horretatik, Lanbide Heziketa berrikuntza ekonomikoa sustatzeko faktore bat da, Herbehereetako, Frantziako eta Danimarkako adibideek erakusten duten bezala, baina bada gizarte-berrikuntza sustatzeko faktorea ere, Alemaniaren adibideari jarraituz, premia bereziak dituzten gazteak gizarteratzeko programekin; eta gizarte integratzaile eta tolerantearen bultzatzailea da, Lituanian eta Estonian gertatzen den bezala. Hau

da, Europako parte handi batean ulertzen da lankidetza-modu berriak bilatu behar direla: «berrikuntza aliatu berriekin lankidetzan aritzea da, eta harreman berriak sor ditzaketen ideia freskoak aurkitzea» (CEDEFOP, 2015); adibidez, aliantzak egitea ikerketarekin, beste hezkuntza-maila batzuekin eta enpresarekin. Ondorioz, Lanbide Heziketako irakaskuntza-curriculumaren birplanteamenduak eta ebaluazio-metodoen berrikuntza dira Europako herrialde askok etorkizunari begira berrikuntzaren bila onartutako beste erronka batzuk.

Dena dela, Lanbide Heziketako berrikuntzaren helburuei dagokienez, ikusten dugu badagoela elementu-amalgama bat, zerikusia duena ikerketa zientifiko eta teknikoarekin, lankidetza-kulturarekin, genero-berdintasuna txertatzearekin, etengabeko prestakuntzarekin, irakasleen prestakuntza eta sustapenarekin, nazioartekotzearekin, garapen teknologikoarekin, irakasleen eta ikasleen mugikortasunarekin, berrikuntzaren eta enpresen jarduera aintzat hartzearekin, ikerketa aplikatua sustatzearekin, ezagutzaren transferentziarekin edo enpresa txiki eta ertainak sortzeko proiektuak bultzatzearekin.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan gauzatzen diren proiektuen arloko berrikuntzari dagokionez, bada elementu bat, oso garrantzitsua, nabarmentzen dena: irakaskuntza-eredu horretako ikastetxeen, enpresen eta administrazio publikoen arteko lankidetza. Hala, eredu horren helburu nagusietako bat da Lanbide Heziketako irakaskuntzek garapen ekonomiko jasangarriari eta gizarte-ongizateari laguntzea. Horretarako, Lanbide Heziketako ikastetxe guztiek aukera izan behar dute ikerketa-, berrikuntza —eta esperimentazio— proiektuetan parte hartzeko, eta proiektu horiek eboluzionatu behar dute Lanbide Heziketako irakaskuntzetan berrikuntza didaktiko eta teknologikoa integratzen duten sistemak izatera iristeko. Azkenik, Lanbide Heziketako ikastetxeetako proiektu horiek beste helburu batzuk izan behar dituzte: ekintzailetzaren kultura, enpresen arteko lankidetza-sare egonkorrak ezartzea, ikasleen gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea, eta enpresekiko harremana, irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzeko.

Lanbide Heziketaren arloko erakunde eta instituzioek proposaturiko definizio horietaz gainera, argigarriak dira, halaber, lan honetarako elkarrizketatutako pertsona batzuek dituzten ikuskerak, Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako profesionalen lana bideratzeko lortutakoaren erakusgarriak baitira. Lanbide Heziketaren arlo batzuetako praktikari eta esperientziei dagokienez, elkarrizketatu ditugun pertsona batzuek ñabardura interesgarriak eskaintzen dizkigute berrikuntza zer den hobeto ulertzen laguntzeko. Alde horretatik, Jorge Arévalok hurbilketa batzuk azaldu ditu, denboraren ikuspegitik gehienbat, eta bere bizitzako ibilbidean berrikuntza zer izan zen adierazi du:

> Orduan, 2001ean hasi nintzen pentsatzen zergatik ez zen sartzen Lanbide Heziketa berrikuntzan. Hori izango zen sortuko genuen bigarren zisma; kalitatea jada arazo handia bazen, bigarren jauzia berrikuntza izango zen[1].

Era berean, berrikuntza ikastetxeetan sartzeak, edo hezkuntza-administrazioaren inplikazioak, pentsamolde-aldaketa zekarren berekin, eta ahalegin handiak eskatzen zituen:

> Orduan, II. Planak berrikuntza aplikatuari estaldura eman behar dio, eta, berrikuntza aplikatuaren barruan zegoen nola lan egingo genuen ikastetxeetan berrikuntzarekin eta nola hobetuko genuen ikastetxeen funtzionamendua[2].

Proposamen hori planteamendu teoriko arrazoitu batek indartzen zuen. Kontua ez zen berrikuntza sartzea, berrikuntza-mota egokiena planteatzea baizik. Horregatik, Arévalok berak II. Planean ezarritako berrikuntza mota zehaztuz garatu du bere hitzaldia:

> «Berrikuntza horri inkrementala deritzo». Bi berrikuntza mota daude. Batetik, berrikuntza inkrementala: hau da, hobekuntzan oinarritzea (gauza bat badut eta hobetzen badut, beste gauza bat dut). Orduan, hori berritzea da, baina hobekuntzan bermatua. Bestetik, berrikuntza disruptiboa: lehen egiten ez nuen zerbait egiten dut, eta egiten ari nintzenari gehitzen diot.

Inkrementalaren alde egin genuen, eta ondo egin genuen, zeren eta, disruptiboaren bidez, beharbada ez baikenuen lortuko jauzi hau ematea... eta arlo hori guztia garatuz joan ginen, eta, hortik, berrikuntza-eremu berri bat garatu genuen, eta pentsatu genuen zer berritu genezakeen ikastetxeetan»[3].

Berrikuntzari buruzko ikuskera horien gauzatze praktikoa aipatutako II. Plan horrekin eta 2005ean Tknika sortzearekin iritsi zen. Hala, Tknika sortzea berrikuntzaren beste plano batean uler zitekeen, beste eragile batzuen laguntzarekin:

> Tknikaren ideia berrikuntzaren gaia da, irakasleen gaia, enpresa berrien eta teknologia berrien premia gisa etor daitekeenari aurrea hartzea[4].

---

[1] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[2] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[3] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[4] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

Beraz, berrikuntza etorkizunari begira hasten da, hiru elementutan oinarrituta:

> Teknologia, ezagutza eta lankidetza. Teknologian inbertitu behar zen, jakintzan sakondu behar zen eta den-dena ikastetxeen, enpresen eta abarren arteko lankidetzatik pasatzen zen. Planaren lehiatzeko berrikuntzaren eredu horrek barrurantz hobetzen eta kanporantz garatzen lagundu zigun; hala, plan horretatik berrikuntza-errutinen kontzeptua garatzen hasi ginen[5].

Kontzeptu-aberastasuna eta koherentzia nabariak dira plan horretan, eta erakusten dute erabilitako kontzeptuak zenbateraino dauden kontrastatuta Euskadiko Lanbide Heziketaren errealitatearekin eta XXI. mendearen hasieran garatzen ari ziren plan eta proiektuekin.

Bestalde, eta gorago esan dugunarekin bat, berrikuntza ez da instituzioen edo administrazioaren arlokoa soilik; badu metodologia-alderdi bat, ikastetxeetako irakaskuntza-jardueratik hurbilen dauden elkarrizketatu gehienek onartzen dutena:

> Aldaketa metodologikoari buruz ez da asko hitz egiten, baina, ezbairik gabe, betiko Lanbide Heziketako garrantzitsuena da. Ez duala, ez enpresei zerbitzu teknologikorik ematea; nire ikuspuntutik, matxinadarik handiena, egin den gauzarik berritzaileena, metodologia-aldaketa izan da. Hori ez da batere mediatikoa, ez da hedabideetan saltzen, baina ahalegin handia eskatzen die ikastetxeei eta pertsonei[6].

Metodologia berritzeko prozesu horretan, irakasleak dira eragilerik inplikatuenak; izan ere, haien konpromiso-maila ez da ikasgelara mugatzen, eta enpresekiko harremanetara iristen da, ikasketa-prozesuaren jarraipenera, ikastetxean edo Tknikarekin batera egiten diren ikerketa-proiektuetako lankidetzara eta abarretara. Beraz, horrek ikastetxeen lankidetza ere eskatzen du, bai publikoena bai itunduena; guztiak:

> Nolabaiteko harmonian bizi eta elkarlanean aritzen dira. Nik uste dut berezitasunak horiek direla. Lankidetza garrantzitsua da euskal Lanbide Heziketaren sisteman; enpresek, instituzioek eta ikastetxeek asko dihardugu lankidetzan, hori berezitasun bat da. Beste berezitasun bat ikastetxeen kopurua eta tipologia da. Oso lurralde industrializatua dugu inguruan, Euskadiko industria BPGren ehuneko garrantzitsua da, eta industriaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen kontzentrazio hori

---

[5] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

[6] Julen Elgetari egindako elkarrizketa, Durango, 2019ko uztailaren 12a.

> ez dago leku askotan; hemen, ehun, laurogei automozio-zentro ditugu, oso lurralde txikian[7].

Gai horiei dagokienez, badirudi nolabaiteko adostasuna dagoela; alegia, eragileen lankidetzak sare partikular bat osatzen duela, eta sare horrek bereizten duela hezkuntza-sistemako beste maila batzuetako beste lotura mota batzuetatik. Ekarpen horiek ikusita, berrikuntzaren euskal sistema bati buruz hitz egin daiteke (Buesa, 2003).

Ikuspegi orokorrago batetik, bada berrikuntza-sistema kontzeptua honela aipatzen duena:

> Esparru geografiko jakin batean helburu batekin elkarri eragiten dioten instituzioen eta enpresen arloko erakunde eta eragileen multzoa. Eta helburu hori da baliabideak esleitzea garapen ekonomikoa bultzatzen duten berrikuntzei, batez ere teknologikoei, sostengua ematen dieten ezagutzak sortu eta zabaltzeko jarduerak egiteko (Navarro, 2004).

Euskal sisteman, hauek dira erakunde eta eragile horiek: *jakintza sortzen duten instituzioak* (unibertsitateak, ikerketa-erakunde publikoak eta enpresa berritzaileak); *zerbitzuak ematen dituzten instituzioak* (parke teknologikoak, berrikuntza-enpresen zentroak eta sustapen-programak kudeatzen dituzten administrazio publikoak) eta *baliabideak ematen dituzten erakundeak* (administrazio publikoak, Estatua edo Europar Batasuna).

Planteamendu teoriko horiekin ekin diegu berrikuntzaren alderdiei kapitulu honetan. Horretarako, Lanbide Heziketako euskal ereduaren lauburu berritzailea deitu diogun horretan jarri dugu arreta: kalitatea, ekintzailetza, sormena eta nazioartekotzea dira haren alderdi nagusiak. Hori guztia ikastetxe, enpresa eta Eusko Jaurlaritzaren instituzioen arteko lankidetza-esparruan. Hau da, berrikuntzaren barruan zentzu hertsian egindako ekintzak bereizten ditugu, baina aitortzen dugu euskal enpresa, ikastetxe eta erakundeen esparrurik gabe lauburu horrek ez duela zentzurik.

3.2. **Berrikuntza alderdi instituzionaletik**

Atal honetan, Lanbide Heziketaren berrikuntzari buruzko instituzio multzo bat aipatuko dugu, bai eta antolakuntzaren eta kudeaketaren ikuspuntutik berritzaileak diren elkarte batzuk ere. Ikastetxe eta enpresekin batera, berrikuntza ahalbidetzen duen esparrua da. Instituzioei dagokienez, onartu behar dugu haien sorrera erabaki politiko baten ondorio dela

---

[7] Julen Elgetari egindako elkarrizketa, Durango, 2019ko uztailaren 12a.

eta, normalean, legearen eta administrazioaren babesa dutela. Nolabait, ikusi ditugun erakunde-estrategiek goitik, hau da, gobernu-instantzietatik, zenbait ibilbide eta bide proposatu zituzten herrialdearen premiekin bat datorren Lanbide Heziketa garatzeko. Bestalde, eta oinarritik abiatuta, ikastetxe publiko zein itunduei askoz lotuago zeuden elkarte edo koordinazio-erakunde batzuk sortu ziren. Alde horretatik, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua, Kualifikazioen Euskal Institutua edo Tknika bera irizpide edo proposamen berritzaile horien ondorioz sortu dira, nahiz eta eremu desberdinei buruzkoak izan. Aldiz, Ikaslan, HETEL edo AICE elkarteen sorrera beste mota bateko kezken ondorioa da: kezka horiek askoz ere lotura handiagoa lute Lanbide Heziketako ikastetxeen lurralde-koordinaziorako premia eta proposamenekin.

3.2.1. *Lanbide Heziketaren arkitektura instituzionala Euskadin*

Atal honetan gobernu-instantzietatik garatuz joango diren erakunde eta organismoen eginkizuna azpimarratu nahi dugu. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila pixkanaka osatuko duten egiturak sortzeari dagokionez, sail horretan Irakaskuntza Zuzendaritzaren Lanbide Heziketaren Zerbitzua sortu zen, eta, haren barnean, Prestakuntza Kabinetea, irakaskuntza-maila horretako ikuskatze-lanak egiteko. Instantzia hori izan zen etorkizunean Lanbide Heziketako Zuzendaritza (1992) izango zenaren ernamuina, hezkuntza-sistemaren barruan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari baitzen Lanbide Heziketa; gero, XXI. mendearen hasieran —zehazki, 2001. urtean—, Lanbide Heziketako Sailburuordetza bihurtu zen. Beraz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren barruan Lanbide Heziketako Sailburuordetza egitura organiko berria sortzea mugarri nabarmena izan zen, bai kontsultatutako testigantzetan, bai haren jardueraren azterketan nabarmendu den bezala.

Alde horretatik, 2001. urtea data garrantzitsua da, orduan hasi baitzen prestatzen, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, Lanbide Heziketako II. Euskal Plana. Batzuen ustez, 2001ean Lanbide Heziketako Sailburuordetza sortzea berrikuntzaren motor garrantzitsu bat izan zen (Mujika eta Intxausti, 2018); hain zuzen ere, Lanbide Heziketako II. Planaren «erronka handia» berrikuntza izan zen (2004/2007): ikastetxeetarako teknologia-transferentzia eta ikasketa-metodoen berrikuntza. Helburu horietako batzuk lortzeko, 2005ean, Tknika berrikuntza-zentroa sortzea erabaki zen, erreferentea izan zedin. Beraz, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak zeregin garrantzitsua izan zuen Lanbide Heziketaren eta berrikuntzaren esparruan handik aurrera gauzatu ziren jarduera guztiak sustatzeko. Hona bitxikeria bat: *Lanbidez Lanbide Heziketako Euskal Plan*ak (1998), beste helburu batzuetan oinarritua, ez du ia berrikuntza hitza aipatzen, baina bai kali-

tatea, eta jakitun zen «estrategia global» bat falta zela eta horrek ondorio negatiboak zituela (Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua, 1998).

Zenbait ataletan jada aipatu den bezala, Hezkuntza Sailak geroztik sortu duen legeriak garapen instituzionaleko zenbait mailatan du eragina. Lege-arauen eta instituzioak eta erakundeak sortzeko arauen multzo bat da, eta arkitektura instituzional bat sortzeko interesa adierazten du, garapen berritzaileari bide emateko; ez bakarrik instituzio-multzo baten garapen berritzailea, baizik eta baita ordura arte ohikoak ez ziren harreman motetan berrikuntza-maila jakin batena ere. Beraz, erabaki-esparru horretako berrikuntza aipatzen dugunean, honetaz ari gara: eskatzen ari zen berrikuntza bultzatzeko ekintza-multzo bat sustatu, sortu, orientatu edo koordinatzeko abian jarritako legegintza-gaitasuna (Navarro, 2017). Instituzio horietako batzuek harreman —eta partaidetza— sare bat sortu zuten hainbat mailatan, eta ulertu behar da sare hori Lanbide Heziketan lan egiten duten eragile guztiak barnean sartzera bideratutako apustu estrategiko baten emaitza dela. Iñaki Mujikaren hitzetan: «Euskadin Lanbide Heziketan parte hartzen duten eragile guztien koordinazioa lortu da» (Ikaslan, 2006).

Ildo horretan ulertzekoak dira 1994 eta 2015 artean onartutako dekretuak, kontuan hartuta Lanbide Heziketako Euskal Planak lege-ekoizpen horren azalpen-esparruak direla eta haien atzean daudela Hezkuntza Saila gidatu duten pertsonek izandako zeregina eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren edo Eusko Alderdi Jeltzalearen planteamendu politikoak. Eta planteamendu horiek ez dira beti bat etorri Lanbide Heziketak hezkuntza-sistemaren barnean izan beharreko lehentasunaz. Ondoren, Lanbide Heziketari buruz argitaratu diren dekretuetako batzuk aipatuko ditugu; ohartzekoa da 2005 eta 2015 bitartean ez dagoela gaiari buruzko berariazko legeriarik:

— Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua: 1994ko otsailaren 22ko 100/1994 Dekretua, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortu eta arautzen zuena, eta 1998ko irailaren 8ko 222/1998 Dekretua, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortzeko dekretua aldatzen duena.
— Tknika: 2005eko 39/2005 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa (Tknika) sortzen duena, eta 2015eko 222/2015 Dekretua, abenduaren 9koa, Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa (Tknika) sortzen duena.
— Ideatk: 2015eko irailaren 8ko 168/2015 Dekretua, Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (Ideatk) sortzen duena.
— EEI: 2015eko 169/2015 Dekretua, irailaren 8koa, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (EEI) sortzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren barruan Lanbide Heziketako Sailburuordetza sortu zen 2001ean, eta bera izan zen, ezbairik gabe, zenbait estrategia zuzendaritza ezagun batekin martxan jartzeko abiapuntua. Alde horretatik, hainbat lekukotasunek «mugarritzat» jotzen dute une hori, edo diote Sailburuordetzako zuzendaritzak sustatutako jarduerak Lanbide Heziketarentzat «benetako bultzatzailea» zirela.[8] Ildo horretatik, Mujikaren eta Arévaloren testigantzek, lehen pertsonan bizi izan baitzuten hezkuntza-administrazioaren egitura berri horren sorrera, garbi erakusten dute gogo bizia, arriskua eta erabaki horrek Lanbide Heziketan eragin onuragarria izango zuelako konfiantza. Honela adierazten du Mujikak: «2001a hurrengo mugarri garrantzitsua da, Sailburuordetza sortzea, eta hortik aurrera dator estrategia: Lanbide Heziketako I. Euskal Plana, II.a eta V.eraino, eta hor badago estrategia bat». Hau da, une horretan, ulertzen da norabide-aldaketa bat hasten dela, era bateko edo besteko lankidetza-prozesuak —baina ikuspegi estrategikorik ez zutenak—, atzean uzten dituen estrategia bat hasten dela[9]. Une horren narrazioa Arévalok egin digu, eta honela laburbil liteke:

> Orduan, 2001etik 2005era bitarteko legegintzaldian Lanbide Heziketako sailburuordetza bat egiteko proposatu zioten ikastetxeek Gobernuari, eta, 2001ean, Ibarretxe lehendakariak baietz erabaki zuen; orduan, Eusko Alkartasunako sailburuordearekin[10], sailburuordetza hori egin behar zela erabaki zuten. Orduan, niri, zuzendari izatetik sailburuorde izatera pasatzea proposatu zidaten, eta, Lanbide Heziketako zuzendari izateko, Iñaki Mujikari, nirekin etorri baitzen, eta bigarren zuzendari gisa Josu Agoitiz, Bizkaiko ikastetxe itundu batetik zetorrena[11].

Iñaki Mujikak prozesu horretan parte hartu zuten pertsonen rola nabarmendu du; zehazki, Hezkuntzako sailburuordearena —garai hartan, Eusko Alkartasunaren eskuetan—, haiek lagundu baitzuten nolabait Lanbide Heziketako Sailburuordetza sortzearen aldeko erabakiak hartzeko. Beraz, esan daiteke mende honetako lehen hamarkada oso egokia izan dela Lanbide Heziketaren kalitatea hobetzeko estrategia orokorra garatzeko.

Ikaslan eta HETELen parte-hartzeak —eta, geroago, AICE sartu zen— dagoeneko erakusten digu antolaketa-arkitektura bat, non, Sailbu-

---

[8] Julen Elgetari egindako elkarrizketa, Durango, 2019ko uztailaren 12a.

[9] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

[10] Eusko Jaurlaritzaren VII. legegintzaldian, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria buru zela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea Ángeles Iztueta izan zen, Eusko Alkartasunako kidea, baina Sabin Intxaurraga ere izan zen, zeina hasierako une hartan egon baitzen.

[11] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

ruordetzak eta Lanbide Heziketako ikastetxeen sareek proiektu komun batean parte hartu eta lankidetzan jardun baitzezaketen. Hain zuzen ere, une horretan bertan hasi zen sumatzen berrikuntza profesionalerako zentro baten sorrera[12]. Nolabait, Sailburuordetzaren lidergoa ere onartzen da: «Euskadin, nire ustez, lidergo hori Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren esku egon zen»[13], eta beste sail batzuk erakartzea lortu zuen, hala nola Enplegua, Industria edo Ingurumena. Egoera hori sumatu zuten, antza, administrazioan karguak bete zituzten beste pertsona batzuek ere, hala nola José Carlos Crespok:

> Lanbide Heziketarekin harremanetan hasi nintzenean, bazegoen kultura bat, hau denon artean egin behar dugulako kultura jakin bat. Hau da, administrazioak zeregin bat du, baina zeregin hori ezin da gauzatu gizarte-eragileak kontuan hartu gabe[14].

Azken finean, Sailburuordetzatik abiatuta lortutako antolakuntza-egiturak harreman-sare bat eta parte hartzeko erronka berriak sortu zituen, Ikaslan, HETEL eta AICErekin gertatu zen bezala; eta berrikuntza ere erraztu zuen, Tknika sortu zenean. Beraz, hiru maila horien lankidetzak, askotan, proiektu bateratuak partekatzea ekarri du.

3.2.2. *Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua (1994)*

Aholku emateko eta parte hartzeko organo bat izateko legezko baldintzetako bat Kontseilu Orokor bat sortzea izan zen, han ordezkatuta egon zitezen esparruko erakunde eta organismo adierazgarrienak. Alde horretatik, 1986an, Espainiako Estatuak Lanbide Heziketako Kontseilu Orokorra sortu zuen urtarrilaren 7ko 1/1986 Legearen bidez, eta 19/1997 Legearen bidez aldatu zen. Esparru hori 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorretik zetorren, eta, lege haren ondorioz, Lanbide Heziketa Koordinatzeko Batzorde bat sortu zen. Lanbide Heziketaren arloan Gobernuari aholku emateko eta parte hartzeko kontsulta-organo hori aldatu egin zen 1997an, eta aldaketak egitura aldatzea ekarri zuen, zeren eta autonomia-erkidegoek eskumenak baitzituzten, Konstituzioan eta eta estatutuetan aurreikusten zen moduan.

1986tik 1997ra bitartean aldaketa handiak izan ziren hezkuntza-legerian, batez ere LOGSEk ekarri zuen esparru berrian. Beraz, erreferentzia

---

[12] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[13] José Ignacio Berrondori egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko maiatzaren 20a.

[14] José Carlos Crespori egindako elkarrizketa, Santander, 2019ko uztailaren 18a.

hori ezinbestekoa da Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren sorrera ulertzeko. Kontseilu hori 1994ko otsailaren 22ko 100/1994 Dekretuaren bidez sortu zen, eta dekretu horrek berak arautu zituen haren funtzioak eta ordezkaritza. Dekretu horren hitzaurrean bertan, Lanbide Heziketa «definitu» nahi zen, honela: «lanbide batean behar bezala aritzeko moduko prestakuntza ematen duena, Hasierako Lanbide Heziketa edo Berariazko Lanbide Heziketa barne, hau da, Prestakuntza Arautua ere deitua». Euskal Autonomia Erkidegoan, alderdi hauek hartu behar ziren kontuan: Lanbide Heziketak erkidegoko biztanleen giza kapitalaren prestakuntzan eta kalitatean duen funtzio estrategikoa, erkidegoaren industria-politikaren emaitzak, lanbide-kualifikazioak ekoizpen-ingurunearen premietara egokitzea eta enplegu-politikak lan-munduan txertatzeko tresna gisa. Ondorioz, ezinbestekoa zen prestakuntza-ekintzak koordinatzea; batetik, erakunde eskudunen arteko gainjartzeak saihesteko, eta, bestetik, eskura zeuden baliabideak optimizatzeko. Horren guztiaren ondorioz, erakunde arteko organo bat sortu zen, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua izenekoa, gizarteak parte hartzeko. Besteak beste, honako funtzio hauek izango zituen: Lanbide Heziketako Plan Orokorra egitea, nahitaez, Eusko Jaurlaritzak onar dezan; Plan horren gauzatzea kontrolatzea; Euskal Administrazio Publikoei aholku ematea Lanbide Heziketako gaietan; informatzeko eta Lanbide Heziketaren arloko zenbait eragilerekin koordinatzeko beste funtzio batzuez gainera. Halaber, urtero, kontseilu horrek bere jardueren memoria egin behar zuen, Lanbide Heziketako Plan Orokorraren jarraipenari dagokionez, eta Lanbide Heziketaren egoerari buruzko txosten bat.

Sindikatuek Kontseilu horretan parte hartzea, itxuraz, arau onartua zen, enpresen, administrazioaren eta ikastetxeen ordezkaritzaren aldetik. Hala ere, ELA sindikatuak Kontseilu horretan parte ez hartzea onartu behar izan zen, nahiz eta ez ulertu sindikatu hori Lanbide Heziketako Estatuko Kontseiluan egotea eta Euskadikoan ez egotea. Bai administrazioko karguek bai Confebaskeko zuzendariren batek harridura azaldu zuten, Euskadin konpromisoa eta lankidetza nagusitu behar zirelakoan[15].

Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak lehenengo aldian hartutako ebazpen garrantzitsuenen ondorioz, batzorde teknikoek eta lan-batzordeek bilera ugari egin zituzten, enpresen premiak irakaskuntza arautuarekin eta ez-arautuarekin eta Lanerako Lanbide Prestakuntzarekin eta Prestakuntza Etengabearekin koordinatu eta integratzeko. 1997ko martxoaren 24an *Lanbidez* Lanbide Heziketako I. Euskal Plana onartzea mugarri garrantzitsua izan zen Kontseiluaren jardueretan. Hurrengo urteetan, batzorde iraunkorrak Lanbide Hasierako Zikloei buruzko zen-

[15] Asier Aloriari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 1a.

bait txosten onartu zituen, eta 1998an Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia eta Lanbide Heziketako Goi Mailako Institutuak sortu zituen, Kualifikazioen Euskal Institutuaz gainera. 1993 eta 2003 bitartean, Lanbide Heziketako Euskal Planaren jarraipena eta lanbide-kualifikazioen analisia izan ziren lan nagusiak, eta hainbat proiektu, prestakuntza-ziklo, tituluak lortze, curriculum-aldaketa eta abarri buruzko irizpen asko onartu ziren. Lan horiek guztiek Kontseiluaren jarduera etengabea erakusten dute.

Bestalde, eskura izan ditugun aktetan —1997tik 2018ra bitarteko urteei dagozkie—, Kontseiluko kide diren zenbait eragileren parte-hartzeak nabari dira, Kontseiluak egiten dituen proposamenei buruzko zehaztapenek ikuspegi desberdinak erakusten baitituzte; esate baterako, 1997ko martxoaren 24an egindako osoko bilkuran, aldeko 17 boto eta bi abstentziorekin onartu zen Lanbide Heziketako Euskal Plana; nabari da plan horren proposamenak adostasun orokorra eta harrera ona izan zuela, eta ekarpen interesgarriak egin zitzaizkion. 2004/2007 Lanbide Heziketako Euskal Plana onartzea ere mugarri garrantzitsua izan zen, parte-hartze maila handia izan baitzen eta eragileen ekarpen garrantzitsuak sartu baitziren. Aurreko atalean ikusi den moduan, plan hori osatu zuten eremu estrategikoetan zentratu zen eztabaida. 1997an bezala, parte-hartzaile guztien oniritzia izan zuen. Lanbide Heziketako euskal planak onartzeak jaso zuen arreta handiena Kontseiluko kideen aldetik, bileretako aktek erakusten dutenez. Kontseiluak, gainera, beren jardueraren urteko memoriak egin behar zituen. Memoria horiek ikusita, bildutako informazioak ez digu uzten sakon ezagutzen Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren lana; eta lan hori, zalantzarik gabe, funtsezkoa izan da Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketari buruzko planak egiteko, lehen ikusi den bezala.

3.2.3. *Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia eta Kualifikazioen Euskal Institutua (1998)*

Lanbide-kualifikazioen arloan, Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez, beste urrats bat egin zuen 1998an Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia sortu zuenean. Behatoki hori Lanbide Heziketako eta Giza Baliabideetako politikak eta Kualifikazioen Euskal Institutua planifikatzeko beharrezko informazioa eman eta zabaltzeko organoa zen. Honela dio Arévalok:

> Kualifikazioen Euskal Institutua jendearentzako kualifikazio guztiak prestatzeaz arduratuko zen; Behatokia, berriz, lana eta industria norantz zihoazen aztertzeaz, eta langabeziaren gaiaz; eta Lanbide Heziketako

> Gaitasuna eta Kalitatea ebaluatzeko Euskal Agentzia gaitasuna ebaluatzeaz arduratuko zen, lan-esperientzia edo ikasketa informalak ebaluatu ahal izateko[16].

Gobernuak garatutako industria —eta enplegu— politikei dagokienez, esan behar da bat zetozela Europako beste gobernu batzuenekin, eta euskal agintariek ere lanbide-kualifikazioen sistema elementu garrantzitsutzat jotzen zutela industria, enplegu —eta prestakuntza— politiken barnean, eta, azken batean, lehiakortasuna eta ekonomia hobetzeko politiketan.

Lanbide Kualifikazioen Sistema hori enplegurako eskatzen den gaitasunean oinarritua zegoen, eta funtsezko bi ezaugarri zituen: batetik, ezaugarri horietan oinarritutako Lanbide Kualifikazioen Sistema batek xeheki zehazten zituen ekonomiaren lanbide-esparruetan lortu beharreko lanbide-gaitasuneko mailak, hau da, erlazio argia ezartzen zuen jarduera ekonomikoaren eskakizunen eta lan-indarraren gaitasunaren artean; bestetik, Lanbide Kualifikazioen Sistema batek bazuen dimentsio sozial garrantzitsua ere, lanbide-kualifikazioak aitortzeko eta egiaztatzeko bide bat osatzeko balio baitzuen.

Beste era batera esanda, hau zen Lanbide Kualifikazioen Sistemaren funtsezko eginkizuna: ekoizpen-jardueraren eremu guztietan lortu beharreko gaitasun profesionalaren mailak, hedadura eta ezaugarriak ezartzea, hala, ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko enplegu-beharrak asetzearekin batera, pertsonak beren kualifikazio profesionala eraikitzera eta hartan aurrera egitera animatzeko, eta enpresaburuak eta erakunde sindikalak lortutako kualifikazioak onartu eta baliozkotzera bultzatzeko.

Institutu hori Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuak (EEI) ordeztu zuen, 2015eko irailaren 8ko 169/2015 Dekretuaren bidez. Dekretu horren hitzaurrean adierazten den moduan, EEI —geroago aipatuko dugu— asmo honekin sortu zen: lanbide heziketaren ikuspegitik, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza eta ezagutzaren garapena sendotzeko estrategia, programa eta prozedurak zehaztea.

3.2.4. *Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia (2001) eta Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (2015)*

Lanbide Heziketaren ibilbide historiko/legegile horren beste une garrantzitsu bat 2001. urtea izan zen, orduan sortu baitzen, apirilaren 3ko 62/2001 Dekretuaren bidez, Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea

---

[16] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

Ebaluatzeko Euskal Agentzia. Lanbide Heziketako Euskal Planak definitzen zuen Lanbide Heziketako Sistema Integratuaren helburu nagusietako bat kalitateko Lanbide Heziketa bat lortzea zen, Europan duen mailarekiko homologagarria izatea ziurtatuko zuena, ekoizpen-erakundeek aintzat har zezaten eta gizarteak, oro har, aintzakotzat eman zezan enplegua lortzeko eta lanbidean eta gizartean aurrera egiteko aukera gisa. Ondorioz, Lanbide Heziketako Gaitasuna eta Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentzia bat sortzeko beharra planteatu zen, organikoki Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzari atxikita geratuko zena eta funtzionalki Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren mende egongo zena.

Haren jardun-esparruen artean, bi nabarmendu beharko ziren: biztanleria aktiboaren —landunaren zein langabearen— lanbide-gaitasunaren ebaluazioa eta Lanbide Heziketako Euskal Planean aurreikusitako Lanbide Heziketako Sistemaren kalitatearen hobekuntza, hura osatzen zuten azpisistemak ebaluatuz. Funtzio asko esleitu zitzaizkion Agentzia horri, eta, horregatik, hiru arlotan banatu zen: Gaitasuna Ebaluatzeko alorra, Kalitatearen alorra eta Egiaztatze eta Erregistratze alorra.

Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua 2015. urtean sortu zen, eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua ordeztu zuen. Sortze-dekretuak honako argudio hau du oinarri: «organo tekniko bat, lanbide heziketaren ikuspegitik bizitza osoan zeharreko ikaskuntza eta ezagutzaren garapena sendotzeko estrategia, programa eta prozedurak zehazteko ardura izango duena». Beraz, institutu hori sortu aurretik, bazegoen erakunde bat hark ordeztuko duena; baina, horretaz gainera, Lanbide Heziketako II. Euskal Planetik berrikuntzari, ebaluazioari eta kalitateari buruz garatzen ari zen ondarea jaso zuen, bai eta europar lankidetzaren esparru estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko 1/2013 Legearen ekarpena eta, jakina, Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana ere, zeinaren helburu nagusia baitzen Euskadiko pertsona guztien enplegagarritasuna ahalbidetzea. Beraz, legegileak uste du, une horretan, hori guztia esperientzia garrantzitsua zela, eta, horrenbestez, komeni zela haren barne-egitura eta antolamendua sendotzea eta eraldatzea, eskuratutako emaitzak etengabeko berrikuntzaren bidez finkatzeko. Beraz, dekretu horrek ezartzen du, gainera, institutua «ikerketarako eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzua dela», eta Lanbide Heziketako Sailburuordetza eskudunari atxikita geratzen dela.

Institutuaren xedeak eta funtzioak hauek dira:

— Euskadiko ekonomia —eta ekoizpen— sarearen premiei aurre egiteko erantzunak proposatzea, curriculumak diseinatuz eta

kalitate nahiz gizarte-balioespen handia izango duen profil eta erreferente sozial eta profesionalen egitura bat eratuz, Lanbide Heziketaren esparruan.

— Ezagutza-mailak garatzea, behar diren premietara egokitutako eta testuinguru horretan kokatutako prestakuntza-programak sustatuz, eta, horretarako, zenbait balio gaineratuz, pertsonen enplegagarritasuna eta aurrerapena areagotzearren.
— Pertsonek lan-esperientziaz edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunak ebaluatzen edo egiaztatzeko prozeduran laguntza ematea.

Horretarako, dekretu berak funtzio hauek onartzen ditu:

— Lanbide Heziketan eskumena duen sailburuordetzari lanbide-kualifikazioen eta -espezializazioen euskal esparrua sortzen laguntzea, indarrean dagoen araudia betez, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbideen eboluzioari erantzun egokia emateko.
— Ezarritako kualifikazio eta gaitasunen arabera, araututako lanbide jakin batzuetako eskakizunak edo lanean aritzeko egiaztagiri jakin bat behar dutenen eskakizunak aztertzea, prozedurei eta lanbide-erreferenteei buruzko proposamenak —Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailarekin ezinbestean adostuta— bidaltzeko, onets daitezen.
— Hala badagokio, lanbide-erreferenteak kualifikatzeko sistematik abiatuta eratzen diren prestakuntza-programetako curriculum-diseinuak prestatzea, irakaskuntza-ikaskuntza metodologien aniztasun aberasgarria ahalbidetuko duten curriculum-irtenbideak aztertuz eta ikertuz.
— Enpresa-erakundeek eskatzen dituzten lanbide-balio eta -jarrerak ziurtatu eta sendotzea. Halaber, ikasleen ikaskuntza-jardueretan zeharkako gaitasunak bultzatzea (instrumentalak, pertsonen artekoak eta sistematikoak), lan-jardunean gaitasun profesionala izan dezaten, eta parte hartzea tituluak edo bestelako prestakuntza-ekintzak emateko modalitateak aztertzeko eta osatzeko, bai eta ikasleen protagonismo handia duten irakaskuntza-ikaskuntza metodologiak garatzeko ere.
— Gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedura garatzea, pertsonen trazabilitatea ziurtatzeko behar diren tresna eta erregistroak eratuz, eta prozedura horretaz arduratzen diren langileak gaitzeko behar den prestakuntza ematea.
— Lanbide Heziketan eskumena duen sailburuordetzari laguntzea atzerritarren tituluak homologatzen edo, hala badagokio, haien ikaskuntzak Euskal Autonomia Erkidegoko tituluekin baliozkotzen, araudi erregulatzailearen arabera.

Ikus daitekeenez, institutu hori kualifikazioen eta programetako curriculum-diseinuen euskal esparrura eta gaitasunen ebaluaziora eta egiaztapenera bideratuta dago, eta berrikuntza ez da esplizituki agertzen haren jardueraren elementu gidaritzat.

3.3. **Tknika, berrikuntza- eta partaidetza-sortzaile (2005)**

Euskal Lanbide Heziketaren arloko berrikuntzari buruzko une garrantzitsuenetako bat 2005ean iritsi zen, 39/2005 Dekretuaren bidez Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa (Tknika) sortu zenean. Lanbide Heziketa EAEn hartzen ari zen garrantzi estrategikoari eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan berrikuntza-proiektuak koordinatzeko beharrari zor zaio, batez ere, zentro hori sortu izana. Beraz, Lanbide Heziketako II. Euskal Planaren (2004/2007) erronketako bat zen Tknika. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak ulertu zuen Tknika tresnarik onena zela egoerari bultzada emateko, Europako esparruan erreferentzia gisa aurkezteko helburuarekin. Alde horretatik, Tknika sortu zen testuinguruan «dagoeneko proiektu desegituratu asko zeuden, haiek arautuko zituen programarik gabe, baina bazegoen haien arteko lankidetza»[17]. Horrenbestez, ikastetxe-sareak eratzea «Lanbide Heziketaren mugarri garrantzitsuenetariko bat izan zen, elkarrekin lanean hastea, uharteak ez izatea eta bakoitzak bere aldetik gerra ez egitea. Helburuak bilatzeko elkartu ginen»[18]. Beraz, Tknika ez da une jakin bateko emaitza; aitzitik, aurreko kapituluan ikusi dugun ibilbideari jarraitzen dio, hots, 1997 eta 2004ko Lanbide Heziketako Euskal Planei eta ikastetxe integralak sortzeari, foru-aldundien laguntzei edo EEI sortzeari.

Testigantza pertsonalak, oraingoan, garrantzitsuak dira; izan ere, Elolak, Mujikak eta Arévalok Tknika sortzeko lehen urratsetan parte hartu zuten. Elkarrekin konfiantza zutenez, Mujika Tknika instalatu ahal izateko zentro bat bilatzeaz arduratu zen, eta, dena gutxi-asko aurreratuta zegoenean, orduan:

> Nik adierazi niena, eta Iñakirekin hitz egina nuen, zera zen, berrikuntza-zentro bat egitea gure eremuan; pentsa ditzagun gauza berriak Lanbide Heziketan, ez gaitezen joan produktuen ikerketari lotutako

[17] Jon Labakari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko urtarrilaren 22a.

[18] Jon Labakari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko urtarrilaren 22a.

> gauzetara, baizik eta pentsa dezagun zer berrikuntza egin dezakegun Lanbide Heziketan[19].

Lehenengo urte horietan ikusten da gaitasuna zegoela berrikuntzaren arloan aurrea hartzeko eta proiektu bateratuak garatzeko zentro espezifikoak sustatzeko. Hala, 2001. urteaz geroztik, orduan sortu baitzen Lanbide Heziketako Sailburuordetza, zentro horren ahalbide guztiak antolatzen ari dira, jada Lanbide Heziketako II. Euskal Planaren barruan:

> II. Plan horrek prestakuntzaren eremuari estaldura handiagoa eman zion, eta esparru berri bat ireki zigun, gizarte-eragileekin, Gobernuarekin eta foru-aldundiekin adostua, lehen guretzat ezinezkoa zen eremu berri batean, berrikuntzan. Berrikuntza-eremu horretatik, ikusten hasi ginen enpresekin eremuak nola garatu, ekoizpen-prozesuak nola hobetu...[20].

2005etik 2009ra, jarraitutasun-lerro bat izan zen, Iñaki Mujikak Lanbide Heziketako sailburuordearen lanpostua bete baitzuen. Jorge Arévalo Sailburuordetzaren zuzendaritzara itzultzean, Iñaki Mujikari Tknika zuzentzeko proposatu zitzaion; hala, jarraipena eman zitzaion proiektuari.

Hala ere, Tknika ez zen beti hartu berrikuntzari buruzko zentro batek zekarren berritasuntzat, eta, urte batzuetan, haren etorkizuna ez zen garbi egon, bai baitzirudien ikastetxeekin zuen loturak ikastetxeek boterea galtzea zekarrela. Hala, José Carlos Cresporen hitzetan, «Ondo iruditzen zait Tknikak ikastetxeen begiralea izatea eta haiei baimena ematea, baina ez zait logikoa iruditzen hark zure proiektua, nolabait, ia bahitzea»[21], kontuan izanik berrikuntza-proiektuak Tknikak onartu behar zituela, baina ezin zela haietaz jabetu. Iritzi hori bat dator, bere garaian, PSOEren esku zegoen sailburuordetzaren jarduerei buruz Tknikak zuen pertzepzioarekin. Tknika ixteko arriskua zegoen, eta nabaria zen haren proiektuetako asko geldirik zeudela. Egoera hori ez zen gertatu ezinikusiagatik, baizik eta Sailburuordetzaren interesak, une horretan, beste eremu batzuetara bideratuta zeudelako; hala, TknikaK Lanbide Heziketaren berrikuntzaren arloan duen zereginari buruzko ezjakintasuna agerian gelditzen da, Mujikak berak, José Carlos Crespok agintaldia bukatzean egindako bisitaz ari delarik, esaten duenean Crespo ohartu zela «Tknikak zuen potentzialaz, honela esan baitzuen: nik hau jakin banu»[22]. Nolanahi dela ere, kontua da 2010 eta 2012 urteen

---

[19] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[20] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[21] José Carlos Crespori egindako elkarrizketa, Santander, 2019ko uztailaren 18a.

[22] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

artean «Tknika stand by» egon zela, Mujikak berak dioenez. Urte horien artean, PSOEk Lanbide Heziketako III. Euskal Plana garatu zuen, aurreko kapituluan aipatu duguna.

Tknika berriro aktibatu zen Jorge Arévalo Sailburuordetzara itzultzean, Mujika Tknikako zuzendari izanik. Ordurako, Lanbide Heziketako IV. Plana abian zen, eta Sailburuordetzak ezarritako helburuetako bat nazioartekotzea izan zen. Eta hala jarraitu zuen, 2015. urtean berrantolaketa egin zen arte.

Tknika 2005eko martxoan sortu zen, eta esan daiteke ezen, 2015eko abenduan zentroaren definizioa aldatu zen arte, epe labur eta ertainera argi eta garbi adierazitako helburuetara bideratu zuela Tknikak bere jarduera (Hollywood & Media , 2006):

— Euskadiko Lanbide Heziketa bikaintasuneko egoeran kokatzea nazioarteko testuinguruan.
— Ikastetxe integralen eta enpresa, zentro teknologiko eta unibertsitateetako ikerketa-sailen arteko harremana sustatzea.
— Lanbide Heziketan eta enpresetan, interesak eta sinergiak mobilizatzeko dinamika bultzatzea.

Hala ere, adierazgarria da ikustea zer aldaketa gertatu ziren 2005eko eta 2015eko dekretuetan, non zentro horren egiturak eta funtzioek ia bere horretan irauten baitute. Hala ere, ikus daitekeen moduan, Tknikak planteatzen dituen helburuek —batzuetan, estrategia berri gisa adieraziak— maila garrantzitsu batzuk lantzen dituzte Lanbide Heziketako berrikuntzari dagokionez; hau da, batzuk prozesu berritzaileei, ikastetxeen arteko lankidetzari eta koordinazioari eragiten dieten estrategiak dira, beste batzuek kudeaketari eragiten diote, eta, azkenik, beste batzuk zenbait prestakuntza-estrategiari dagozkie. Beraz, funtzio eta helburu horiek Euskadiko Lanbide Heziketako berrikuntzaren ikuspegi konplexu bat islatzen dute.

Helburuei eta funtzioei buruzko konparazio batean, ikus daiteke zein diren zentroaren jarraitutasunak eta zer haustura edo berrikuntza sartu ziren. Helburuei dagokienez, xedapenek diote Tknika sortu dela Lanbide Heziketako euskal planak martxan jartzeko; dena dela, 2015ekoak badakar aipamen bat Europar Batasunak zehaztutako plan estrategikoei buruz. Aldatzen den alderdi bat izendapenari dagokiona da. Hala, 2005ean, Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa (Tknika) aipatzen da; 2015ean, berriz, hau da izendapena: Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa. Aldaketa funtsezkoa da, baina garatzen dituzten proiektuek 2005eko berrikuntza-irizpide berari jarraitzen diote, ikerketaren arloa eta hortik ondorioztatzen den guztia barneratzen baitute. Funtzioei dagokienez, badira aldaketa batzuk, baina gehienek berdin jarraitzen dute, baita

berdin idatzita ere, epigrafeekin gertatzen den bezala. Aldaketak 2015ean ikerketa sartzearen ondorio dira; 2005ekoak, berriz, ikastetxe integralen kudeaketan edo ikaskuntza-metodologietan zentratuago daude.

Bestalde, antolaketa-egiturari dagokionez, ikus daiteke esku hartzeko arloak aldatu direla: lau izatetik bost izatera igaro dira. Hala, 2005ean, hauek ziren: ikastetxeetako e-learning Berrikuntzaren eta IKTBen Dinamizazioaren Arloa; Berrikuntza Teknologikoaren Arloa; Kudeaketa-berrikuntzaren Arloa; eta Prestakuntza Espezializatuaren Arloa. Eta 2015etik aurrera, hauek: Lanbide Heziketari Aplikatutako Berrikuntzaren Arloa; Etengabeko Hobekuntzaren Arloa; Ikaskuntza-metodo eta Prozesuen Ikerketaren Arloa; Ekintzailetzaren eta Aldaketaren Kudeaketaren Arloa; eta Lanbide Heziketaren Eremuko Nazioartekotzearen Arloa.

2005eko arloetan, ikerketa, berrikuntza eta prestakuntza optimizatzen saiatzen ziren proiektuak kudeatu ziren, bai eta berrikuntza teknologikoaren arloan ere, askotariko enpresa-proiektuekin, fabrikazio mekanikotik edo soldaduratik hasi eta akuikulturaraino. Kudeaketa-berrikuntzaren Arloan, proiektu-aholkularitza eman zen, prozesuen metodologiak kalitate-sistemetan zabaltzeko. Halaber, Berrikuntzaren eta IKTBen Dinamizazioaren Arloan, IKTen erabilera sustatu zen sareen azpiegituran, intranetean edo errealitate birtual edo handiagotuan, eta, azkenik, Prestakuntzaren Arloa —gainerako arloak baino zeharkakoagoa zen— prestakuntza-planak koordinatzeaz arduratu zen, bai irakasleena, bai Lanbide Heziketako ikastetxeetako zuzendaritza-taldeena (Euskonews & Media).

3.3.1. *Tknikaren proiektuak eta berrikuntza-estrategiak*

Tknikaren proiektuen filosofia Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasle onenekin sarean lan egitea da, proiektu-lantalde bidez. Horrekin lortu nahi da berrikuntza-proiektuetan parte hartzen duten irakasleak beren lantokitik ez deskonektatzea eta irakaskuntza-lanak Tknikako dinamizatzaile batek zuzendutako proiektuekin bateratzea. Asmoa da irakasleek proiektu bat partekatzea Tknikarekin: «jarrai dezatela ikastetxean lanean, baina izan dezatela dedikazioa proiektuetan, dedikazioa lanaldiaren erdia izatea gutxi gorabehera... Tknikak egin behar du lan da ikastetxeentzat»[23]. Alde horretatik, sareko lana funtsezkoa da, hala ikastetxe publikoetan nola pribatuetan. Lan egiteko modu hori zeharkakoa da erronkak edo proiektuak planteatzeko orduan

[23] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

ere. Hala, ikastetxe laguntzaileen sare bat sortzen da —Tknikaren nodo teknologikoak—, talde-lana bultzatzen duena. Halaber, gauzatzen diren proiektuak emaitzei begira egiten dira, proiektuaren ebaluazio orokorrarekin; azken batean, transferentzia teknologikoko proiektuak garatzen dira. Alde horretatik, TknikaK zenbait zerbitzu eskaintzen zituen (Euskonews & Media):

— Irakasleak eta enpresa txiki eta ertainetako teknikariak zenbait arlo berritzailetan prestatzea.
— Hitzarmenak egitea erakunde eta enpresekin, irakasleak zentro teknologikoetan eta enpresetan prestatzeko.
— Prestakuntza-preskriptoreak.
— Praktika-sareak edo -komunitateak sortzea irakasleen eta enpresetako teknikari espezialisten artean.
— Argitalpenak (gidak, ikastaroak, eskuliburuak edo unitate didaktikoak...).
— Ikastetxeak kudeatzeko programak.
— IKTen dinamizatzaile eta administratzaileak koordinatzea.
— Ikastetxeetako taldeetako buruak eta bideratzaileak prestatzea.
— Liburutegiaren eta mediateka teknikoaren zerbitzua.

Hasieran aurkeztutako balantzearen arabera, esan daiteke Tknika erronka bat izan dela balio izan duena 2004/2007 Lanbide Heziketako Euskal Plana bultzatzeko. Era berean, Euskadik berrikuntzari buruzko zentro bat izan zuen, berdinik gabekoa Europan. Etapa horretan parte hartu zuten lehen eragileei dagokienez, kalitate-elementu izan zen irakasleen parte-hartzea eta esperientziak eta ezagutzak partekatzeko sareko lan-metodologiak sartzea. Inguruko enpresei dagokienez, Tknikarekin lankidetzan aritzeko aukera izan zuten, materialak eta ekipamenduak utziz eta talde bateratuetan parte hartuz; hala, sendotu egiten zen enpresa-munduaren eta hezkuntza-munduaren arteko harremana. Azkenik, gizarteari dagokionez, oro har, berrikuntzaren munduarekin lotutako ekimenak sortzen ikustea baliabiderik onena zen euskal ekoizpen-sisteman berrikuntzak sartzeko.

Dena dela, gaur egun Tknikak bere web-orriaren edo bere memorien bidez ematen digun informazioa aztertzen badugu, ikusiko dugu Tknikaren hasiera horiek konplexuagoak direla orain sareei eta jardun-esparruei dagokienez, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako eta enpresa-sarerako berrikuntzan ardaztuta baitago zentroa. Alde horretatik, behin eta berriz adierazten denez, Tknikaren funtsezko ardatza ikerketa eta berrikuntza aplikatua da, Europan aitzindari izateko helburuarekin.

Tknikaren dokumentu estrategikoen artean, xedea, ikuspegia eta balioak, hasiera batean, Tknikak kalitate-estandarren ildo-ildoan

definitzen ditu helburuak. Hala, xedeari dagokionez, zaintzaren eta adimen lehiakorraren bidez, produktu eta zerbitzu berritzaile eta balio erantsi handikoak diseinatu, garatu, ezarri eta Lanbide Heziketako ikastetxeetara —eta, haietatik, enpresa-sektorera— transferitu nahi ditu. Arévalok adimen lehiakorrera jotzea defendatu du berrikuntza indartzeari eta berrikuntza lehiakorra abian jartzeari dagokionez. Berrikuntza hori, Plan honek ezartzen duenaren arabera (Lanbide Heziketako IV. Euskal Planari dagokio), hiru elementutan oinarritzen da: teknologia, ezagutza eta lankidetza [...]. Planaren berrikuntza lehiakorraren eredu honek barrurantz hobetzen eta kanporantz garatzen lagundu zigun, berrikuntza-errutinak kontzeptuaren ildoan[24].

Era berean, helburuei dagokienez, Tknikak 2015eko sorrera-dekretuan dauden lau arloak islatzen ditu. Arlo horietako bakoitzak zenbait prozesu eta proiektu garatu ditu azken urteotan. Prozesu eta proiektu horien kalitate —eta betetze— maila aldizka ebaluatzen da, kalitatearekiko konpromisoak erakunde osoari eragiten baitio. Gainera, Tknikak barne-prestakuntzako planak ezartzen ditu erakundea osatzen duten pertsonen gaitasunak eta lanbidea garatzeko. Halaber, Tknika konprometituta dago Euskal Herriko bi hizkuntza ofizialak sustatu eta erabiltzearekin.

Lanbide Heziketaren arloko berrikuntza-estrategiei dagokienez, eskatzen diren prozesu, ikastetxe, proiektu, kudeaketa eta prestakuntza guztiak lantzen dituzte, eta proposamen hauetan zehazten:

— Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan berrikuntza teknologikoko prozesuak bultzatzea, Lanbide Heziketa lehiakorragoa eta dinamikoagoa izan dadin.
— Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeekin lankidetzan aritzea, informazioaren gizartea eta IKTak garatzen, mundu osoarekin loturak sortzeko, herrialde aurreratuenekin ikaskuntza kooperatiboko harremanak partekatuz.
— Prestakuntza-proiektuak garatzea eredu metodologiko berriekin, sortzen ari diren premiei aurrea hartuz.
— Berrikuntza teknologikoarekin, metodologikoarekin eta kudeaketakoarekin zerikusia duten gaietan prestakuntza kudeatzea.
— Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeen kudeaketan berrikuntza-prozesuak bultzatzea, egitura malguago, dinamikoago eta partizipatiboagoak sortzeko, lankidetzan, pertsonenganako konfiantzan eta taldeen autonomia eta kudeaketa-gaitasunean oinarrituta.

---

[24] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

— Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeen eta ETEen artean berrikuntza aplikatuko proiektuak bultzatu eta koordinatzea, produkzio-prozesuak eta produktuak hobetzeko.
— Hiru dimentsioko Lanbide Heziketa birtualeko inguruneak bultzatzea.
— Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeetako enpresak sortzeko proiektuak koordinatzea eta horretan parte hartzen duten beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.
— Berrikuntza teknologikoari buruzko prestakuntza eskaini eta ematea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko Lanbide Heziketako irakasleak ekoizpenari eta zerbitzuei aplikatutako teknologia berrietan prestatzea.
— Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatuan eta nazioartean hainbat proiekturi ekitea.
— Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailburuordetzak agintzen dizkion eginkizun guztiak betetzea.

Hala ere, ikastetxeetako eta enpresa-sareko berrikuntzari dagokionez Tknika azkenaldian gehien garatu den esparruetan, honako hauek aipa daitezke:

— Teknologia
— Ikasteko metodologia berriak
— Nazioartekotzea
— Biozientziak eta jasangarritasuna
— Konplexutasunaren kudeaketa
— Enpresetarako zerbitzuak

Teknologiaren arloari dagokionez, Euskadiko Lanbide Heziketari aplikatutako ikerketa —eta berrikuntza— sistemari buruzko eskema batetik abiatzen da Tknika. Eskema horretan, berrikuntza-politikak taxutu eta zabaltzeko helburuarekin esparru bakoitzean aintzat hartzen diren funtsezko eragileak agertzen dira.

1. Grafikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Sistema



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Tknikaren webgunea.

1. grafiko honetan ageri diren sare-nodoek arreta jartzen dute erkidegoko enpresa eragileetan eta haien etorkizuneko premietan. Horretarako, enpresekiko koordinazioak aukera ematen du gaitasunak eta ekimenak garatzeko. Une honetako nodo operatiboak fabrikazio aurreratuari, fabrika digital eta konektatuari, energiari eta biozientziei eta biopolitikei buruzkoak dira. Ikastetxeko proiektuetan jarduteko ildoak lehenesteko, ikastetxeek proiektuak garatzeko duten gaitasuna eta esperientzia hartuko dira kontuan. Esparru horretan, Tknikak ikastetxeetako proiektuak aukeratzen parte hartzen du, eta haien jarraipena egiteaz arduratzen da. Tknikaren espezializazio-arloei dagokienez, industriak eskatzen dituen zerbitzuak ematera bideratuta daude proiektuak; eta, azkenik, ingurune estrategikoetan, Tkgune sortzearen helburua da ETEetako berrikuntzari laguntzea eta Lanbide Heziketako ikastetxeen sarearen ezagutzak, baliabideak eta instalazioak ETEen eskura jartzea, zerbitzuak emanez. Esparru horretan, hainbat proiektu egin dira eta egiten ari dira, batez ere 4.0 industriaren eta teknologia berrien integrazioaren arloan.

Bigarren eremuan —*ikaskuntza-teknologia berriak*—, helburu nagusia da eredu metodologikoen ikerketak, diseinuak eta

inplementazioak ikasteko prozesuen hobekuntzan eragina izatea Lanbide Heziketaren esparruan. Horretarako, hauek dira abiapuntuak: Ethazi (Astigarraga, E.; Arregi, A. eta Carrera, X., 2017) ereduaren inplementazio, diseinu, garapen eta hedapena, eta eredu hori hedatzeko arloak egiten dituen proiektu eta zerbitzuak. Haietatik, hauek dira garrantzitsuenak: Ethazi Biltegi Digitala, SET (Skills Evolución Tool) ebaluazio —ikuspegi eta— tresna, aldaketa metodologikora orientatutako prestakuntza —programak, ikaskuntza— espazio berritzaileen garapena eta lankidetza —eta aliantza— sareak sortzea estatuko eta nazioarteko erreferentziako entitateekin ikaskuntza-metodologia aurreratuen aplikazioen eremuan. Eredu horrek eragina du heziketa-zikloetan, eta erronketan oinarritutako ikaskuntza kooperatiboa du ardatz. Gaur egun, fase pilotuan dago, eta hartan Lanbide Heziketako 63 ikastetxek, 1.953 irakaslek eta ia 7.000 ikaslek hartzen dute parte. Eredu horri 279 heziketa-ziklotan jarraitzen ari zaio.

Hirugarren eremuan —*nazioartekotzea*—, nazioartekotzearen kulturan lan egin nahi da, eta sistema integratu baten bidez, hau da, toki-mailatik abiatuz, Europan jarraituz eta, azkenik, maila globalera zabalduz. Helburua da lehenengo mailan lankidetza garrantzitsua izatea, bigarrenean Europako Lanbide Heziketaren arloko proiektuetan parte hartzea da eta hirugarren mailan lehenengo mailan egindako ezagutza eta esperientzien transferentzia sustatzea. Hori garatzeko, fase batzuk jarri dira martxan: hasteko, hizkuntza-gaitasunak edo kulturarteko gaitasunak eskuratzea; gero, ikasleen eta irakasleen mugikortasuna kudeatzeko beste fase bat, Europako proiektuetan parte hartzeko eta koordinatzeko fase aurreratu batera pasatzeko, eta, azkenik, aldaketak eta proposamenak sortuko dituen bikaintasun-fase batera iristea. Proiektu horiek ikasleak, irakasleak eta ikastetxeak mugiarazi dituzte, eta beste herrialde batzuekin harremanak izan dituzte zenbait mailatan. Ikastetxe eta irakasleekiko lankidetza Europako esparrutik harago doa —lankidetza hori garrantzitsua zen 2001ean—, eta Australia, Zeelanda Berria, Kanada, Txile edo Mexikora iritsi da, dagokion kapituluan ikusiko den bezala.

Laugarren eremuak *biozientziak eta jasangarritasuna* ditu ardatz, eta giza garapen jasangarriaren alde egiten du baliabideen erabilera eraginkorrean oinarritutako ekoizpen-eredu batean, ekonomia jasangarriaren euskarri gisa. Giza garapen jasangarri hori hainbat arlotan landu behar da: gizartean, ingurumenean, ekonomian eta kulturan. Horretarako, Tknika Lanbide Heziketako arloetatik abiatuta ari da lanean Nazio Batuek onartutako Garapen Jasangarriko 17 Helburuekin.

Bosgarrena *konplexutasunaren kudeaketa*ri buruzkoa da. Etengabeko hobekuntzaren arloan lan egitea da xedea, eta ikastetxeen kudeaketan

lehentasunezko hiru premia identifikatzea: eraldaketei lotutako hobekuntza-planak, belaunaldi-aldaketaren kudeaketari laguntzea eta ikastetxeen berrikuntzari eta kudeaketari laguntzea.

Azkenik, seigarren eremuari dagokionez —enpresetarako zerbitzuak—, Lanbide Heziketako ikastetxez osatutako sare bat sortu da, bere azpiegitura eta ezagutza metatu guztia enpresen esku jartzen duena. Horretarako, berrikuntzaren eta teknologia-transferentziaren sare horrek zenbait esparrutan antolatutako Tkguneak erabiltzen ditu (fabrikazioa, trengintza, automobilgintza, energia eta industria sortzaileak), eta enpresa askok ateratzen diote etekina.

Tknikak egiten duen lan horrek guztiak zentzua du berrikuntza aplikatuaren arloaren helburua kontuan harturik; izan ere, helburua da «teknologia bat sortzen denetik euskal gizarteak hortik etekina atera arte igarotzen den denbora murriztea, eta Euskadin merkatu-hobi berriak garatzeko teknologiak ikertzea» (Tknika, 2018). Hala ulertzen da Tknikak bere jarduna kokatzea berak sortutako Euskadiko Lanbide Heziketaren berrikuntza teknologikorako sistemaren diseinuaren barruan; sistema horrek «gizarteari, eta bereziki ETEei, lagundu nahi die balio erantsi handiaaren arloan lehiatzeko erronkan». Sistema hori ez da ulertzen Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik gabe, Lanbide Heziketako euskal planen esparruan, Tknikaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen bitartez.

3.4. **Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteak**

Lan honetan adierazten ari garen bezala, berrikuntzaren alderdi garrantzitsuenetako bat ikastetxeek duten zeregina da. Ikastetxeak etengabe aipatzeak erakusten du estrategia politikoen, berrikuntza metodologikoen, programa bateratuen edo etorkizuneko itxaropenen sare osoak ikastetxeen lankidetza, parte-hartzea edo inplikazioa duela helburu. Hau da, ulertzen da Lanbide Heziketako ikastetxeak aldaketaren benetako motorra direla. Hala, lehen aldi batean, ikastetxeak jardueretan murgilduta zeuden, eta hobekuntza zen irakasleen eta ikastetxeetako zuzendarien etengabeko ardura; bigarren aldi batean, instituzioak eta haien eta ikastetxeen arteko artikulazioa izango dira «prozesu berrien bideratzaileak» (Mujika eta Intxausti, 2018).

Titulartasun publikoko, itunpeko nahiz pribatuko ikastetxeen elkarteen bidez hartzen dute parte ikastetxeek. Hauek dira herrialdeko hiru elkarteak: AICE-IZEA, 1984an sortua Euskadiko irakaskuntzako enpresa-elkarte gisa; HETEL, 1987an sortua, ikastetxe pribatuetako hezkuntza-proiektuak partekatzen dituena, eta, azkenik, Ikaslan, 1993an sortua Gipuzkoan ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarte

gisa, eta Arabara eta Bizkaira zabaldu zena hurrengo urteetan. Elkarte horiek, denborak aurrera egin ahala, administrazio publikoen eta enpresa-erakundeen solaskide bihurtu dira, eta haien erakundeetan presentzia dute; adibidez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan. Beraz, hau esan daiteke: «ikastetxe eta elkarte publiko zein itunduen arteko lankidetza elementu garrantzitsua, edo erabakigarria, izan zen Lanbide Heziketaren garapenean 1990eko hamarkadan» (Mujika eta Intxausti, 2018).

Bestalde, gure elkarrizketatuek aintzat hartzen dute elkarte horien parte-hartzea eta elkarlana, nahiz eta ikastetxeen eta elkarteen arteko lehia ezinbestekoa izan:

> Denok joan gara gurdi berean, bai Ikaslanen taldea, bai HETE-Lena, bai AICErena, oso oinarri sendoak ditugulako; Lanbide Heziketaren multzoa oso sendoa da, bakoitzak bere interesak defendatzen dituen arren, baina helburu komun bat dugu[25].

Ildo beretik mintzo da Jorge Arévalo elkarteen garrantziaz eta pisuaz; adibidez, HETELez:

> Bai, pisu handia, batez ere erlijiosoarena. Denetik izan zen; egia da lehian dauden bi eredutatik abiatu ginela. Ni publikotik nator, baina sistema pribatu indartsu bat zegoen, itundua, azken batean, errezeloarekin. Jakina, gobernuak Lanbide Heziketa osorako gobernu-sistema bat egitea planteatu zuenean, talde guztiekin bildu behar izan nuen, eta itunduan bazegoen elkarte bat, HETEL izena duena, oso zeregin garrantzitsua izan zuena. Guk hor, gobernu gisa, lehenengo publikoarekin hitz egin nuen, eta esan nuen, pribatuarekin ere hitz egin behar dut sartuz joan dadin, eta ezin dut horretara behartu, baina itundua gonbidatu behar dut I. Planean parte hartzera eta planaren garapenean ere parte hartzera[26].

Beraz, hezkuntza-errealitatea titulartasun desberdineko ikastetxeek osatzen dutelako uste horrek ahalbidetu zuen haien lankidetza.

Hona hemen elkarte eta lurraldeka dauden ikastetxeen egungo egoera, 2018/19 ikasturtean, eskaintzetan Lanbide Heziketako ikastetxeak bakarrik kontuan hartuta:

---

[25] Itziar Etxeberriari egindako elkarrizketa, Gasteiz, 2019ko uztailaren 10a.

[26] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

4. Taula

Ikastetxe kopuruak herrialdeka eta elkarte motaka, 2018/2019

Elkarteak	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Guztira
Ikaslan	24	25	12	61
HETEL	15	11	1	27
AICE-IZEA	23	9	0	32
Guztira	**62**	**45**	**13**	**120**

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Hiru elkarteen webguneak.

Ikastetxe horietako askok, publikoak, itunduak zein pribatuak izan, beste irakaskuntza-maila batzuk ematen dituzte, Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitartera joan daitezkeenak. Taula honetan ageri direnek, gainera, Oinarrizko Lanbide Heziketa ere ematen dute, erdi —edo goi—mailako zikloren bat edo biak, edo ikasketa osagarriak bestela.

3.4.1. *Ikaslan (1993)*

Esan bezala, ikastetxeek hasieratik hartu zuten parte Lanbide Heziketaren esparruan gertatzen ari ziren aldaketetan, bai ikastetxe-zuzendari askoren konpromiso pertsonalarekin, bai berrikuntza-proiektuak aurrera eraman nahi izan zituzten irakasleekin; eta Administrazioaren oniritzia ere izan zuten. Ikastetxeen jarduera hori berme eta parte-hartze handiagoarekin garatzeko, «paradigma-aldaketa» ekarri zuen Lanbide Heziketa Publikoan 1993an Gipuzkoan Ikaslan sortu izanak, José María Elolak (Ikaslan, 2013) dioenez. Elola Ikaslaneko lehendakaria izan zen 1993ko martxotik 2003ra bitartean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko hamalau ikastetxe publikok zuten kezkaren ondorioz sortu zen Ikaslan ; ikastetxe horiek, 1991tik 1992ra bitartean, erabaki zuten gogoeta egitea Lanbide Heziketaren egoerari buruz, enpresa-munduan gertatzen ari ziren aldaketei buruz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Industria Sailaren programei buruz eta Lanbide Heziketako Europako esparruari buruz. Azkenik, eztabaida horien ondoren, erabaki zen hamalau ikastetxe horiek aurre egin behar zietela atzemandako erronkei: Etengabeko Lanbide Prestakuntza eta Lanerako Lanbide Prestakuntza, irakaskuntzaren kalitatea, irakasleen prestakuntza teknikoa, euskarazko material didaktikoaren eskuragarritasuna eta Europako programetan parte hartzea. Bazirudien biderik egokiena ikastetxeei ahots bakarra ematea zela, Ikaslan elkartearen bidez. Ikaslan izena ez zen ausaz aukeratu, baizik eta ideia hau

laburbiltzen duelako: ikastea eta lan egitea estu lotutako jarduerak dira, eta Lanbide Heziketa on bat jasotzeak lan-mundura arrakastaz iristeko aukerak areagotzen ditu. Mezu hori du.

Kontsultatutako lekukotasunak ikusita, bi ikuspegitatik ageri da Ikaslanen sorrera. Alde batetik, Ikaslan ikastetxeetako zuzendarien elkarte gisa ikusten zuten batzuek, eta, alde horretatik, haren legezko bideragarritasuna zalantzazkoa zen, une horretan ezinezkoa baitzen ikastetxe publikoen elkarte bat sortzea[27], eta elkarte izatearen ondorioa zen HETEL edo AICE elkarteekin batera agertzea Ikaslan bileretan, eta beste finantzaketa-maila batzuetarako sarbidea izatea. Bestetik, beste batzuek uste zuten Ikaslan Administrazioaren aurrean aritzeko presio-lobby[28] bihurtua zegoela, eta haren bideragarritasuna justifikatzen zuten beste erakunde pribatuen kontrapisu gisa. Bestalde, Ikaslanen sorreran parte hartu zutenek beste jarrera bat agertu dute elkartea une hartan sortzea justifikatzeko:

> Orduan, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen elkarte bat planteatu genuen, baina ez ziguten utzi, ez garelako ikastetxeen jabeak; orduan, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarte bat antolatu genuen, eta hortik sortu zen Ikaslan Gipuzkoa. Eta hori mugarri bat izan zen, formatu bat eman geniolako. Batzuek uste dute irakasleen sindikatu bat dela, Administrazioari aurre egiteko, baina beti izan gara Sailarentzako makulu bat, laguntza bat, zenbait ekintza bultzatzeko, Administraziotik zailagoa baita[29].

Halaber, Kike Intxaustik helburu honekin justifikatzen du Ikaslanen sorrera: «Etengabeko Prestakuntza emateko behar ziren irakasleak kontratatu ahal izateko»[30]. Horrek kritika sindikala ekarri zuen, hori irakasleentzako aparteko orduak sustatzeko modua zela ulertuta. Gauza bera adierazten du José Mari Elola 10 urtez Ikaslaneko lehendakari izandakoak; haren ustez, Lanbide Heziketa publikoak ere bere antolaketa izan behar zuen, ikastetxeekin eta enpresekin elkarlanean aritzeaz gainera. Ikaslanek Euskadiko Alderdi Sozialistaren gobernuarekin zituen harremanak ez ziren izan lankidetza handikoak; beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beste laguntza batzuk jaso behar izan zituen. Elolak dio HETEL eta Ikaslanen proiektuak eredu bat direla Europaren aurrean[31]. Euskadin hezkuntza-gaietan egin diren beste ekimen asko bezala, Ikaslan labanaren ahoan sortu zen.

---

[27] Joseba Amondaraini egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 28a.

[28] José Carlos Crespori egindako elkarrizketa, Santander, 2019ko uztailaren 18a.

[29] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

[30] Kike Intxaustiri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko maiatzaren 6a.

[31] José Maria Elolari egindako elkarrizketa, Santander, 2019ko uztailaren 18a.

Sortu zenean, helburu batzuk ezarri ziren, hurrengo hamar urteetan garatzeko asmoz. Helburu horiek zerikusia zuten ikastetxeak kudeatzeko gaitasuna handitzearekin, ikastetxe integratuak garatzearekin, elkarteko kideen proiektuak bideratzearekin edo irakasleentzako kalitateko etengabeko prestakuntza bultzatzearekin. Badakigu ikastetxeetako zuzendarien elkarte bat, une horretan, aukera arriskutsua zela, elkarte-antolaketa hori ez baitzen jasotzen legearen esparruan. Orain, denbora igarota eta proiektu irudimentsu honen lanak lortutako onurak ikusita, esan beharko dugu arrakastatsua izan zela. Jorge Arévalok Ikaslanen azken hogei urteetako ekarpen handienetako hiru nabarmendu ditu: leialtasun instituzionala, ikastetxeen arteko harremanaren funtzionamendu egokia eta elkartearen existentzia bera eta Euskadi osoan duen presentzia.

Gipuzkoan sortu eta, hiru urte geroago, Ikaslan Araba sortu zen, eta, urtebete geroago, Ikaslan Bizkaia. Ia esan daiteke ikastetxe publiko guztiak elkarte horretan sartuta daudela. Ikaslan Gipuzkoak elkarlanean jardun zuen, lankidetzan, uste baitzuten lehiatzeko modu hori ikastetxeen kalitaterako bermerik onena zela. Beraz, garai horretako Ikaslanek 80ko eta 90eko hamarkadetan zuzendari eta irakasleek ikastetxeetan izan zuten parte-hartzeari buruz nabarmendu zen onena biltzen du. Horrekin berresten da zein zen ikastetxe publikoen kalitatea hobekien bultzatzen zuen harreman-esparrua: irakasleen parte-hartze proaktiboa, beste erakunde eta elkarte batzuekiko harremanak eta enpresekiko lankidetza. Lehen urte horietan, hainbat proiektu eta programa egin ziren, hala nola:

— *Sareka:* 1996an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin sinatutako proiektua, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako ikastetxe publikoek eskaintzen dituzten kudeaketaren, lankidetzaren eta zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko. 32 ikastetxek ISO ziurtagiria lortu zuten, eta 5 ikastetxek «Zilarrezko Q» saria.
— *Garatu:* 1996an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin sinatutako proiektua, ikastaro tekniko asko antolatzeko eta irakasleek gaitasun berriak eskuratzeko. Ikasleek eta enpresetako langileek prestakuntza eguneratu eta egokia jaso zuten.
— *Laneki:* Ikaslan Gipuzkoak, Ikaslan Bizkaiak, Ikaslan Arabak eta HETELek hasitako programa bat izan zen; hitzarmen bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, prestakuntza-ziklo guztietan euskarazko material didaktiko kalitatezkoa izateko.
— *Europako programak:* 1993tik 1996ra bitartean, *Petra* izeneko programari esker, Lanbide Heziketako espezialitate batzuetako 100 bat ikaslek aukera izan zuten atzerrian lan-praktikak egiteko, eta ikasle horietako gutxi batzuk atzerrian kokatu ziren. 1996. urtean,

programak Leonardo izena hartu zuen. Gaur egun, ia ikastetxe guztiek garatzen eta parte hartzen dute Europako proiektuetan.

— *Euskalherrirantz:* HETELekin batera Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmena, Argentinan edo Venezuelan jaiotako baina euskal jatorria duten ikasleek Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak ikasi ahal izateko Gipuzkoako, Bizkaiko edo Arabako ikastetxeetan. 2002/03 ikasturtean 40 ikasle etorri ziren, eta 2003/04 ikasturtean beste 60 ikasle.
— *Elkarlanean:* HETEL, Lanhez, Bihe eta Foru Aldundiko Ekonomia Departamentuarekin ezarritako programa, Aldundiak garatu nahi zituen proiektuak koordinatzeko. Ikaslanek, ikastetxeekin batera, parte-hartze nabarmena izan zuen I+G proiektuetan eta beste proiektu batzuetan, hala nola «txekinbide», «emaweb+», «e-sustapen», «e-gela», «urrats», «premia» eta abarretan. Ikaslan Gipuzkoak HETEL, Lanhez eta Adegirekin definitutako lankidetza-plana, Lanbide Heziketa sustatzeko.
— *Hezkuntek:* HETEL, Seaska eta Ipar Euskal Herriko enpresaburu talde batekin egindako proiektua, batxilergoa euskaraz egin duten Ipar Euskal Herriko ikasleek aukera izan dezaten Hego Euskal Herriko ikastetxeetan goi-mailako heziketa-zikloak ikasteko.

Bestalde, Iñaki Konde Ikaslaneko lehendakaria izan zen 2003tik 2009ra bitartean, eta jarraitu zuen azpimarratzen Euskadiren garapenerako Lanbide Heziketak maila estrategikoa izan behar zuela. Lehendakari izan zen garaian, konturatu zen prestakuntza oinarrizko tresna zela gizarte-premiei erantzuteko eta Ikaslanek jarraitu behar zuela, bere lehenengo hogei urteetan, Ikaslan Gipuzkoa osatzen zuten 24 ikastetxeen lanari eusten. Eta adierazi zuen ezen, Lanbide Heziketari gizartean presentzia handiagoa emateko, Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin, instituzioekin eta sareekin lankidetzan aritzea zela arlo estrategikorik onena Euskadiko Lanbide Heziketarentzat, eragile politiko eta sozialek adierazten duten moduan. Halaber, balioa eman zaie, aldi horretan, beste alderdi hauei ere: Lan Sailarekin eta Industria Sailarekin izandako lankidetza, Tknikaren laguntzarekin garatutako proiektuak, Europako proiektuetan parte hartzea, aipatutako Hezkuntek edo Laneki proiektuak, eta emakumeak industria-arloko prestakuntza-zikloetan sartzeko kezka. Kondek adierazi du, halaber, berrikuntza beti hartu dela kontuan, baita ezagutzaren transferentzia ere, eta horrek erronka berrietara irekitzea ekarri duela.

Azkenik, Ina Larrañagak —Ikaslan Gipuzkoako lehendakaria izan zen 2009tik 2013ra— berrikuntzak lan-ildo gisa hartu duen garrantzia nabarmendu du. Hala, adibidez, aipatu du bazirela proiektuak hamasei bazkide zituztenak: unibertsitate bat, berrikuntza-zentro pare bat,

ikastetxeen elkarteak, enpresak eta prestakuntza-ikastetxeak. Helburua Lanbide Heziketarako eta enpresetarako berrikuntza-eredu berri bat sortzea zen; gainera, proiektu horretan —Rainova zuen izena— Txinako eta Kanadako bi bazkidek parte hartu zuten. Bestalde, adierazi du Ikaslan Gipuzkoa 42 proiektutan parte hartzen ari dela. Haietako batzuei Hezkuntza Ministerioak diruz laguntzen die berrikuntza aplikatuaren eta ezagutzaren transferentziaren arloan. Une horretan, Ikaslanen proiektuetan bada beste puntu garrantzitsu bat: ikasle eta irakasleentzako nazioartekotzea, mugikortasunarekin, ikastetxe gehienek beste herrialde batzuetako enpresekin, unibertsitateekin edo zentro teknologikoekin lankidetzan aritzeko proiektuetan parte hartzea, eta Latinoamerikarekiko lankidetzan bereziki aritzea; zehazki, Txileko zenbait ikasle Ikaslanen ikastetxeetan graduondoko ikasketak egiten jardun dira.

Esan bezala, 1996an Ikaslan Araba sortu zen, eta, urtebete geroago, Ikaslan Bizkaia. Elkarte berekoak direnez, informazioa, jarduerak, albisteak eta zerbitzuak, baita elkarte hori osatzen duten ikastetxeetarako sarbidea ere, eskura dago haien webguneetan. Iosune Irazabal Ikaslan Gipuzkoako gaur egungo lehendakariak[32] dio une honetan ezaugarri desberdinak dituzten hiru Ikaslan egoteak arrazoi praktiko bat duela, lurralde historiko bakoitzean berezitasunak daudelako, batez ere ikastetxeetan. Hala ere, aipatzen du koordinazio-maila handia dagoela, bakoitzaren bereizgarriak errespetatuta, eta azpimarratzen du guztion helburua dela elkarrekin lan egitea eta elkar ezagutzea. Halaber, aitortzen du oso txalogarria dela foro askotako solaskidea izatea (Eusko Jaurlaritza, Confebask, etab.), eta gaur egun etengabeko prestakuntzari, nazioartekotzeari, mugikortasunari eta abarri buruz dituzten erronkak ere aipatzen ditu. Ikaslanen bilakaerari dagokionez, bi une nagusi adierazi ditu: elkartearen talde sustatzailea, sare publikoaren barnean elkarrekin lan egitea ekarri baitzuen, eta Lanbide Heziketa batxilergoa ematen zuten ikastetxeei irekitzea; hala, denak proiektu bateratu batean inplikatu dira: Ikaslan bakoitza, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, «bere nabigatzeko modua duen ontzi bat da, bere lurraldeari lotua, baina hirurek sare berarekin egiten dute arrantzan»[33]. Beraz, metafora horri jarraituz, hiru ontzi lirateke, bakoitza bere kolorearekin, baina sare bakar batekin batera aritzen dira arrantzan. Eta hori da Ikaslanen etorkizuna, hala ulertzen du gure elkarrizketatuak.

Bestalde, Ikaslanen sorreraren hamargarren urteurrena zela eta, Ikaslan aldizkaria argitaratzen hasi zen, 2004ko martxoaren 1ean. Lehen zenbakia, hain zuzen, hamargarren urteurren horri buruzkoa izan zen, eta Ikaslanen antolaketari buruzko alderdi batzuei buruzko lanak biltzen ditu.

---

[32] Iosune Irazabali egindako elkarrizketa, Bergara, 2019ko azaroaren 25a.

[33] Iosune Irazabali egindako elkarrizketa, Bergara, 2019ko azaroaren 25a.

Lehen zenbakia denez, une horretan interesgarriak ziren gaien errepaso orokorra egiten da, eta Lanbide Heziketaren arloko arduradunei egindako elkarrizketak argitaratu ziren. Aipatzekoak dira, halaber, 2003/2007 Lanbide Heziketako II. Planarekin egiten ari ziren proposamenak eta garai hartan gauzatzen ari ziren proiektuak, batez ere Tknika. Lehenbiziko zenbaki horretan, Jorge Arévalo, Iñaki Mujika, José Luis Fernández Maure eta Kike Intxaustik parte hartu zuten, besteak beste, beren eskumeneko gaiak jorratzen, edo elkarrizketatuak izan ziren.

Aldizkari horretan argitaratutakoaren jarraipena egitea modurik onena da, ezbairik gabe, Ikaslanen hamabost urtetik gorako ibilbidea ezagutzeko, baina baita aldi horretako Lanbide Heziketaren egoera ezagutzeko ere. Eremu horretako pertsona garrantzitsuei egindako elkarrizketak argitaratzea garrantzitsua da, ez bakarrik gobernuetan karguak dituzten profesionalena (foru-aldundietako ordezkariak, Hezkuntzako lurralde-ordezkariak, Tontxu Campos, Isabel Celaá, Gemma Zabaleta, Iñaki Mujika, etab.), baita Lanbide Heziketako beste aditu batzuena (Confebaskeko R. Knörr, sindikatuetako ordezkariak, Lanbideko Itziar Etxeberria) edo eremu berritzaileetakoena ere (Juan José Goñi, berrikuntzaren erronkari buruzkoa, adimen emozionala Bilbao Ibarrolarekin, etab.).

2004tik 2017ra bitartean landutako gai gutxi-asko monografikoak ikus ditzakegu. Gai horien izenburuak soilik ikustea aski da ohartzeko zer kezka eta eguneratze-maila diren Ikaslanen interesekoak, hasi adimen emozionaletik eta nazioartekotzeraino, laneko prestakuntzatik pasatuta: Ikaslan urtebetetzea (2004); Foru Aldundiak (2005); Adimen emozionala (2005); Lanbide Heziketa etorkizunari begira (2006); Berritzearen erronka (2006); Belaunaldi-aldaketa (2006); Mugarik gabeko Lanbide Heziketa (2008); Krisia, prestakuntzarako aukera (2009); Lanbide Heziketa: hazkunde ekonomikoaren eredu berri baterako giltzarria (2010); Enplegu-politika aktiboak (2011); Enplegurako prestakuntza (2012); Nazioartekotzea (2014); Metodologia berriak (2017). Bestalde, 2014az geroztik, Ikaslan Lanbide Heziketari buruzko biltzarrak antolatzen hasi zen, eta haien berri ematen da aldizkarian. Horretaz gainera, zenbait ikastetxetan egiten ari diren esperientzia berritzaileei buruzko informazioa ere ematen du.

Hala ere, berrikuntzari buruz ari garenez, berrikuntzari eskainitako zenbaki monografiko batean Juan José Goñiri egindako elkarrizketa (Ikaslan, 2006) nabarmendu nahi dugu; zenbaki horrek, gainera, zenbait esperientzia berritzaile jasotzen ditu. Ildo horretatik, kapitulu honen hasieran berrikuntzek etorkizunean izango duten garrantziari buruz edo jakintzarako planteatzen dituen arazoei buruz aztertu diren alderdi batzuk azpimarratzen ditu Goñik, eta gure inguruko berrikuntzan garrantzitsutzat

jotzen dituen lau alderdiak nabarmentzen ditu: merkatuarekiko lotura estua, barne-antolamendua, teknologia eta pertsonak.

Hiru lurraldeetan Ikaslan sarean sartuz joaten diren ikastetxeen datuak ematen ditu aldizkariak urteetan zehar. Hala ere, 2005etik 2017ra bitartean ia ikastetxe kopuru bera ageri da: Araban 12, Bizkaian 24 eta Gipuzkoan 25 (2017an), eta Erdi eta Goi Mailako bi zikloak eta Oinarrizko Prestakuntza eta Lanbide Arlo asko hartzen dituzte. Mapa honetan, Ikaslanen ikastetxeak Euskal Autonomia Erkidegoan nola dauden banatuta ikus dezakegu.

1. Mapa

Ikaslanen elkartutako ikastetxeak



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Ikaslan aldizkaria.

3.4.2. *HETEL (1993)*

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoek Ikaslan ikastetxe-zuzendarien elkarte gisa sortu zuten, baina lehenagotik, 1987tik, bazegoen irabazi-asmorik gabeko beste elkarte bat, sare itunduko Lanbide Heziketako

ikastetxe gehienak biltzen zituena. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko 26 ikastetxe daude elkarte horretan. Helburua gazteen enplegagarritasunari eta enpresen lehiakortasunari laguntzea da.

Lanbide Heziketako Sailburuordetza sortzea ekarri zuen erakunde-arkitekturari buruz hitz egitean esan dugun bezala, HETELen eginkizuna garrantzitsua izan zen une hartan; izan ere, Jorge Arévalorekin izandako harremanen bidez, beharrezkotzat jo zen elkarte horrek parte hartzea bai gobernu-arloekin, bai beste zentro mota batzuekin, estrategia partekatu baten garapenean. Horregatik, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ere parte hartzen du. HETELek bilakaera horretan izan duen zeregina aitortua izan da. Julen Elgeta[34] HETELeko zuzendaria da duela hamar urte baino gehiagotik, ibilbide luzea egin du Bizkaiko Lanbide Heziketaren arloan, eta Tknikan ere egona da. Aitortzen du gobernu batetik bestera aldeak izan direla sailburuordetzen artean, eta goretsi egiten du Jorge Arévalok sailburuordetzan egindako lana, bultzagiletzat jotzen baitu, nabarmenki konprometitua Lanbide Heziketa bultzatzen, batez ere Lanbide Heziketako Planen sorreran.

Ikastetxe itunduen elkarte baten ordezkari bada ere, aitortzen du harreman ona izan dela beti Ikaslanen eta HETELen artean, batez ere, ikastetxe-zuzendarien artean badituztelako zenbait kezka komun. Onartzen du ikastetxe mota bakoitzak bere arazo espezifikoak dituela, eta horren ondorioz portaera desberdinak direla baina horrek ez duela eragotzi haien arteko lankidetza. Zalantzarik gabe, baloratzen duen ezaugarrietako bat da ikastetxe itunduek sare publikoan baino askatasun handiagoz kontratatzeko modua dutela, eta horrek, bere ustez, aukera ematen duela irakasleak modu egokiagoan hautatzeko.

Badira bi gai interesgarri eta kezka-iturri direnak hala ikastetxe publikoetan nola itunpekoetan. Haietako bat Lanbide Heziketan neskak egotea da. Gaur egun, % 35 dira. Nahiz eta sentsibilizazio-kanpainak egin diren, industria-zikloetan emakumeen matrikula-proportzioak txikia izaten jarraitzen du; beraz, oraindik lan asko dago egiteko presentzia hori handitzeko. Beste hainbeste esan dezakegu euskarari dagokionez. Julen Elgetak ikusten du A eredua erabat nagusi dela oraindik ere eta bide luzea geratzen dela Lanbide Heziketan hizkuntza normalizatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren garapenari dagokionez, Julen Elgetak baieztatzen du hezkuntza-sistemaren etapa honek «azelerazioa» izan duela.

Elkartearen webguneak eta argitaratzen duen aldizkariak eskaintzen digun informaziotik abiatuta, elkarte horren dimentsioak ikus ditzakegu.

---

[34] Julen Elgetari egindako elkarrizketa, Durango, 2019ko ekainaren 12a.

HETELen xedea, ikuspegia eta balioak ikuspegi argi batek definitzen ditu: herrialdearen aurrerapen ekonomikoari laguntzea, Lanbide Heziketaren itsasargia izatea eta aldarrikatzen dituzten balioak sormena, ilusioa, konpromisoa eta lankidetza dira. HETELek, Ikaslanek bezala, Lanbide Heziketari buruzko aldizkari batzuk ditu, gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez argitaratzen direnak. Haien hasiera 2007an izan zen, *Lanbide* aldizkariarekin; 2015ean, *Hetelkaria* izena hartu zuen. 2012 eta 2016 bitartean, *Lanbide Heziketa Arnastuz* ere argitaratu zen. 2012. urtea berezia izan zen HETELentzat, 25 urte bete baitzituen, nahiz eta *Hetelkaria*n hau adierazi zuten: «urte korapilatsua eta ziurgabetasunez betea, ekonomiaren eta gizartearen krisialdi-urtea mundu globalizatuan, batere zerikusirik ez duena 1987 urrun harekin», elkartea sortu zen urteaz ari zela. Bi urte geroago, 2014ko aldizkariko editorialean, Julen Elgetak nabarmendu du «bultzagile izan behar duela elkarteak, eta gai izan behar duela gure Lanbide Heziketako ikastetxeek hobetzeko, aurrera egiteko eta, zergatik ez, erreferente izateko duten asmo zintzoa bultzatzeko». Testuinguru horretan, HETELek sormenari buruzko plan espezifiko bat jarri zuen martxan, 2011/2012 kudeaketa-planaren barruan. Gai hori oso kontuan hartzen dute HETELen; izan ere, aldizkariaren 2012ko zenbakiaren editorialean esaten dute elkarteko ikastetxeek hiru ezaugarri dituztela: sormena, ilusioa eta konpromisoa. Era berean, berrikuntza beste elementu bat da, funtsezkoa, lehiakortasunean aurrera egiteko; berrikuntzatzat hartzen dira aldaketaren zentzua gizarteratzea, aukera-faktorea eta aldaketek berekin dakarten zama emozionala. Alde horretatik, Lanbide Heziketako ikastetxeek kultura berritzaile bat sortu dute, non pertsonak errespetatzen baitira.

Gaur egun, haren ikastetxeak euskal geografian daude banatuta, mapan ikusten den bezala. Bizkaia da ikastetxe gehien dituen lurraldea; Arabak, berriz, bakarra du, Egibide.

Interes gehien piztu duen fokuetako bat nazioartekotzea izan da. Harremanak ditu munduko toki askotako ikastetxe eta erakundeekin, Erasmus bekak eskaintzen ditu eta unibertsitate eta enpresetan presentzia eskaintzen du, irakasleak eguneratzeko. Elgetak dioen bezala[35], badira zailtasunak prestakuntzaren esparru hori garatzeko, Europako herrialdeetan praktikak egiten dituzten ikasleen ehunekoak behera egin baitu. Hala ere, nazioartekotzearen esparruak ikasle atzerritarrak Euskadira iristea ere ekarri du, Euskadiko prestakuntzaren kalitatea dela eta. Elgetak onartzen du, halaber, ebaluazio-sistemak eta Lanbide Heziketako sistemak desberdinak direla herrialde bakoitzean, eta, beraz, zailtasunak daudela homologazio-prozesuetan, Europako Batzordearen lana gorabehera.

---

[35] Julen Elgetari egindako elkarrizketa, Durango, 2019ko ekainaren 12a.

2. Mapa

HETELen elkartutako ikastetxeak



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* HETEL.eus

Azkenik, HETEL/Abantean ikastetxean bereizten dituen balioetako bat nazioartekotzea da. Haren helburua da Europako enpresetan nazioarteko esperientzia eskaintzea ikasleei; halaber, nazioarteko esperientzia eskaintzea munduko edozein tokitako enpresetan Euskadiko eta goi-mailako lanbide-heziketako tituludunei eta unibertsitateko tituludunei, eta munduko edozein lekutako Lanbide Heziketako ikastetxeekin, unibertsitateekin eta enpresekin lan egitea, gure irakasleak eguneratzeko.

3.4.3. *AICE/IZEA (1984)*

Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeak biltzen dituen hirugarren elkartea Asociación Independiente de Centros Educativos (AICE) / Irakaskuntza Zentruen Elkarte Autonomoa (IZEA) da. Elkarte hori 47 ikastetxe elkartu pribatu nahiz itunduren erakunde profesionala da, eta ez dira nahitaez Lanbide Heziketakoak bakarrik, hau da, hezkuntza-sistemako beste maila batzuetakoak ere badira, hala nola

Haur Hezkuntzakoak edo ikastetxe integratuak; adibidez, Gaztelueta, Eskibel ikastetxea, Bilboko American School edo San Alberto Handia Deutsche Schule. Elkartearen ikastetxeak Gipuzkoan eta Bizkaian daude; Araban ez dago. Ikastetxe horietatik 31k Lanbide Heziketan eskaintzen dute hezkuntza, Bigarren Hezkuntzan. Ikastetxeren bat ere badago Enplegurako Prestakuntza eta Bizitza Osoko Ikaskuntza duena.

Elkartea 1984an sortu zen, Euskadiko Irakaskuntzako Patronaletako baten moduan, eta haren ezaugarri nagusia aniztasuna da, ikastetxe pribatuak zein itunduak ordezkatzen baititu. Elkarteak balio hauek aldezten ditu:

— Kalitateari, berdintasunari, berrikuntzari eta aniztasunari laguntzea, hezkuntzaren berezko balio gisa.
— AICE/IZEA osatzen duten ikastetxeen autonomia eta identitate pedagogikoa zaintzea.
— Ikastetxeak sortzeko eta zuzentzeko askatasuna defendatzea, bai eta gurasoek beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza eta beren sinesmenei erantzuten dien ikastetxea aukeratzeko duten eskubidea defendatzea ere.
— Autonomia-erkidegoetako, probintziako eta tokiko agintariekin lankidetzan aritzea gure Euskal Hezkuntza Sistemaren kudeaketan.
— Espiritu ekintzailea eta gazteriarekin zerikusia duen beste edozein esparru sustatzea.
— Gizarte-egoera ahuleko pertsonen erabateko gizarteratzea eta laneratzea sustatu, defendatu eta irakastea, prestakuntza —eta enplegu— politika aktiboen bidez, eta ingurumenaren erabilera arduratsua bultzatzea.

AICE/IZEAk, Lanbide Heziketako ikastetxeen elkarteen artean betetzen duen tokiari dagokionez, jarrera desberdina du; izan ere, beste bi elkarteek ildo argiagoa dute, ikastetxe publiko edo itunduak hartzen dituzten heinean, bakoitzak hezkuntza-eskubideari dagokionez duen jarrera politikoarekin. Elkarte hau, berriz, ikastetxeen titularrek hartzen dituzten jarreretan oinarritzen da, eta gehienak pribatuak dira. Beraz, nabaria da erabaki batzuen aurrean duten jarrera mesfidatia[36]. Ez da gauza bera ikastetxe publikoek, Administrazioaren esku egonik, erabakiak hartzea edo ikastetxe itunduek hartzea, gehienbat erlijiosoak izanik eta dagozkien erlijio-ordena eta erlijio-kongregazio esku egonik, edo pribatuek hartzea, beren jabeek kontrolatuta egonik. Beraz, premisa hori garrantzitsua da jarrerak ulertzeko. Gainera, ikastetxe bakoitzaren kudeaketa-moduak erabakitzen du bai jokabidea eta bai finantzaketa

[36] José Ignacio Hernándezi egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko otsailaren 11.

bilatzea. Alde horretatik, gure solaskideak —José Ignacio Hernández, elkarteko lehendakaria— uste du «irakaskuntza publikoak pribatuaren ispiluan begiratu behar du beti pixka bat baliabideak kudeatzeko orduan»[37].

Hala ere, denboraren joanarekin eta sortuz eta partekatuz joan diren harremanekin, aintzat hartzen du elkarte bakoitzak dituen mugak eta herrialdean duen ezarpena. AICE/IZEAn elkartutako ikastetxeen aniztasuna oso zabala da: hamabi ikastetxe integratu daude, eta haiek halako bi baino gehiago dira Lanbide Heziketako ikastetxeak. Alde horretatik, aukera-berdintasuna da elkarte honen jardueraren helburuetako bat. Erronka ikastetxe integratuetan dago, ikasleei, irakasleei eta enpresei ekartzen dizkien onurengatik, ikastetxe horiek

> zikloak dituztelako eta enplegurako prestakuntza dutelako, bai lanean ari diren langileentzat, bai langabezian daudenentzat. Ikastetxe bakoitzean ezagutza-fluxu bat sortzen da, eta hori ezinbestekoa da... hau da, ikasleek —lanean ari direnak izan zein langabezian daudenak izan— enpresetatik ekartzen dutenaren berri ez dute irakasleek, eta, horregatik, uste dugu zikloetako ikasleen irakaskuntza zaharkituta gelditzen dela». Halaber, gure elkarrizketatuaren iritziz, enpresekiko hurbiltasuna «ikaslea erabat garatzeko bidea da.

Lanbide Heziketan neskek duten presentziari dagokionez, gure elkarrizketatua bat dator HETELen ordezkariarekin:

> une honetan, goi-mailako 6 ziklo dira. Eta hortik, Marketineko arloetan generoak berdinduta daude, eta Administrazioan ere bai, nahiz eta emakumeen gehixeago diren, baina Informatikan, 10 ikasletik 9 mutilak dira, eta Ehungintzan, 10etik 9 emakumeak dira.

Euskararen egoera ere gainditu gabeko beste erronka bat da; Euskalherrirantz programan parte hartzen du, batez ere ikastetxe integratuetan, irakasleen prestakuntzan eleaniztasuna sustatuz. Era berean, elkarte horri lotutako ikastetxe batzuk berrikuntza-proiektuak garatzen ari dira ikastetxeetan: «El 8/M, según el Big Data» Arangoya ikastetxean; «Innovación y educación emocional» eta «Llevar las aulas a la empresa» San José de Calasanz ikastetxean, «Innova HL 2020. Thinking. Sharing. Growing», Hermanos Larrinaga ikastetxean. Beste hainbeste esan daiteke nazioartekotzeari buruz.

Hau da AICE/IZEAn elkartutako ikastetxe kopurua lurraldeka (Gipuzkoa eta Bizkaia; Araban ez dago elkartutako ikastetxerik):

---

[37] José Ignacio Hernándezi egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko otsailaren 11.

3. Mapa

AICE/IZEAn elkartutako ikastetxeak



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* AICE/IZEAren webgunea.

AICE/IZEAko ikastetxe kopuruari dagokionez, ikus daiteke 31 ikastetxeetatik 22 Bizkaian daudela eta 9 Gipuzkoan. Nabarmentzekoa da, halaber, ikastetxe gehienak hiriburuetan daudela. Honela dio AEGko José Ignacio Hernándezek, fenomeno horri buruz ari delarik: «oso hirikoak gara»[38]. Zortzi ikastetxe baino ez daude lurralde horietako beste herri batzuetan. Bizkaian, gehienak ezkerraldean daude, Bilbo Handian. Banaketa hori, ezbairik gabe, Lanbide Heziketaren eskaera handiagoaren ondorio da, hori gertatzen baita horrelako enpresa eta ikastetxeetan tradizio luzea duten herrietan.

Prestakuntza-eskaintzari dagokionez, taula honetan ikus daiteke banaketa:

[38] José Ignacio Hernándezi egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko otsailaren 11.

1. Laukia

AICE/IZEAko ikastetxeak, prestakuntza-eskaintzaren arabera

Oinarrizko Lanbide Heziketa (9)	Irakaskuntza espezializatuak (4)
Ortzadar (Donostia)	Argi Arte (Bilbao)
CDEA (Donostia)	Arizgoiti (Basauri)
Cebanc (Donostia)	Loroño Musikaltegia (Bilbao)
Martutene Lanbide Eskola (Donostia)	Bilboko Koral Elkartea (Bilbo)
Almi (Bilbao)	
Armengol (Bilbao)	
Fernando (Bilbao)	
San Luis (Bilbao)	
San José de Calasanz (Santurtzi)	

Iturria: https://www.aice-izea.com/quienes-somos/#nuestrosvalores

Hona hemen ikastetxeen zerrenda erdi —eta goi— mailako zikloen arabera:

2. Laukia

AICE/IZEAko ikastetxeen zerrenda, erdi —eta goi— mailako zikloen arabera

Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloak (18)	Lanbide Heziketako goi-mailako zikloak (20)
Ortzadar (Donostia)	A.E.G. (Donostia)
Beta (Donostia)	CDEA (Donostia)
CDEA (Donostia)	Cebanc (Donostia)
Cebanc (Donostia)	Ceinmark (Bilbo)
Ceinpro (Donostia)	Ceinpro (Donostia)
CESA (Urnieta)	Seim (Donostia)
Almi (Bilbao)	CESA (Urnieta)
Arce (Bilbao)	Grupo Albor-Cohs (Bilbo)
Armengol (Bilbao)	Almi (Bilbo)
Gurutze Gorria (Bilbao)	Arangoya (Bilbo)
Bilbao Ostalaritza Goi Eskola (Bilbo)	Arce (Bilbo)
Fernando (Bilbo)	Gurutze Gorria (Bilbo)
Hnos. Larrinaga (Bilbo)	Bilbao Ostalaritza Goi Eskola (Bilbo)
Mikeldi (Bilbo)	Juritecnia (Bilbao)
San Luis (Bilbo)	Mikeldi (Bilbo)
Beurko Check (Barakaldo)	San Luis (Bilbo)
Ibaiondo (Getxo)	Eide (Santurtzi)
Calasanz (Santurtzi)	Ibaiondo (Getxo)
	Ikasauto (Barakaldo)
	Calasanz (Santurtzi)

Iturria: https://www.aice-izea.com/quienes-somos/#nuestrosvalores

Irakaskuntza espezializatuak ematen dituzten ikastetxeetan izan ezik, gainerako ikastetxe gehienek beste modalitateen konbinazioren bat eskaintzen dute, bai bi zikloetan, bai Oinarrizko Lanbide Heziketarekin konbinatutako zikloren batean.

Elkarte honen ikuspegia osatzeko, Lanbide Heziketarekin zerikusia duten alderdi batzuk aipatuko ditugu, haren 2016ko Jardueren Memorian jasoak. Alderdi garrantzitsuenetako bat AICE/IZEAren Lanbide Heziketako ikastetxeen praktika onak zabaltzeko eta nazioartekotzeko sustatutako kudeaketa-gaiekin lotuta dago. Horretarako, kudeaketa-eredu sortzaile bat hedatzea sustatzen du, «hori baita modu bakarra AICE/IZEAren Lanbide Heziketako ikastetxeen jarduera-eremuko lanbidearloen sektorean lehiatzeko eta lankidetzan aritzeko».

Memorian adierazten den bezala, Irakaskuntza Zentruen Elkarte Autonomoak ematen dituen Lanbide Heziketako zikloetan bi jarduera-ildo zabalduz garatu zen proiektua: «barrurantz» lerroa, AICE/IZEAn elkartutako Lanbide Heziketako ikastetxe bakoitzaren barneko ekimen ekintzaileak detektatzeko eta laguntza indibiduala, ikastetxez ikastetxe, emateko, eta «kanporantz» lerroa, Euskal Autonomia Erkidegoko beste eragile sozial eta ekonomiko batzuekin, enpresa, instituzio, garapen-agentzia, merkataritza-ganbera eta enpresa-elkarte batzuekin, fokua Lanbide Heziketako ikasleetan jarria, proiektu gizartearentzako errentagarriak emango dituzten enpresa-sinergiak sortzeko. Proiektu horretan, Lanbide Heziketako 20 ikastetxek parte hartu zuten, eta dedikazio handia eskaini zioten ziklo horietako irakasle eta ikasleek. Berrikuntza-proiektuekin zerikusia duten alderdi batzuk ere jaso dira, batzuk jada aipatuak, bai eta prestakuntza-ikastaroak eta ikastetxe elkartuen nazioartekotzean parte hartzea ere.

Jarduera horiek lotura handiagoa dute elkartearen barne-helburuekin, baina aipatzen da Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren garapenean ere parte hartzen dutela, urte horretan ikastetxe pribatuek Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan zuten ordezkaritzaren bidez, José Ignacio Hernández presidentearen bidez. Jarduerak lege-garapeneko batzordeetan eta titulu eta ziurtagirietan zentratu ziren.

Memoria horretan jasotzen den beste kapitulu garrantzitsu bat elkarteak instituzioekin —Hezkuntza Saila, Lanbide, Enplegu Saila—, beste elkarteekin, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiekin edo alderdi politikoekin dituen harremanei buruzkoa da. Horri guztiari dagokionez, aipatzekoa da Juncker Plan osoa kudeatzeko elkarte berria (Lhberritzen) eratzeko hasiera. Haren bidez, Lanbide Heziketako hiru elkarteetako (Ikaslan, HETEL eta AICE/IZEA) Lanbide Heziketako ikastetxeak ekipamendu-inbertsioetarako baliabidez hornitu nahi dira, Tknika partaide dela.

3.5. **Ikastetxeetako praktiketatik lantokietako praktiketara**

Txandakako prestakuntza (ikas-ekinezko prestakuntza ere deitua) aurreko mendeko 80ko hamarkadan sortutako irakaskuntza-eredu bat izan zen. Ikasketak eta lana konbinatzeko gai izan zen, eta, beraz, martxan egon den urteetan ezaugarri bereziak izan ditu.

Garai hartan, 80ko hamarkadaren amaieran, enplegu-politikak, Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatearekin bat etorriko bazen, prestakuntza-planak ez ezik, Lanerako Prestakuntza etengabeko estrategia bat ere izan behar zuen kontuan. Testuinguru horretan, enpresak berregituratzeko eta industria birmoldatzeko planak ez ziren eraginkorrak izango birziklapena eta prestakuntza haien euskarrietako bat izan ez balira; horregatik, etengabeko prestakuntzako proiektu egoki eta eguneratuak diseinatu behar izan ziren.

Beharrezkoa zen biztanleria aktiboa edozertarako gaitzeko programak abiaraztea eta programa horiek bat etortzea aurrerapen teknologikoekin, gizartearen eskaerekin eta enpresak kudeaketa-teknika modernoetara egokitzearekin. Azken batean, helburua zen enplegurik gabeko langileei ezagutza osagarri jakin batzuk ematea haien enplegagarritasun-maila handitzearren, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan aplikatzen ziren aurrerapen teknologikoen premiekin bat zetozen kualifikazioak sustatzea, lan-mugikortasuna erraztea lan-merkatua malgutuz, lanbide eta/edo lanpostu jakin batzuen zaharkitzea geldiaraztea enplegu-tasen hobekuntzan eraginez, hezkuntza-sektorearen eta ekoizpen-sektorearen arteko harremanak areagotzea ikasketak amaitzen zituztenen enplegu-aukerak handitzearren, enpresetako zuzendaritzako pertsonei trebakuntza ematea eta motibatzea beren funtzioetarako gaitasuna eta enpresa-izaerako jarrera handitzearren, eta lehiakortasun-maila handiagoa eta hobea lortzea enpresaburuen aldetik.

Hala sortu zen txandakako prestakuntzaren ideia, eta, hura kudeatu eta tramitatzeko, Txandakako Praktiken Programa diseinatu zen. Programa hori, bestalde, hiru azpiprogramatan banatu zen:

— Lanbide Heziketako azpiprograma, ikasketa ofizial eta arautuen azken bi ikasturteetan matrikulatutako Lanbide Heziketa IIko eta Lanbide Moduluetako ikasleentzako praktika-proiektuak biltzen zituena.
— Unibertsitate-ikastetxeen azpiprograma, unibertsitate-ikastetxeek sustatu eta antolatutako praktika-proiektuak biltzen zituena unibertsitate-ikasketen ikasketa ofizial eta arautuen azken bi ikasturteetan matrikulatutako ikasleentzat.
— Lanerako Prestakuntzako azpiprograma, Lanerako Prestakuntzako Ikastaroetako ikasleentzako praktika-proiektuak biltzen zituena,

> Lan eta Gizarte Segurantza Sailarekin edo Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailarekin egindako hitzarmenen bidez diruz lagunduak.

Programa horiekin zenbait urte eman ondoren, 2000ko abenduan 304/2000 Dekretua sartu zen indarrean. Dekretu horrek Txandakako Prestakuntza Praktiken Programa arautzen zuen, eta Arautu gabeko Prestakuntzaren arloko lantokietako prestakuntza osagarriaren arau-esparrua osatzea izan zuen helburu. Beste prestakuntza-prozesu batzuetan bezala, diruz lagundutako prestakuntza-ekintzen jarraipen —eta ebaluazio— ekintzak EGAILAN, S.A. Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Sozietate Publikoaren esku gelditu ziren.

3.5.1. *Txandakako Sistema Duala*

Azken urteotan, komunikabideetan jaso daitekeen informazioaren arabera, badirudi Txandakako Prestakuntza Duala izeneko hezkuntza-eredua «aurkikuntza» bat dela eta arrakasta ekarri duela euskal Lanbide Heziketara:

> Gaur egungo Lanbide Heziketa Dualeko sistema 2011. urtean abiatu zen, Confebasken eta Isabel Celaá Hezkuntza eta Lanbide Heziketako sailburuaren —eta gaur egun Hezkuntzako ministroaren— arteko bilera batean. Ez zitzaien hainbeste axola kopurua, kalitatea baizik. Oinarri sendo batzuk jarri nahi genituen…[39].

Baina, Euskadin lehenago, 80ko hamarkadan, eginak ziren lehen saioak. Hasieran, zailtasunak izan ziren:

> Confebasken nengoela, Lanbide Heziketa Partekatua jarri nuen martxan, eta hori Alemaniako Prestakuntza Dualaren kopia bat zen, baina Prestakuntza Duala berriro ezartzea, aprendizen soldatekin, oso zeregin zaila zen[40].

Hala ere, zailtasun horiek gorabehera, Txandakako Prestakuntzako programa batzuk diseinatu ziren, helburu honekin: Hasierako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko gaitasun profesional, pertsonal eta sozialak hobetzea. Lehen zailtasun horien ondoren, oparoaldi bat iritsi zen, baina, berriro ere, Txandakako Prestakuntzak beheraldi bat izan zuen. Azkenik, XXI. mendeko bigarren hamarkadan, 2008. eta 2011. urteen artean

---

[39] Asier Aloriari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 1a.

[40] José Luis García Bengoari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 1a.

zehazki, egungo arrakastaren aldia hasi zen. Testuinguru horretan, Ikasi eta Lan programa eta, 2012tik aurrera, HEZIBI programa garatu ziren.

3.6. **Lanbide Heziketako irakasleen etengabeko prestakuntza**

Irakasleen Etengabeko Prestakuntza euskal hezkuntza-sistemaren kalitatearen adierazleetako bat izan da, eta, ondorioz, eragin nabarmena izan du ikastetxeen garapenean ez ezik, irakasleen garapen profesionalean ere: «Administrazioak Garaturen ikastaroak jarri ditu, nahi izan dituzun guztiak izan dira, onartu egin behar da. Prestakuntza handia izan zen, haien alde …»[41]; hala ere, «hasieran ez zegoen Etengabeko Prestakuntzako ezer, Administrazioak ez zuen ezer eskaintzen. Gero ikastaro teknikoak hasi ziren, batez ere informatikarekin hasi zen: Word klasikoa, gero zenbakizko kontrola…»[42]. Testuinguru horretan, hiru elementu elkartu ziren Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Plana abian jartzea behar zutenak, hau da, batetik, hezkuntza-erreforma ezartzea, eta, bestetik, ikastetxeen eta irakasleen eskaerak.

Prestakuntza-eredu horri buruz hitz egitean, erraza da Garatu Plana gogoratzea. Plan hori 1996koa da, baina, lehenago, Irakasleen Etengabeko Prestakuntza 1989an jarri zen abian, urte hartako ekainaren 13ko Aginduak erakunde publiko eta pribatuei dei egin zienean lankidetzan jardun zezaten Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Plan baterako proiektuak aurkezteko. Oso asmo handiko plana izan zen, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle guztiei zuzendua baitzegoen, eta, horregatik, esparru horretan jardun zezaketen erakunde ospetsu eta esperientziadun guztien inplikazioa eskatu zuen.

Irakasleen Etengabeko Prestakuntzaren eredu horrek 2002. urtera arte iraun zuen; urte horretan amaitu zen, urriaren 16ko 222/2001 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz. Dekretu horren 18. artikuluak zioenez, Hezkuntza Sailaren egitura organikoaren barneko Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzari zegokion Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntzako Plana diseinatu, aplikatu eta jarraipena egitea, eta plan hori irakasleen eguneratze eta espezializaziora zabaltzea. Horrek ondorioz, ordutik aurrera, Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko berezko plan bat egin behar izan zen, unibertsitatez kanpoko gainerako irakaskuntzetako Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Planetik bereizia, eta plan horrek bermatu behar zuen prestakuntza-proposamenak bat etortzea irakasleek berek egindako eskaerekin.

---

[41] Patri Zubizarretari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko otsailaren 4a.

[42] José Ignacio Berrondori egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko maiatzaren 20a.

Aldaketa hori erabatekoa izan zen: 80ko hamarkadaren amaieran Lanbide Heziketako irakasleentzat emandako Enpresa Kudeaketari buruzko lehen ikastaro pare batetik askoz ere prestakuntza espezifikoagora pasatu zen, gaitasun berriak eskuratzera bideratuago, gaitasun horiek eguneratzeko edo haietan sakontzeko, taula honetan ikus daitekeenez:

3. Laukia

Lanbide Heziketako irakasleen etengabeko prestakuntzarako trebatze-ekintzak

ADMINISTRAZIOA — Ikuskaritza — Hornidura-kudeaketa — Kontabilitatea / Fiskalitatea	MERKATARITZA ETA MARKETINA — Nazioarteko merkataritza — Merkataritza elektronikoa	ERAIKINGINTZA ETA OBRA ZIBILA — Topografia — Fatxada arin eta aireztatuak: tipologia eta egikaritzea — Errepideak eta burdinbideak — Urbanizazio-obrak egikaritzea
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA — Siemens S7 automaten programazioa — Antenen instalazioa — Energia berriztagarriak — Domotika EIB busa	FABRIKAZIO MEKANIKOA — Metrologia eta kalibrazioa — Deformazio eta ebaketa bidezko fabrikazioa Matrizegintzan erabilitako makinak eta tresnak — Pogramazioa CNC tornuan — FANUC — HEIDENHAIN — FAGOR 8055 — Programazioa CNC fresatzeko makinan — FANUC — HEIDENHAIN — FAGOR 8055 — Pneumatika eta elektropneumatika — Hidraulika, elektrohidraulika eta hidraulika proportzionala	OSTALARITZA ETA TURISMOA — Ostalaritza: • Turroiak, mazapanak eta eratorriak Hutseko sukaldaritza — Turismoa: • Bidaia-agentzia bateko kudeaketa informatizatua • Turismo-merkatuen ikerketa eta handizkako saltzaileentzako produktu berriak sortzea
INFORMATIKA — Linux aurreratua — Windows 2000 Server — Oracle datu-basea — Hedadura zabaleko sareak — Funtzioen azterketa eta garapena sistema informatikoan — Visual Basic-eko programazioa — Visual C++-eko programazioa	IBILGAILU AUTOPROPULTSATUEN MANTENTZE-LANAK — Kolorimetria — Pintatzeko ekipamenduak eta metodoak — Bankadak, neurgailuak, geometria espaziala — Automobilari aplikatutako hidraulika eta pneumatika — Automobilari aplikatutako elektrizitatea eta elektronika Eskemen interpretazioa eta multiplexazioa — Segurtasun —eta konfort— sistemak	EKOIZPENAREN MANTENTZE-LANAK ETA ZERBITZUAK — Maneiagailuak eta robotak
OSASUNA — Erizaintzako oinarrizko teknikak — Zainketak geriatrian	**KIMIKA/OSASUNA** — Uren analisiak — Estatistikak eta laborategietako aplikazio informatikoak — Airearen analisia	**KIMIKA** — Metalografia

ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA
— Lan-osasuna eta Laneko segurtasuna eta higienea
— Ingurumena eta enpresa
— Lan Arloko eta Gizarte Segurantzaren arloko legeria
— Enpresa edo lanbide-jarduera baten hasiera eta kudeaketa
— Lanbide-orientazioa eta lan-munduan txertatzea
— Giza baliabideen, kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren kudeaketari aplikatutako prozedura eta dinamikak

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EHAA.

Lanbide Heziketako irakasleek horrelako jardueretan parte hartzeko interes handia agertu zuten, eta, horregatik, ahalegin handia egin behar izan zuten agintari akademikoek jarduera horiek arautu ahal izateko; besteak beste, erabaki zen haietan parte har zezaketela jardunean zeuden eta Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak ematen zituzten irakasle guztiek, eta jarduera horietan, partez edo osorik, irakastorduen barnean parte hartu ahal izango zutela. Baina, gainera, prestakuntza-jarduera horietan parte hartzeak zenbait laguntza ekonomiko izateko aukera eman zien irakasle horiei, prestakuntza-jarduera horiek gaindituz gero.

Eusko Jaurlaritzak entitate publiko eta pribatuei prestakuntza jarduera horiek egiteagatik egindako ekarpen ekonomikoen ikuspegitik, diru kopuru hauek banatu ziren, eurotan:

2. Grafikoa

Eusko Jaurlaritzak 2002/2012 Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Planerako egindako ekarpenak



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EHAA.

Baina banakako laguntza ekonomiko batzuk ere izan ziren prestakuntza-ekintza horietan parte hartu zutenentzat, eta haietan modu egokian parte hartu zutenen artean banatu ziren, bai eta jarduera horietan parte hartzeko joan-etorriak egin behar izan zituztenentzat ere. Kasu horretan, hauek izan ziren laguntzak:

3. Grafikoa

2002/2012 Etengabeko Prestakuntza Planeko prestakuntza-ekintzetan parte hartu zuten Lanbide Heziketako irakasleen artean banatu ziren banakako dirulaguntzak, eurotan



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EHAA.

Bederatzi urte horietan, guztira 582 prestakuntza-ekintza egin ziren, eta hiru irakaskuntza-modalitate izan ziren: eskola presentzialak izan ziren gehien-gehienak, baina 38 online ikastaro izan ziren (% 6,5) eta prestakuntza erdipresentziala ere bai; azken hori, dena dela, zerbait puntuala izan zen. Aipatu behar da, halaber, ekintzak hiru euskal lurraldeetan egin zirela, baina batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan; Araban, 19 ikastaro baino ez ziren izan, ikastaro guztien % 3,2 baino gehixeago. Bizkaian izan ziren gehienak, 277 (% 47,6) eta Gipuzkoan 248 (% 42,6).

Eta beste bi aztergai: euskarari eta lanbide-arloei dagokiena. Lehenengo kasuan, euskarari dagokionez, 582 ekintzetatik 123 bakarrik egin ziren euskaraz, % 21,1, baina aldea are handiagoa da kontuan hartuz gero 123 horietatik 108 Gipuzkoan izan zirela; 15 bakarrik izan ziren Bizkaian, 0 Araban eta 0 online ikastaroetan. Eta lanbide-arloei erreparatzen badiegu, 26etatik 10etan eman ziren ikastaroak: Administrazioa, Merkataritza eta Marketina (2006/07 ikasturtetik aurrera batera joan ziren), Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio Mekanikoa, Informatika, Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentze-lanak (geroago, Automozioa izan zen), Ekoizpenaren Mantentze-lanak eta Zerbitzuak, Eraikingintza eta Obra Zibila, Kimika, Zeharkako Prestakuntza eta Osasuna.

2013. urtean, 1996. urteaz geroztik ezartzen ari zen Garatu Plana amaitu zen, eta Prest_Gara plan berriak ordeztu zuen. Hala ere, Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako momenturik onena iristeko zegoen, eta izen bereziarekin: Ethazi.

Ethazi 2013/14 ikasturtean hasi zen esperientzia pilotu gisa; hartan, Lanbide Heziketako bost ikastetxek, bost Heziketa Ziklok, 25 irakaslek eta 100 ikaslek hartu zuten parte. Ikaskuntza-eredu berri bat da, non azken hartzailea ikaslea den, baina eredu berri hori hartzaileengana iritsi ahal izateko, irakasleek aldez aurretik prestakuntza-aldi batetik igaro behar dute. Eredu horrek aldeko eta kontrako sutsuak ditu:

> Ethazi ospetsua, nire ustez... lotsa ematen dit, nik askotan esan dut. Hori X-ren estilo pertsonala da (Ethazi abian jartzearen ardura duen pertsonetako bat), hau da, izen arranditsu bat jartzen dut, eta hortik aurrera hura muntatzen hasiko gara, … gainera, borondatezkoa da, nik inoiz ez dut hori ulertu, hau da, borondatezko ikastetxea, makiavelikoa da…[43].

Eta, izen arranditsuaren kontu horretan bat dator Mujika, baina bera ereduaren defendatzaile tinkoa da:

> Hemen Ethazin gaude, baina izenak jartzen ere zera gara... Ideia da goi-errendimendukoa den guztia kirolarien munduarekin parekatzea: haiek, Olinpiadetarako, goi-errendimenduko zentro batean daude. Ethazik gaitasun teknikoak eta beste gaitasunak, zeharkako izendatu ditugun horiek, entrenatzen ditu[44].

Esan bezala, ikaskuntza-eredu berri hori erronketan, egoera konplexuetan, oinarrituta dago, eta ikasleak aldez aurretik ezagututa ebatzi behar dira egoera horiek; hau da, eraikiz joatea planteatutako problema/erronkari irtenbiderik onena emateko. Banakako lana, talde-lana, emaitza onenetara bideratzea, ikasgelen banaketa —espazio ireki bihurtuta—, era guztietako baliabide materialak erabiltzea... horiek dira Ethazik berekin dakartzan berrikuntzetako batzuk, eta horretarako, jakina, beharrezkoa da irakasleak birmoldatzea:

> Gure ikastetxean, aurreko urtean inbertsio izugarria egin zen,… dagoeneko ez dago ikasgelak bereizten dituen hormarik, eta orain dena beirateak dira, eta horretan ari gara, Ethaziren goi-errendimenduko proiektuetan... jada ez dugu bakarrik eta modu independentean lan egingo, eta horrek aldaketa dakar irakasleen lan egiteko moduan; esan nahi dut lan gehiago egitea taldean, bilera gehiago egitea, ikastetxean sartzen zarenean duzun hezkuntza-planteamendua aldatzea, eta ikastetxeen beren sistema aldatzea[45].

---

[43] Patri Zubizarretari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko otsailaren 4a.

[44] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

[45] Arantza Niño, Joseba Muñoz eta Juan Carlos Diegori egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 20a.

Tknika da EAEko Lanbide Heziketaren munduko esperientzia berri horren bandera-ontzia. Zentro horri buruz hitz egin dugu lehenago, eta badu halako prestigioa Lanbide Heziketaren barruan.

3.7. **Lanbide Heziketako ikastetxeen kudeaketa-sistema: Erabateko Kalitatearen aldeko apustua**

90eko hamarkadan «Kalitatea» Euskal Herrira iritsi zenean, gutxi ziren haren alde egiten zuten pertsonak. Lanbide Heziketako «abenturazale» batzuk bide horretan abiatu ziren, Eugenio Ibarzabalek eta Ricardo Etxeparek gidatuta, eta, Robert Winter-en laguntzarekin, kokatu ezineko helmuga zuen bide bati ekin zioten.

> 1995ean, kalitatezko eredu bat jarri zen abian Lanbide Heziketan. Lau ikastetxe hasi ziren kalitate-eredua garatzen, eta, hasi ginenean, ez genekien nora gindoazen, ez eta zer bilakatuko zen ere, baina segurtasun handiagoa eman digun eredu bat izatera iritsi da, eta gure euskarri nagusia izan da Lanbide Heziketako eredu aurreratu bat garatzeko[46].

Eta hala izan da, zeren eta azken urteotan Euskadiko Lanbide Heziketak izan duen berrikuntza nagusietako bat erabateko kalitatea bere lanestiloan txertatzea izan baita. Lanbide Heziketako ikastetxeetan sartu zenetik, erabateko kalitateak kezka handiak piztu zizkien aldaketa horren alde zeudenei, zeren eta Lanbide Heziketa kudeatzeko moduaz zuten filosofia berrian ulertzen baitzuten ez zutela ikastetxeek bakarrik aldatu behar jokamoldea, baizik eta, batez ere, pertsonek,

> Lanbide Heziketaren filosofia zen edozein mugimenduri heltzen ziola. Jendea denetarako konbentzitu behar zen. Zenbait ikastetxetan akats asko izan ziren, inposizioak, eta horrek izugarrizko gaitzespena eragin zuen, baina nik uste dut kalitatea ona dela, lanak sistematizatu behar direla, funtsean arrazoibide logikoagoak besterik ez baitira[47].

Lanbide Heziketan kalitatea sartzea egokia den edo ez kontuari dagokionez, Aloriak eta Arévalok ere alde positiboa ikusten dute:

> Eraikitakoaren gainean eraikiz joan gara, eta hiru ardatz nagusi izan dira: ekintzailetza, berrikuntza aplikatua eta nazioartekotzea. Baina bada beste gako bat jada Lanbide Heziketako I. Euskal Planetik zetorrena: ka-

---

[46] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[47] José Ignacio Berrondori egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko maiatzaren 20a.

> litatea. Kalitatearen aldeko apustua argia izan zen, ezarri egin zen, eta hobekuntzak izan ziren berarekin[48].
>
> Lanbide Heziketarako eredu egoki bat prestatu zen, eta, hortik, kalitate-eredu bat sortu genuen, ikastetxeak egituratu ahal izateko eta beste era batera lanean hasi ahal izateko euskarria eman ziguna[49].

Premisa horietan oinarrituta, *«SAREka, kalitatea LH Publikoan»* izeneko proiektua diseinatu zuten, eta, horretarako, hiru ardatz edo etapatan oinarritu ziren: kalitatearen kontrola, kalitatearen bermea eta erabateko kalitatearen ikuspegia. Hiru kasuetan, «bezeroa» presente egongo zen. Hau da, kalitatea kontrolatzeko, produktu akastuna bezeroari ez iristeko ahalegina egin behar zen; kalitatea ziurtatzeko, produktu akastunak baztertu ez ezik, bezeroaren premiak ere kontuan hartu behar ziren; eta, kalitatearen ikuspegiari dagokionez, arreta berezia jarri behar zen ikastetxeko prozesu eta jarduera guztiak etengabe hobetzeko, hori, jakina, bezeroaren onerako izango zelako. Ikuspegi horretatik, ikastetxeen etengabeko hobekuntza bilatu zen, eta aurkitu ere bai, baina, elkarrizketatutako pertsona batzuen iritziz, garrantzitsuena pertsonen etengabeko hobekuntza izan zen. Pertsona horiei konfiantza osoa eman zitzaien, eta haien lana gero eta hobea izan zedin beharrezko kalitate-tresnak eman zitzaizkien; lan hori, harrezkero, talde-lana izango zen, eta ez bakarkakoa, historikoki izan zen moduan.

Lehen urrats horien ondoren —hasieran, nahiko zalantzazkoak izan ziren—, Erabateko Kalitatearen Kudeaketaren aldeko apustua Lanbide Heziketako I. Euskal Planarekin hasi zen. Planaren helburua —helburuetako bat, asko baitzituen— Lanbide Heziketako ikastetxeak eta lan-mundua hurbiltzea zen. Horretarako, ikastetxe guztiek autoebaluazio bat egin behar izan zuten, sistema kalitatearen arabera ebaluatu ahal izateko:

> Usurbilen, Martutenen, Tolosan eta Bergaran izena eman genuen. Prestakuntzako «gauzatxo» batzuk egin genituen, eta kalitate pertsonaletik ekin genion kalitate instituzionalari. EFQM eredura hurbildu ginen, ikastetxeen autoebaluazioa egin genuen[50].

Ebaluazio horrek, era berean, Lanbide Heziketaren Kalitatean parte hartzen zuten zenbait elementu aztertu beharra ekarri zuen, hala nola prestakuntza-programak doitzea, irakasleen kualifikazioa, irakaskuntza-ikaskuntza metodoen kalitatea, materialak eta baliabide didaktikoak, eta Lantokiko Prestakuntzako modulua behar bezala gauzatzea. Ondorioz,

---

[48] Asier Aloriari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 1a.

[49] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[50] Kike Intxaustiri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko maiatzaren 6a.

sistemaren ebaluazioa bi mailatan egin zen. Ikastetxean, aipatutako autoebaluazioekin; haietan, besteak beste, alderdi hauek landu ziren: prestakuntza-prozesuaren kalitatea ikastetxean bertan, prestakuntza-prozesuaren kalitatea lantokietan eta kualifikazioen eta titulazioen zaharkitze-egoera, besteak beste. Ikastetxeetako autoebaluazioak egin ondoren, sistemaren ebaluazio orokorra egiten zen, kudeaketaren kalitate-maila eta helburuen betetze-maila aztertuz.

Kalitatearen ebaluazio hori egiteko, baina, oinarrizko beste bi elementu behar izan ziren, hau da, ikastetxeek autoebaluaziorako beharrezko prozedurak eta tresnak izatea (barne-ebaluazioa) eta Lanbide Heziketa, ikuspegi integratutik, kanpoko eragileek ebaluatzea (kanpo-ebaluazioa). Bi kasuetan, EFQM (European Foundation for Quality Mangement) erakundeak egindako eredua erabili zen. Eredu hori beste autoebaluazio-prozesu baten bidez garatu zen, eta, horri esker, ikastetxeen jardueren eta emaitzen azterketa orokorra, sistematikoa eta erregularra egin ahal izan zuen. Horrek, bestalde, aukera eman zuen beste ikastetxe batzuekin alderatzeko; gainera, ikastetxeek argi eta garbi bereizi ahal izan zituzten beren indarguneak eta ahulguneak, eta horrek aukera eman zien beren jarduerak hobetzeko. Azken batean, EFQM ereduak ikastetxeei kudeaketa hobetzeko ikuspegi zehatza ematen zien, gertaeretan —eta ez iritzietan— oinarritutako ebaluazio erreal bat, diagnostiko-tresna ahaltsuak, denborarekin batera egindako aurrerapenak neurtzeko metodoa... eta hori guztia Lanbide Heziketaren Kalitaterako eta Ebaluaziorako Euskal Agentziak kudeatu zuen.

Lanbide Heziketako II. Euskal Plana indarrean sartu ondoren, ebaluaziorako eragileak hiru izan ziren. Batetik, *zentroak berak*: beren kudeaketaren kalitateari buruzko barne-ebaluazioak egin zituzten. Bestetik, *Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia*: hiru ebaluazio-mailetarako —prestakuntza, ikastetxeen kudeaketa eta Lanbide Heziketako sistemaren ebaluazioa— eredu objektiboak eta ebaluazio-irizpideak ezarri zituen; eta hirugarrenik, *sistemaz kanpoko entitateak, Aenor eta Euskalit*: haiek arduratu ziren ikastetxeen kudeaketa ebaluatzeaz.

Lanbide Heziketaren Sistemaren Kalitatea aztertzeko, Lanbide Kualifikazioen Sistema hartu zen kontuan. Lanbide Heziketako azpisistemak (Hasierako Prestakuntza, Lanerako Prestakuntza eta Etengabeko Prestakuntza) sistema bakar batean integratzea zen sistema horren helburua; hala, lanbide-gaitasuna era berean egiaztatu ahal izango zen haietako edozeinetatik, baita bide ez-formalen bidez ere, hala nola norberaren esperientziaz, baina sistema, hasieran, ez zen erabat finkatu. Horren ondorioz, ebaluazioa egiteko, emaitzen adierazleen panela izateaz gainera, beharrezkoa izan zen aldizkako ebaluazio kualitatiboa egitea. Hau

da, Lanbide Heziketako Sistemari kudeaketarako kalitate-eredu bat eman zitzaion: bere prozesuak kudeatzeko sistema estandarizatu bat aplikatzea, ISO 9001:2000 araua, eta, sistema kudeatzeko, EFQM bikaintasun-eredua. EFQM eredu hori erabili zen Euskalit-ek egiten zuen kanpo-ebaluaziorako. Euskalit ebaluazio-agentzia Urrezko Q-a (> 500 EFQM puntu), Kudeaketaren Kalitatearen Euskal Saria eta Zilarrezko Q-a (> 400 EFQM puntu) emateaz arduratzen zen.

Ikastetxeen ISO 9000 arauen araberako ziurtagiria tresna erabilgarri eta egokia izan zen prozesu giltzarriak identifikatzeko eta prozesuen kudeaketan sistema estandarizatuak aplikatzeko (batez ere, Prestakuntza Arautuan). ISO 9000 araua berrikusteak eta, ondorioz, ISO 9001:2000 arauaren estandar zorrotzenak gainditzeak egokitzeko ahalegin berriak egin beharra ekarri zien aurreko arauarekin ziurtatutako ikastetxeei. Bitartean, EFQMren bikaintasun-ereduak aukera ematen zien ikastetxeei etengabe hobetzeko estrategia bat hartzeko.

XXI. mendearen lehen urteetan egin zen lan horren guztiaren ondorioz, hau zen, 2004an, Euskal Lanbide Heziketaren kalitatearen kudeaketaren egoera:

5. Taula

Kalitatearen kudeaketaren egoera Euskal Lanbide Heziketan (2004)

AITORTZA	ERAKUNDEAK
ISO 9001:2000	Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza
Gold Q (EFQM >500 puntu)	2 ikastetxe
Silver Q (EFQM >400 puntu)	19 ikastetxe
ISO 9000	38 ikastetxe
EFQM 300 puntu	14 ikastetxe
ISO 14000	1 ikastetxe

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EHAA.

Panorama erakargarria zen, baina Euskal Lanbide Heziketa ezin zen «arrakastaz hil», eta ekimen berriei ekin behar izan zitzaien eta jada abian jarritako batzuei eutsi. Testuinguru horretan, zenbait proposamen egin ziren, hala nola Lanbide Heziketaren azken emaitzak mantentzea eta hobetzea, zerbitzuen kalitatea hobetzea, Lanbide Heziketako Euskal Siste-

maren emaitzak ebaluatzea, hobetzeko arloei zuzendutako programak eta jarduerak bultzatzea, pertsonen kualifikazioan inbertitzea, Zentro Integralen Sarean kalitateko lidergo-posizioari eustea, eta abar, baina, batez ere, egiten ari zena jasota uztea, hau da, txosten batzuk egitea jasotzeko zer egiten ari zen ikastetxeen kudeaketan EFQM ereduaren arabera eta zer egiten ari zen haien sistemak ISO 9000:2001 arauak eskatzen duenera egokitzeko.

Ezin da esan Lanbide Heziketako III. Euskal Plana oztopo izan zenik aurreko planean abian jarritako neurri guztiak garatzeko, baina esan dezakegu III. Plan hori aztertu ditugun lau planetako «ahulena» izan zela kalitatearen kudeaketari dagokionez. Gobernu sozialistak Alderdi Popularraren laguntza izan zuen Lehendakaritzan sartzeko (Eusko Jaurlaritzaren lehendakaritza), ezker abertzalea legez kanpo utzi zuen Alderdien Legeaz baliaturik, baina ez zuen kudeaketaren kalitatearen aldeko apustua egin, eta ziurgabetasun-urteak izan ziren urte askoan arlo horretan lanean ari zirenentzat. Hala ere, EAJ Ajuria Enera itzultzeak eta haren «koadroetako» asko Hezkuntza Sailburuordetzan kokatzea behin betiko bultzada izan zen Lanbide Heziketako ikastetxeetan Kalitatearen Kudeaketa ezartzeko eta Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana ezartzeko.

Lanbide Heziketaren kalitatearen kudeaketaren jatorrira itzultze horrek berriro ekin zion zortzi urte lehenago hasitako bideari, eta erronka berri bati egin zion aurre: sozialistak eta popularrak boterera iritsi aurretik Lanbide Heziketa zegoen lekura itzultzea. Horren ondorioz, gaur egun esan dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako Euskal Sistema bat dagoela, sistema integratu bat dela eta helburu nagusi bat duela: Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonen kualifikazio-premiak asetzea hasierako prestakuntzaren, etengabeko prestakuntzaren eta lanerako prestakuntzaren bidez. Lanbide Heziketako Euskal Sistema horrek, Estatuko beste erkidego batzuetakoak ez bezala, aukera ematen die irakasleei eta Lanbide Heziketako ikastetxeei eguneratuta eta enpresetatik hurbil egoteko. Malgua da, berehala egokitzen da ikasleen eta enpresaren premietara, baina bada, halaber, teknikoki espezializatuta dagoen sistema bat, batez ere industriari zuzendua, nahiz eta egia den ezen, gizartea aldatzen ari denez, gero eta gehiago jotzen ari dela zerbitzuetarantz. Sistema berritzailea da, ikaskuntza-sistema berrien abangoardia, irakasleen etengabeko lanaz eta prestakuntzaz kezkatua, enpresa-munduan presentzia nabarmena duena, Prestakuntza Dualaren alde argi eta garbi dagoena, eta erabateko konpromisoa du kalitatearekin eta bikaintasunarekin, taula honetan ikus dezakegunez:

6. Taula

Kalitatearen kudeaketan parte hartzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeak (2012)

AITORTZA	ERAKUNDEAK
Investors in People	13 ikastetxe
EFQM > 500 puntu	9 ikastetxe
EFQM > 400 puntu	51 ikastetxe
ISO 9000	55 ikastetxe
ISO 14000	21 ikastetxe
ISO 18000	6 ikastetxe

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EHAA.

3.8. **Sormenaren balioa euskal Lanbide Heziketan**

Berrikuntzaren elikagai bakarra sormena da, bai Lanbide Heziketaren inguruan agertzen eta aurreikusten diren erronkei erantzuna emateko behar den arkitektura zehatza diseinatzeko, bai irakasleen errealitatea eraldatzeko ikuspegitik —ikuspegi ausartetik, nahi bada— irakaskuntza berritu eta hobetzeko, bai eta kalitatera bideratutako Lanbide Heziketako ikastetxeetan beretan antolaketa —eta kudeaketa— formulak bilatzeko ere, edo ekintzailetzaren bideari ekiteko. Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak baditu zenbait ezaugarri: dinamismoa, aztertu dugun aldian erakutsi duen moduan; eraldatzeko gaitasuna; sendotasuna, egoera oso konplexuei —kasu askotan, kritikoei— aurre egiteko; asmamena, tradizioaren sendotasunetik zerbait berria asmatzeko erronkari aurre egiteko; ausardiaren balioa —Arévaloren adierazpen batzuk gogora ekarriz (Fp Euskadi News, 2016)— aukeren mundu zabal bati atea zabaltzen dion giltza gisa, benetan egin daitekeenaren ideia ere eraldatuz aurkitu gabeko lurraldeetan barneratzeko. Ezaugarri horiek guztien atzean, nabarmena da imajinatzeko eta sortzeko ahalmen bat dagoela, ukatu gabe, baina, huts egin daitekeela eta akatsak egin daitezkeela, asmatzeak errorea baitu nahitaez zeharkatu beharreko lurra, eta hala aitortzen dute, era batera edo bestera, euskal Lanbide Heziketaren historia «idatzi» duten arduradun eta eragileek. Sormena, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren zirkulazio-sisteman barrena ibili den odola da, eta, ziurgabetasunez betetako ibilbide batean bizi-konstanteei eusteaz gainera, osasun —eta sendotasun— egoera ezin hobea erakutsi du, hainbat tokitan aitortu den eta aitortzen den bezala.

Egia esan, nahikoa izango zen sormena euskal Lanbide Heziketaren bilakaeran funtsezko osagai gisa aipatu bagenu, berrikuntzari dagokionez, berrikuntzaren ezaugarri bereizgarria den aldetik, egin dugun moduan, baina iruditu zaigu berariaz aipatu behar genuela, berebiziko garrantzia baitu, ez bakarrik bide gisa, baizik eta, horretaz gainera, Lanbide Heziketako ikastetxeen esparruan egiten den jardueraren jomuga gisa. Sorkuntza-zereginaren erakusgarriak ebidentzia bat dira testuinguru horretan; orain da unea agerian uzteko, halaber, sormena muskulu bat dela, eta muskulu horrek, esaten ausartuko ginateke, entrenamendua behar duela eraginkortasunez erantzutea nahi badugu. Iraupen-lasterketa luze horretan, non erritmo-aldaketak etengabeak baitira eta bide-zoru irregularrean egiten baita, sormenaren tonifikazioa premiazkotzat nabari da, eta haren ondorioa da, aztertzen ari garen aldiaren amaieran, Ideatk sortzea, hots, Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (Basterretxea, González, Saiz, Simón, 2002).

Aspaldi antzeman zen sormenean arreta jarri beharra zegoela eta lehentasuna eman behar zitzaiola zenbait eremutan, eta horietako batzuk aipatuak ditugu dagoeneko. Lanbide Heziketako Lehen Euskal Planean —Lanbidez—, produkzioari buruzko pertzepzio globalak duen garrantzia azpimarratzen da, lana antolaketaren eta enpresarekiko harremanen ingurunearen testuinguruan kokatuta, lan teknikoaren berezko zati gisa, lan teknikoa baita lanbide-gaikuntzaren helburua, eta esaten da jakin behar dela lan teknikoari lotutako arazoei aurrea hartzen eta ondorioak ebaluatzen. Hor aipatzen da sormena produkzioaren etengabeko hobekuntzan parte hartzeko funtsezko elementu gisa. Ikuspegi bereziki estrategikoarekin, Lanbide Heziketako II. Euskal Planak, esan dugun moduan, zehazten du sormenaren garapena, ekimenaren eta espiritu ekintzailearen garapenarekin batera, neurri bat dela landu beharreko gaitasun-unitateak eta enpresen lehiakortasuna (eta, alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoa) hobetzeko helburuak bateratzen dituena, eta halaber bateratzen dituela langileen enplegagarritasuna hobetzeko eta langileak ekoizpen moduak eraldatzen dituzten testuinguruetarako prestatzeko helburuak ere, non etengabeko ikaskuntza funtsezkoa den. Azken batean, etengabeko ikaskuntzaren xedeei begira planteatzen da EAEko lanbide-kualifikazioen katalogoa garatzea. Plan horretan bertan, lehenago aipatu dugun moduan, azpimarratzen da sormenak, ezagutzaren gizartearen jokalekuan, Lanbide Heziketako irakasleen funtsezko ezaugarrietako bat izan behar duela, eta irakasleek, era berean, sormenean konfiantza izan behar dutela, beren ikasleek modu autonomoan ikasteko duten ahalmenaren berezko osagaia den aldetik. Plan horretan —ez alferrik berrikuntzaren indarraren ideian oinarritua—, agerian jartzen da Lanbide Heziketaren esparruan sormena bultzatzeko premia. Horrek azalduko luke erakunde bat sortzeko beharra,

gero Tknika izango litzatekeena, alde horretatik ere Lanbide Heziketako ikastetxeetara zabalduko dena, ikastetxeek erreferentzia-esparru bat izan dezaten.

Bizitza osoko ikaskuntzak —Lanbide Heziketako III. Euskal Planaren funtsezko ardatzetako bat—, Europako Batzordeak ikaskuntza horri buruz duen ikuspegiari jarraituz —planak ere badu ikuspegi hori—, sormena pertsonok dugun gaitasun hori garatzeko pizgarriaren funtsezko oinarritzat hartzen du, eta gaitasun hori Lanbide Heziketaren unibertsoan ere aintzatetsi beharko litzateke. Horrenbestez, sormena hobetzea, berrikuntzarekin eta espiritu ekintzailearekin batera, planaren ardatz estrategikoetako bat da, berrikuntza, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen artean sustatu beharreko harremanen esparruan ere, errealitate bihur dadin. Eta errealitate hori produkzioaren, antolaketaren eta kudeaketaren testuinguruan barneratu behar da, hori guztia Lanbide Heziketako *ET 2020* Estrategiaren esparruan, non sormenak erreferentzia-marka gisa begiratzen baitio Europari. Eta Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana argitaratu zenerako, eta horrek ematen du gai honen garrantziaren neurria, jada onartuta zegoen gorago aipatu dugun eta aurrerago aipatuko dugun Dekretua, Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua (Ideatk) sortzekoa. Plan horrek, sormenak aurretik izan duen lehentasunezko arretari dagokionez, jarraitutasun-lerro bat markatzen du. Planean, sormenari lagunduko dioten lan-espazioak sortu beharra azpimarratzen da, kontuan izanik badagoela gertaera ukaezin bat, enpresa-ereduaren aldaketa, eta errealitate horri erantzun beharko diola Lanbide Heziketak; hala, besteak beste, sareko lana indartu beharra dago, Lanbide Heziketako ikastetxeen sare integrala sortu, enpresei laguntza eman... Lanbide Heziketako ikastetxeen esparruan sormena sustatzea lehentasunezko jardunlerroetako bat izango da. Berriro ere ageri da Lanbide Heziketako ikastetxeen garrantzi nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren ezaugarri bereizgarri gisa, eta «Lanbide Heziketako ikastetxearen eredu berri baterantz pixkanaka aurrera egiteko, balioa sortzearen, berrikuntzaren, estrategiak eta balioak hobetzearen esparruak garatzeari begira», ikastetxe horiek, beste batzuekin batera, funtsezko ezaugarri bat izango zuten: sormena. Sormena sustatzea ezin garrantzitsuagoa da, etengabeko eraldaketan ari den agertoki batean batean ideiak sortzeko eta garatzeko. Eraldaketa horrek erronka berri eta aldakorrei aurre egiteko beharra dakar; halakoa da errealitatea, eta Lanbide Heziketako ikastetxeek egin beharreko lanean ohikotzat hartu beharrekoa da errealitate hori.

Sormenaren sustapena, lehenago agerian jarri dugun moduan, plan horrek erabiltzen duen giltzarrietako bat da, herrialdearen garapenerako ezinbestekoa den kultura ekintzaile bati ateak irekitzeko. Sormenaren garapena, halaber, Lanbide Heziketako ikastetxeetan sustatu nahi den

aldaketarako formula egokiena da, ikastetxeak «ezagutza-unitate» bihurtzeko. Ezagutza-unitate horiek beren ingurunean kokaturik egongo dira posizio estrategiko batean, prestakuntza emateko ikuspegi guztiz berritu batetik, prestakuntza/ikerketa/berrikuntza loturan oinarritua. Horrek eskatuko luke «ikastetxeetan berrikuntza kudeatzeko eredu bat sortzea, sormena garatzen lagunduko duena, ikastetxeetako oinarrizko prozesuetan sormen-errutinak ezarriz». Sormena, berriz ere gure azterlanaren denbora-mugetatik kanpo, protagonista da 2018ko Lanbide Heziketaren Legean eta Lanbide Heziketako V. Euskal Planean ere. Legeak ohartarazten du sormena sustatzea funtsezkoa dela eta Lanbide Heziketako euskal sistemaren lehentasunezko helburuen artean kokatzen du, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako egiturak garatzeko. Horretarako, Lanbide Heziketako IV. Planean adierazitako norabidean, Lanbide Heziketako ikastetxeak sarean lan egiten duten jakintza-unitate autogestionatutzat hartzen ditu. Azken planari dagokionez, sormena funtsezko gaitasuntzat hartzen da etengabe aldatzen ari den gizarte baten erronkei aurre egiteko, eta gizartearen errealitate horretaz —sortzen duen ziurgabetasun-testuingurua barne— kontzientzia izan behar du herrialdearen garapenak (Eusko Jaurlaritza / Eusko Jaurlaritza, 2019), agertoki batean non helburuak «sorkuntza-lanbideetarako» prestatzea izan behar bailuke; hau da, sormena —ekoizpenaren eremuko errealitate berritzaileek sortuko dituzten ondorio eta eskariei arreta jarriz— «funtsezko faktorea da etorkizuneko garapen profesionalerako» (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2019). Era berean, ikuspegi horretatik, funtsezkoa litzateke oinarrizko jardunlerroak garatzeko, hala nola goi-errendimenduko prestakuntza-zikloa finkatzeko eta hedatzeko (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2019), Lanbide Heziketako ikastetxeak «erakunde adimendun» gisa garatzea, erronka berri eta aldakorren aurrean egokitzeko, erreakzionatzeko, aurrea hartzeko eta disrupziorako gaitasunarekin (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2019), edo «talentua» sustatzea elkarlaneko ikaskuntzako testuinguru batean etorkizunari aurre hartzeko ikuspegiarekin (Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, 2019). Horiek dira planaren orientabide nagusietako batzuk.

Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak sormenaren arloan izan duen lehentasun-mailaz ohartzeko, interesgarria da aipatzea jada mendearen lehen hamarkadan, Euskal Herriko Unibertsitateak lidergoa zuen proiektu baten esparruan, Tknikak parte hartu zuela, Europako unibertsitate, Lanbide Heziketako ikastetxe eta elkarte eta instituzio eta administrazio batzuekin batera[51], sormena

[51] Euskal Herriko Unibertsitateaz gainera (proiektuaren burua), parte hartuko dute Eusko Jaurlaritzak eta Tknikak, eta Creativity Zentrum (Euskadi), Tangram SRL (Italia), Conseil Régional de Aquitaine (Frantzia), The University of Edinburgh (Eskozia), Tallin

ezagutza ekoizteko bizkarrezurtzat hartzen duen proiektu batean, ezagutza hori prestakuntzaren arloan ondorio praktikoak izatera bideratua egonik. *Creanova* zuen izena proiektuak, Europako batzordearen Lifelong Learning (LLP) programak finantzatua zegoen[52], eta haren helburua zen «ikaskuntza sortzailea eta berrikuntza sortzen laguntzen duten faktore espezifikoak, klima eta baldintzak ikertzea» bai eta «ikaskuntza hori sustatzen duten hezkuntza-politikak bultzatzea». Lanbide Heziketan, helduen hezkuntzan eta lan-munduan gaitasun sortzaileak eta sormenaren kulturaren sustapena garatzea zen proiektuaren horizontea, eta paisaia zabal bat besarkatzen zuen, non hezkuntza-politikak, irakaskuntza/ikaskuntzako estrategiak edo enpresetako prestakuntza sartzen baitziren, eta Euskadiko Lanbide Heziketak toki ukaezina aurkitu du paisaia horretan. Hala, adierazi behar da Lanbide Heziketako zenbait ikastetxek «*Creanova* eredu didaktikoan» zuzenean parte hartu dutela. Eredu horretan, premiak, askatasunak, interakzioak eta giroak sormenaren atea irekiko lukete, sormena bailitzateke arlo horretan nagusi diren premiei erantzun optimoa eman nahi dien prestakuntzaren bizkarrezurra.

Komeni da aipatzea, nahiz eta berrikuntzaren eta sormenaren arteko aldea argi eta garbi ezartzeko zailtasunak kasu batzuetan konplexuak izan, berrikuntza dela zenbait premiari aurre egiteko erantzun optimoa ematea —hala nola premia sozialak, prestakuntzakoak, kudeaketakoak, ekintzailetzakoak eta abar—; sormena, berriz, erantzun berritzaileak emateko gaitasuna da. Artolak modu errazean adierazi zuen moduan, sormena berrikuntzaren aurretik dator, «sorkuntza-prozesuan ideiak sortzen dira, testatu eta ebaluatu egiten dira, berrikuntza-proiektu zein bihurtzen diren erabakitzeko» (Artola, 2015). Jakina, Creanovara itzuliz, proiektuaren azken ondorioetan azpimarratzen den bezala, «interakzio handia du testuinguruarekin, eta etengabe aldatzen ari diren inguruneetan ikasteko gaitasunarekin lotzen da» (Creanova, 2011). Eta hortik ondoriozta daiteke sormenaren auzia ezin dela zoriaren esku utzi, ezin dela utzi gaitasun hori duten pertsona eta kolektiboak izatearen edo ez izatearen zorte onaren mende. Berrikuntza beharrezko horizonte bat izan daiteke —eta hala da, berez—, gure kasuan, Lanbide Heziketarako, ikusirik zer erronka, hala ezagunak nola

---

University (Estonia), THIFAS (Alemania), Educode (Finlandia), Universal Learning Systems (Irlanda) eta HAAGA-HELIA University of Applied Sciencies (Finlandia) erakundeek.

[52] Programa horrek Sokrates, Leonardo da Vinci eta eLearning programak ordezkatu zituen 2007/2013 urteetan, eta kalitatearen ikuspegitik erreferentzialak izateko helburuarekin Europar Batasuneko hezkuntza —eta prestakuntza— sistemen arteko lankidetza bultzatzen zuten proiektuak finantzatu zituen.

etorriko direnak, ezartzen dituen garai honek; berrikuntza, beraz, Itakarako bidaia da, nahitaez ekin behar zaiona. Batzuetan, aldeko haizeek nabigazio ezin hobea ahalbidetzen dute, eta, halakoetan, autokonplazentzia-ariketa xaloak egiteko tentaldia izan daiteke, baina zeharkaldirako prestatu beharra dago, jakinik itsasoaren egoera ezin dela aurreikusi eta zenbait ustekabe gerta daitezkeela berehala erantzun eraginkorrak ematea eskatzen dituztenak. Balio beza metaforak agerian uzteko premiazko dela behar den trebetasuna izatea erronka zailei aurre egiteko, jakinik, nolanahi ere, hori dela aukera bakarra berrikuntzaren horizonterantz aurrera egiteko.. Beraz, esan behar da, proiektuan esaten den bezala, «sormena balio garrantzitsu bihurtu dela hazkunderako, bai garapen pertsonalari dagokionez, bai kultura-garapenari dagokionez, erantzun berritzaileak eskatzen dituen testuinguru etengabe aldakorrean» (Creanova, 2011).

Euskal Lanbide Heziketak orain arte esandakoarekin bat egiten du, eta proiektu horretan inplikazio-maila handia du. Eta horren erakusgarri ona da Europako elkarte bat sortu izana 2011az geroztik Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako ikastetxeak, enpresa sortzaileak eta unibertsitateak elkartu zituen proiektuak iraun dezan, eta izen berarekin, hots, Creanova izenarekin, non Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren protagonismoa, Tknikaren bidez, bereziki nabarmentzekoa baita. Elkarteak topaleku bat izan nahi zuen, helburu zehatz batekin: sormena sustatzea. Eta helburu horri, hain zuzen ere Lanbide Heziketan sormena sustatzeari —kontuan hartuta sormena premia ukaezintzat hartzen dela—, erantzun nahi dio, gorago adierazi dugun moduan, Ideatken sorrerak —Sailburuordetzari atxikia—, euskal Lanbide Heziketa indartzeko funtsezko elementu gisa. *Ideatk*en helburuak, Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua sortzeko Dekretuan irakur daitekeen moduan, hauek dira: sormen-eremu berrietan ekintzailetza dinamizatzea, sormen-espazioak garatzea eta Lanbide Heziketako ikasleen pentsamendu sortzailea sustatzea. Testuinguru horretan, Pentsamendu Sortzailearen eta Sormen Aplikatuaren arloak jarduera-eremu gisa sortu izanak Euskadiko Lanbide Heziketan sormenak lehentasunezko arreta-gune gisa hartzen duen balio nabarmenaren argazki interesgarria eskaintzen du. Lehenengo arloari, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal institutuarekin (EEI) eta Tknikarekin lankidetzan, hau da, Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroarekin —zehazki, azken horrekin berrikuntza aplikatuaren, pentsamendu sortzailearen eta sormen aplikatuaren eremuan— hau dagokio, besteak beste: Lanbide Heziketaren inguruko proiektuetan aplikagarria den pentsamendu eraikitzaileko tekniketan zentratzea, eta sormenaren eremuko ahalmenei bultzada ematea, eta, horretarako, behar diren gaitasunak definitu,

diseinatu eta garatu behar lituzke. Sormen Aplikatuaren Arloari dagokionez, lehen aipatutako EEI eta Tknika erakundeekin elkarlanean, eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzaren ikuspegitik, hau da haren funtzioa: «teknologia aurreratuak erabiliko dituzten artisau-erako sormen-espazio berriak ikertzea, diseinatzea eta esperimentatzea».

Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 (ET2020) esparru estrategikoarekin bat etorriz, argi dago sormena Lanbide Heziketaren esparruan ere funtsezko ardatzetako bat dela (Psifidou, 2014). Ikuspegi horri, beste batzuei bezala —Europako erreferentzialtasunari erreparatuta—, erabat atxiki zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketa, eta haren erakundeek helburu hori gauzatzen saiatu dira, horretarako asmatutako tresnak sortuz. Ildo horretatik, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak Ideatk sortzeko erabakia hartu zuen, ulerturik sormena funtsezko pieza bat dela enpresa berritzailez osatutako ingurune bat sortzeko, enpresa horientzat lehentasunezkoa baita «gaitasun sortzaileak dituzten pertsonak izatea, hots, proposamenak egin, helburuak ezarri, lehentasunak ebaluatu eta alternatibak sortzeko gai diren pertsonak izatea» (Artola, 2015). Eta Ideatkek, orain arte esaten ari garenaren ildotik —helburu desiragarri bat ezartzeari begira, hau da, sormen-gaitasuna garatzeari begira, baina ez horretarako bakarrik—, baldintzak sortu nahi ditu garapen hori pentsamendu eraikitzailearekin, adimen emozionalarekin eta adimen exekutiboa uztartzeko, Artolak dioen bezala. Eta, berriro ere, Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasleak izango lirateke beren ikasleen prestakuntzan funtsezko rol bat jokatzera deituak, helburua baita ikasleek sormena garatzea; horregatik, irakasleen motibazioa eta inplikazioa funtsezko piezak dira, eta beste behin ere beren funtzioa birdimentsionatu behar da, kasu honetan zentzu tradizionaleko irakasle izan beharrean sormena suspertzeko eragile izan daitezen, eta horretarako, jakina, irakasleen artean ere sormena behar da, eta hori garatu beharko du Ideatkek. Alde horretatik, tresna egokiak, bai eta trebetasunak ere, emango lizkioke Ideatkek irakasleari, haren gaitasun profesionala optimizatuz norabide nabarmen berritzaile baterantz, non irakasleak berak ikertu eta aztertuko dituen era askotako aukerak. Nolanahi ere, Lanbide Heziketako ikastetxea bera da, bere ezaugarri espezifikoen arabera, ideia hori ustiatzeko esparrua. Hala, beste behin ere, ikastetxeen eta irakasleen inplikazioa kontuan hartuta, Ideatkek lan-ildo bat ireki zuen, ikastetxe bakoitzak bere errealitatera egokitutako berariazko plan bat izan zezan. Plan horretan, berehalakotasunetik ihesi, eraldaketaren bidean hasi behar zuen ikastetxeak, jakinda konplexua izango zela, baina itxaropena izanda sormenaren garapenak ondorio ukigarriak izango dituela, enplegagarritasunarentzat, ekintzailetzarentzat eta lehiakortasunarentzat onuragarria dela sinetsirik.

Artolak agerian uzten du sormenaren ikaskuntzaren garrantzia, ezaugarri natural hutseko pertzepzio bat izan daitekeenetik harago joanda; De Bono aipatuz —Ideatken sorreratik zuzendaria izan zena—, dio badirela teknika batzuk sormena landu eta garatzeko. Helburu horretara bideratuko ditu Ideatkek bere ahaleginak, eta, horrek, beraren ustez, elementu berritzaile bat markatzen du, Lanbide Heziketaren munduan ordura arte inoiz egin gabea, Euskadiko Lanbide Heziketaren eraldaketaren esparruan (Artola, 2016). Kontua da bi urte eskasean bostehun irakaslek baino gehiagok parte hartu zutela Ideatkek helburu honekin abian jarri zuen prozesuan: irakasleek Lanbide Heziketako ikasleen pentsamendu sortzailea sustatzeko gaitasunak hartzea. Lehenago, beste esparru batzuetan bezala, aurreko esperientziak katapulta-elementu gisa jokatu zuen, eta, horren ondorioz, gero eta irakasle gehiago animatu ziren sormen-prozesuari buruzko prestakuntza jasotzera. Lehenik, talde txiki baina esanguratsu batek adimen emozionalari, pentsamendu paraleloari eta sormen-prozesuari buruz egindako prestakuntzari eta entrenamenduari esker, balioa eman zitzaion ideiari; hala, gero, proiektua Euskal Lanbide Heziketa osora zabaldu zen, irakasleak prestakuntza-prozesu batean murgildu zitezen. Hala, Ugartemendiaren iritziz, «iraultza-prozesu batean» sartzen ari ziren Lanbide Heziketako irakasleak zein ikasleak (Ugartemendia, 2017). Ideatkek gida didaktiko bat sortu zuen irakasleentzat, eta irakasleek entrenamendu-plan pertsonal eta espezifiko bat izateko aukera izan zuten; eta *Sor-Gim* direlakoetan entrenatzeko aukera ere eman zitzaien. Sormen-gimnasioak ziren, Ideatken ikastaro-katalogoaren barruan sortuak, plana praktikara eramateko[53]. Irakasle sortzaileak trebatzearen ondorioz, espero da ikasleek, beren prestakuntzaren esparruan, enpresaren munduan sor daitezkeen arazoak eta premiak konpontzeko gaitasuna garatzea. Arazo horiek nekez aurreikus daitezke, eta aurre egin beharko diete modu sortzailean eta erabakimen eraginkorrarekin. Lanbide Heziketako IV. Euskal Planean adierazitako ideia gauzatzea besterik ez litzateke izango. Plan horren arabera, garatu beharreko gaitasun pertsonalen artean, ikasleen pentsamendu sortzailea sustatzea benetako premia bat zen Lanbide Heziketaren eraldaketa-esparruan, eraldaketa horren helburua «enplegagarritasuna bultzatzea eta lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa indartzea» baita (Ugartemendia, 2017).

---

[53] Azken batean, ideia hau dago abiapuntuan: pentsamendu sortzailearen berezko gaitasunek sendotze bat eskatzen dute, entrenamendu planifikatu batean oinarritua, zenbait helburu lortu ahal izateko: fokuak definitu eta birformulatzea, pentsamendu dibergentea abian jartzea ideia ugari sortuz, ideiak baloratzea, iragaztea eta aukeratzea, pentsamendu paraleloa abian jartzea, emozioak modu egokian kudeatzea eta adimen exekutiboa aktibatzea («Sor-Gim-a: Pentsamendu sortzailerako entrenamendua», https://tknika.eus/cont/cursos/sor-gim-entrenamendua-para-pentsamendua-kreatiboa-b/).

3.9. **Ekintzailetzaren erronka: Lanbide Heziketako ikastetxeak eta enpresak sortzea**

Ekintzailetzak pixkanaka hartu duen garrantzia Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren funtsezko ezaugarrietako bat[54] da, hainbesteraino non EAEko LHren funtsezko ardatzetako bat izatera iritsi baita; izan ere, hala dago modu esplizituan jasota Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren 2018ko Legean. Lege horrek aipatzen duen Lanbide Heziketaren eredu konbinatuaren testuinguruan, eta Hasierako Lanbide Heziketarekin eta Enplegurako Lanbide Heziketarekin batera, berrikuntza aplikatuaren eremuaz gainera, garrantzi nabarmena du ekintzailetzaren arloko prestakuntzak. Euskadiko Lanbide Heziketaren barnean ekintzailetzarako prestakuntzak hartzen duen lege-dimentsioa —behin baino gehiagotan aipatu dugu— lan honen aztergai den aldiaren ondoren gertatu da, baina ziklo horretako garapen-esparruan azaltzen da. Alderdi hori ez da alde batera utzi behar; izan ere, berariaz nabarmendu behar da ezen, Euskadiko Lanbide Heziketak izan duen bilakaeraren barruan, ekintzailetzaren garrantzia ez dela deklarazio-maila hutsean geratzen —eta hori azpimarratu beharra dago— eta haren garrantzia bereziki XXI. mendearen lehen urteetan eraikiz joan den dimentsio estrategikoan baloratu beharrekoa dela. Bistan da Euskal Autonomia Erkidegoa ez dela salbuespen bat; izan ere, Espainiaren testuinguruan, adibidez, badira beste erkidego batzuk ere, ekintzailetzaren garrantziaz konbentzituta daudenak eta beren hezkuntza-estrategien barruan leku bat izan behar duela diotenak (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, 2015). Hala ere, nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela ikuspen estrategiko bateratuak izatea, non instituzio batek baino gehiagok —ez bakarrik Eusko Jaurlaritzak— eta beste eragile batzuek parte hartzen baitute, ikastetxeez gainera; hori da 2013/2016 aldirako Jarduera Ekintzailea Babesteko Erakunde arteko Planaren kasua (Eusko Jaurlaritza, 2013).

Plan hori gure azterketaren emaitzak argitaratzean indarrean dagoen planaren aurrekaria da (Eusko Jaurlaritza, 2017), eta berak markatu zuen, aztertutako aldiaren amaieran, Euskadiko hainbat eragilek ekintzailetza sustatzeko hartutako konpromisoa. Eragile instituzionalentzat —Eusko Jaurlaritzaz gainera, baita foru-aldundiak eta udalak ere—, lehentasunezkoa da ekintzailetza, eta gauza bera esan

---

[54] Iosune Irazabal *Ikaslan Gipuzkoako* lehendakariaren iritziz, EAEko Lanbide Heziketak ekintzailetzaren alde egin duen apustua haren historiako inflexio-puntu garrantzitsuenetako bat da. Josune Irazabali egindako elkarrizketa, Bergara, 2019ko azaroaren 25a.

daiteke hezkuntzako eragileentzat; testuinguru horretan, euskal Lanbide Heziketa «arrantza-leku»etako bat da, jarduera ekintzailearen iturri gisa abian jarria *«Ekintzailetzaren Euskal Eredua»* deitu izan zaionaren esparruan (Eusko Jaurlaritza, 2017)[55]. 2013/2016 planean, dagoeneko azpimarratzen da ekintzailetzaren kulturaren eta balioen garrantzia, besteak beste. Esparru horri erantzuna eman behar zitzaion hezkuntza-sistema osoaren ikuspegitik, eta testuinguru horretan nabarmentzen da Lanbide Heziketako ikastetxeek ekintzailetza eraginkorraren eragile bideratzaile gisa erakutsi duten gaitasuna —eta ez bakarrik ekintzailetzarako prestakuntza-eragile gisa—, bai eta abian jarritako programen gaitasuna ere —haiei buruz hitz egin beharko dugu—, hala nola *Ikasenpresa*, *Urratsbat*, etab. (Eusko Jaurlaritza, 2013). Baina, esan dugun bezala, Euskadin, ekintzailetzarekiko kezka ez da ezer berria, eta Lanbide Heziketa ere ez da iritsi berria eremu horretara, berrikuntza-ahalmena sobera erakutsi baitu eremu horretan.

Hain zuzen ere, joan den mendeko laurogeiko hamarkadan, krisi ekonomiko eta sozial izugarri baten testuinguruan, egoerari ikuspegi estrategiko batetik aurre egin nahi izan zitzaion, ekintzailetza izanik ikuspegi horren oinarrizko ardatzetako bat; horren ondorioz, euskal instituzioek Ekintzailetzaren Euskal Sistema izenekoa sortu zuten, non prestakuntza *«enpresa-proiektuak egiteko eta sozietateak eratzeko prozesuetan laguntza ematera»* bideratutako euskarrietako bat izango baitzen (Eusko Jaurlaritza, 2013). Sistemaren jarduera funtsezkoa izan zen, baina XX. mendearen bukaeran eta XXI.aren hasieran jauzi nabarmena egin zuen: aipatutako laguntzatik harago joanda, ekintzailetzarako prestakuntzara pasatzea Lanbide Heziketan, bai eta unibertsitatean ere. Edo, seguruenik, esan behar litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak berak bere burua «berrasmatu» zuela, ikuspen berritzaile ukaezinarekin —bere xedea birdefinitzera ere iritsi zen (Navarro, M., 2017)—, lanbide baterako prestakuntzatik edo enplegurako prestakuntzatik harago joateko eta ekintzailetzarako prestakuntza-eragile izatera jotzeko.

Hala ere, esan behar da ikuspegi berritzaile hori ez dela lantzen Lanbide Heziketaren errealitatea eta ingurune batzuetan, batez ere Europan, dituen erronkak kontuan hartu gabe, bere burua haiekin

---

[55] Ezaugarri hauek definituko lukete Ekintzailetzaren Euskal Eredua: proiektuen iraupen handia (eta horren arrazoia proiektuen kalitatea eta sendotasuna lirateke, batetik, eta laguntza publikoaren eraginkortasuna eta enpresa-testuingurua, bestetik), ekintzailetzarako trebakuntza —benetan egiaztatutako trebakuntza—, erakunde publikoen laguntza laurogeiko hamarkadan Ekintzailetzaren Euskal Sistema eratu zenetik, proiektuen «arrantza-lekuen» aniztasuna —haien artean, Lanbide Heziketako ikastetxeak sartzen dira— eta Euskadiren bereizgarria den sarea (enpresa-sarea, finantza-sarea, elkarte-sarea...).

konparatu ahal izateko, eta, behar izanez gero, haietatik ikasteko, eta, beharbada, baita haiei irakasteko ere. Europar Batasuneko zenbait erakundek, hala nola Batzordeak, Kontseiluak edo Parlamentuak berak (Europako Batzordea, 2013) ekintzailetzari eta ekintzailetzarako prestakuntzari buruz sortu duten dokumentazio ugaria ikusirik, erraz egiazta daiteke gai hori garapen ekonomikorako eta enplegua sortzeko funtsezko osagaitzat hartzen dela. 2000. urteko Enpresa Txikien Europako Gutunean, baieztapen hau ageri da: *«enpresa txikiak Europako ekonomiaren bizkarrezurra dira»* (Europako Batzordea, 2000). Gutun horretan, dagoeneko, ekintzailetzaren garrantzia azpimarratzen da, eta adierazten da hezkuntza eta prestakuntza direla horretarako jarduera-ildo nagusietako bat. Eta 2015ean, aztertzen ari garen aldiaren mugan, Ekintzailetzarako Europako Hezkuntza Sarea sortu zen, non prestakuntza giltzarria baita, inolako zalantzarik gabe. Beraz, Europako instituzioak etengabe aritu dira ekintzailetzarako prestakuntza sustatzen hezkuntza-sistemen barnean, Dena dela, egia da, halaber ezen, Europako Parlamentuaren iritziz, ez dagoela behar bezala aintzat hartuta. Euskadiko Lanbide Heziketak han bilatu du ispilu bat berak ekintzailetzarako prestakuntzaren eremuan egindako lana kontrastatu ahal izateko, eta prestakuntza eskaini du, bai, baina baita ekintzailetza-jarduera egiteko aukera ere.

Egia da estatuko hezkuntza-testuinguru hurbilean, badela, halaber, hezkuntza-legeria oso bat ekintzailetzari dagokionez. Hasteko, 2006ko LOE legea, non espiritu ekintzailearen prestakuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ez ezik, Lanbide Heziketaren helburuen artean ere baitago. Eta, amaitzeko, 2013ko LOMCE legea, zeinak hitzaurrean ezartzen baitu legeak bultzatu nahi duen hezkuntza-erreformaren helburu nagusietako bat, besteak beste, hau dela: *«enplegagarritasuna hobetzea eta ikasleen espiritu ekintzailea sustatzea»*. Bestalde, egia da, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan ekintzailetzarako prestakuntzaren arloan egin den ahaleginak ibilbide finkoa duela aurretik, eta hori aitortu beharra dago. Izan ere, aintzat hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzailetza-ekosistema[56] beste ingurune aurreratu batzuen parekoa dela, gutxienez, eta hala dela, gure gaiari dagokionez, hezkuntza-arloan, eta, zehazki, Lanbide Heziketan, etengabeko egituratze-prozesu batean erakutsi duen sendotasunari esker (Eusko Jaurlaritza, 2013). Eta hori erabakigarria da, eta edozein legetan ager daitezkeen deklarazio-mailako balorazioetatik harago, jardunbide onen benetako aitortzan nabari da, Europako txosten batzuetan jasota agertzen den moduan. Hori da, adibidez, Europako

[56] Hain zuzen ere, «ekosistema» horretan kokatu eta ulertu behar da «Euskadiko Lanbide Heziketaren ekosistema ekintzailea», aurrerago aipatuko duguna.

Batzordearen 2014ko «Ekintzailetzarako Hezkuntza» Lantaldearen kasua, zeinak, bere amaierako txostenean, txalotzen baitu Euskadiko ekintzailetzari laguntzeko sistema eta enpresak sortzeko sistemarekin osatua egotea (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, 2015). Edo Europako Batzordearen *Ekintzailetzarako Hezkuntza. Hezitzailearen gida* dokumentuan, non TKNIKAren jardunbide ona balioesten baita puntu honetan: *«ekintzailetzarako hezkuntzari lotutako irakaskuntza-metodo eta -kontzeptu berritzaileak»* (Europako Batzordea, 2014)

Ekintzailetzak baditu aurrekariak hala Lanbide Heziketa pribatuan nola publikoan (Basterretxea, I.; González, A.; Olasolo, A.; Saiz, M.; Simón, L., 2003), baina Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan ekintzailetzaren aldeko apustu irmo eta erabakigarriak —hala kalifika daiteke— badu lider bat: TKNIKA. Zentro hori, lehenago esan dugun moduan, 2005ean sortu zen, eta ekintzailetza da zentroa egituratzen duten funtsezko arloetako bat. Zentro horrek ikerketaren eta berrikuntza aplikatuaren eremuan dihardu, eta haren sorreraren testuingurua, gogora dezagun, Lanbide Heziketako II. Euskal Planaren abiapuntua izan zen. Plan horrek ikuspegi estrategikotik ekintzailetzari ere bultzada irmoa emateko beharra aldezten du, aurreko kapitulu batean azpimarratu dugun bezala. Euskadiko Lanbide Heziketaren sistema berritzeko sortutako ekimena zen TKNIKA, eta gutxieneko egitura batekin abiatu zen. Hala ere, hamarkada bat baino ez igaro ondoren, *«Europa mailako erreferente»* bihurtu zen, aldi luze batez TKNIKAko zuzendaria izan zen Mujikaren hitzetan (Mujika, I., 2015). Hain zuzen ere, ekintzailetzaren alderdi berritzaile eta estrategikoa da nabarmendu beharrekoa. Jada *Lanbidez* planean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako sistema integratuaren funtzioetako bat zen berrikuntza, eta Lanbide Heziketako II. Euskal Planaren ardatza izan zen, esanda dagoen moduan. Ildo horretatik, TKNIKA *«Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Zentro»* gisa ulertzen da, esan bezala, eta Lanbide Heziketako ikastetxeentzako erreferentzia-zentro gisa, berrikuntza-proiektuak garatzeko, eta, bere berrikuntza-politikaren barnean, ekintzailetza sustatzea sartu zuen, besteak beste. Hala, TKNIKA izan da, urteen poderioz, Triguerok *«Euskadiko Lanbide Heziketaren Ekosistema Ekintzailea»* (Triguero, S., 2015) deitu duena konfiguratzeko funtsezko tresna. Hauek dira haren funtsezko piezak:

4. Grafikoa

Euskadiko Lanbide Heziketaren ekosistema ekintzailea



Iturria: Triguero, S. (2015).

«Ekosistema ekintzaile» horren konfigurazioa, TKNIKAk egindako lanean ez ezik, aurreko kapitulu batean azaldu genuen Euskadiko Lanbide Heziketaren dimentsio estrategikoan ere ulertu behar da. Agertoki horretan, II. Planak Lanbide Heziketako III. Euskal Planean izan zuen jarraipena, nahiz eta zuzendaritza politikoa aldatu, eta plan berrian esplizituki zehazten da ekintzailetza dela Euskadiko Lanbide Heziketaren kokalekua, *«erantzun arrakastatsuak»* eskatzen dituen testuinguru aldakor batean nagusi den kultura-aldaketa baten esparruan (Eusko Jaurlaritza, 2011); horrenbestez, espiritu ekintzailea Planaren eremu estrategikoetako baten barnean sartu zen. Dakigun bezala, Plana erabat gauzatu aurretik, eta Gobernua aldatu ondoren, hau ageri zen LH 2015 Agenda Estrategikoak ezarritako lehentasunen artean: enpresak sortzeko laguntza orokortu eta handitu beharra, eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleen espiritu ekintzailea sustatzen jarraitu beharra. Horrek erakusten du ekintzailetza elementu zentral bat zela eta dagoeneko indarra hartzen ari zela Euskal Lanbide Heziketaren garapen-prozesuan. Aztertutako aldiaren amaieran, Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren atarian gaude. Hain zuzen ere, lehen ere aipatu dugu plan horrek inflexio-puntu bat ezarri zuela euskal Lanbide Heziketaren bilakaeran; eta ekintzailetza (ekintzailetza «aktiboa», zehatzak izateko), nabarmendu dugun bezala, bost esparru estrategikoetako bat da. Helburua, hor, Lanbide Heziketan ekintzailetza indartzea da, eta enpresen sorrera sustatzea, ekintzailetzaren

kultura sustatuz eta enpresa-proiektuak garatuz, beti ere agerian utzita Lanbide Heziketako ikastetxeek horretan ere izango duten zentralitatea. Planteamendu horrek jarraipena izan zuen aztertu dugun aldiaren ondorengo urteetan, eta aldi horretan jada osatuta gelditu zen lehenago aipatu dugun eta gero zabalago azalduko dugun Euskadiko Lanbide Heziketako ekosistema ekintzailea. Beraz, ibilbide historiko baten emaitza da, non pixkanaka finkatuz joan diren aurretik egindako apustu ausartak: bereziki, *Urratsabat* eta *Ikasenpresa* programak, ibilbide luzekoak biak ere, bai eta *MAE* ere, zeinak aurrekoak osatu, bultzatu eta sendotu baitzituen. Eta badira beste ekimen berri batzuk ere, aztertutako aldian oraindik bide laburra egina zutenak; haiekin, forma osoa eman zitzaion aipatzen ari garen ekosistemari: Ekintzailetza Berritzailea, Urratsabat enpresen COPa (Praktika Komunitatea) eta Zentro Ekintzailea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak berritzeko duen gaitasuna —bere burua etengabe birkokatzeko eta berrasmatzeko ildo horretan— berriro ageri da, eta ondo nabarmen ageri, ekintzailetzan, eta gaitasun hori ezinezkoa litzateke Lanbide Heziketako ikastetxeen parte-hartzerik gabe. Alde horretatik, ezin da ahaztu ikastetxeen eta enpresa-ingurunearen arteko tradiziozko harremana funtsezkoa dela Euskadiko Lanbide Heziketak izan duen bilakaera ulertzeko (Olazarán, M.; Brunet, I.). (koor.), 2013), eta tradizio horrek baduela estrapolazioa ekintzailetzaren eremuan ere. Mujikak dioenez, Lanbide Heziketako ikastetxeek enpresarekiko duten konpromisoa tradizioa da, eta gauza jakina da *«gure enpresa txiki asko gure ikastetxeetan trebatutako pertsonek sortu dituztela»* (Mujika, I., 2015). Beraz, esan daiteke, neurri batean, Lanbide Heziketaren eta ekintzailetzaren arteko harremana jada errealitate zela enpresak sortzea edo enpresen sorrera erraztea argi eta garbi esplizitatzen den helburu bat izatea ekarri zuen jauzia gertatu baino lehen. Hala, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren gidaritzapean, TKNIKA egituratzen den arloetako batetik —zehazki, «Ekintzailetza eta Aldaketaren Kudeaketa» izenekotik—, eta Lanbide Heziketako, Lanbide Heziketa Arautuko eta Enplegurako Prestakuntzako ikastetxeen lankidetzarekin, bidaide berri bat izan zuten Euskadiko Lanbide Heziketa eraldatzeko. Mujikaren hitzetan, bazen planteamendu bat Lanbide Heziketako ikastetxeek *«enpresa-mintegi bat sor»* zezaketelako ideia proiektatzen zuena jada XXI. mendearen lehen hamarkadaren lehen erdian; planteamendu horrek euskal Lanbide Heziketaren unibertsoa Euskadiren berezko ekintzailetza-kulturarekin sintonizatu beharrari erantzuten zion[57], eta TKNIKAk erraztu egin zuen ekintzailetzarako prestakuntzatik jarduera ekintzailera pasatzeko jauzia.

---

[57] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

Esan dugun bezala, TKNIKA hiru arloren inguruan egituratzen da; haietako bat «Ekintzailetza eta Aldaketaren kudeaketa» da, Euskal Autonomia Erkidegoak behin eta berriro erakutsi duen ekintzailetza-gaitasuna baita herrialdearen garapen ekonomikoaren ardatz nagusietako bat. Orduan, jada ikuspegi berritzaile batetik, non prestakuntza funtsezko oinarria baita, Lanbide Heziketako ikastetxeetako ekintzailetza-kultura eta ekimena indartzea saiatu behar zuen, eta helburu hori ikasleengana eta irakasleengana eraman. Horretarako, ezinbestekoa zen Lanbide Heziketaren sistemako eragile guztiek parte hartzea, ikastetxeak berak eraldatzeaz gainera. Gai horretan, TKNIKAren ekarpena eraldaketa hori bultzatzea eta erraztea zen. Gai horri ekiteko ikuspegia zein den ezkutatzen ez duen diskurtso batetik abiatuta, ulertzen da lagundu beharreko garapen ekonomiko eta sozialak aberastasuna eta ongizatea sortzen duela, eta gai horiek zuzen-zuzenean daudela ekimen ekintzailea eta berrikuntza premiatzat hartzearen mende. Hala, TKNIKAren lana bi helbururen inguruan oinarritzen da: batetik, ekimenak diseinatu eta garatzea, eta, bestetik, Lanbide Heziketako ikastetxeak eraldatzeko lan egitea, hori funtsezko elementua baita zeregin horretarako. Izan ere, arlo horretako ekimen guztiek behar dute Lanbide Heziketako ikastetxeak —eta, haien barnean, irakasleak— partaide bihurtzea. Haien laguntzarik gabe, ez luke arrakastarako aukerarik izango «kultura ekintzailea» esaten zaionak. Kultura horrek elikatuko du enpresak sortzeko ekimena hautatzea lanbide-jarduerako alternatiba gisa ikasleen etorkizunera begira, edo, beste era batera esanda, autoenplegua lan-merkatura iristeko bide eraginkor gisa. Horretarako, Lanbide Heziketako ikastetxeek aldaketa bat egin behar zuten, eta aldaketa horretarako beharrezkoa zen ohiko prestakuntzaren ohiko funtzioetan —hasierako prestakuntza eta enplegurako prestakuntza— bilakaera bat sustatzea, ikastetxeei trantsizio horretan lagunduz, ekintzailetzarantz irekitzea errazteko, *«berrikuntza kudeatzeko ikuspegiak eta ereduak ezartzea bizkortuz, zaintza-jardueren, sormenaren, ideien garapenaren, berrikuntza-proiektuen kudeaketaren eta proiektuon emaitzen transferentziaren bidez».*

Testuinguru horretan, jada XXI. mendearen lehen urteetan programa bat jarri zen martxan, hurrengo urteetan jarraipena izan zuena eta, gaur egun ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaz besteko instantziek —Administraziotik bertatik hasi eta gizarte-eragile eta ikastetxeetaraino— Euskadiko Lanbide Heziketa ezaugarritzen duen ekintzailetzaren aldeko apustuaren erakusgarri gisa goratzen duten elementuetako bat dena: *UrratsBat* programa. Programa horrek, labur adierazita, Lanbide Heziketako ikastetxeetan enpresak sortzeko laguntza integrala ematen du. Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dago —zehazki, bigarren mailakoei—, baina, eta ez da garrantzi gutxiagokoa, zentro horietako zerbitzuak

zentroen mugetatik harago iristen dira, eta ikasle ohiengana eta prestakuntza ez-arautuaren edo prestakuntza ez-presentzialaren eremuan ikastetxeekin harremanen bat duten instantzietara ere iristen dira. Programa horrek, hasiera-hasieratik, enpresak martxan jartzeko helburua izan du, proiektu bat aurrera eraman nahi zuenak aholkularitza integrala izan zezan, eta, gainera, proiektua abian jartzeko baliabide materialak izan zitzan, hau da, bulego hornituak, bai eta, proiektuaren ezaugarrien arabera, Lanbide Heziketako ikastetxeak lantegiak erabiltzeko aukera ere.

Lanbide Heziketako ikastetxeek lana lortzeko alternatiba gisa enpresak sortzeak ematen dituen aukerei buruz sentsibilizatzea da gakoa; hala, dinamizatze-lana bere gain hartuz, ikastetxeak enpresa-proiektuen tutoretza egitera iristea, eta enpresa-inkubagailu bihurtzea. Helburu horrekin TKNIKAk interesdun ororen esku jarri duen eskuliburuaren edukiei gainbegiratu bat —azalekoa bada ere— egiten badiegu, doinu berriak nabarituko ditugu Euskal Lanbide Heziketa prestakuntzaren ikuspegitik ezaugarritu duen sinfonian, hots, orkestrazio berriak eta soinu-bariazioak. Hala, prestakuntzak jasotzen dituen gaitasunen artean, eta ikasleek hala nahi badute, betiere ikastetxeen laguntza eta parte-hartzea kontuan hartuta, beste gaitasun deigarri batzuk sartzen dira, hala nola arriskuak hartzeko gaitasuna, berrikuntza, proiektuen garapena, aukeren identifikazioa, negozio baten kudeaketa eta abar. (TKNIKA. Urratsbat eskuliburua). Eskuliburuan, prozesu guztia jasotzen da. Hasteko, sentsibilizazio-fase batean, ideia bat sortzen da, eta enpresa-proiektu bihurtzen. Gero, jarraipena egiten zaio. Prozesu hori prestakuntza-sekuentzia oso batekin lotzen da: ekintzaile posibleak erakartzea, haiek prestatzea negozio-plan bat egiteko (sektorearen azterketa, merkatu-azterketa, marketina, antolaketa eta giza baliabideak, finantziazioa,...), eta ekintzailearen berezko gaitasunak garatzea (konfiantza, sormena, komunikazioa, enpresa-ezagutza, lidertza, etab.). Ikastetxetik sentsibilizazio- eta laguntza-lanak errazte aldera, funtzio hori bere gain hartuko duen norbait izango da —zuzendaritzak bere irakasleen artean izendatutako dinamizatzaile bat—. Eskuliburuak, bestalde, zenbait orientazio eta tresna eskaintzen ditu, bai ikaslearen prestakuntzarako, bai haren tutoretza eta jarraipena egiteko, eta hori guztia enpresa-proiektu bat zehaztera bideratuko da. Hona hemen *UrratsBat* programaren eragin-mailaren erakusgarri bat: 2015. urtean, abian jarri eta hamar urtera, baziren 370 enpresa aktibo, gutxi gorabehera, programatik sortuak, taula honetan laburbil daitekeen ibilbide baten ondorioz:

7. Taula

UrratsBaten emaitzak, 2005/2015

UrratsBat	2005/2006tik	2012/2013	2013/2014	2014/2015
Sentsibilizatutako ikasleak	44.557	6.066	7.203	8.339
Tutorizatutako proiektuak	961	6.066	199	222
Sortutako enpresak	450	6.066	74	85
Parte hartutako ikastetxeak		42	45	80

Iturria: Geuk egina. TKNIKAtik jasotako datuak.

Jarduera ekintzailea babestea da *UrratsBat* programaren helburua, eta, «sentsibilizazioa» jasotzen duen ikasle kopurutik harago (Triguero, S., 2015), ikastetxeen parte-hartze handia du. Horregatik, argi eta garbi nabari da EAEko Lanbide Heziketak indarra duela ekintzailetzarako prestakuntzaren arloan. Baina, berriro diogu, ikastetxeetan irakasleek gauzatzen dute apustu hori, ikasleak ekintzailetzaren lurralde horretara hurbilduz prestakuntza-curriculumaren barnean, «Enpresa eta ekimen ekintzailea» moduluan. Hau da, ikasgelaren esparruan, irakaslea da enpresak sortzeko elementu bideratzailea, ikasleak bere ahalmen ekintzailea praktikan jar dezan. Testuinguru horretan kokatu behar da Ikasenpresa programa, *«ikasgeletan eskola-enpresak sortzeko hezkuntza-programa. Proiektu horren helburuen artean daude enpresaren mundua ikasgelara hurbiltzea, gaitasun ekintzaileen garapena sustatzea (sormena, berrikuntza, talde-lana, erabakiak hartzea, ekimena, lidertza, konpromisoa eta erabakimena, negoziazioa, etab.), beste kultura eta gizarte-errealitate batzuetara hurbiltzea bultzatzea eta ikastetxeen arteko lankidetza sustatzea».* Programa horretan —TKNIKAk koordinatzen du—, Lanbide Heziketako ikasleek, Erdi Ziklokoak izan zein Goi Ziklokoak izan, tresna bat aurkituko dute, zeinak, enpresa «erreal» baten antolaketaren bidez58, enpresa bat sortzera bideratutako sekuentziak (administrazioa, marketina, salerosketa…) urratsez urrats errepikatuz, balio izango baitie ekintzailetzak lanerako alternatiba gisa dituen aukerez kontzientzia hartzeko, eta, azken urrats gisa, erreminta horren bidez enpresa hori benetan sortzera irits liteke, *Urratsbat* programara bilduz. Horretarako, beharrezkoa da behar diren gaitasunak esperimentazioaren bidez garatzea (ekinez ekitea), gaitasun espezifikoki teknikoak zeharkako beste batzuekin elkartuz. Beste horiek eskema honetan laburbiltzen dira:

58 Produktua benetakoa da, baina, jakina, ez du esan nahi benetan jarraitutasuna izango duenik.

5. Grafikoa

IKASENPRESA sortzea



Iturria: tknika.eus/cont/proyectos/programa-ikasenpresa-kultura-ekintzailea.

Milaka ikaslek hartu zuten parte programa horretan 2005/2006 ikasturtetik, eta ia mila ikasenpresa sortu ziren. Haietako batzuek jarraipena izan zuten *UrratsBat* programan. Ikastetxe parte-hartzaileak asko eta asko izan ziren, eta gutxi gorabehera mila irakaslek parte hartu zuten programan, aztertu dugun aldian. Alde horretatik, bistan da irakasleek, ikuspegi didaktikotik ere berritzailea den erronka baten aurrean, tresnak behar dituztela modu eraginkorrean aurre egingo badiote. Europako Batzordeak 2013. urtean adierazi zuen bezala, helburu hori lortzeko, beharrezkoa da irakasleek gaitasun sorta zabal bat izatea ekintzailetzaren arloan, eta, horretaz gain, ingurune egokia izatea (Europako Batzordea (2014). TKNIKAk —ez alferrik jasan ditu eremu horretako jardunbide egokien onarpena Batzordearen aldetik— Lanbide Heziketako irakasleei, baita ikasleei ere, gida bat ematen die, *Ikasenpresa eskuliburua*, non, *Ikasenpresaren* markoan garatu behar dituzten helburu eta gaitasunak zehazteaz gainera, prestakuntza-prozesuan jarraitu beharreko urrats guztiak xehatzen baititu. Baina, esan bezala, uste da irakasleek berek garatu behar dituztela gaitasunak ekintzailetzaren arloan. Ez hori bakarrik: azken helburua ikasleak ekintzaileak izatea denez, irakasleak ere ekintzaile izatea nahi da, hau

da, hezkuntza ekintzailearen aldeko apustua egitea —baina ez helburua delako irakasleak bere lana enpresak sortzera bideratzea—, Lanbide Heziketako ikastetxe era berean ekintzaileen markoan.

Irakasleei dagokienez, Laneko Prestakuntza eta Orientabideko irakasleez edo *UrratsBat* programa dinamizatzeaz arduratzen direnez gainera (aurrerago aipatuko ditugu), Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketak izan duen bilakaera ikuspen hori zabaltzera dator, eta lortu nahi du irakasle guztiek parte hartzea ekintzailetzaren kultura deitzen zaion horretan. Eta norabide horretan jarri da martxan *Irekin* programa, ekimen pilotu gisa, aztertutako aldiaren hurrengo aldian[59], *«Euskadiko Lanbide Heziketan Ekosistema Ekintzailea eta Berritzailea»* benetan antolatzera iristeko. Enplegagarritasuna eta ekintzailetza uztartzea, lan-merkatuaren barruko ziurgabetasuna errealitate ukaezina den testuinguru batean. Hori da ikuspen horren ardatz nagusia, eta, horretarako behar den prestakuntzan, irakasleak funtsezko tresna dira; horregatik, prestakuntza-tresnak behar dira, kolektibo hori benetako ekintzailetza-eragile bihur dadin (Gorostiaga, I., 2017). Hala, oraingoan ere TKNIKAren eskutik, *Irekin* diseinatu zen, Lanbide Heziketako irakasleei eskakizun hori betetzen duen prestakuntza-ibilbidea eskaintzeko. Hurrengo taulan laburbil daiteke hori. Zenbait fasetan zehar, puntu hauei heltzen zaie: Lanbide Heziketako ikasleen artean ekimen ekintzailea sustatzearen garrantzia, irakasleek ekonomia eta enpresaren arloko gaitasun nahikoa lor dezaten behar diren oinarrizko nozioak eta jakin beharreko —bai eta diseinatu beharreko— jardunbide egokiak.

4. Laukia

IREKIN

1. Ikasleen artean ekimen ekintzailea sustatzearen garrantzia	Irakaskuntza-metodologia berrien premia	Irakasle ekintzailearen eredua diseinatzea	Ikastetxeetan jarrera ekintzailea garatzeko aukeren azterketa	
2. Ekonomia- eta enpresa-berniza	Lan-mundua	Enpresa-eredu berria	Negozio-eredua eta -plana	Saioa enpresekin eta ekintzaileekin
3. Ikastetxean praktika egokia diseinatzea	Zentro Ekintzailearen eredua	Hezkuntzako jardunbide egokiak	Praktika egoki posible baten diseinua	

Iturria: http://irekinfpeuskadi.com/irekin

[59] Irakasleen, ikastetxeen eta jardunbide egokien inplikazio-maila handia ikusirik, 2016/17 ikasturtea finkatu zen Tknikaren ekintzailetza-arloko programa gisa.

Irekin programak aurreikusten dituen urratsek Lanbide Heziketako ikastetxea dute ekintzailetzako jardunbide egokien gune gisa, non magma ekintzailea borborka hasten baita zenbait ekimen lehiatzen diren lehiaketa baterako deialdia egiten denean. Ekimen horietan, irakasleak dira gako, haiengandik espero baita *«beren gogo bizia eta espiritu ekintzailea kutsatzea»*. Irakasleen lanak ikasleen emaitza arrakastatsuetan duen *«inpaktu handia»* ikusita, Europako Batzordeak, aztertutako aldiaren amaieran, estatu kideei eskatu zien, hezkuntza ekintzailera orientatutako gida jada aipatuan, irakasleen gaitasunen garapena lehentasun *«erabatekoa»* izatea (Europako Batzordea, 2014). Alde horretatik, *Irekin* beste proba bat da, erakusten duena EAEko Lanbide Heziketa gaitasuna duela, jada mende-hasieratik finkatutako ikuspen estrategikoarekin eta hamarkada bat baino gehiagoko esperientzia metatua duela, bere burua etorkizunerako prestatzeko tresnak sortzeko. 2003an, Europako Enpresa-Espirituaren Liburu Berdea argitaratu zen (Europako Erkidegoen Batzordea, 2003), zeinak hezkuntza hartzen baitzuen aurrerabidearen ardatz nagusitzat, eta, urte batzuk geroago, Europan ekimen ekintzaileko hezkuntzarako erreferentziala izan den Osloko Agenda iritsi zen (European Commission/EACEA/Eurydice, 2016). Beraz, irakasleen Etengabeko Prestakuntzaren eremuak gai horri ere heldu behar izan dio. Euskal Autonomia Erkidegoan, TKNIKAk parte-hartze protagonista izan du hartan sortu zenetik, eta *UrratsBat* eta *Ikasenpresa* programetatik pixkanaka finkatuz joan den ibilbidea —lehenago ikusi dugu— osatu du *Irekin* programarekin[60]. Esan genezake hori heldutasun-proba bat dela; horri esker, mendearen bigarren hamarkadaren erdialdeaz geroztik, parte hartu ahal izan du Europar Batasunak finantzatutako IncuVet proiektuan. Proiektu horrek *«Lanbide Heziketako zentroek tokiko eta eskualdeko ekintzailetza-nodo gisa duten funtzioa babestu eta sustatu nahi du»*. Hala, gainera, EAEko Lanbide Heziketak bere jardunbide egokiak hedatu ahal izan ditu eremu berritzaile horretan, bere espiritu berritzailea erakutsiz eremu horretan ere. Ideia horrek, ildo horretatik, berrikuntza-helburuari erantzungo lioke enpresak sortzeari dagokionez, eta, hor, Lanbide Heziketako ikastetxeak laguntza tradizionaleko roletik beste batera pasatuko lirateke, *«aldaketarako lankidetza-prozesu baten buru izateko; prozesu horretan, tokiko agintariek, enpresek, pertsona ekintzaileek, irakasleek eta ikasleek indarrak batuko dituzte elkarrengandik ikasteko, eta ekintzailetza lanbide-heziketan hobeto integratzea lortzeko, eta, hala, eragin positiboa sortzeko hala ikastetxean eta haren ikasleengan nola tokiko ingurunean»*.

---

[60] Martxan jarri denetik, berrogei ikastetxek baino gehiagok hartu dute parte programan, eta, prozesu horretan, ehun irakaslek baino gehiagok Irekin prestakuntza jaso dute zuzenean, jardunbide egokien lehiaketetan parte hartzeaz gainera. Lehiaketara aurkeztu diren ia ehun jardunbide egokietatik, erdiak baino gehiago *Irekinen* diseinatu dira.

Lanbide Heziketako ikastetxeek lidergo-gaitasun hori izan dezaketela ulertzea ibilbide historiko finkatu baten ondorioa da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren ekosistema ekintzailea deitzen ari garena eratu izanaren emaitza da. Ibilbide hori, aipatutako programez gainera, beste programa batekin indartu da, nahiz eta programa horrek bide laburra izan duen, beste batzuen aldean: *MAE (Ekintzaileari Laguntzeko Metodologia)*. Programa hori *Irekin* baino lehenagokoa, eta horrek azalduko luke zergatik abiatu zen *Irekin* hain indartsu. Hau zen *MAE*ren helburua: *UrratsBateko* dinamizatzaileei urteetan izandako esperientziari buruzko beharrezko prestakuntza eta eguneratzea ematea. Dinamizatzaile horiek hartzen duten laguntza-zereginean, 2011tik aurrera, *MAE*k laguntza hori eraginkorrago bihurtzeko baliabide teknikoak eta tresnak eman zituen, eta dinamizatzaile gisa parte hartzen duten irakasleei arma bat eman zien, funtsezkoa izan dena *UrratsBat* sendotzeko eta jarraitutasuna emateko. Hitz gutxitan esanda, sentsibilizazioaren, jarraipenaren, dibulgazioaren, harreraren, laguntzaren eta proiektu «abiaraztearen» arloetan gaitasunak lortzera bideratuta dago programa, eta UrratsBaten eskuliburuan jasota dago.

Lanbide Heziketako ikastetxe publikoek zein pribatuek/itunduek ekintzailetzaren esparruan duten inplikazio-mailaren erakusgarri da Ekingune, *«Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren Ekintzailetzaren Komunitatea»*, eratu izana. Proiektu hori TKNIKAk garatu du, eta, lankidetza-ikuspen batetik, ekintzailetzarekin konprometitutako ikastetxeak biltzen ditu. Komunikazioa zutabe garrantzitsua da aholkularitzarako eta hedapenerako, eta, alde horretatik, *Ekingunek* lankidetza-sare oso bat eratu du, non, aipatu ditugun programez gainera, beste ekimen osagarri batzuk ere sartzen dira, aipatzen ari garen ekosistemaren indargarri. Hala, *UrratsBatetik* sortutako enpresak biltzeko ideiarekin, etorkizunean ekintzaile berriek hasitako proiektuei laguntza eman diezaieten eta, are gehiago, sortu nahi den harreman horri esker nork bereak indartu ditzan, *Urratsbat Enpresen COP*a (Praktika Komunitatea) proiektua egituratu zen. Hala, partekatzeko eta sortzeko, aliantzak eratuz, tresna bat sortu da, non ehunka enpresak (ia 370 aztertutako aldian) itzultzen baitute, ekintzailetza etengabe pizteko ikuspen estrategikoaren esparruan, azkenik gauzatzera iritsi zen proiektu hura bultzatzeko jasotako laguntza. Gainera, *Urratsbat Sarea*ren inguruan bilduta, *«enpresa-komunitate»* bat eratu da, eta, sareko lana eginez, esperientziak trukatzen dira edo proiektu berrietan parte hartzen da, ekintzailetza-erreferentzia gisa proiektatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren esparruan, ekintzailetzaren agertokia osatzen dute ikerketak eta berrikuntzak, haren norabidea zuzentzen duten printzipio gidari gisa. Berrikuntza, ekintzailetzaren ikuspegitik, ekintzailetza berritzailean islatzen da.

Alegia, enpresak zentzu zabalean sortzeaz haraindi —non, nolanahi ere, lankidetza berrikuntza-indar gisa agertzen baita (Triguero, S., 2017)—, enpresa berritzaileak sortzeko erronkari erantzuten zaio. Euskadiko 2020 Ekintzailetzako Erakunde arteko Planak (Eusko Jaurlaritza, 2017) ekintzailetza berritzailearen garrantzia eta Lanbide Heziketak, besteak beste, bete behar duen funtsezko eginkizunaren garrantzia azpimarratzen ditu; zeregin horretan, Lanbide Heziketa hasia zen lehen urratsak egiten urte batzuk lehenago. *Start-up* izenekoei, hots, teknologia-osagai indartsuko enpresei, aholkularitza eta laguntza emango zaie bultzatu nahi den ekintzailetzaren bidean; hori da, hain zuzen, euskal Lanbide Heziketa, aztertu dugun aldiaren amaieran, abian jartzen saiatu den ekimen berritzaileenetako bat. Beste hainbeste esan daiteke Zentro Ekintzaile deituko deituko zaionari emandako bultzadari buruz; hau da, ikerketa aplikatuaren ikuspegitik, *«Euskadiko Lanbide Heziketari Euskadiko Lanbide Heziketako ekintzailetzaren etorkizuneko estrategia "marrazteko" aukera ematen diona»* (Triguero, S., 2015). Ikerketa eta berrikuntza, azken batean, funtsezko elementuak dira, haien inguruan ardazten baita aurreikusi ezineko irispideko eraldaketa teknologiko, ekonomiko eta merkatukoak ezartzen duen aurrea hartzeko erantzuna. Lurralde ezegonkor hori zeharkatu behar du espiritu eta proiektu ekintzaile orok, eta hor hartzen du esanahia Adimen Lehiakorraren proiektuak ere. Proiektu horrek ikastetxe parte-hartzaile ugari ditu 2013tik aurrera (25 ikastetxe, publikoak eta pribatuak/itunduak, hiru urteko epean bakarrik), eta Euskadiko Lanbide Heziketaren bilakaeraren beste oinarrietako bat ezarri du (Triguero, S., 2016).

3.10. **Nazioartekotzea: berrikuntzaren erronka eta horizontea**

Nazioartekotzea euskal ereduaren ardatz bereizgarrietako bat da: laugarren ardatza da, berrikuntza, sorkuntza eta ekintzailetzarekin batera. Jose Luis Fernández Maurek, prozesu osoaren bultzatzaile nagusietako batek, dioen moduan, 80ko hamarkadatik aurrera, urratsez urrats eboluzionatu du ardatz horrek «urratsez urrats, askotan espero gabeak»[61]; aldeen artean sendotuz joan diren harremanetatik abiatuta, eta lankidetza —eta partaidetza— agertoki berriak zabaltzeko aukera emanez.

Sailburuordetzaren hezkuntza-politikako plan eta estrategietan jasotako dimentsio estrategikora hurbiltzeak —liburuaren bigarren kapituluan egin da azterketa hori— balio dezake lehen ideia bat emateko arloak hartu duen garrantziari buruz eta euskal Lanbide

[61] José Luis Fernández Maureri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko martxoaren 12a.

Heziketaren sistemaren barruan nazioartekotzera bideratutako ekintzei buruz. Ikus daiteke jada Lanbide Heziketako III. Euskal Planak bere eremu estrategikoen artean jasotzen duela «etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna LHn gauzatzea». Kasu honetan, esparruan aurreikusten diren bost ekintzetatik bat nazioartekotzearen arloarekin zuzenean lotuta dago, eta, batez ere, «Mugikortasun-programak sustatzea» du ardatz. Euskadi 2015 Agenda Estrategikotik abiatu zen, esplizituki, Agendak ezarritako helburuen barruan, LHn nazioartekotzearen eremua bultzatzeko apustua, bai eta eremua zabaltzekoa ere, batez ere Lanbide Heziketaren eta Enpresaren arteko harremana bultzatuz tokiko eskualdeko eta probintziako muga geografikoetatik harago. Jauzi kualitatiboa izan zen nazioartekotzeari aurre egiteko moduan. Lehentasun hauek ezarri ziren: Lanbide Heziketak beste herrialde batzuetan instalazioak dituzten euskal enpresei laguntzeko behar diren prozesuak aztertu, planifikatu eta ezartzea, eta ikasleen nazioarteko esperientzia sustatzea atzerrian, EAEn egoitza nagusia izanda beste herrialdeetan ere kokatuta dauden enpresetan praktikak eginez.

Agendaren asmo handiko espirituari jarraituz, Lanbide Heziketako IV. Euskal Planak «Nazioartekotzearen» arloa bost eremu estrategikoen barnean sartu zuen; hala, pisu espezifiko garrantzitsua eman zion Sailburuordetzaren egitura estrategikoan. Kasu honetan, Lanbide Heziketako euskal sistema nazioartean hedatu eta zabaltzeko estrategiaren alde egin zen, eta, horretarako, hiru ekintza garrantzitsu bultzatu ziren: euskal enpresek nazioartera zabaldu ahal izateko dituzten prestakuntza eta berrikuntzapremiei erantzutea; irakasleen eta ikasleen mugikortasuna bultzatzea eta LHko euskal sistemaren balioa nazioartean ezagutaraztea. V. Euskal Planak ere nazioartekotze-eremua jaso du bere eremu estrategikoetan, baina haren pisu espezifikoa diluituxeagoa gelditu zen bederatzi eremuko multzo baten barnean.

Gainerako eremuekin gertatzen den bezala, nazioartekotzearen arloak aipatutako estrategia eta planetan betetzen duen lekuak etorkizunean landu nahi diren lan-ildoak adierazten ditu, baina, horretaz gainera, bada Lanbide Heziketako irakasleek egin duten aldez aurreko lanaren isla ere; lan hori funtsezkoa da, haren gainean diseinatu baitira gidalerro horiek. Jorge Arévalo Lanbide Heziketako sailburuordearen esaldietako bat jaso dugu, oso ondo laburbiltzen baitu bilakaera hori guztia gidatu duen helburua: «nazioartekotzearekin, ikasi egin nahi genuen, geure burua neurtu eta ezagut gaitzaten nahi genuen»[62].

Ikus dezagun, jarraian, zein izan diren prozesu honen ezaugarri izan den dinamikaren mugarri eta giltzarri garrantzitsuenak, aztergai dugun al-

[62] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

dia kontuan hartuta eta eboluzioaren ikuspegitik. Alde horretatik, argigarria izan daiteke hiru fase edo une bereiztea, alorrak jaso duen bultzada motaren arabera. Fase bakoitzak lehenago hasitako prozesuen osagarri eta hobekuntza diren ekintza eta estrategia batzuk ditu ezaugarri. Hala, lehenengo fasean, ikastetxeek nazioarteko lankidetzan egindako lehen esperientziak ditugu, batez ere, ikasleen mugikortasunari dagokionez, Europako lehen programen bidez; bigarren fasean, ikastetxeek Europako mugikortasun-programetan parte hartzea finkatzeko prozesua da ezaugarri nagusia; eta hirugarren fasearen ezaugarria nazioartekotzearen eremuaren zabalkuntza da, bai ikuspuntu geografikotik, bai bultzatutako nazioarteko lankidetza moten ikuspegitik.

3.10.1. *Europako programetan parte hartzeko lehen esperientziak, batez ere estatuz haraindiko mugikortasunari buruzkoak.*

Gogora dezagun Europar Batasuneko 12 herrialdeetako Kanpo Arazoetako ministroek, Maastrichten 1991n lortutako akordioaren ondoren, 1992an Batasunaren Tratatua sinatu zutenean abiatu zela hezkuntza-arloko Europako politika erkidea; hasieran, prestakuntzaren dimentsio europarra mugikortasunean oinarritu zen (Homs, 2008). Horri dagokionez, komeni da hemen jasotzea Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, 2000. urtean, ikasleen, prestatzen ari diren pertsonen, boluntario gazteen, irakasleen eta hezitzaileen Europako Erkidegoko mugikortasunari buruz egindako gomendioak (Escribano, 2012):

— Neurri egokiak har ditzatela beste estatu kide batean ikasketa-ziklo bat, prestakuntza-aldi bat, boluntario-jarduera bat, irakaskuntza —edo prestakuntza— jarduera bat, bai Batasunaren programen esparruan, bai programa horietatik kanpo, beste estatu kide batean hasi nahi duten pertsonen mugikortasuna errazteko, murrizketarik gabe. Neurri horiek (...) hizkuntzen ikaskuntza bultzatu beharko lukete, hizkuntza ez jakitea mugikortasunerako oztopo garrantzitsua baita (...).
— Beharrezko neurriak har ditzatela interesdunek aukera izan dezaten intereseko inguruneetan, batez ere beren jatorriko herrialdeko ingurune akademiko eta profesionaletan, harrera-estatuan lortutako mugikortasun-esperientzia erakusteko (...).

Lehenago, 1980ko hamarkadan, zenbait programa onartu ziren Europako Erkidegoan, hala nola Comett (1986) programa prestakuntzaren arloan, Erasmus (1987) hezkuntzaren arloan, eta Gazteak Europarekin (1988) programa, gazteei zuzendua. Ondoren, unibertsitateen arteko ikasle-trukerako, Sokrates (1995), Tempus (1990) eta Lingua (1990) programak sortu ziren. Lanbide Heziketarako edo tituludun be-

rrien lanbide-praktiketarako programen barruan, bestalde, hauek hartu zuten garrantzia: arestian aipatutako Comett programa[63], teknologien arloan unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetza indartzeko; Petra programa (1988), gazteak lanbide-heziketarako eta helduarorako eta arlo profesionalerako prestatzeko; eta Leonardo Da Vinci programa (1995), zeinaren helburua baita Europako hezkuntza-esparru bat sortzea, hezkuntzaren eta bizi osoan zeharreko prestakuntzaren garapenari laguntzeko eta lanbide-heziketarekin erlazioa duten pertsonen lankidetza sendotzeko Europan. Aztergai dugun aldian, hezkuntzako mugikortasunaren arloan beste bi berrantolaketa garrantzitsu ere izan dira. 2007/2013 aldirako, Etengabeko Ikaskuntzako Programa jarri zen martxan, eta han sartu ziren aurretik hasitako ekintzak, hau da, Leonardo eta Erasmus programak, bai eta Comenius, Grundtvig, Zeharkako Programa eta Jean Monnet ere. Bigarren berregituratzea Erasmus+ programa abiatzea izan zen, 2014/2020 aldirako. Programa horretan, Lanbide Heziketari dagokionez, bi azpiprograma integratu ziren: bata Goi Mailako Hezkuntzara, Goi Mailako LHra, LH Dualera eta abarretara zuzendua; eta bestea LHko Maila Ertaineko graduetara, Oinarrizko LHra eta abarretara zuzendua.

EAEren kasuan, Europako programa horietan parte hartzeko lehenengo saiakera Comett programan sartzea izan zen, MGEP (Mondragon Goi Eskola Politeknikoa) ikastetxearen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta[64]. Hala hasi zen Europako Erkidegoak ikasleen prestakuntza praktikoa enpresetan eta mugikortasunean egitea sustatzeko finantzatutako programetan parte hartzeko ibilbidea. Hon hemen hasiera horien dimentsioari buruzko ideia eman dezakeen datuetako bat: adibidez, Comett II[65] programaren barruan, EAEk 3,28 milioi ecu jaso zituen 1990/1994 aldian Europaren laguntzarekin egindako 23 proiektuentzat. Laguntza horien zatirik handiena ikasleen mugikortasunerako erabili zen, eta alderdi hori funtsezkotzat jo zen «Europako eskualdeen arteko harremanak errazteko, eta, kasu honetan, Euskadin azken urteetan egin diren ikerketa —eta garapen— jarduerek izan duten hazkunde garrantzitsua are gehiago bultzatzeko» (Nieto eta Utrilla de la Hoz, 1998).

---

[63] Comett I programa 1986. urtean abiatu zen, unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetza indartzeko teknologien arloan.

[64] Joseba Amondaraini egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 28a.

[65] Comett programaren barnean, prestakuntzarako 15 unibertsitate-enpresa elkarte eratu ziren Espainian, haietako 15 eskualdekoak eta 4 sektorekoak. Katalunia, Euskadi, Valentzia, Andaluzia, Asturias eta Madrilgo erkidegoek hartu zuten parte programa horren garapenean.

Horrekin batera, Europako Kontseiluak Petra I ekintza-programa jarri zuen martxan 1987. urtean, gazteak helduarorako eta arlo profesionalerako prestatzeko. Hasiera batean bost urterako hartu zen programa hori, baina 1994ra arte luzatu zen. Azken tarte horretan, ikastetxe jakin batzuk, beren aldetik, zituzten harreman eta baliabideak erabiliz, eskainitako mugikortasun-bekak jasotzen hasi ziren. 1993/1996 aldian, Ikaslaneko lau institutuk hartu zuten parte Petra programan, eta, kalkuluen arabera, zenbait lanbide-arlotako 100 bat ikaslek egin zituzten praktikak Europako enpresetan (Elola, 2004).

Gure elkarrizketatuetako batek Elgoibarko ikastetxeari buruz esandakoa jaso dugu, hasierako parte-hartze partikular horren adibide argigarri gisa. 1992an, eskola horrek ikasleentzako mugikortasun-proiektu bat aurkeztu zuen, batez ere krisi ekonomikoaren giroak bultzatuta, ikasleek lana aurkitzeko zailtasunak baitzituzten —gehienbat krisiak gogor jota zegoen makina-erremintaren sektorean—. Petra programako «langile gazteak» atala erabiliz, ikastetxe horretako zenbait ikasle talde atzerrian praktikak egitera bidali ziren ikasketak amaitu ondoren. Zehazki, proiektu horretan sei hilabete eman behar zituzten Manchesterko City College-n enpresa-praktikak egiten. Kasu horretan, Espainiako Kanpo Arazoetako Ministerioak kofinantzatu zuen, ikasle horiek emigrante gisa hartu baitzuten parte programa horretan, eta «langile gazte» eta «etorkin» gisa egin zituzten praktikan enpresan. Lehen esperientzia horretatik aurrera, Petra programan parte hartzea sendotuz joan zen, eta Administrazio arloko ikasketak egindako sei pertsona bidali ziren urtero Manchester City College-ra. Pixkanaka, parte hartzen zuten titulazioak ugarituz joan ziren (Osasunaren eta Ingurumen Osasunaren sektoreko beste 6 pertsona gehiago), eta kontaktu kopurua ere handituz joan zen, «elur-bolaren» formatuari jarraituz, jada kontaktatuta zeuden pertsonak abiapuntu izanik; hala, mugikortasun-programetan parte hartzeko herrialde eta ikastetxeen kopurua handituz joan zen: Manchester, Eskozia, Finlandia, etab.[66].

Elgoibarko ikastetxearen kasua LHko ikastetxe askotan izan den bilakaeraren kasu paradigmatikoa da. Han, irakasleen eta ikastetxearen ekimenez eta haien nekaezintasunaren ondorioz, ikasleek mugikortasun-proiektuetan parte-hartzea pixkanaka bultzatuz joateko dinamika bat finkatu da. Elgoibarko ikastetxearen kasua garrantzitsua da, ikastetxe horretako truke-programak sustatu zituen irakasleetako bat, José Luis Fernández Maure, erreferente bihurtu baita euskal LHren nazioartekotze-politikaren garapenean.

---

[66] José Luis Fernández Maureri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko martxoaren 12a.

Testuinguru ia familiar horretan, ikastetxeen arteko koordinaziorako lehen urratsak egiten hasi ziren nazioartekotzearen arloan. 1994/1999 denboraldian, Leonardo programa abian jarri ondoren, Elgoibarko ikastetxearen inguruan koordinazio-prozesu bat hasi zen, mugikortasun-programak garatzeko. Prozesu horretan, 5/6 bat ikastetxek parte hartu zuten, bazkideak, herrialdeak, programetara aurkezteko prozedurei buruzko informazio-trukea eta abar partekatuz. Hala, beren proiektua garatu zuten, modu koordinatuan, eta, hortik abiatuta, ikasleak atzerriko lantokietan hiru hilabetez curriculum-praktikak egitera bidaltzen hasi ziren. Harrerako herrialdeak, une horretan, Italia, Finlandia, Ingalaterra eta Eskozia ziren, eta lanbide-arlo hauek hartzen zuten parte, industria-sektoreaz gainera: administrazioa, ingurumen-osasuna, automobilgintza eta erizaintzako laguntzaileak. Bide horretatik 12 ikasle inguru bidali ziren ikastetxe bakoitzeko, urtean 72 ikasle inguru[67].

Comett II programen barnean, Confebask euskal enpresa-konfederazioak ere ekin zion mugikortasunari, eta prestakuntzarako unibertsitate-enpresa elkarte proiektuetan lagundu zuen (AUEF Euskal Herria izenekoa)[68]. 1996. urtean, Leonardo Mugikortasun Proiektuen Sustatzaile gisa hasi zen unibertsitario gazteentzako proiektu batekin, eta, ondoren, 1998. urtean, Agentziak erakunde horretako Lanbide Heziketako ikasleentzako lehen proiektua onartu zuen.

Hala, Confebaskek hasitako sustatze-lanarekin batera, mugikortasun-programak kudeatzeko/sustatzeko beste eredu bat irekiz joan zen, LHko ikastetxeetan zentratuta. Bi ereduek oso garapen eta bilakaera desberdina izan zuten aztertutako aldian. Prestakuntza nazioartekotzeko kultura berri hastapenak ziren. Artean, ez zitzaion garrantzi handirik ematen atzerriko hizkuntza bat ikasteari, eta ez zegoen oso argi horrek zer aukera zabalduko zizkien ikasleei eta ikastetxeari. Zehazki, atzerriko hizkuntzaren bat menderatzea LHko arazo/defizit errepikatu bat izango da aztertutako aldi osoan. Ikuspegi kuantitatibotik, EAEko ikastetxeek/ikasleek mugikortasun-programa horietan izan zuten presentzia ez da oso adierazgarria, baina, kualitatiboki, lehen esperientzia horiek aurrerapauso handia izan ziren: izan ere, estrategia bat eraikitzeko lehen harria izan ziren, gero egituran, iraunkortasunean eta sendotasunean haziz joango dena.

---

[67] José Luis Fernández Maureri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko martxoaren 12a.

[68] «AUEF. Euskal Herria» elkartearen helburua Cometten helburuak eskualdean sustatzea izan zen, batez ere atzerrira bidalitako ikasle kopurua handituz eta sektore teknologiko garrantzitsuetako proiektuak koordinatuz.

3.10.2. *Europako mugikortasun-programak sendotzea LHko euskal ikastetxeetan*

90eko hamarkadan hasitako ikastetxeen arteko koordinazio-prozesuak beste dimentsio bat hartu zuen 2000. urtetik aurrera, Ikaslan Gipuzkoa Lanbide Heziketako Institutu Publikoetako Zuzendarien Elkartearen esparruan. Elkarteak, modu ofizialean, Europako proiektuetako arduradun baten bidez bideratu zuen mugikortasunaren arloko koordinazioa, eta esparru horretan mugitzen ari ziren ikastetxe publikoak bildu zituen. Hasieran, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 15 bat ikastetxek osatutako talde gisa eratu zen, eta 25 ikastetxe izatera iritsi zen 2004. urtean; taldea astero biltzen zen Leonardo programari lotutako proiektuak prestatu eta garatzeko.

Horrekin batera, irakasleen mugikortasun-proiektuak ere bultzatzen hasi ziren, Leonardo programaren barruan. Elkartearen barnean arlo horren ardura zuenaren hitzetan, «Gura baduzu ikastetxe batek bere harremana edukitzea, pertsona horrek ezagutu egin behar ditu beste ikastetxe batzuk atzerrian, eta berak ikusiko du ere harremana zelan sortu, nola sortu, zer indartu. Hola hasi ginen 2000. urtetik aurrera irakasleak ere bidaltzen». Helburua zen irakasleek eta ikastetxeetako zuzendariek beste esperientzia batzuk ezagutzea, harremanak sendotzea eta, halaber, euskal LHren praktika ezagutaraztea. Ikaslanek eta HETELek mugikortasun mota hori sustatzera bideratu zuten beren ahaleginaren parte bat.

Era berean, Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza berriak (2005), batetik, mugikortasun-programetan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua handitzea sustatu zuen, ordura arte baino askoz mugikortasun-beka gehiago (200) eskainiz, ikastetxe publiko zein pribatuentzat. Ikaslan Gipuzkoak erronka horri ekin zion, HETEL eta AICE elkarteekin batera Leonardo programan parte hartzeko estrategia bateratu baten barnean. Bestetik, aurrekoa bezain helburu garrantzitsua izan zen ikastetxeek nazioarteko harremanen arloan zuten autonomia bultzatzea, beren erreferente eta bazkideak gara ditzaten laguntzea. «Baina oso garbi genuen garai hartan garrantzitsuena zela, fase horretan, ez ikasleak atzerrira bidaltzea baizik eta ikastetxe bakoitzak bere kontaktuak izatea. Pixkana-pixkana garatzen beste estrategia batzuk, desberdinak». Ikastetxeek garatzen zituzten ekimen partikularrak oztopatu gabe, helburua aukera gehiago sustatzea zen, batez ere era horretako aukerarik ez zuten ikastetxeentzat; horretarako, beharrezko harreman-bideak ematen zitzaizkien, beren bekak zuzendu ahal izateko.

Horrek alde handia ezartzen du nagusiki Confebaskek erabilitako kudeaketa —eta sustapen— eredu, esan dezagun, klasikoagoarekiko, mugikortasun-programak egituratzeko ardatzari dagokionez. Eredu berri bat

sustatuko da, batez ere Ikaslan elkarteak gidatua, HETEL eta AICE ikastetxeen beste bi elkarteekin lankidetza estu eta etengabean[69], garbi ikusten baitute ikastetxeek modu globalean bideratu behar dutela nazioartekotza. Hala, ikastetxe mailan nazioartekotzeko estrategia bat eraikitzeko esparru orokorrago baten barruan kokatzen dira mugikortasun-ekintzak Ardatz nagusiak LHko ikastetxeen autonomia eta koordinazioa izango dira. Era horretan, proiektuen kalitate hobea eta baliabideen eta esperientziaren garapenaren kontrol egokiagoa bermatu nahi da.

Tamaina horretako ekintza proaktiboak argi eta garbi islatu ziren bai partzuergoen bidez, bai ikastetxeen beren bidez aurkeztutako proiektuen kopuruan, bai eta mugikortasun-beken onuradunen kopuruan ere, aldi osoan.

8. Taula

Ikaslanek sustatutako proiektu eta onuradunen kopurua, 2001/2005

	2001	2002	2003
Proiektu kopurua	8	16	10
Ikasle kopurua	60	84	120
Harrera-herrialdeen kopurua	4	6	6

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Fernández Maure, 2005.

Goiko taulako datuetan ikusten denez, aurkeztutako proiektuen kopurua, parte hartutako ikasleena eta harrera-herrialdeena handituz joan zen Leonardo programaren ezarpenak aurrera egin ahala, eta kopuruak bikoiztu eta, kasu batzuetan, hirukoiztu ere egin ziren. Programaren lehen urteetako esperientziaren ondoren, hau ondorioztatu zuen Europako mugikortasunerako Ikaslanen arduradunak:

> Ikaslaneko ikastetxeetako LHko ikasleen prestakuntza-maila arlo horretan ondoen garatutako Europako herrialdeek dutenaren antzekoa da. Hori adierazten du enpresetan egin dituzten atazek jasotako aitortzak; ikasleek Leonardo programan parte hartzeko interesa handitu egin da, eta, ondorioz, eskaria asetzea gero eta zailagoa da. Ikaslaneko ikastetxeen inplikazioa eta motibazioa erreferentzia garrantzitsua da Leonardo

[69] Estatuz gaindiko mugikortasuneko testuinguruetan lantokiko prestakuntzarako programa nagusietan parte hartzeaz gainera, elkarteek nazioarteko harremanen arloko beste programa batzuetan hartzen dute parte —askotan, elkarrekin—, hala nola Socrates programan, Global Training beketan, VETPRO beketan eta abarretan.

programan». Ikastetxeen autonomia eta autogestioa sustatzeko helburuarekin bat, programaren azken urteetan «ikastetxeen erdiek baino gehiagok beste herrialde batzuetako enpresetan kalitatezko praktikak bermatzeko moduko bazkideak dituzte.

Bistan da esan daitekeela 2004/2005 ikasturtetik aurrera inflexio-puntu bat dagoela mugikortasun-programa ezartzeko prozesuan. Ikaslanek mugikortasunaren sustatzaile gisa egindako kudeaketaren emaitzen bilakaera hori EAE osoko mugikortasunaren balio orokorretan islatu zen, 11., 12. eta 13. tauletan ikus daitekeen bezala.

9. Taula

Mugikortasun-beken onuradunak. Leonardo Da Vinci programa, 2001/2006

Deialdia	Guztira		Hasierako Lanbide Heziketan dauden gazteak		Langile gazteak eta tituludun berriak		Giza baliabideen arduradunak, prestatzaileak, tutoreak	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
2001	2449	475	1938	374	346	92	165	9
2002	3466	505	2231	444	879	54	356	7
2003	3709	286	2199	192	1287	94	223	0
2004	3500	359	1893	217	1296	138	311	4
2005	4693	849	2411	682	1730	147	552	20
2006	5370	949	2655	669	2064	239	651	41

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* MEC, Estatistika Bulegoa.

Salbuespen bat edo beste izan ezik, nabarmena da hiru kolektiboetan (Hasierako Lanbide Heziketan dauden gazteak, langile gazteak eta tituludun berriak, eta giza baliabideen arduradunak, prestatzaileak eta tutoreak) etengabe hazi dela Estatuaren parte hartzea. EAEren kasuan, hiru eremuetako balioek Estatukoen antzeko hazkunde-erritmoa dute programaren lehen urteetan, baina azken ikasturteetan bikoiztu egin dira.

10. Taula

Mugikortasun-beken onuradunak, Etengabeko Ikaskuntzako Programaren barnean – Leonardo da Vinci, 2007/2013

Deialdia	Guztira		Hasierako Lanbide Heziketan dauden gazteak		Lan-merkatuan dauden pertsonak		Giza baliabideen arduradunak, prestatzaileak, tutoreak	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
2007	4515	113	962	68	2927	45	626	0
2008	4462	528	1129	176	2765	266	568	86
2009	4715	506	743	161	3391	272	581	73
2010	4743	470	1109	183	3306	233	328	54
2011	5219	591	1086	181	3588	265	545	145
2012	5535	638	1474	208	3552	301	509	129
2013	6111	571	2351	193	3251	266	509	112

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* MEC, Estatistika Bulegoa.

Leonardo programan parte hartzeari buruzko datuek EAEko LHko erdi-mailako ikasleen parte-hartzearen balio egonkorrak erakusten dituzte, 200 onuradun inguru urteko. Antzeko balioak daude, halaber, lan-merkatuan dauden pertsonen parte-hartzeari dagokionez, eta aipatzekoa da ikastetxeetako irakasleei eta zuzendaritza-taldeei dagozkien onuradunen kopurua nabarmen handitu dela. Datu horiei gehitu behar zaizkie egitura berriaren barruan Erasmus programaren bidez kudeatzen diren Goi Mailako ikasleen parte-hartzeari dagozkionak (ikus 13. taula).

11. Taula

Goi-mailako LHko ikasleen mugikortasuna, ikasle kopurutan, Etengabeko Ikaskuntzako Programaren barruan (Erasmus), praktikak egiteko, 2008/2014

	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014
Estatua	3006	2161	2737	2850	2739	2973
EAE	639	550	760	707	680	606

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* SEPIE.

Kasu honetan, programan parte hartzen duten LHko Goi Mailako ikasleen mugikortasun handia da daturik aipagarriena, hau da, 600/700 ikasle. LHko hasierako prestakuntzako ikasleen mobilizazio-kopurua nabarmen handitu zen aurreko urteen aldean. Baina, gainera, esan behar da EAEko mugikortasuna, kopuru absolututan, autonomia-erkidego guztietako handiena dela, eta Estatuan kudeatutako mugikortasunaren ia laurdena dela —eta gehiago ere bai, kasu batzuetan—.

Urte horietatik aurrera, Iosune Irazabal Ikaslaneko egungo lehendakariak[70] honela marraztu du ikastetxeen panorama mugikortasuna eta nazioartekotze-estrategia kudeatzeari dagokionez:

> Ikastetxe bakoitza autonomoa da. Esan daiteke ikastetxe guztietan nazioartekotzea garrantzitsua dela eta horretarako arduradun bat dutela. Ikastetxe batzuek beren mugikortasun guztia Ikaslanen bidez kudeatzen dute, beste batzuek ikastetxearen beraren bidez, eta gehienek bi aukerak baliatzen dituzte. Hau da, beka kopuru jakin bat bere aldetik kudeatzen du, eta, gainera, Ikaslanek kudeatzen dituen beketara jotzen du.

Modu hori baliagarria da, halaber, HETELen eta AICEn elkartutako ikastetxe pribatuentzat.

Ildo horretatik, azpimarratu nahi genuke, SEPIEk eskaintzen dituen datuen artean, LHko Euskadiko ikastetxeek, erakunde sustatzaile partikular gisa, parte-hartze maila altua dutela Estatuan. Eta badirudi konstante bat dela 2010/2011 ikasturtetik aurrera. Hona hemen mugikortasun-bekak kudeatzeko orduan ikastetxeek duten gaitasuna eta autonomia erakusten duen beste datu bat: EAEko 120 bat ikastetxek (LHII, BHI eta ikastetxeak) lortu zuten mugikortasun partikularreko Erasmus+ programarako Gutuna, 2014/2023 aldian.

SEPIEren analisi estatistikoetatik jasotzea merezi duen beste alderdi bat ikastetxeek eta partzuergoek beka horien sustapenean izan zuten garrantziari buruzko datuak dira. Erakunde horren arabera:

> 2010/11n Espainiak jarraitu zuen partzuergo gehien kudeatzen (21), hurrengoak Frantzia eta Alemania izanik (14 bakoitzak), eta Espainiako partzuergoek jarraitu zuten goi-mailako irakaskuntzako erakunde parte-hartzaile gehien izaten (266). Hala ere, partzuergo bidez kudeatutako mugikortasun-bolumenari dagokionez, Espainia, 1.469 mugikortasun-kasurekin, bigarren lekuan dago Alemaniaren atzetik (2.170). Partzuergo bidez antolatutako mugikortasun-kasuak ikasleen praktiketarako mugikortasun-kasu guztien % 31 izan ziren 2010/11

[70] Iosune Irazabali egindako elkarrizketa, Bergara, 2019ko azaroaren 25a.

> ikasturtean; ehuneko hori Europako batez bestekoa (% 14) baino askoz handiagoa izan zen. Autonomia-erkidegoka, Euskal Autonomia Erkidegoko partzuergoek izan zituzten mugikortasun-kasu gehienak partzuergo bidez kudeatutako mugikortasun-kasu guztiekiko (% 36); hurrengoak Andaluzia (% 14), Gaztela eta Leon (% 12) eta Katalunia (% 12) izan ziren.

Era berean, 2011/2012 ikasturterako, azpimarratzen da erakunde askok parte hartzen dutela eta partzuergoek pisua hartzen dutela:

> Ikasleen praktiketarako mugikortasunean parte hartzeko bideak autonomia-erkidegoka aztertuz gero, ikusten dugu erakunde parte-hartzaile gehienak izan zituzten erkidegoak hauek izan zirela: Euskal Autonomia Erkidegoa (89), Madrilgo Erkidegoa (77), Andaluzia (70), Gaztela eta Leon (62) eta Valentziako Erkidegoa (60). Haietako hirutan, erakunde kopuru handia bat dator partzuergoak izatearekin (Euskal Autonomia Erkidegoa, Gaztela eta Leon eta Andaluzia); beste bietan, berriz, partzuergo bidez parte hartzen duten erakundeen kopurua oso txikia da, eta instituzioek antolatzen dituzte praktiketarako mugikortasun-kasu ia guztiak. 2011/12an Espainiak jarraitu zuen partzuergo kopururik handiena kudeatzen Europan (23), hurrengoak Frantzia (19) eta Alemania (14) izanik, eta Espainiako partzuergoek jarraitu zuten goi-mailako irakaskuntzako erakunde parte-hartzaile kopururik handiena izaten (290). Hala ere, partzuergo bidez kudeatutako mugikortasun-bolumenari dagokionez, Espainia, 1.375 mugikortasun-kasurekin, hirugarren tokian dago, Alemaniaren eta Frantziaren atzetik (2.373 eta 1.745, hurrenez hurren).

Euskadiko Lanbide Heziketaren esparruan, mugikortasun-beken partzuergo sustatzaile nagusiak Confebask erakundea eta Ikaslan, HETEL eta AICE elkarteak izan ziren. Haietatik, Ikaslanek kudeatu zuen mugikortasun-kasu kopururik handiena. Horren erakusgarri dira SEPIEk 2007-2008 ikasturterako emandako datuak, partzuergo bidez kudeatutako mugikortasun-kasuei buruzkoak: Confebask, 94 mugikortasun-kasu (LH artistikoa 4, LH 81, Mistoa 9), Ikaslan, 144 (LH 139, Mistoa 5), HETEL 63 (LH 50, Mistoa 13), AICE 18 (guztiak LHri dagozkionak).

Mugikortasun-beken onuradunen kopuruak ez ezik, harrera-herrialdeen eta proiektu horietan lankide diren bazkideen kopuruak ere gora egin zuen. Ikaslanek 2014/2015 ikasturterako emandako datuak baliagarriak dira erakusteko zein diren EAEko LHko ikasleak hartu eta hartzen dituzten Europako herrialdeak.

12. Taula

Erasmus + mugikortasun-programan parte hartu duten Ikaslan LHko ikastetxeetako ikasle kopurua harrera-herrialdeen arabera, 2014/2015 ikasturtea[71]

Herrialdeak	Ikaslan	Herrialdeak	Ikaslan
Finlandia	1	Bulgaria	7
Herbehereak	1	Portugal	21
Norvegia	1	Malta	18
Errumania	1	Erresuma Batua	28
Frantzia	6	Polonia	49
Alemania	5	Italia	79
Irlanda	10	Danimarka	2
Txekiar Errepublika	6	Grezia	1
Austria	11		
GUZTIRA			247

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Fidalgo, 2015.

2015ean, Ikaslanek 17 harrera-herrialde eta Europako 50 bazkide baino gehiago zituen, eta ingurune geografiko eta sektorial zabala betetzen zuten. Ikaslan Mobility koordinatzailearen hitzetan, «praktikak ikaslearen profil profesionalerako egokienak izango direla ziurtatzeko».

Nazioarteko harremanak ezartzen eta Europako bazkideak bilatzen lagundu duen elementuetako bat, besteak beste, nazioarteko elkarteetan parte hartzea izan da. Adibidez, EFVETen (European Forum of Vocational Education and Training) parte hartzea. 1999/2000 ikasturtetik aurrera, Ikaslan Gipuzkoa, lanbide-heziketako ikastetxeen elkarte gisa, foro horretako bazkide izan da. HETEL ere EFVETeko bazkidea da 2002tik. Sare horretan parte hartzeak harreman sorta zabala ireki zuen, eta ikasle eta irakasleak trukatzeko eta mugikortasun-proiektuetan parte hartzeko aukerak zabaldu zituen. Finlandia, Danimarka, Ingalaterra, Italia, Portugal, Alemania eta Herbehereekiko harremanak sendotuz joan ziren, eta foro garrantzitsua izan da Euskadiko LH ezagutarazteko eta Europan aintzakotzat hartua izaten hasteko.

Mugikortasun-mailen azterketa amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi, halaber, bidean izan zituzten zailtasunak edo oztopoak. Hasieratik azpima-

[71] Ikaslan elkarteko LHko ikastetxe publikoetan 247 parte-hartzaile daude guztira; haietatik 90 KA120 ekintzaren barnean daude, eta 157, berriz, KA102 ekintzaren barnean (Goi Maila).

rratzen den oztopoetako bat atzerriko hizkuntzen jakite-maila da, ez soilik ikasleen aldetik, baita irakasleen eta ikastetxeko langileen aldetik ere. Horrek ikastetxeen defizit bat eragin du, ikasle eta irakasle atzerritarren ikastetxe hartzaile diren aldetik, HETELeko lehendakari Julen Elgetak dioen moduan:

> Nazioartekotzea ez da hemengo ikasleak Europara joatea bakarrik, bada hartzailea izatea ere. Beste batzuk hona etortzea. Horregatik datoz Txile, Mexiko, Namibia Austria, Polonia eta abarretatik. Baina, hemen, ingelesarekin arazo handia dago. Asko dago egiteko. Ez gara herrialde hartzailea, ez dugu jasotzeko pentsamolderik, dela ez dugulako hizkuntza menderatzen, ingelesa, dela azpiegitura logistikorik ez dugulako. Kultura asko falta zaigu eta asko dugu ikasteko[72].

Hizkuntzaz gainera, bada beste alderdi bat, izaera sozialagoa duena, elkarrizketatuen arabera nazioartekotzea moteltzeko faktore izan daitekeena: enplegu betea izatea. LHko ikasleek, gaur egun, enplegagarritasun-maila handia dute: Lantokiko Prestakuntza (LP) beren lurraldean egiten dute, eta gero enpresa berean lanean jarraitzen dute, eta badirudi hori balazta bat dela lurraldetik kanpora ateratzea erabakitzeko orduan, «Zertarako joango da atzerrira?» esango digute[73]. Alde horretatik, prestakuntza duala mugikortasunerako oztopo gisa ikusten da; izan ere, dirudienez, «dualaren hazkundeak atzerriko enpresetan egindako egonaldien kopurua murriztea ekarri du»[74].

Hobetu daitezkeen alderdi horietaz gainera, aztertutako datuek adierazten dute nazioarteko mugikortasun-programak EAEko LHko ikastetxeen irakaskuntza-kulturan integratzea eta finkatzea lortu dutela, modu orokorrean. Datu horiek agerian uzten duten eragin kuantitatiboak justifikatuko luke baieztapen hori. Baina hori bezain garrantzitsua da azpimarratzea izaera eta tamaina horretako proiektu batek balio kualitatiboa duela, prestakuntza —eta berrikuntza— balioa duela. Alde horretatik, nazioartekotzea balio erantsia da prestakuntza-proiektuaren helburu nagusiarentzat. Hau da helburu hori (Ikaslanen proposamena jaso dugu berriro): «Hasierako Prestakuntza jarraitzen duten gazteen trebetasunak eta gaitasunak txandakako ibilbide baten bidez hobetzea, lanbideratzeko eta birlaneratzeko gaitasuna sustatu eta bultzatzeko». Mugikortasun proiektuak premia orokor batzuk bete nahi ditu:

---

[72] Julen Elgetari egindako elkarrizketa, Durango, 2019ko uztailaren 12a.

[73] José Maria Elolari egindako elkarrizketa, Tolosa, 2018ko uztailaren 9a.

[74] Julen Elgetari egindako elkarrizketa, Durango, 2019ko uztailaren 12a.

— Hezkuntza-eskaintza gazteen itxaropenetara eta lan-merkatuaren premietara egokitzea, gazteak ekoizpen-merkatuan sartzea errazteko metodo gisa.
— Teknologia —eta ekoizpen— aldaketa berriei eraginkortasunez erantzutea, prestakuntza eguneratu baten bidez.
— Ekoizpen-ingurunearen (batez ere ETEen) eta hezkuntza-ingurunearen arteko harremanak estutzea, gaitasunak eguneratzea eta gaitasunak aldizka baliozkotzea erraztuko digun interakzioa lortzeko eta sortzen diren premiei erantzuteko.
— EBko LHko ikastetxeen arteko elkartzea eta lankidetza sustatzea.
— Lanbide Heziketako ikastetxeak nazioarteko proiektuen garapenean inplikatzea.
— EBko beste hizkuntza batzuk ikasteko motibazioa areagotzea.

Era berean, sektore —eta eskualde— premia batzuei erantzun nahi zaie, euskal ekonomiaren sektore estrategikoekin zerikusia duten lanbide-arloei lehentasuna emanez, hala nola: Ibilgailu Autopropultsatuen Mantentze-lanak; Elektrizitatea, Elektronika eta Telekomunikazioak, Fabrikazio Mekanikoa, Kimika, Informatika, Ekoizpenaren Mantentze-lanak eta Zerbitzuak eta Turismoa. Kontuan hartuko dira, halaber, etengabe garatzen ari diren beste sektore batzuk, hala nola: Arte Grafikoak, Irudia eta Soinua, Administrazioa, Ingurumen-osasuna eta Osasuna. Sektore horietan guztietan, proiektuak erantzuna eman nahi die premia hauei:

— Sektore guztietan sortutako berrikuntza eta garapen teknologikora egokitzea.
— Prestakuntza-ikastetxeak eta enpresak, bereziki ETEak, hurbiltzea.
— Enpresetan behar den espezializaziorako joerara egokitzea.
— Lan-aukera zabalak eta aldaketei aurre egiteko gaitasuna ematea.
— Langilea talde-lanean integratzea lortzea.
— Erantzukizunak hartzea edo langileen autonomia pertsonala garatzea erraztea, lan-merkatuaren premiei modu eraginkorragoan erantzuteko.
— Beste herrialde batzuetako ekoizpen-prozesuak ezagutzea, norberarenak ahal den neurrian hobetzeko eta, gainera, teknologien eta prozesuen trukea errazteko.
— Enpresako praktikak hobetzea, kalitate-kontroleko sistema baten bidez.
— LHren kalitatea hobetzea, gazteen artean sektore horietako LHko ikasketetara hurbiltzeko motibazioa areagotzeko metodo gisa.
— Ikaslanek sustatzen duen mugikortasun-estrategiaren berri ematea sindikatuei, bai eta Europa osoan norabide berean egiten ari diren urratsen berri ere.
— Etengabeko hobekuntzarako estrategiak garatzea, EBko herrialde guztietako bazkideekin lankidetzan arituz.

— Europass Prestakuntza ziurtagiriaren bidez, gazteei ekoizpen-sisteman sartzen laguntzea.

Azken finean, sustatu eta bultzatu nahi den esperientziaren eraginak maila batean baino gehiagotan nabarituko den balioa izango du, batez ere integratzailea delako eta lurralde-dimentsioa duelako:

— Europass ziurtagiria lortzen duten ikasleen emaitza gisa, Lantokiko Prestakuntza modulua baliozkotzen duen Ikaslanen ziurtagiriaz gainera.
— Sektore mailako eragina: sektoreko enpresek badute Leonardo programaren inguruan egindako jardueraren berri, eta egindako lana oso positibotzat jotzen dute. Beste herrialde batzuetako gazteak atseginez hartzen dituzte.
— Bazkide-sarea handitzea
— Eskualde mailako eragina: LH nazioartekotzeko plan estrategiko baten zati da proiektua, eta hartan parte hartzen dute EAEko LHko ikastetxe guztiek, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundiek, irakaskuntza-sektorean ordezkaritza duten sindikatuek eta EJko Hezkuntza Saileko Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzak.

Mugikortasun-esperientziaren dimentsioa, eragina eta kalitatea neurtzeko orduan, ezinbestekoa dirudi gorago aipatutako bi alderdiren garrantzia azpimarratzea, konstante bat baitira XXI. mendeko EAEko LHren ibilbidean eta haiek gabe nekez uler baitaiteke prozesu osoaren bilakaera. Alderdi horietako bat ikastetxeen arteko etengabeko komunikazioa eta lankidetza da, batez ere Ikaslan, HETEL eta AICE ikastetxe-elkarteen bidez gauzatua. Ikaslaneko egungo presidenteak, Iosune Irazabalek, azaltzen duen moduan, talde-lana —elkarlanean egina— eta sare-lana oso tresna baliotsuak izan dira ikastetxeentzat berrikuntza-prozesuei arrakastaz aurre egiteko, bai eta, kasu honetan, nazioartekotzeari ekiteko ere: «Taldean egiten baduzu, aldaketa gehiago egin ditzakezu; nire ustez, sarearen garrantzia hor dago. Aldaketak sarean egitea, eta elkarlanean, askoz errazagoa da, eta indar gehiago dute»[75].

Funtsezko beste alderdia Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa eta proaktibotasuna da (batez ere Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzaren bidez) eta Gipuzkoako, Bizkaiko eta Foru Aldundiena (batez ere berrikuntzarekin, ezagutzaren gizartearekin eta ekonomiaren eta lurraldearen sustapenarekin lotutako sailen bidez), mugikortasun-programak eta nazioartekotzeko estrategia bateratua bultzatzeko. Administrazio autonomikoen inplikazioa etengabea izan da aztertzen ari garen aldiaren hasieratik. La-

[75] Iosune Irazabali egindako elkarrizketa, 2019ko azaroaren 25a.

guntza motak une bakoitzeko Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko araudietara egokitu dira, bai eta lurralde eta ikastetxeen premia eta ezaugarrietara ere. Ildo horretatik, zenbait aurrekontu-formula erabili dira, hala nola Europako erakundeek sustatutako beken kofinantzaketa, erakunde sustatzaileekin lankidetza-hitzarmenak ezartzea eta mugikortasun-bekak eta nazioarteko lankidetzarako bekak zuzenean eskaintzea. Aldakortasun horrek malgutasuna eta aldaketa ekonomiko edo politikoetara egokitzeko ahalmena adierazten du. Baina, funtsean, elkarrizketatutako pertsona gehienek esan dute jarraitutasuna izan dela ildo politikoan, berrikuntza eta nazioartekotzea sustatzeko jarraitu beharreko estrategian, eta horri esker esan daitekeela bilakaera bat izan dela.

Baldin eta, Homs-ek dioenez, autonomia-erkidego gehienek «salbuespenen batekin, ez dituzte behar adina aprobetxatzen Europako programak berrikuntza sustatzeko politika koordinatu bat eta beren prestakuntza-sistemen kalitatea garatzeko», EAEren kasua salbuespen horren barruan egongo da. Mugikortasun-proiektuen finkatze-prozesuak islatzen duena koordinazio-lan eta sare-lan on baten emaitza nabarmena da. Lan hori, koordinazioa homogeneizatze-prozesutzat hartu beharrean, lurralde bakoitzaren eta ikastetxe bakoitzaren idiosinkrasia errespetatzetik abiatu da, eta kudeaketa —eta proiekzio— autonomia bultzatu du nazioartekotzearen arloan; hala, izugarri handitu da ikastetxe bakoitzaren eta, beraz, sistema osoaren berrikuntza-ahalmena.

3.10.3. *Nazioartekotzearen Arloa zabaltzea*

Europako mugikortasun-programak sustatzearekin batera, hainbat ekintza garatu zituzten Eusko Jaurlaritzako zenbait instantziak, kalitatearen eta berrikuntzaren garapenari lotuta. Ekintza horiek beste herrialde batzuekiko harremanak areagotu zituzten, bai eta atzerritik EAEko LHra jo nahi izatea ere. Testuinguru horretan, eta Eusko Jaurlaritzak Kanpo Harremanetarako Bulegoaren bidez dituen politikekin bat, Lanbide Heziketaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Sailburuordetzak esparru berri bat irekitzea erabaki zuen, nazioartekotzea, kanpo-harremanen kudeaketa bideratzeko, batez ere Hego Amerikarekin eta Erdialdeko Amerikarekin.

José Mari Elola eta Víctor Arias, garai hartan, ETEetako berrikuntzarako eta LHren nazioartekotzerako aholkulariak ziren. Haiek azaldutakoaren arabera (2008), helburu hauek ezarri zituen LHk nazioarteko lankidetza eta hirugarren herrialdeekiko aliantza estrategikoak bultzatzeko: beste herrialde batzuekin praktika onak trukatzea pertsonen prestakuntzari eta ezagutza produkzioan aplikatzeari dagokienez; LHko ikastetxeek nazioarteko sareetan parte har dezaten bultzatzea; beste herrialde batzuekiko integrazioari laguntzea kulturan, talentuaren prestakuntzan eta sus-

tapenean eta garapen teknologikoan. Horretarako, ekintza hauek garatu nahi dira: LHko beste sistema batzuetako irakasleen trebakuntza eta hobekuntza erraztea; Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ikasle atzerritarrentzako prestakuntza-ekintzak egitea eskaintzea; LHren esparruan interes instituzionaleko arloetan ekintzak eta lanak garatzeko adituak trukatzea; ezagutzaren transferentziarako proiektuen diseinua eta garapena sustatzea zenbait lanbide-arlotako teknologi-eremu espezifiko batzuetan; LHko ikastetxeen eta enpresa-sarearen arteko lankidetza-esperientzia arrakastatsuak trukatzea; beste herrialde batzuekin lankidetzan jardutea metodologia aktiboetan oinarritutako kudeaketa-, teknologia-, pedagogia —eta ikaskuntza— eredu berritzaileak elkarrekin garatzeko; eta hirugarren herrialdeekiko lankidetza-akordioak zehaztea Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzarekin.

Estrategia berriaren testuinguru horretan, 2008an, nazioartekotze-arloa sortu zen Tknikan[76], helburu hauekin: LHko ikastetxeei aholkularitza ematea nazioartekotze-estrategien hedapenean, nazioarteko elkarteekin lankidetzan aritzea, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea EARLALL erakundearen barnean zehaztutako estrategietan, eta beste herrialde batzuetako ikastetxeei aholkularitza ematea Euskal Herrian bazkide erabilgarriak bilatzeko, erakundearentzat berarentzat ezarritako barne-helburuez gainera.

Une hartan, honela ikusten zuten mugikortasunaren fenomenoa: «martxan dago, funtzionatzen du, Leonardo eta Erasmus abian dira»[77]. Hala ere, nazioartekotzearen arloan aurrera egin beharra ikusten zen. Helburu horrekin, jardute-plan bat diseinatu zen, ikastetxeek nazioarteko harremanen arloan zer egoeratan zeuden aztertzea abiapuntutzat harturik. 2010ean, inkesta bat egin zitzaien 38 ikastetxe publiko eta itunduri. Inkestaren bidez, ikastetxeek nazioartekotzearen arloan duten errealitatea ezagutu nahi zen, «arreta berezia eskainiz ikastetxe bakoitzak dituen baliabideei, hala giza baliabideei nola baliabide ekonomikoei». Hala, epe labur, ertain eta luzeko plan bat garatu ahal izango da, ikastetxeko estamentuen inplikazioa kontuan hartuko duena, erantzukizun partekatuan oinarritutako plan bat». Hona hemen inkestako datuak aztertuta ageri den panorama: esanguratsua da beste herrialde batzuetako ikastetxeekin harremanak dituzten ikastetxeen kopurua (% 75). Ikasleen mugikortasunari dagokionez, nabarmentzekoa da ikastetxeen arteko harremanen antzinatasuna; izan ere, % 43k bost eta hamar urte bitartean daramate parte hartzen Leonardon

---

[76] Ordura arte Ikaslanen nazioartekotze-arloko koordinatzaile zen José Luis Fernández Maurek nazioarteko dinamizatzaile lanpostua hartu zuen.

[77] José Luis Fernández Maureri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko martxoaren 12a.

(hamahiru ikastetxe), eta % 33k hamar urte baino gehiago (hamar ikastetxe). Guztira, 30 ikastetxek hartzen dute parte programa horretan. Erasmus proiektuetan parte hartzeari dagokionez, 32 ikastetxek adierazi zuten hasieratik (2007) parte hartu dutela (J.L. Fdez Maure).

Esan dugun bezala, hurrengo urratsa 2011/2012 ikasturterako plan pilotua sortzea izan zen. Plan horretan, Ikaslan, HETEL eta AICE sareetako LHko hamahiru ikastetxek hartu zuten parte. Esperientzia pilotu horrek intereseko arloak lantzea eta zaintza teknologikoari buruzko prestakuntza jasotzea zuen helburu. Hurrengo fase batean, ikastetxe bakoitzean nazioartekotze-plan bat prestatzea planteatu zen, hau lortu nahi zuena: «Nazioartekotzea ez izatea jardueren batura, baizik eta ikastetxeen eguneroko jardunean aldaketak eragingo dituen jarduteko modu berri bat izatea».

Kultura berriaren testuinguru horretan, garrantzi handia hartzen du irakasleen mugikortasuna bultzatzeak, bai Ikaslanen aldetik, bai Tknikaren aldetik. Urtero, 100 irakasle bidali ziren atzerrira 5/6 pertsonako taldetan, lanbidean eguneratzeko aukerak eskaintzeko eta ikastetxean aldaketa —eta berrikuntza— eragile bihur zitezen:

> 100 irakasle baino gehiago, berrikuntza-proiektuetan, ekintzailetzan, nazioartekotzean, etengabeko hobekuntzan, ikaskuntza berrien diseinuan lan egiten dutenak; IKTetako irakasleek aukera izan zuten enpresak, zentro teknologikoak, prestakuntza-zentroak eta unibertsitate erreferentzialak bisitatzeko, helburu batekin: proiektuak hobetzen saiatzea, eta, gero, sektoreko gainerakoei transferitzea ikasi dituzten jardunbide egokiak (J.L. Fdez Maure).

Mugikortasun horren helburua da irakasleei esperientzia erreferentzialak ezagutzen laguntzea giltzarritzat jotzen diren arloetan, eta ezagutza hori euskal testuinguruan txertatzeko eta/edo egokitzeko aukerak aztertzea. Tknikako sailen arteko lan koordinatuari esker, interes-eremu horiek identifika daitezke, nazioarteko harremanak bilatu, eta, ondoren, mugikortasun-proiektuetan parte hartuko duten irakasleak hautatu eta antolatu. Hala, nazioartekotze-arloa berrikuntza-eragile aktibo bihurtzen da.

Jarduteko modu berri horrek ezagutzaren transferentziarekin, ikerketarekin eta berrikuntzarekin zerikusia duten nazioarteko proiektuetan parte hartzeko ekimenak sustatzea ere ekarri du. Izan ere, LHko ikastetxeek aldi osoan hartu dute parte nazioarteko proiektuetan, dela modu partikularrean, dela elkartuta[78]. Jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa 2013tik

[78] Ikastetxe-elkarteen urteko jarduera-txostenetan eta urtero argitaratzen dituzten aldizkarietan, zehazki adierazten da estatuko eta nazioarteko zer proiektutan hartzen duten parte. Era berean, ikastetxeen webguneek informazio zehatza ematen dute modu partikularrean edo beste ikastetxe, erakunde eta administrazio batzuekin koordinatuta edo elkar-

aurrera hasi zen, nazioartekotze-politikaren hedapenaren aldian, Sailburuordetzaren politika orokorraren barruan, eta, zehazkiago, Tknikan, non, tokiko berrikuntza-proiektuetan egin zen bezala, nazioarteko dimentsioa zuten proiektuak sustatu baitziren. Hona hemen, adibide gisa, Europar Batasunak finantzatutako kudeaketa-proiektuen zerrenda: Rainova proiektua (2011/15): Berrikuntza kudeatzeko eredu baten diseinua; Edison (2013/15): irakasleak ekintzailetzan prestatzea; Elvete (2013/15): sistema dualaren gogobetetze-maila neurtzea; Dicoimpess (2014/16): ikasleentzako gaitasun digitalak; Incubet (2014/2016): ekintzailetzari laguntzea ikasgeletan; Compasses (2015/2017): gaitasunen ebaluazioa eta bilakaera.

Jarduera-eremuak eta -moduak zabaldu ziren, eta eremu geografikoa ere bai. Atal honen hasieran esan dugun bezala, nazioartekotzeko estrategia berriaren helburuetako bat Europako mugetatik haragoko lankidetza indartzea izan zen; zehazki, Hego Amerikarekiko lankidetza. Maila horretako lehenengo prestakuntza-esperientzietako bat «Txilerako beka teknikoak» izan ziren. Proiektu hori 2007an sinatu zen Txileko Hezkuntza Ministerioarekin, ikasketak amaitutako ikasleak eta irakasleak prestatzeko. Hego Amerikarekiko lankidetzaren beste adibide bat Mexikoko Guanajuato estatuarekin sinatutako hitzarmena da, euskal enpresekin atzerrian lankidetzan aritzeko esparruan.

Nazioarteko proiektuak, neurri handi batean, nazioarteko sare eta elkarteen esparruan gertatzen diren erlazio eta harremanei esker sortzen dira. Eta proiektu horiek ikasteko, lankidetzarako eta aitortza lortzeko aukera berri bihurtzen dira. Bereziki landu dute esparru hori ikastetxeek, ikastetxeen elkarteek eta, ondoren, Tknikak. Nazioartekotze-prozesuak sustatzeko lanean, Tknika, Ikaslan Gipuzkoarekin batera, EFVET elkartean parte hartzen hasi zen bazkide gisa; elkarteak proposatuta, bere Nazioarteko Konferentzia Bilbon egin zuen 2009an, «Sormena eta berrikuntza hezkuntzan eta lanbide-heziketan» izenburupean, eta Europa osoko 282 pertsonak hartu zuten parte. Ekitaldiaren antolatzaileetako baten hitzetan, gertaera hori mugarria izan zen; handik aurrera, LHko euskal sistemak aintzatespen-ibilbideari ekin zion Europan, «Hito bat markatu zuen kopuru bai kalitate mailan ere, eta jarri zuen, berriro, euskal Lanbide Heziketa pittin bat eskaparatean Europa osoan, erreferente bezala hasi zen martxan jartzen horretan»[79]. Urte horretan bertan antolatu zen euskal LH

---

tuta parte hartzen duten proiektuei buruz. Ikaslanen kasuan, adibidez, «Europemobility» (2008/2010) proiektua aipa dezakegu. Proiektu horren helburu nagusia lanbide-heziketako eta hezkuntzako mugikortasunaren kantitatea eta kalitatea piztea zen, eta kontzientziazioa eta eskura dauden tresna metodologikoak eta irtenbideak sustatzea. HETELen kasuan, aipatzekoak dira, besteak beste, «Network of Networks» proiektuan parte hartu izana, bai eta HERAS proiektua eta «dualteachingsystem» proiektua ere.

[79] José Luis Fernández Maureri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko martxoaren 12a.

nazioartera eramateari buruzko jardunaldia, otsailaren 4an eta 5ean, «Euskal lanbide-heziketa munduari irekia» izenburupean.

Geroago, beste bi saretan sartu zen, eta beste bultzada bat izan zen nazioarteko proiektuetarako. Sareetako bat TA3 da (Trans-Atlantic Technology and Training Alliance). Europako 15/20 erakundek eta Estatu Batuetako 35 erakundek osatzen dute. Tknika da Espainiako bazkide bakarra. Beste mugarri garrantzitsu bat World Federation of Colleges and Politecnics-en bazkide eta zuzendaritzako kide gisa parte hartzea izan zen. Federazio hori beste erakusleiho garrantzitsu bat izan da euskal LH erreferente aintzat hartua izan dadin.

Arévalo sailburuordeak adierazi zuen bezala «geure burua ezagutarazteko» balio izateaz gainera, sare horietan parte hartzeak aukera eman du bost kontinenteetan harremanak izateko, eta ikasleen eta irakasleen mugikortasun-proiektuak bultzatzeko (Namibia, Turkia, etab.), munduko hainbat lekutan kokatuta dauden euskal enpresei beren langileak prestatzen laguntzeko (Mexiko), eta berrikuntzako nazioarteko proiektuetan parte hartzeko (Minnesota).

Nazioartekotzearen Kultura garatzeko eta optimizatzeko prozesua Ibilbide Orri baten ikuspegitik interpretatzen du Tknikak, non, «hasierako fase» batetik (hizkuntza-gaitasunak, kulturarteko gaitasunak eta gaitasun espezifikoak lantzea), «oinarrizko fase» batera pasatuko bailitzateke (ikasleen eta irakasleen mugikortasuna kudeatzea, atzerriko erakundeekin harremanak eta bisitak izatea), «fase aurreratu» batera iristeko (Europako proiektuetan parte hartzea eta koordinatzea Erasmus+ estalpean), eta «aditu-fase»ra iristeko asmoarekin, hau da, proposamenak lantzeko eta proiektuak kudeatzeko profesional gisa, hizlari gisa hitzaldi eta tailerretan, hezitzaile eta toki-mailako nazioartekotze-aholkulari gisa; eta azken helburua da bikaintasun-erakunde bihurtzea, non LHko euskal profesionalak eraldaketen protagonista bihurtzen baitira, LH hobetzeko aldaketak eta proposamenak sortuz.

Euskadiko Lanbide Heziketaren Nazioartekotze Sistema (ikus 7. grafikoa) XXI. mendearen bigarren hamarkadaren amaierarako marraztuta dago, eta hiru erreferentzia nagusi ditu: Eusko Jaurlaritzaren eta LHko Sailburuordetzaren politikak eta estrategiak (Euskadi Estrategia, LHko euskal planak, eta LHko Lege Berria), Tknika (Teknologiak, Metodologiak, Etengabeko Hobekuntza, Garapen Jasangarria eta Ekintzailetza), eta LHko Europako Estrategiak (Rigako Konklusioak, Agenda eta Erasmus+ programa). Haietan oinarrituta egingo dira ikasleen eta irakasleen mugikortasun-programak, parte hartuko da nazioarteko programetan, eta prestakuntza eta aholkularitza emango zaie LHko ikastetxeei eta enpresei. Nazioartekotzeko lan-ildo gisa, beste herrialde batzuekiko harremana, nazioarteko sareen kudeaketa eta eskualdearen nazioartekotzea ezarriko dira.

6. Grafikoa

Nazioartekotze-arloak Lanbide Heziketaren esparruan



Iturria: Tknikaren webgunea.

Erronka gisa hasi zena EAEko LHko sistema integratuaren ardatzetako bat izatera iritsi da, eta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eta ikastetxeen kudeaketan kalitatearen eta berrikuntzaren alde eginez, bikaintasunerantz bultzatzen du hezkuntza/prestakuntzako euskal sistema 2020ko Europan.

IV. Kapitulua
Enpresaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremana

Hilario Murua Cartón

4.1. **Etengabeko Prestakuntza eta Lanerako Prestakuntza**

Enpresaren eta EAEko Lanbide Heziketaren artean historikoki izan den interdependentziak hipotesi hau planteatzera bultzatzen gaitu: nork nori eman dio gehiago?; enpresak Lanbide Heziketari edo Lanbide Heziketak enpresari? Jorge Arévalok horri buruz eman zigun erantzuna nahiko argia da[1]: «Euskal gizarteak diru asko inbertitu du LHn, hainbat gobernuk kudeatuta. Gizarteak asko eman digu, konfiantza eman digulako, konfiantza izan dugulako, eta LHk erantzun egin du. Nik esan dezaket bizi izan dugun krisi lazgarri honetan LHk zeregin biziki garrantzitsua izan duela», eta hori izan da, hain zuzen ere, elkarri egindako ekarpen hori berresten saiatzea. Beraz, kapitulu honetan, horretan lagundu duten alderdi batzuk aztertuko ditugu: Etengabeko Prestakuntzaren eta Lanerako Prestakuntzaren garapena, eta enpresa-ekimenak zerbitzuak emateko gune gisa. Enpresa-ekimen horietako batzuk enpresen eskutik etorri dira, baina, beste batzuetan, Eusko Jaurlaritzak bideratu ditu. Bi kasuetan, ekarpen handia egin diote LHri. Labakak dioen bezala «Ezin gara kexatu Adegik, Confebaskek eta enpresek oro har emandako laguntzaz»[2]; alde horretatik, Aloriaren hitzak ere gogoratu behar dira, laguntza horietarako profil jakin bat definitzen baitu: «Confebasken ekarpena lehiakortasunaren bila doa gehienbat. *Prestakuntzaren arloan hobetu egin behar dugu, ikastetxeetan eskaintzen ari den prestakuntza enpresek eskatzen dutenera hurbildu behar dugu*. Enpresek behar dutenari begira eguneratu behar da ikastetxeetan ematen den prestakuntza»[3]. Hala ere, iragana eta oraina ez datoz bat erlazioan, zeren eta, garai batean, enpresa guztiak ere ez baitzeuden prest be-

---

[1] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[2] Jon Labakari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko urtarrilaren 22a.

[3] Asier Aloriari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 1a.

ren langileei prestakuntza eskaintzeko. «Garai batean, enpresek uko egin zioten prestakuntzari, gastu gisa ulertu baitzuten eta ez inbertsio gisa. Aprendizgo-eskolak itxi ziren, eta oso prestakuntza gutxi zegoen»[4].

4.1.1. *Etengabeko Prestakuntzaren I. Akordio Nazionala*

Labakak dioenez[5], «Prestakuntza premiatik sortu da beti», eta halaxe berresten du Langileen Batasun Orokorrak (UGT) eta CEOE[6] eta CEPYME[7] enpresa-konfederazioek 1980ko hamarkadan sinatutako Akordio Ekonomiko eta Sozialak. Akordio horretan, Espainiako lan-merkatuaren ahuleziei buruz gizarte-eragileek zituzten kezkak jaso ziren. Hautemandako ahulezia horietako bat «LH eskulan-premietatik urrun egotea» zen. Urruntze hori arazo larria zen enpresen lehiakortasuna hobetzeko, oztopoa zen ekonomiaren hazkunderako eta enplegua sortu eta mantentzeko, eta, bestalde, langileen joan-etorri askearen eta Europako merkatu bakarraren garapenaren fenomenoa zegoen. Bi errealitate horiek enpresak eta langileak berregituratze ekonomiko eta teknologiko sakonak egitera behartzen zituzten. Alde horretatik, jarrera-aldaketa bat gertatu zen Espainiako gobernu-agintarien artean: ordura arte faktore horiek kontuan h artu ez bazituzten ere, une horretatik aurrera ikusi zuten neurri horiek langileen kualifikazioaren inbertsioa bultzatzen zutela eta enpleguari buruzko politika aktiboak zirela. Ez da ahaztu behar Espainiak 40 urteko diktadura gogorraren ondorioak jasaten jarraitzen zuela, eta Europak oraindik ez zuela gogo handirik Espainia Europako taldean herrialde gisa sartzeko.

Hala ere, 1975ean Franco hil eta 1982an sozialistek lehen aldiz hauteskundeak irabazi ondoren, abian zen dagoeneko «trantsizio» deritzona, trantsizio politikoa baina baita ekonomikoa eta soziala ere, eta, Europako Ekonomia Erkidegoan berehala sartzea aurreikusita, 1984an Ekonomia eta Gizarte Akordioa sinatu zen Espainian. LHren ikuspegitik, akordio horrek, besteak beste, Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusia sortzea aurreikusten zuen. Kontseilu hori Administrazio Publikoen organo aholku-emaile eta erakundeek parte hartzeko organo gisa ezarri zen, bai eta Gobernuari LHren arloan aholku emateko organo gisa ere, eta hainbat eginkizun esleitu zitzaizkion; besteak beste, hauek dira nabarmentzekoak:

---

[4] José Luis García Bengoari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 1a.

[5] Jon Labakari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko urtarrilaren 22a.

[6] CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales (Espainiako Enpresa Erakundeen Konfederazioa).

[7] CEPYME: Confederación Española de Pequeñas y Medianas Empresas (Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfederazioa).

Lanbide Heziketako Programa Nazionala prestatu eta Gobernuari proposatzea, onets dezan (sortzen ari zen esparru politiko berri horren barnean, eskumenak zituzten autonomia-erkidegoek —hori zen, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua— aukera izan zuten beren lurraldean beren ezaugarri espezifikoak arautzeko). Kontseiluaren neurria ikusita, eta lan-metodoak eta erabakiak hartzeko errazteko, 1991n Batzorde Iraunkor bat sortzeko ideia hartu zen, lan-batzorde gisa eta negoziazio-izaerarekin, Etengabeko Prestakuntzaren gai espezifikoa lantzeko. Negoziazio hori 1992ra arte luzatu zen, eta orduan sinatu zen Etengabeko Prestakuntzako I. Akordio Nazionalaren berrespena. Hortik sortu zen FORCEM (Etengabeko Prestakuntzarako Fundazioa) sortzeko ideia; ongintza —eta irakaskuntza— izaerako fundazio pribatu bat zen, eta «Etengabeko Prestakuntza kudeatzeko eta finantzatzeko Espainiako ereduaz» hitz egiten hasi zen. Eredu horrek, funtsean, prestakuntza-eskaintza kualifikazio-premia errealekin lotzeko tresna bat jarri nahi zuen enpresa eta langileen eskura.

Etengabeko Prestakuntzako I. Akordio Nazionala martxan zegoen jada, eta hartatik sortu zen 1993an Lanbide Heziketako I. Programa Nazionala, hiru azpisistemen integrazioa bultzatzen hasi zena: Lanbide Heziketa Arautua, Lanerako Prestakuntza eta Etengabeko Prestakuntza. I. Programa Nazional honen oinarriak finkatu ondoren, ikusi zen beharrezkoa zela aurrekoaren jarraipena egin eta osatuko zuen bigarren programa bat sortzea. Eta hala izan zen. Lehenengo urratsa Etengabeko Prestakuntzaren definizio zehatza ematea izan zen; hurrengoa, berriz, Etengabeko Prestakuntzarako Akordio Nazionalak zenbait prestakuntza-plan prestatzea, hala nola Enpresen Prestakuntza Planak, Taldekako Prestakuntza Planak eta Sektorearteko Planak, eta beste batzuk ere bai, hala nola Prestakuntzarako Neurri Osagarriak eta Laguntza Planak eta Banakako Prestakuntza Baimenak. Abian jarriko baziren, bost plan horiek justifikatu behar zuten zein ziren bakoitzaren helburuak eta edukiak eta zer ekintza egin nahi ziren, zein jende multzori zuzenduta —multzoa kategoria edo talde profesionalen arabera eta parte-hartzaile kopuruaren arabera sailkatzen zuen—, zein zen ekintzen egutegia, zer kostu aurreikusten zen prestakuntza-ekintzetarako —ekintza motaka eta multzo hartzaileka banatuta, eta Lanbide Heziketaren kuotaren zer zenbateko jasoko zuen urtean prestakuntza-ekintzak emango zituen enpresak edo enpresek. Bost prestakuntza-plan horiek abian jarrita, esan daiteke Espainiako Etengabeko Prestakuntza jada martxan zegoela.

4.1.2. *Enplegua eta lanbideratzea*

1984ko Etengabeko Prestakuntzako Akordio Nazionala sinatu ondoren, Espainiako Gobernuko Ministroen Kontseiluak Lanerako

Prestakuntza eta Gizarteratze Plan Nazionala onetsi zuen 1985ean, eta, aldi berean, Lanerako Lanbide Prestakuntzako ikastaroak arautu zituen. INEM arduratuko zen ikastaro horietaz.

Felipe González (PSOE) Gobernuko presidente zela, Espainian beharrezkoa zen LHko, Birziklapeneko eta Lanerako Trebakuntzako sistemak zabaltzeko ahalegina areagotzea, ordura arte ez baitziren eskura izan beharrezko tresnak, ezta behar adina ere; beraz, helburu horiek lortzeko, beharrezkoa izan zen arlo horretan administrazio publikoen eta erakunde pribatuen jarduerak koordinatzea eta erakunde sindikalek eta enpresa-elkarteek parte hartzea. Gobernuak berehala aurre egin nahi izan zion LHko sistema guztiak zabaltzeko eta modernizatzeko programa-multzo bati. Horretarako, Lanbide Heziketako eta Lanbideratzeko Plan Nazionala jarri zuen indarrean. Programa hauek zituen planak:

— *Gazteentzako eta iraupen luzeko langabeentzako Lanbide Heziketako programak*. Hiru adin-tartetako gazteentzat zuzenduta zeuden, 16/20, 20/25 eta 25 urte bitartekoentzat, eta hiru kasuetan INEMek edo haren zentro laguntzaileek kudeatu zituzten.
— *Lehenbiziko enpleguaren bila dabiltzan gazteak lanbideratzeko programak*. Sei hileko praktiketako kontratu bat bermatzen zuten lehendabiziko enpleguaren bila zebiltzan eta beharrezko titulazioa zuten 25 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazteentzat.
— *Eskolatzea berreskuratzeko programak*, bi multzotara zuzenduak, Batetik, OHO amaitu ez zuten 16tik urtetik beherako gazteentzat zirenak; bestetik, *Txandakako irakaskuntza-programak*, LHko bigarren graduko ikasleentzat zirenak, enpresa edo enpresa taldeekin egindako kontratu edo hitzarmen bidez gauzatuak.
— Azkenik, Lanerako Lanbide Prestakuntza Orokortzeko programa, lanbide-birziklatzera bideratua bi esparrutan. Landa-eremuari zegokiona Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak finantzatu zuen, nekazariak birziklatzeko edo lanbide-hobekuntza emateko edo nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatze-teknika berrietara egokitzeko, eta INEM izan zen antolatzailea. Industria-birmoldaketan zeuden sektore edo enpresen eremuari zegokion ikastaroak ere INEMek antolatu zituen, enplegua sustatzeko funtsekin edo enpresa edo enpresa-elkarteekin lankidetzan, funts horietan zeuden langileentzat.

Hasierako Lanbide Heziketako eta Lanbideratzeko Plan Nazionala eguneratuz joan zen, prestakuntzako eta lanbideratzeko ekintzak ahalik eta gehien bultzatzeko eta haien kudeaketa hobetzeko, bai eta aldaketa horiek Europako Gizarte Funtsaren Orientabideetara

(EGIF) egokitzeko ere[8]. Hala, eguneratze horien barnean, beste talde batzuei zuzendutako LHko programa berriak ditugu. Hauek izan ziren: *enpresetako langileentzako eta langile autonomoentzako Lanerako Lanbide Prestakuntza, Kooperatibetako eta Lan Sozietate Anonimoetako Bazkideentzako Lanbide Heziketa, Minusbaliatuentzako Lanerako Prestakuntza, Etorkinentzako Lanerako Lanbide Prestakuntza, Gizarteak Marjinatuentzako eta Gutxiengo Etnikoentzako Lanbide Heziketa, Beste kolektibo batzuentzako Lanbide Prestakuntza*, guztiak INEMek eskainiak. Hezkuntza-agintariek argi eta garbi erabaki zuten era horretako Prestakuntzako eta Lanbideratzeko Programa Nazionalak hobetzen eta zehazten joatea, eta programa horiei *Emakumeak azpiordezkatuta dauden jardueretan Lanbideratzeko Lanbide Prestakuntzako Programa* gehitu zitzaien. Hau da, INEMek, Emakumearen Institutuarekin edo ordezkaritza handieneko enpresa-erakunde eta sindikatuekin adostutako lankidetzan, emakume langabeentzako ikastaroak eman zituen, emakumeak azpiordezkatuta zeuden sektore, jarduera edo zereginetan lanbideratzea edo berriro lanbideratzea errazteko.

Urteak igaro ahala, aldaketa txiki batzuk egin ziren, plana lan-merkatuko aldaketetara egokitzeko eta Lanerakoko Lanbide Prestakuntzaren eskaintzaren kudeaketa eta kalitatea hobetzeko. Hala, aldaketa txiki horien artean, plan berri bat jarri zen abian, Lanbide Heziketa, Lanbideratze eta Orientazioko Lehentasunezko Ekintza Espezifikoen Plana. Plan hori lan-merkatuko talde ahulenei zuzenduta egon zen, eta Lanerako Lanbide Prestakuntzaren Jarraipeneko Batzorde Probintzial batzuk sortu ziren, Enplegu Institutu Nazionalaren Kontseilu Nagusiaren eta Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusiaren parte-hartze

---

[8] 1986an Espainia Europako proiektuan sartu zen. Harrezkero, estatu kideen artean, bera izan da beti EGIFen laguntzen hartzaile nagusia. Laguntza horien azken onuradunak pertsona hauek dira: gazte ekintzaileak, langabeak, zailtasun bereziak dituztenak, gutxiengoan daudenak edo diskriminatuta daudenak. Halakoak izan ziren eta izaten jarraitu zuten EGIFen kezkarik handiena, eta haiei zuzendu zitzaizkien laguntzak. Izan ere, EGIF Europar Batasunaren finantza-tresna bat izan zen, eta da, Europar Batasuneko estatuen enplegu-politikei laguntzeko eta indartzeko sortua. EGIFek inbertitzen jarraitu zuen, eta 2007an laguntzak aplikatzeko beste epe bat ireki zen, 2013ra arte, bost jarduera-eremutan ardaztuta:

— Enpresa-espiritua sustatzea eta langileen, enpresen eta enpresaburuen moldagarritasuna hobetzea.
— Enplegagarritasuna, gizarteratzea eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzea.
— Giza kapitala handitzea eta hobetzea.
— Estatuz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetza sustatzea.
— Laguntza teknikoa.

instituzionaleko probintzia-organo gisa jardun zutenak. Haien osaeraz eta egitekoez aurreko atalean hitz egin dugu

4.1.3. *Lanerako prestakuntza sustatzeko neurriak*

Etengabeko Prestakuntza eta Lanerako Prestakuntza izeneko atal honen barnean, eta EAEn arreta jarriz, esan behar da laguntza ekonomikoek zeregin garrantzitsua izan zutela testuinguru horretan. Laguntza horiek, batzuetan, enpresetatik bertatik etortzen ziren: «Enpresek dirua ere jarri dute ikastetxeak egiteko; Elgoibarko MEKA ikastetxea, lokala, inguruko enpresek ordaindu zuten»[9]. Beste batzuetan, berriz, Diputaziotik: «Hasieran, ikastaro asko zegoen, denetarako prestakuntza behar zen eta. Eta diru asko zegoen, hori egia da. Imanol Muruaren garaian hasi zen, nik uste, materialez hornitzeko eta ikastaroetarako laguntzak eman zituen»[10].

Bistan da ekonomia garatzeko eta gizartearen hazkundea lortzeko, hala kuantitatiboki nola kualitatiboki, giza baliabideak eguneratu behar direla; beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan zegoen errealitatearekin bat zetorren enplegu-politika batek, prestakuntza-planak ez ezik, etengabeko lanbide-prestakuntza ere jaso behar zuen ezinbestean. Gauetik goizera, Eusko Jaurlaritzak protagonismoa hartu zuen, eta prestakuntza-planak diseinatu, adostu, lagundu eta sustatu zituen, politika planifikatu, egituratu eta koherente baten bidez, gure herriaren premiei erantzuteko. Gipuzkoan ez zen bereziki zaila izan esperientzia hori aurrera eramatea; izan ere, «baziren Etengabeko Prestakuntza enpresekin landua zuten ikastetxeak, Euskadin bazeuden langabeentzako prestakuntza ematen zuten ikastetxeak, bagenuen esperientzia. Zer egin behar zen, orduan? Jaso eta banatu»[11]. Hala ere, batzuek ez zuten hain erraz eta onuragarri ikusi jarduera hori; «nire ustez, problema zera zen, Etengabeko Prestakuntza ez zela derrigorrezkoa»[12].

Eusko Jaurlaritzaren politika «protekzionista» horren ondorioz, era guztietako biztanleria aktiboa gaitzeko programak jarri ziren abian. Programa horiek, kasu askotan, Estatuan egiten ari zirenen oso antzekoak ziren. Programek lantokietan praktikak egitea aurreikusten zuten; beraz, dirulaguntzak banatu ziren, bai praktikak egiten zituzten ikasleentzat, bai ikasle horiek hartzen zituzten enpresentzat. Ikasleen kasuan, laguntzak

---

[9] Jon Labakari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko urtarrilaren 22a.

[10] José Ignacio Berrondori egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko maiatzaren 20a.

[11] Jorge Arévalori egindako elkarrizketa, Errenteria, 2019ko apirilaren 13a.

[12] Patri Zubizarretari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko otsailaren 4a.

4.400 pezetatik (≈27 €) 13.200 pezetara (≈80 €) bitartekoak izan ziren hilean, kontuan hartzen baitzen ea praktikek garraio-gastuak edo mantenu-gastuak sortzen zituzten etxetik kanpo egiteagatik. Enpresen kasuan, laguntzak 14.000 pezetatik (≈87 €) 41.000 pezetara (≈246 €) bitartekoak ziren hilean, enpresak hartutako ikasleen arabera, eta ezin zen 20 ikasle baino gehiago izan enpresa bakoitzeko. Gainera, beste finantziazio-eredu bat ere izan zen, soldata-bekak, egonaldiak bi hilabete baino gehiagokoak ziren kasurako; kasu horretan, hilabeteko 120.000 pezetako (≈720 €) gehienezko zenbatekoa zuen beka bat lor zitekeen.

Jarduera horiek aurrera eramateko, argi zegoen ikastetxeen parte-hartzea behar zela, baina ikastetxe askok ez zuten esperientzia berrirako behar zen ekipamendurik eta giza baliabiderik. Egoera horren aurrean, funtsezkotzat jo zen prestakuntza-egiturak sustatu eta indartzea, eta ekipamendu teknologiko berrietarako behar ziren zuzkidura ekonomikoak sustatzea.

> Planteamendua zure Lanbide Heziketako ikastetxea da; baliabideak izan nahi badituzu, eskaini arautu gabeko prestakuntza. Hobetuz-ek, INEMek edo Lanbidek dirua emango dizute Lanerako Prestakuntzarako; lor ezazu zure irakasleek aparteko orduak egitea eta ikastaro horiek ematea. Izan ere, kanpoko irakasleak kontratatzen badituzu, Gizarte Segurantza ordaindu beharko duzu, gehi soldata, eta orduan ez zaizu dirurik geratuko. Orduan, lor ezazu zure irakasleek aparteko orduak egitea, eta, hala, irabazten duzunarekin makinak erosi ahal izango dituzu, eta, ondorioz, zenbat eta aparteko ordu gehiago egin, ...[13].

Beraz, hezkuntza-agintariak saiatu ziren Etengabeko Lanerako Prestakuntzako ikastetxe-sare bat eratzen, bermatu ahal izateko prestakuntza-premien ondorioz sortuko ziren ikastaroak egin ahal izatea, eta, horretarako, kontuan hartu zituzten eremu geografikoak eta lan-merkatuaren eskaria.

Prestakuntza-egiturak sustatu eta indartzeko lan horretan, ekipamendu-beharrei eman zitzaien lehentasuna, eta «babespeko ikastetxeak»[14] sortu ziren, hau da, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Lanerako Prestakuntzako politikarekin lankidetzan aritu ziren Lanerako Prestakuntzako ikastetxeak.

---

[13] Patri Zubizarretari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko otsailaren 4a.

[14] «Aldaketa handia LOGSE legetik eta, bestetik, etengabeko prestakuntzatik etorri zen. Administrazioak parte-hartze handia izan zuen Etengabeko Prestakuntzan, baina ez bakarrik Gipuzkoan egin zenagatik; gero, Bizkaiko Foru Aldundiak ere dirua sartu zuen. Lan Sailak «sos» asko sartu zuen babespeko zentroetan», Kike Intxaustiri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko maiatzaren 6a.

Ikastetxe «tradizionalak» babespeko zentro bihur zitezen, baldintza jakin batzuk eskatu zitzaizkien, baina, jakina, ikastetxe guztiek ez zituzten baldintza guztiak betetzen. Gainera, «babespeko ikastetxe» kalifikazioa eskualde bakoitzeko ikastetxe bakar bati eman zitzaion, salbuespen batekin: baldin eta eskualde horretan hori eskatzen zuen beste ikastetxe bat bazegoen, eta eskualdeko beharrek hala eskatzen bazuten, horrelako beste ikastetxe bat sortzeko baimena ematen zen. «Babespeko ikastetxeak» kontrolatzeko politika horrek aldaketa txiki batzuk izan zituen denborak aurrera egin ahala, eta, urtebete geroago, «Eskualdeko Prestakuntza eta Enplegu Batzordeko eskubide osoko kide izatea» eskatu zitzaien babespeko ikastetxearen kalifikazioa lortzeko. Gero, «Lanbide Heziketa Arautuko Ikastetxe Publikoak edo Itunduak» izan beharra ezarri zitzaien, baina Aloriak beste ikuspegi bat zuen horri buruz:

> Nik ELArekin topo egin nuen Estatuko Kontseiluan, zeren eta hor bai baitzegoen ELA. Haiek aldezten zuten eredua da Euskadiko Lanbide Heziketa guztia ikastetxe publikoetan egitea; beste batzuek, berriz, argi geneukan Etengabeko Prestakuntza ikastetxe onenetan eman behar zela, publikoak zein pribatuak izan[15].

Aloriak, Confebasken ordezkariak, zuen jarrera Estatuko UGTk eta CCOOk edo ELA eta LAB sindikatu abertzaleek aldezten zutenaren guztiz kontrakoa zen:

> Arlo sindikalean, ELAk eta LABek beti izan dute argi Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen egitura aprobetxatu behar zela Etengabeko Prestakuntza egiteko. Orduan, UGTk eta CCOOk beren ikastetxeak dituzte, Etengabeko Prestakuntza emateko ikastetxeak dituzte, Etengabeko Prestakuntzaren diruaren zati bat sindikatuentzat baita[16].

Lanerako Prestakuntza suspertzeko hartu zen ildo horretan, 1994ko martxoan 114/1994 Dekretua sartu zen indarrean, gazteen lan-aukerak handitzeko. Ikusten zen LHren eta unibertsitateko irakaskuntzaren eta enpresaeremuaren arteko loturak indartu beharra zegoela, hezkuntza-sistemaren eta ekoizpen-sistemaren arteko harremana areagotuz, lan-merkatura sartzear zeuden ikasleei ikasketekin txandakatzeko esperientzia praktikoa eta baliozkoa eskaintzeko helburuarekin, haien prestakuntza osa dezaten eta etorkizunean lana aurkitzeko aukerak handitu ditzaten. Hala sortu ziren Txandakako Prestakuntza Praktiketako programak eta Junior-Enpresa programak.

---

[15] Asier Aloriari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 1a.

[16] Kike Intxaustiri egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko maiatzaren 6a.

Eusko Jaurlaritzaren «aterki protekzionista» horren azpian, hauek izan ziren programazioaren hartzaileak: lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboak, langabezian dauden eta lan-merkatuan dauden eskaeren aurrean lanbide-prestakuntza desegokia edo nahikoa ez duten pertsonak, eta enpresari eta autoenplegatu potentzial berriak. Hauek izan ziren Prestakuntza Plan horiek:

7. Grafikoa

Eusko Jaurlaritzak 1997an diseinatutako prestakuntza-planak



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EHAA.

Prestakuntza-planak diseinatu ondoren, plan horiek abian jarriko zituzten entitate onuradunak esleitu behar izan ziren, hau da:

— Langabeentzako prestakuntza-planak gauzatzeko enpresak eta enpresa-taldeak, gero kontratatzeko konpromisoa hartuko zutenak.
— Lanerako prestakuntzako babespeko ikastetxeak.
— Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta itunduak eta Lanbide Hasierako ikastetxeak (LHI).
— Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak, kuadrillak eta mankomunitateak.
— Legez eratutako elkarteak eta elkargo profesionalak beren elkartekideentzat.
— Unibertsitate-eskola eta -fakultateak.
— Prestakuntza-eskaintza berezia zuten erakunde publiko edo pribatuak, maila teknologiko eta baliabide onak zituztenak.

Ikusten da, beraz, Lanerako Prestakuntzako Programak hasi zirenetik araudia gero eta zorrotzagoa zela prestakuntza-jardueretan parte hartuko zutenekin. Hori, batetik, 302/2000 Dekretuaren bidez egin zen; dekretu horrek Lanerako Prestakuntzako Programa arautu zuen, eta 83/2000 Dekretua aldatu zuen. Bestetik, 2000/06 aldirako ezarri zen Erkidegoko Ekimenen esparru berriaren bidez[17]. Beste era batera esanda, 302/2000 Dekretuak balio izan zuen Europako Gizarte Funtsak enpleguaren eta giza baliabideen arloan —eta, zehazki, Equal Erkidegoko Ekimenaren esparruan— onartu zituen Euskal Autonomia Erkidegoko programei finantza-estaldura emateko.

4.1.4. *Etengabeko Prestakuntza eta Lanbide Birziklatzea*

Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-egoera ahal zen neurrian arintzeko 1988. urtera arte abian jarri ziren ekintzak koiunturazko neurriak ezartzera bideratu ziren batez ere. Neurri horiek ezinbestean hartu behar izan ziren, une hartan herrialdearen lan-eskaria arrisku-egoeran bai-

[17] Hauek izan ziren 2000/06 aldirako Erkidegoko Ekimenak:
— INTERREG, mugaz gaindiko, estatuz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetza bilatzen zuena, Europar Batasun osoaren garapen harmoniatsua, orekatua eta jasangarria sustatzera bideratua.
— URBAN, krisian zeuden hirien eta hiri-periferien ekonomia eta gizartea suspertzen laguntzen zuena, hiri-garapen jasangarria sustatze aldera.
— LEADER, landa-garapena sustatu zuena.
— EQUAL; estatuz gaindiko lankidetzaren arloan, lan-merkatuaren esparruko era guztietako diskriminazio eta desberdintasunen aurka borrokatzeko metodo berriak sustatzeko.

tzegoen[18]. Neurri horiek ez zuten etorkizuneko proiekziorako bokaziorik; beraz, pixkanaka-pixkanaka urratsak egin behar izan ziren lan-merkatuko aldagaiak, hau da, eskaintza eta eskaria, hurbiltzeko, lanpostu bat eskatzen zuten pertsonen kualifikaziotik abiatuta. Era berean, lehendik zeuden jarduera ekonomikoak finkatzeko ahalegina egin zen, eta, batez ere, beste jarduera batzuk agertu ziren, izaeraz oso berritzaileak; jarduera berri horien arloko prestakuntza emateko, beharrezkoa zen erabilitako giza baliabideen gaitzea, eta, horrenbestez, baliabide gehiago behar ziren, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen zen bezala.

Hori guztia posible izan zedin, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak EAEko biztanleria aktiboaren birziklatzea, birprofesionalizazioa eta lanerako etengabeko prestakuntza sustatzea proposatu zuen. Zenbait proposamen egin ziren, hala nola *Birziklatzeko eta Lanerako Etengabeko Prestakuntzako Plan Integralak*, eskualde-, sektore —eta enpresa— eremuetan banatuak. Bigarren proposamena *Orientazio eta Prestakuntza Jardueren Programak* izan ziren. Hirugarren proposamena e*npresek edo enpresa-taldeek egindako Birziklatzeko Prestakuntza Jarduerei laguntzea* izan zen, eta, azkenik, izan ziren, halaber, *ikasketak amaitzen zituzten gazteen enplegagarritasuna handitzeko eta irakasleen kualifikazioa hobetzeko programak*. Programa horiek hiru taldetan banatu ziren: txandakako prestakuntzako programak, irakasleek enpresetan esperientziak egiteko programak eta Junior-Enpresa programak, EAEko unibertsitate edo eskola teknikoetako kideei zuzenduak.

Nolanahi ere, une hartan Euskadin Administrazioa edozein izanik ere landu nahi izan zen enplegu-politika orok une hartan lan-merkatuaren eta kualifikazioen errealitatea zehazten zuten oinarrizko paradigma batzuen azterketatik abiatu behar izan zuen. Gainera, garai hartan, azken hilabeteetan hazi egin zen langabezia, bai eta industria-krisiaren ondorioz milaka lanpostu gehiago galduko zirelako mehatxua ere, eta, bestalde, Europako Barne Merkatua[19] indarrean sartzeak ondorioak izan zituen euskal enpresen lehiakortasunean.

Egoera aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritza zentro edo erakunde askotan prestakuntza-ekintzak egiten hasi zen pertsona askorentzat, baina, batez ere,

---

[18] «90eko hamarkada Etengabeko Prestakuntzaren une nagusietako bat da, lehenengo akordioen unea. Nire ustez, gai horri ez zaio eman garrantzi handirik, baina lehenengo aldia izan zen lan-arloan Lanbide Heziketa eragile sozial eta sindikalen esku utzi zena, eta Euskadiren egoerak ez du zerikusirik Estatuko gainerakoarekin». Arantxa Martinezi (CCOO) egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko otsailaren 20a.

[19] Europako Barne Merkatua oparotasun —eta askatasun— eremua izan zen, eta hala da orain ere, eta 500 milioi europarri aukera eman zien salgaiak, zerbitzuak, enplegua, negozio-aukerak eta 28 estatu kideen kultura-aberastasuna eskuratzeko.

lehenesteko eta esleitzeko irizpideetan eragin zuten prestakuntza-ekintza horiek. Hala, lehentasuna izan zuten proiektuaren tratamendu kualitatibo eta sistematikoari ekin zioten prestakuntza-ekintzei laguntzeko jarduerek. Horrelakoak izan ziren *enpresek sustatutako langabeentzako prestakuntza-planak*, gero kontratatzeko konpromisoa zekartenak; *plan intentsiboak*, partaideen motibazio —eta orientazio— faseen tratamendu espezifikoa eta partaideen lanbideratzea barnean hartzen zituztenak; *gaitasun eta jarrera ekintzaileak zituzten pertsonentzako prestakuntza-planak*, autoenpleguko erregimenean enpresa txikiak sortzera bideratuak; eta *lanerako prestakuntza osatzeko ekintzak, bi sexuetako pertsonei zuzenduak*. Egin ziren prestakuntza-ekintza guztiek Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Sozietate Anonimo Publikoaren ebaluazioa eta jarraipena izan zuten (EGAILAN, S.A.[20]).

«Prestakuntzan inbertitzea inbertsio ona da» premisan oinarrituta, denborak aurrera egin ahala, agintari politikoak gero eta kontzienteago ziren prestakuntza-jarduerak pixkanaka ezarriz eta areagotuz joateko premiaz. Testuinguru horretan, hainbat erakunde edo instituziok parte hartu ahal izateko egindako eskaintza kontuan hartuta, eskaintzetako bat udalei, mankomunitateei edo haiei lotutako erakundeei helarazi zitzaien.

4.1.5. *Lanbide Hasierako hezkuntza —edo prestakuntza— proiektuak aurkeztu zituzten udalak, mankomunitateak eta haiek sortutako erakundeak*

Lan eta Gizarte Segurantza Sailak uste zuen, babespeko ikastetxeez gainera, beste erakunde batzuek ere parte har zezaketela langabeziaren aurkako borroka hartan, eta erakunde horietako batzuk udalek osa zitzaketela pentsatu zen. Udalek, mankomunitateek edo haiek sortutako erakundeek Lanbide Hasieraren arloan hezkuntza —edo prestakuntza— proiektuak aurkezteari dagokionez egindako lana aztertzeko, adierazi behar da 1988az geroztik antzeko zerbait egiten ari zirela Toki Korporazioekin eta Mankomunitateekin hitzarmenak egitea onartu zenean; beraz, esan dezakegu Lanbide Hasierako Programak hainbat urte zeramatzala abian eta denboraldi horretan EAEko ia eskualde guztietara iritsia zela. Horrenbestez, metatutako esperientzia horrekin, ulertu zen iritsia zela unea LOGSEren gizarte-bermeko programetara egokitzeko. Hau ezarri zuen LOGSEk 23.2 artikuluan:

> Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburuak lortzen ez dituzten ikasleentzat gizarte-bermeko berariazko programak antolatuko dira.

[20] Egailan: Haren helburua zen Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari laguntzea enplegu —eta prestakuntza— politika aktiboen emaitzak hobetzen, programak ebaluatuz, eta LANGAI euskal lan-zerbitzua eta Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokia kudeatuz.

Programa berezi horien xedea ikasleari oinarrizko hezkuntza eta hezkuntza profesionala eskaintzea izango da, bizitza aktiboan sar dadin edo ikasketa arautuetan jarraitzeko aukera izan dezan, bereziki, Erdi Mailako Berariazko Lanbide Heziketan.

Gizarte-bermeko programa horiek instituzio arteko izaera zuten, ezin baitziren soilik hezkuntzakotzat hartu; izan ere, ez ziren hezkuntza-sistemaren antolamenduko inongo maila, etapa, ziklo eta graduren parte, eta, gainera, erakunde publikoen lankidetza-hitzarmenak behar zituzten, bereziki toki-administrazioarenak, eta helburu hau zuten: hezkuntza-sistema titulaziorik lortu gabe utzia zuten gazteen trebetasun eta gaitasun pertsonal eta sozialak eta lan-munduan txertatzeko aukerak handitzea sustatzea. Ondorioz, 16 urtetik gorako gazteei zuzenduta egon ziren, bi helbururekin: alde batetik, lanbide bateko teknikak eta ezagutzak Erdi Mailako Berariazko Lanbide Heziketari dagokiona baino maila apalago batean menderatzea bizitza aktiboan sartu ahal izateko, eta, bestetik, gazte horiek prestatzea hezkuntza-sistemara —bereziki, Lanbide Heziketako Erdi Mailetara— berriro sartzeko.

5. Laukia

Gizarte-bermeko programetarako dirulaguntzak

ENTITATE ONURADUNAK

Udalak, mankomunitateak edo haiek sortutako erakundeak	Irabazi-asmorik gabeko entitateak

Dirulaguntzaren xede diren programak

—Lanbide Hasierako lehen ikasturtea
—Lanbide Hasierako bigarren ikasturte osoa, honela osatua: lehen ikasturtean sakontzea, ikasitakoa sendotzea eta, hala badagokio, heziketa-zikloetan sartzeko probetarako prestatzea

Lanbide Hasierako programen hartzaileak

16 urtetik gorako eta 21etik beherako gazteak

Eskaerak

—Proiektua garatzeko aurrekontuaren ziurtagiria —Entitatearen ordezkariaren ordezkaritza-gaitasuna frogatzen duen agiria —Ordezkari horrek sinatutako ziurtagiria, bestelako laguntzarik jasotzen ez duela dioena —Inongo berariazko hitzarmenekin loturarik ez izatearen zinpeko deklarazioa	—Entitateko idazkariaren ziurtagiria, dirulaguntzaren helburua eta zenbatekoa adierazten dituena —Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia konpultsatua —Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela frogatzen duen agiria —Entitatearen eraketa-akta —Entitatearen estatutuen fotokopia konpultsatua —Inongo berariazko hitzarmenekin loturarik ez izatearen zinpeko deklarazioa

Programaren proiektua
—Programaren premiaren justifikazioa
—Hartzaileen ezaugarriak eta hartzaile kopuruaren zenbatespena
—Ikasleak hautatzeko irizpideak
—Oinarri pedagogikoak
—Prestakuntza Planaren eskema
—Proposatzen ziren lanbide-profilak, eta inguruko ingurune sozioekonomikorako egokiak izatea
—Dituen azpiegitura eta giza baliabideak eta baliabide materialak
—Gastuen aurrekontua
—Lanbideratzeko plana, eta inguruko ingurune sozioekonomikorako egokia izatea

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EHAA.

Enplegu eta Prestakuntza Programa horrek balio izan zuen langabeak kontratatzeko emango ziren laguntzak arautzeko, eta tratamendu integral bat osatu zuen: hartzailearentzako informazio, orientazio eta motibazioarekin hasten zen, Lanerako Prestakuntzarekin eta lan-esperientziarekin jarraitzen zuen, eta, azkenik, lana bilatzeko teknikak eta lanbideratzeko laguntza eskaintzen zituen.

4.1.6. *Hobetuzen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuaren eginkizuna*

1995eko urrian, Confebask enpresa-elkarteak eta ELA, CCOO eta LAB sindikatuek «EAEko Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbide arteko Akordioa» sinatu zuten. UGT sindikatua sinatu gabe geratu zen, Estatuko zuzendaritza-organoek esango zutenaren zain, baina ordura arte martxan zegoen Etengabeko Prestakuntzaren eredua aldatzen hasi zen.

Akordio[21] horren arabera, Euskadiko aurrerapen ekonomiko eta sozialerako funtsezko erronketako bat gizon eta emakumeen prestakuntzan

[21] Bi akordio izan ziren: Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbide arteko Akordioa, Confebaskek (Euskal Enpresarien Konfederazioa) eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek sinatua, eta beste bat, Eusko Jaurlaritzaren, CONFEBASKen eta aipatutako sindikatuen artean sinatua. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunen etengabeko prestakuntzako ekintzak garatzeko laguntzak arautzen zituen deialdia argitaratu zen; bai gaitasunak hobetzeko, bai langile horiek berriro kualifikatzeko ekintzak hartzen zituen. Une horretatik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegokoak ez diren enpresek eta soldatapeko langileek parte har zezaketen laguntzen xede diren ekintzetan, Administrazio Publikoetako langileak izan ezik. Era berean, parte har zezaketen Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubide berezira (REASS) bildutako langileek, autonomoek eta lanik ez izanik egoera hauetakoren batean zeudenak: lanaldi partzialeko langileak (aldizkako langile finkoak) lanik gabeko aldietan, prestakuntza-aldian zeudenean langabeziara pasatzen ziren langileak eta enplegu-erregulazioan zeuden langileak onartutako espediente baten ondorioz aldi baterako enplegurik gabe zeudenean.

aurrera egitea zen, langileak trebatzea lagungarria baitzen enpresen eraginkortasunerako eta lehiakortasunerako eta enplegua sortu eta mantentzeko. Langileak behar den bezala trebatzea erabakigarria eta eztabaidaezina zen gurea den bezalako herrialde batean, zeren eta baliabide natural gutxi dituen herrialde bat baikara; horregatik, neurri batean, ekoizpen-sistema beste elementu batzuetan oinarritu behar genuen, hala nola etengabeko aurrerapen teknologikoan eta kalitatearen, marketinaren, zerbitzuaren eta abarren etengabeko hobekuntzan.

Paradoxikoki, bi egoera berezi aurkitu zituzten. Batetik, bai Eusko Jaurlaritza bai foru-aldundiak behartuta zeuden Etengabeko Lanbide Heziketarako funtsak ematera, eta, bestetik, Arautu gabeko Lanbide Heziketaren gaineko eskumena Euskal Autonomia Erkidegora oraindik transferitu gabe zegoen. Hau da, INEM arduratzen zen Lanerako Prestakuntzaz, eta FORCEM (Etengabeko Prestakuntzarako Fundazioa, 1992/2004), berriz, Etengabeko Lanbide Heziketaz.

Ondorioz, Gobernuak eta erakunde sinatzaileek Hobetuz erakundea osatu zuten, EAEko langile landunen Etengabeko Prestakuntza osorik hartzeko. Erakunde horrek bere gain hartu zituen Etengabeko Prestakuntzaren kudeaketa eta zuzendaritza; halaber hartu zuen ardura enpresen, langileen eta ikastetxeen artean Etengabeko Lanbide Heziketarekiko interesa sustatzeko eta heziketa horrek ahalik eta hedadura eta eraginkortasun handiena lortzeko baldintzak sustatzeko ere. 1997ko martxoan, «Hobetuz Fundazioa / Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa» inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, Ramón Jaureguiren (Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburua, PSOEkoa), Baltasar Errastiren (Euskadiko Enpresa Konfederazioa), José Luis Elorrietaren (ELA), Luis Miguel Parizaren (CCOO), Santos Indakoetxearen (LAB) eta José Ramón Lopategiren (UGT) oniritziarekin.

Hobetuz langile landunen lanbide-heziketa eraginkorrago egiteko sortu zen, erabiltzaileen eskura jarriz eta enpresen eskakizunekin eta langileen prestakuntza-premiekin lotuz[22]. Hobetuz sortu zenean, Etengabeko Prestakuntzak enpresetan etengabe prospekzioak eginez identifikatu ziren premiei erantzun behar izan zien, baina Hobetuzen ezaugarri nagusia ETEei eskaini zien arreta berezia izan zen. Horrelako enpresek ez zuten prestakuntzarako egitura eraginkorrik; beraz, Hobetuz-ek hartu zuen bere gain ardura hori, besteak beste.

Hona hemen abian jarri ziren prestakuntza-planak:

---

[22] «Hemen Hobetuz eratzeak esan nahi du euskal langileek baliabide batzuk dituztela profesionalki birziklatzeko; ordura arte, Estatuak kudeatzen zuen, eta, orduan, Hobetuz-en bidez askoz hurbilagotik kudeatzen hasi zen». UGTko Arantza Niño, Joseba Muñoz eta Juan Carlos Diegori egindako elkarrizketa. Bilbo, 2019ko martxoaren 20a.

8. Grafikoa

Hobetuz-en Etengabeko Prestakuntzako Planak



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EHAA.

Hori guztia posible izan zedin, ekarpen ekonomiko handia egin behar izan zen, zalantzarik gabe; 1996an, Lanbide arteko Akordioa sinatu ondoren, artean Hobetuz Fundazioa eratu gabe zegoela, Eusko Jaurlaritzak EAEko langile landunen Etengabeko Prestakuntzako ekintzak garatzeko lehen laguntza-deialdia egin zuen. Beste deialdi batzuk egin ziren, eta beste langile multzo batzuek izan zuten aukera prestakuntza-ekimenetan parte hartzeko, hala nola Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubide berezira (REASS) bildutako langileek, autonomoek eta lanik ez izanik egoera hauetakoren batean zeudenek: lanaldi partzialeko langileak (aldizkako langile finkoak) lanik gabeko aldietan, prestakuntza-aldian zeudenean langabeziara pasatzen ziren langileak eta enplegu-erregulazioan zeuden langileak onartutako espediente baten ondorioz aldi baterako enplegurik gabe zeudenean.

Ikusten dugu, beraz, langileen Etengabeko Prestakuntzaren garapenarentzat Hobetuz Fundazioa abian jartzeak zerbait gehiago ekarri zuela eragile aholkulari edo aholku-emaile bat izate hutsa baino, zeren eta, azkenean, berak kontrolatu baitzuen maila guztietan prestakuntza-eredu hori. Eta nabarmena da, halaber, Hobetuz Fundazioak irizpide berak erabili zituela Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan, baina, Araba eta Bizkaia gutxiesteko asmorik gabe esanda, errealitateak erakusten du Gipuzkoa izan zela Lanbide Heziketarako abian jartzen ari ziren ekimen horien guztien «ideologoa», eta, hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak dinamizatu zuen ekimen horien parte handi bat.

1985/86 urteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sailak diagnostiko bat egin zuen, eta berretsi zuen enpresen premiei erantzuteko hezkuntza-sistemaren ahalmena kezkagarria zela. Diagnostiko hori lau puntutan zehazten zen:

— Lurralde mailan, ez zegoen Etengabeko Prestakuntzako ekintzen plangintzarik, ez koordinaziorik, eta egiten ziren ekintzak garrantzi gutxikoak ziren, hala kuantitatiboki nola kualitatiboki.
— Etengabeko Prestakuntzako zentroak urriak ziren, eta ez zeuden banatuta ekonomia-sarearen errealitatearen arabera, ez sektoreka, ez eskualdeka.
— Hasierako Prestakuntzako zentroen eta enpresen artean erabateko dibortzioa zegoen, eta horrek elkarren ezagutzarik eza adierazten zuen.
— Egiten ziren etengabeko prestakuntzako jarduerak ez zeuden egokituta sare ekonomikoaren benetako premietara; ez unekoetara, ez etorkizunekoetara.

Egoera horren aurrean, Sailak plan bat diseinatu zuen prestakuntzaren eskaintza eta eskaria hurbiltzeko, Hasierako Prestakuntzako erakundeek Etengabeko Prestakuntzako jarduerak beren gain har zitzaten eta gizartearen, ekonomiaren eta erakundeen partaidetzan oinarritutako jarduerak bilatzeko. Jarduera horri esker, inplikatutako eragile guztiak elkarrengana hurbildu ziren, eta, horren ondorioz, prestakuntza-erakundeek, instituzioek eta gizarte —eta ekonomia— eragileek zenbait erronka hartu zituzten beren gain, edo beren jardunbideari buruzko ondorio batzuk atera zituzten. Hala, Foru Aldundiko Ekonomia Sailak produktibitatean eta lehiakortasunean oinarritutako prestakuntza-ekintza berriak diseinatu beharra planteatu zion bere buruari, baina, ekintza horiek, aldi berean, lan-merkatuan egoera ahulean zeuden pertsona-multzoei zuzenduta egon behar zuten; adibidez, langabezian zeuden gazteei edo emakumeei. Horren ondorioz, hauek izan ziren diseinatutako programarik interesgarrienak:

— HEZILAN: Gipuzkoako enpresetan lanean ari diren langileak birziklatzeko prestakuntza ez-arautuko programa, Lanbide Heziketako ikastetxe homologatuek emandako ikastaro modular irekien formularen bidez. Programa hori diseinatzeko, sektore —eta eskualde— irizpideak hartu ziren kontuan.
— HEZITEK: teknologiari eta enpresa-kudeaketari buruzko prestakuntza-plana, tituludunen, arduradun kualifikatuen eta zuzendarien Prestakuntza Jarraiturako berariaz diseinatua, zentro teknologikoetan, unibertsitate-eskola eta -fakultateetan eta esperientzia egiaztatua duten prestakuntza-erakundeetan garatua.
— EMAKUMEAK: emakumearentzako lan-orientazioko eta -prestakuntzako plana, helburu hau izan zuena: prestakuntza-jarduerak garatzea, hala nola autoestimua, berariazko prestakuntza, lanbide-orientazioa, lana bilatzeko teknikak eta enpresetako praktikak, lehenago lan egin zuten emakumeak lan-bizitza aktiboan sartzea errazteko.

Geroago, *«Gipuzkoa etengabe hezitzen»* izeneko ekimen berri bat sortu zen. Kasu horretan ere baterako ekimen bat izan zen (sindikatuak, ugazabak, prestakuntza-entitateak, administrazioa eta enpresa-eragileak), hezkuntzara, lan-mundura eta gizarte osora zuzendua. Helburu nagusia hezkuntzaren eta etengabeko prestakuntzaren inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziatzea izan zen, informazioaren eta jarduera-eremu eta -dinamiken bidez, hezkuntzak eta etengabeko prestakuntzak duten garrantziari buruzko hausnarketa bateratua egiteko.

4.1.7. *Bizitza osoko ikaskuntza (1999)*

Lanerako Prestakuntza garatzeko prozesuan, XXI. mendearen hasieran jarduera-plan berri bat jarri zen abian, «Bizitza osoko ikaskuntza» izenekoa. Jarduera-plan berri horren jatorria 1999/2002 legegintzaldian Gobernua eratzeko Koalizio Akordiotik eratorritako Enpleguaren aldeko Instituzio arteko Plana izan zen[23], eta Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi horretarako Plan, Programa eta Jarduera esanguratsuen Egutegian jaso zen. Plana Gobernuaren, foru-aldundien eta udalen arteko koordinazio-elementu gisa eratu zen. Haren helburua izan zen baliabide eta politika publikoak integratzea eta koordinatzea, enpleguaren arloko estrategia bateratu bat lortzeko. Estrategia hori Europako Enplegu Estrategian eta Enplegu Jarraibideetan zuzenean oinarrituta zegoen, euskal gizartearen lan-merkatuko arazoei berariaz erantzuten zien eta euskal gizartearen errealitate sozioekonomikora egokitzen zen.

Une hartan, Eusko Jaurlaritzak enplegu —eta prestakuntza— politika aktiboen arloan lan-merkatuaren barruan jarduteko, beharrezkoa zen arau malguak izatea, Europako jarraibide berrietara egokitzeko gai izateko, bereziki *Bizitza Osoko Ikaskuntza* ereduari zegokionez. Hori dela eta, egoera aztertu ondoren, laguntza ekonomikoak eman ziren ikaskuntza baliagarriko jarduerak garatzeko, ezagutzaren edozein arlotakoak, 25 urtetik gorako pertsonentzat —langabeak, landunak zein ez-aktiboak izan—, haien enplegagarritasuna handitu eta haien lan-kualifikazioak, konpetentziak eta gaitasun horizontal eta zeharkakoak hobetzeko.

Etengabeko ikaskuntzako proiektu horiek instituzioen laguntza izan zuten, haietan gizarte-eragileek parte hartu zuten, eta ikaskuntza-ekimen, -ekintza edo -jarduera espezifiko bati erantzuna emateko sortu zi-

[23] Koalizio Akordioa EAJ (Eusko Alderdi Jeltzalea) eta EA (Eusko Alkartasuna) alderdien artean ezarri zen, eta EHren (Euskal Herritarrok) babesa zuen, baina, arazo politikoak zirela medio, akordioa azken indar parlamentario horren lankidetzarik gabe amaitu zen.

ren. Pertsonek banaka parte hartu ahal izan zuten era horretako proiektuetan, baina izan ziren beste ikaskuntza-proiektu batzuk ere, tokiko edo eskualde mailako ikaskuntza-ekimenak, -jarduerak edo -ekintzak garatu eta sustatu zituztenak. Halako proiektuak lanbide-orientazioko zerbitzuek aurkeztu zituzten; zentro horiek, bestalde, enplegu-zentro gisa kalifikatu ziren, eta eskaintza proaktibo bat garatu zuten ikaskuntza mota horren eskaintza eta eskarian. Alderdi horiek kontuan hartuta, Europako Erkidegoen Batzordeak *bizitza osoko ikaskuntza*ri edo etengabeko ikaskuntzari buruzko ekimenak sustatzea gomendatu zuen, eta, besteak beste, hori gomendatu zion Espainiako Erresumari; horren ondorioz, martxan jarri ziren ikasketa-prozesu horiek, eta, haiekin batera, lehenengo dirulaguntzak.

EAEn, foru-aldundiek, udalek eta udal-mankomunitateek, tokiko eta eskualdeko garapen-agentziek, udal-sozietateek, Euskadiko unibertsitateek, irabazi-asmorik gabeko fundazio eta elkarteek eta merkataritza-sozietateek jaso zituzten laguntza ekonomiko horiek. Laguntzen xedea 25 urtetik gorako pertsonen enplegagarritasuna handitzea izan zen —pertsona horiek langabeak, landunak zein ez-aktiboak izan—, haien lan-kualifikazioak, konpetentziak eta gaitasun horizontal eta zeharkakoak hobetuz. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izan ziren, eta haien zenbatekoa, instituzioen gainerako ekarpenak gehituta, ezin zen handiagoa izan *bizitza osoko ikaskuntza*ko ekimen espezifikoari erreferentzia egiten zioten jardueretarako onartutako aurrekontuaren % 100 baino. Nolanahi ere, jarduera horien guztien jarraipena, beste batzuetan bezala, EGAILAN, S.A.k egin zuen, Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Sozietate Publikoak.

4.2. **Enpresa-ekimenak zerbitzuak emateko gune gisa**

Mapfre Fundazioaren «Gazteekiko topaketa» batean, gazteek adierazi zuten bazirela hiru faktore, enpresen eta ikasleen arteko erlazioan, nabarmen hobetu zitezkeenak; enpresek kualifikazioa eta espezializazioa eska zitzaten sustatzea[24]; enpresek eskaintzen zuten prestakuntzak curriculuma betetzen zuela bermatzea, eta bideak jartzea enpresa-munduko adituek

[24] «Enpresa handi bat etortzen denean eta espezializazio-programa bat eskatzen digunean, elektronikaz dakiten eta ez dakit zer eta badakit zer dakiten ikasle mekanikariak nahi dituzte. Enpresa txiki bat etortzen denean, hori desberdina da: enpresa txiki batek pieza txiki bat eskatzen dizu, berak ez duelako lortzen egitea, laguntza eskatzen dizute pertsona bat behar dutelako, beste laguntza mota bat da…». Jon Labakari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko urtarrilaren 22a.

ikasgeletako irakaskuntza-jardueran parte har dezaten[25]. Azken puntu horri dagokionez, esan behar da euskal LH, azken urteotan, prozesu bat gauzatzen ari dela: adituak ikasleengana hurbiltzen ari dira, eta, biak, ikasleak eta irakasleak, partekatzen ari dira ikasleak hurrengo azpiataletan adieraziko diren ekimen berritzaileetan jasotzen ari diren prestakuntza.

4.2.1. *Enpresa «eragileak» eta nodoak*

Enpresa-ekimenen eskutik datorren berrikuntzaren eremu horretan, aipatu beharrekoak dira enpresa «eragileak», hau da, hazkundea eta goimailako garapena sustatzeaz gainera ETEentzako laguntza-elementu garrantzitsu diren enpresa «handiak». Era horretako enpresek, tokiko ekonomietan enplegua sortzeaz gainera, estatuan eta nazioartean ere sortzen dute.

Ezaugarri hauek dituzte, besteak beste: *tamaina* —nabarmen handiak dira—, *baliabideak eta ahalmenak izatea* —aktibo eta ahalmen handiak dituzte eta I+G+Bko baliabide, ezagutza eta informazioko baliabide propioak dituzte—, *ezagutza eta informazioa* —merkatuei, kostuei eta teknologiei buruzko ezagutza eta informazioa dute—, *ospea eta nazioarteko presentzia* —ibilbide sendoa izateak haien alde egiten du beti—, *eta lidergoa* —beren salmenta-sektoreetan liderrak izateaz gainera, lider gisa jokatzen dute industrian—. Gure autonomia-erkidegoari dagokionez, enpresa «eragile» horietako batzuk Mercedes Benz (Araba), Iberdrola (Bizkaia) eta CAF (Gipuzkoa) dira, baina, jakina, ez dira bakarrak. Nolabait, enpresa «eragileen» funtzio horrek antz handia du aurreko mendeko 50eko hamarkadako «monolaborantza dibertsifikatua» izeneko fenomenoarekin (Murua, H., 2015); hau da, industria-azpisektore asko, zuzenean edo zeharka, garrantzi handiagoko sektore baten mende zeuden (garai hartan, Gipuzkoan, metalurgiaren sektorea zen).

LHko berrikuntzaren arloan, beste elementu garrantzitsu bat nodoak dira: espezializazio berean lan egiten duten ikastetxeak dira, eta haien ezaugarria da merkatuaren premietara egokitzeko erraztasuna. Nodoak Lanbide Heziketako Berrikuntzaren Euskal Sistema bideratzeko diseinatuta daude. Nodo horiek beste zeregin batzuk ere betetzen dituzte, hala nola zaintza teknologikoa edo harreman estua izatea Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekin, ETEekin, aipatu-

---

[25] «Bokaziozko Lanbide Heziketaren muinera itzuli behar da pixka bat, hau da, aprendizgoarenera, aprendizarenera: bere ordutegia edozein izanda ere aprendizari erakusten aritzen zen pertsona haren eta aprendizaren artean sortzen den kimika hori. Nire ustez, hori da sistema aberastu duenaren oinarria», José Ignacio Hernandezi egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko otsailaren 11.

tako enpresa «eragile» horiekin eta abarrekin, baina enpresen premiei aurrea hartzeko eta egoki iruditzen zaizkien ondorioak ateratzeko ekimenak planteatzeaz ere arduratzen dira.

Une honetan, Fabrikazio Aurreratua, Fabrikazio Digitala eta Konektatua, Energia eta Biozientziak dira aktibo dauden nodoak. Nodo baten funtzionamendura hurbiltzeko, Tknikak martxan jarri zuen eta Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan gauzatu zen Fabrikazio Aurreratuaren adibidea hartuko dugu.

6. Laukia

Fabrikazio Aurreratuko nodoa

Sailkapena	Parte-hartzaileak	Funtzioak	Ekintzak
Maila estrategikoa	Lanbide Heziketa, Eusko Jaurlaritza, Enpresak eta Euskal Sareko Eragileak	Premiei antzematea eta lehentasunak ezartzea	IMH eta ikastetxeak: jarduerak proposatzea
Estrategiaren garapen-maila	Nodoan parte hartzen duten ikastetxeak	Antzemandako premientzako erantzunak diseinatzea	Ikastetxe bakoitzaren espezializazioa definitzea lehentasunezko gaiei erantzuteko eta ekintzak diseinatzeko
Maila operatiboa; hedapena	Nodoan parte hartzen duten ikastetxeak, ikastetxe laguntzaileetara zabaldua	Espezializazio-ikastaroak ematea, proiektuak eta zerbitzuak garatzea	Ekintzak garatu eta abiaraztea

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* https://www.imh.eus/es/noticias/constituido-el-nodo-de-fabricacion-avanzada

4.2.2. *Zerbitzu ez-tradizionalak*

Etengabeko aldaketa eta aurrerapen teknologikoek markatutako gizarte batean, «teknologia-transferentzia eta klusterren eta polo teknologikoen eraikuntza funtsezko elementuak dira zientzia- eta teknologia-

politikaren diseinuan» (Lavarello, Robert, Minervini eta Lerena, 2019). EAEko LHko ikastetxeei dagokienez, badirudi hala dela; izan ere, azken urteotan, euskal probintzietan ikerketa-guneak sortzeko zenbait proposamen agertu dira, eta, ondorioz, Euskadi nazioarteko berrikuntza-gunetzat hartzen ari da, eta Espainiako estatu osoan lider absolutu gisa ageri da Europako goi-mailako berrikuntza-eskualde gisa. Hala aitortzen du Europako Batzordeak Eskualdekako Berrikuntza panelean (RIS, ingelesezko sigletan). Taula hori argitaratu berria da, eta berrikuntzaren errendimendua neurtzen du 22 estatu kidetako 214 eskualdetan.

Europako eskualde berritzaileenak herrialde berritzaileenetan daude, hau da, lider diren herrialdeetan, baina, moderatuen taldeko estatuetan, eskualde-mailako lau berrikuntza-gune daude gainerakoen gainetik, eta talde horretan dago Euskadi (badirudi Gipuzkoa dela zeregin horretan inplikaziorik handiena duen probintzia); gainerako hirurak Piemonte eta Friuli-Venezia-Giulia dira, Italian, eta Bratislava, Eslovakian.

Esan dugun bezala, Gipuzkoan lan garrantzitsua egiten ari da arlo horretan, eta zenbait ekimen sortu dira lurraldean, hala nola Goierri, Meka, IMH, Lortek… Kasu honetan, Goierri Berrikuntza Gunea egiten ari den lana aztertuko dugu. «Goierri» Berrikuntza Gunea Gipuzkoan dago, Ordiziako Lanbide Eskolako eta Unibertsitate Campuseko instalazioetan. Berrikuntza etengabeko prozesu bat abiarazteko eta dinamizatzeko helburu orokorrarekin sortu zen, eskualdeko enpresen, unibertsitatearen eta probintziako zentro teknologikoen artean ideiak, proiektuak eta jarduerak trukatzera orientatua, helburu espezifiko batekin: ideia, proiektu eta jarduera horiek prestakuntza-maila guztietara iristea eta oinarri teknologikoko enpresa berrien sorrera erraztea.

Testuinguru horretan, azpimarratu behar da proiektua sakonki errotuta dagoela eskualdeko ekoizpen-sarean eta eskualdearen berrikuntza-premiei erantzun nahi diela. Horretarako, bi jarduera-ildo ditu: bata, enpresei zuzendua, eta bestea, unibertsitateko campusari zuzendua. *Lurzoru urbanizatua* eskaintzen die balio teknologiko handiko enpresak instalatzeko, *I+G+Brako espazioak* eskaintzen ditu jada existitzen diren enpresentzat, eta enpresa-mintegi bat eskaintzen du pertsona ekintzaileek beren negozioak gara ditzaten.

«Goierri» berrikuntza-guneak bere jardueretarako ezarria duen lanfilosofia puntu hauetan laburbil dezakegu:

— *«Ongarritze gurutzatura»* bideratuta dago, enpresen, zentro teknologikoen eta unibertsitatearen arteko ezagutza-transferentziaren bidez, eta *etengabeko berrikuntzara*, epe luzeko dinamikak martxan jarriz.

— Era berean, *lurraldearen premien* zerbitzura dago, inguruko berrikuntza-premia errealei erantzunez, *eraldaketa-bokazioarekin*, sektore berrietan enpresa berriak sortzea bultzatuz, eta *modu egokian dimentsionatuta* dago; hau da, proiektu errealista eta sinesgarria da, dauden premia eta baliabideen arabera sortua eta diseinatua, eta *lankidetza publiko-pribatuan* oinarritua, hau da, enpresa pribatuek eta erakunde publikoek elkarrekin lanean dihardute, Goierrik lankidetza mota horretan esperientzia baitu.

Printzipio horiekin, Goierrik bost lehentasun ezarri ditu bere lana garatzeko:

— Lankidetza bultzatzea, enpresen lehiakortasuna hobetzeko.
— Ikerketa bateratuko proiektuak hautatzea, *eragile anitzeko proiektuak*.
— *I+G+Bko unitate berriak erakartzea*, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortu ahal izateko.
— Enpresen, unibertsitatearen eta lanbide-eskolaren artean *profesionalak lekualdatzeko* aukera izatea, esperientzia aprobetxatzea eta *berrikuntza eta ekintzailetza sustatzea*.
— Eta *etengabeko foro* bat ezartzea eskualdeko erakundeen artean, berrikuntza eta ekintzailetza sustatzeko.

4.2.3. *Ekimen berri bat: BerIndu programa*

Euskal enpresa-sektoreak, historikoki, harreman estua izan du LHrekin. Hezkuntza-eredu hori ematen duten ikastetxeetara hurbiltzeko filosofia horrekin jarraitu du, eta zenbait ekimen jarri ditu martxan; adibidez, Adegi Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak diseinatutakoa. Ekimen horietako bat BerIndu programa izan da, enpresa-errealitatea hezkuntza-sistemara hurbiltzen laguntzeko, ezagutza hori ikasgeletara eramateko. Programa horretan probintziako enpresa adierazgarrienetako batzuek hartu zuten parte, hala nola Eroski, Danobat, Salto eta Oronak, besteak beste.

2009. urtearen amaieran, Adegik BerIndu programa jarri zuen martxan, lehen aipatu dugun helburuarekin, hau da, enpresen errealitatea hezkuntzara hurbiltzea, hezkuntzaren munduak enpresek dituzten premiak ezagut ditzan eta, hala, enpresetara ondoen egokitzen diren prestakuntzak bultza daitezen. Programa hau enpresa batzuetan «ad hoc» prestatutako bisitak egitean zetzan, eta Lanbide Heziketako irakasleei, ikastetxeetako orientatzaileei eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta zegoen. Bisita horiek programatuta zeuden enpresaren kudeaketaren alderdi jakin batzuk ezagutarazteko, eta enpresa-errealitatearen, balioen, arlo jakin baten kudeaketaren, teknologia berritzaileenen, ekoizpen-prozesuaren eta

abarren ikuspegi eguneratua emateko. Esperientzian 100 bat irakaslek eta 50 bat ikaslek hartu zuten parte, eta 15 enpresatan egin ziren bisitak.

Gonbidatutako irakasleen kasuan, programaren helburua zen, enpresen errealitatea erakusteaz gainera, haiei *in situ* ezagutaraztea ekoizpen-prozesuetako eta kudeaketa-ereduetako esperientzia berritzaileak. Ikasleek, esperientziari buruzko iritzia eskatuta, positiboki baloratu zuten enpresen esperientzia praktikoak ezagutu ahal izatea, uste baitzuten horrek etorkizunean enpresaren munduan sartzea erraztuko ziela.

BerIndu programaren hirugarren talde hartzailea Batxilergoko eta DBHko orientatzaileak izan ziren, Adegik uste baitzuen, zabalkunde-lan horri begira, funtsezkoa zela Bigarren Hezkuntzako orientatzaileek bertatik bertara ezagutzea Lanbide Heziketak eskaintzen dituen enpresen errealitatea eta garapen profesionaleko aukerak, hala nola karrera profesionala, lansariak, lan-baldintzak, etab. Horregatik, eta zabalkunde-lana hobetzeko asmoz, Adegik enpresetara bisitak egiteko programa pilotu bat diseinatu zuen, Batxilergoko eta DBHko zentroetako orientatzaile horientzat.

BerIndok Lanbide Heziketako irakasleen eta ikastetxeetako orientatzaileen artean izan zuen parte-hartzea eta harrera ikusita, Adegik programarekin jarraitzea eta horretan sakontzea proposatu zuen, eta, ildo horretatik, enpresetara bisitak egiteko programa zehazten ari zen, eta programa hori unibertsitatera eta batxilergoko ikastetxeetara zabaltzeko aukera aztertzen ari zen, ikasle horiei enpresaren errealitatea ezagutarazteko.

V. Kapitulua
EAE-ko Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen historia eta bilakaera: eskola-uztetik «kalitatera»

Hilario Murua Cartón

Lanbide Heziketako ikastetxeek ibilbide luzea egin dute batzuk Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu bihurtu diren arte. Bide horretan, zenbait ikastetxe ireki eta itxi egin dira, eta izen-aldaketak, jabe-aldaketak, ikastetxeen beren eraldaketak eta abar gertatu dira.

> Begira, lehenengo aldian, 2003 arte, ikastetxeak desastre bat ziren, ez pentsa orain bezala zeudenik. 90eko hamarkadan, ikastetxeak beste autonomia-erkidego batzuetako ikastetxeak bezala zeuden. Hedapenaren hamarkada 90ekoa izan zen, 2003/04 arte; gero, oparoaldi ekonomikoa etorri zen 2008ra arte, eta, gero, krisia iritsi zen, eta, noski, diru gutxiago zegoen baina gauza bera egin behar zen, eta arazoak hasi ziren...[1].

Frankismo-garaiaren amaieran ikastetxeek bizi izan zuten egoera kaotiko samar hori ere berresten du Mujikak:

> Ikastetxeetako funtzionamendua askotarikoa zen. Oso garai asanblearioa zen, 1980. Klaustroak ez ziren inoiz amaitzen; «irakasle mamuaren» figura zegoen: 30 irakasle bazenituen, esaten zenuen 35 zeudela, banatzeko eta soldata hobetzeko, eta gauza batzuk zeuden,... Eusko Jaurlaritza sartu zenean…[2].

Kapitulu honetan, hain zuzen, ikastetxe horietan gertatu zenaren zati bat aztertuko dugu[3].

---

[1] Itziar Etxeberriari egindako elkarrizketa, Gasteiz, 2019ko uztailaren 11.

[2] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

[3] Gaur egun, EAEn 174 lagunek ematen dute Lanbide Heziketa. Haietako bakoitzaren historia labur bat egiteak beste liburu bat idazteko emango liguke, eta hori ez da gure helburua; horregatik, LHko 34 zentro integratuetan zentratu dugu lana.

5.1. **Lanbide Heziketako ikastetxeen historia, bilakaera eta eraldaketa**

1975ean, frankismoaren amaieran, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako probintziek —erregimenak *provincias Vascongadas* deitzen zien— Lanbide Heziketako 65 ikastetxe zituzten, eta haien titulartasuna askotarikoa zen: Estatua, Eliza, Administrazioa eta Enpresa. Jabeen titulartasunari dagokionez, aniztasun hori ez zen kasualitatea izan, baizik eta hezkuntza-sistema guztiarekiko erregimen totalitarioak zeraman politika tamalgarriaren emaitza. Lanbide Heziketa zen arreta gutxien eskaini zitzaion irakaskuntza-eredua; horregatik, titulartasun pribatuko ikastetxeek parte-hartze handia zuten EAEko Lanbide Heziketan.

Lanbide Heziketa Industrialari buruzko 1955eko Legea indarrean sartu zenetik, Estatuaren ikastetxeak «ofizial» gisa sailkatu ziren, eta «ez-ofizial» gisa, berriz, erakunde pribatuenak. Hala ere, «ez-ofizial» talde horren barruan zeuden Falangearen Erakunde Sindikalak kontrolatzen zituenak, eta izaera «ofizial» nabarmeneko erakundea zen. Falangeak Gipuzkoan eta Bizkaian zituen ikastetxeak, eta garrantzi nabarmena zuten euskal abertzaletasuna oso errotuta zegoen herri batzuetan, hala nola Tolosa, Errenteria edo Zarautz Gipuzkoan, eta Mungia eta Gernika Bizkaian.

7. Laukia

Falangearen Erakunde Sindikalaren ikastetxe ez-ofizialen kopurua
1936 eta 1975 bitartean EAEn

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
	1. Ortuellako «Nuestra Señora de Begoña» lantegi-eskola sindikala	1. Zumaiako «Arritokietako Ama Birjina» lanbide-eskola sindikala
	2. Bilboko «San Ignacio de Loyola» institutu sindikala	2. Zarauzko «Monte Albertia» lanbide-eskola
	3. Mungiako «Santa María» lantegi-eskola sindikala	3. Tolosako «Paperaren Eskola Sindikala»
	4. Gernikako «Gernika» lantegi-eskola sindikala	4. Errenteriako «Nuestra Señora de Begoña» lantegi-eskola sindikala
	5. Orduñako «Orduña» lantegi-eskola sindikala	5. Mutrikuko «Nuestra Señora de Idurre» Lanbide Heziketa Industrialeko eskola
		6. Irungo «Nuestra Señora del Juncal» lanbide-eskola
		7. Beasaingo «Nuestra Señora de Loinaz» lanbide-eskola sindikala

Iturria: Geuk egina. *Datuak* Murua, 2015.

Frankismoaren garaian, ikastetxe ez-ofizial ugari izan ziren Euskal Herrian. Lanbide Heziketaren garapenean parte hartu zuten erakunde guztietatik garrantzitsuena, irakaskuntza-eredu horretan aritu ziren ikastetxeen kopuru handiagatik, Eliza izan zen. Guztira 23 ikastetxek hartu zuten parte, honela banatuak:

8. Laukia

Elizaren ikastetxe ez-ofizialen kopurua 1936 eta 1975 bitartean EAEn

Salletarrak	Elizbarrutikoak	Jesuitak	Salestarrak	Beste zenbaait
1. Irungo «La Salle» (Gipuzkoa)	7. Gasteizko «San José Obrero» (Araba)	13. Gasteizko «Jesús Obrero» (Araba)	17. Bilboko «Maestría Industrial» (Bizkaia)	20. «Gaztelueta» – Leioako Opus Dei (Bizkaia)
2. Legazpiko (Gipuzkoa) «Artzain Ona»	8. Muskizko «Nuestra Señora del Socorro» (Bizkaia), gizonezkoena	14. Bilboko «Nuestra Señora de Begoña» (Bizkaia)	18. Errenteriako «Don Bosco» (Gipuzkoa)	21. «San José» – Durangoko maristak (Bizkaia)
3. Zumarragako «La Salle Legazpi» (Gipuzkoa)	9. Muskizko «Nuestra Señora del Socorro» (Bizkaia), emakumezkoena	15. Azkoitiko «San Ignacio de Loyola» (Gipuzkoa)	19. Urnietako «San José Obrero» (Gipuzkoa)	22. «Escuela Profesional Obrera» – Zarauzko frantziskotarrak (Gipuzkoa)
4. Beasaingo «San Martín de Loinaz» (Gipuzkoa)	10. Markina-Xemeingo «Escuela Laboral Parroquial» (Bizkaia)	16. Donostiako «Instituto Obrero» (Gipuzkoa)		23. Loiuko «Amor Misericordioso» (Bizkaia)
5. Gallartako «Patronato Obrero Pío X» (Bizkaia)	11. Zeanuriko «Escuela de Aprendices» (Bizkaia)			
6. Laudioko «La Salle» (Araba)	12. Donostiako «San Sebastián Mártir» (Gipuzkoa)			

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Murua, 2015.

Administrazioaren ikastetxeei buruz ari garenean, udalen edo probintzia-aldundien mende egon ziren zortzi ikastetxeei buruz ari gara. Ikastetxe horiek zeregin garrantzitsua izan zuten euskal lanbide-heziketako ikastetxeen sorreran eta garapenean.

9. Laukia

Administrazioaren ikastetxeen kopurua 1936 eta 1975 bitartean EAEn

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
	1. Portugaleteko lanbide-eskola 2. Ermuko lanbide-hasierako eskola	1. Arrasateko lanbide-eskola 2. Bergarako institutu politeknikoa 3. Debako lanbide-hasierako eskola 4. Zizurkilgo «Fraisoro» nekazaritza-prestakuntzako 5. Ordiziako «Goierri» lanbide-eskola

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Murua, 2015.

Azkenik, ezin dugu ahaztu euskal enpresek zeregin garrantzitsua izan zutela Lanbide Heziketako ikastetxeak sortzeko eta abian jartzeko orduan.

10. Laukia

Enpresaren ikastetxeen kopurua 1936 eta 1975 bitartean EAEn

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1. Amurrioko «El Salvador»	1. Sestaoko Sociedad Española de Construcción Navalen aprendizgo-eskola 2. Sestaoko Labe Garaiak enpresaren aprendizgo-eskola 3. Sestaoko General Eléctrica Españolaren aprendizgo-eskola 4. Erandioko Westinghouseren aprendizgo-eskola 5. Galdakaoko Unión Española de Explosivosen aprendizgo-eskola 6. Sopuertako «Antonio Trueba» emakumeentzako lanbide-eskola	1. Arrasateko Unión Cerrajeraren aprendizgo-eskola 2. Eibarko «Ruiz de Loizaga» akademia komertziala 3. Elgoibarko «Eulogio Estarta» fundazioa 4. Beasaingo «CAF» industria-eskola 5. Zarauzko «Hostelería Euromar» lanbide-eskola 6. Andoaingo «Fundación Legarra-Echeveste» lanbide-eskola 7. Donostiako «Nazaret» emakumeentzako ongintza-zentroa

Iturria: Geuk egina. *Datuak*: Murua, 2015.

1975ean EAEn zegoen ikastetxe-zerrenda hori aldatuz joan zen denborak aurrera egin ahala, bai ikastetxe asko desagertu zirelako, bai beste ikastetxe batzuek ordeztu zituztelako edo beste ikastetxe batzuekin elkartu zirelako. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzaren lana erabakigarria izan zen:

> Eusko Jaurlaritzak Ofizialtza Eskoletako tailerrak modernizatzearen alde egitea erabaki zuen, Lanbide Heziketako eskoletan jauzi handia egin nahi izan zen, alegia, tailerretan eguneratze teknologiko garrantzitsua egin. Ikastetxeak ziren beren premiak hobekien ezagutzen zituztenak, eta, beraz, ikastetxeei zegokien erabakitzea zer behar zuten[4].

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketako ikastetxeak eguneratzeko apustu hori kritikatu zuten sindikatuek, haien ustez ikastetxeek ez baitzituzten premia guztiak asetzen:

> Uste dut Euskadik tradizio handia izan duela Lanbide Heziketaren arloan; Lanbide Heziketak pisu handia izan du, eta uste dut Estatuko gainerako ikastetxeetan baino neurri handiagoan garatu dela, baina, nire ustez, arazo bat sortu zen: Lanbide Heziketako ikastetxeak, beren ezaugarriengatik, ez dira gauza izan prestakuntza eguneratzeko prozesuei aurre egiteko, eta hala gertatu da beharbada ez direlako izan behar beste trebakuntza-ikastetxe premia guztiak estaltzeko. Horregatik, gizarte-eragileek zuzenean esku hartzea erabaki genuen[5].

Ikastetxeak beste batzuekin elkartzea, ordezkatzea edo desagertzea ekarri zuen prozesu horretan, faktore erabakigarrietako bat 1990ean LOGSE abian jartzea izan zen. Lege horren bidez agertu ziren «kalitatearen» lehen seinaleak, eta, besteak beste, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen, publikoen eta pribatuen, sare-sistema bat sortzeko proposamena egin zen. Sistema horrek prestakuntza-eskaintza instituzional iragazkor bat izatea erraztu behar zuen, pertsonen kualifikazio-ahaleginak ahalik eta gehien bultzatzeko. Prestakuntza hori Lanbide Kualifikazioen Sistemarekin lotu zen, eta aktibo posible guztiei eskaini zitzaien, hau da, eskolaadinean zeuden gazteei eta langile landun edo langabeei. Hala, Lanbide Kualifikazioei lotutako Heziketa Zikloetan eta prestakuntzan parte hartu ahal izan zuten.

Baldintza horietan sartu zen indarrean Lanbide Heziketako II. Euskal Plana. Plan horren V. kapituluak «Lanbide Heziketako ikastetxe integral motak» zuen izena, eta aipatzen zuen LHko ikastetxe publiko eta pribatuen sare integrala Goi Mailako Lanbide Heziketako ikastetxeek, Berri-

---

[4] José Luis García Bengoari egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko martxoaren 1a.

[5] Arantxa Martínezi (CCOO) egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko otsailaren 20a.

kuntza Teknologikoko zentroek eta Institutu Tekniko Bereziek osatuko zutela, baina gertatu zen Bigarren Hezkuntzako institutu batzuk Goi-mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu bihurtu zirela eta une horretatik aurrera Berariazko Lanbide Heziketa eman ahal izan zutela.

Ikastetxeen antolaketa berregituratzeko prozesuak aurrera jarraitu zuen, eta 2001. urtean hau zen ikastetxe integralen sarea:

11. Laukia

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integral Publiko eta Pribatuen Sarea
EAEn 2002. urtean

LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE PUBLIKO INTEGRALAK	LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE PRIBATU INTEGRALAK
1. GBLHI / IEFPS Mendizabala, Gasteiz (Araba)	1. Elizbarrutikoak, Gasteiz (Araba)
2. BHI (ITB) Ostalaritza BHI (ITB), Gasteiz (Araba)	2. Jesús Obrero, Gasteiz (Araba)
3. BHI (ITB) Ciudad Jardín BHI (ITB), Gasteiz (Araba)	3. Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea, Laudio (Araba)
4. BHI (ITB) Eraikuntza BHI (ITB), Zigoitia (Araba)	4. Arratiako Zulaibar LI, Zeanuri (Bizkaia)
5.GBLHI / IEFPS, Iurreta (Bizkaia)	5. Deustuko Salestarrak, Bilbo (Bizkaia)
6. GBLHI / IEFPS, Fadura, Getxo (Bizkaia)	6. Marcelo Gangoiti, Muskiz (Bizkaia)
7. GLHBI / IEFPS, Ategorri-Tartanga, Erandio (Bizkaia)	7. Lea-Artibai, Markina (Bizkaia)
8. GLHBI / IEFPS, Nicolás Larburu, Barakaldo (Bizkaia)	8. Politeknika Ikastegia, Derio, Txorierri (Bizkaia)
9. GLHBI / IEFPS, Repelega, Portugalete (Bizkaia)	9. Zabalburu, Bilbo (Bizkaia)
10. GLHBI / IEFPS, San Jorge, Santurtzi (Bizkaia)	10. «San José» – Durangoko maristak (Bizkaia)
11. GLHBI / IEFPS, Elorrieta-Erreka Mari, Bilbo (Bizkaia)	11. San Viator ikastetxea, Sopuerta (Bizkaia)
12. BHI (ITB) Eraikuntza BHI (ITB), Santurtzi (Bizkaia)	12. Goierriko Lanbide Eskola, Ordizia (Gipuzkoa)
13. GLHBI / IEFPS Easo, Donostia (Gipuzkoa)	13. La Salle Berrozpe, Andoain (Gipuzkoa)
14. GLHBI / IEFPS, Armeria Eskola, Eibar (Gipuzkoa)	14. Eskola Politeknikoa, Arrasate (Gipuzkoa)
15. GLHBI / IEFPS, Don Bosco, Errenteria (Gipuzkoa)	15. La Salle, Irun (Gipuzkoa)
16. GLHBI / IEFPS, Miguel Altuna, Bergara (Gipuzkoa)	16. Urola Garaiko Lanbide Eskola, Zumarraga (Gipuzkoa)
17. GLHBI / IEFPS, Bidasoa, Irun (Gipuzkoa)	17. San José Obrero, Urnieta (Gipuzkoa)
18. GLHBI / IEFPS, Usurbil, Usurbil (Gipuzkoa)	18. Antoniano Ikastetxe Politeknikoa, Zarautz (Gipuzkoa)
19. GLHBI / IEFPS, Tolosaldea, Tolosa (Gipuzkoa)	
20. BHI (I.I.T.) Makina-erreminta, BHI (BTI), Elgoibar (Gipuzkoa)	
21. BHI (BTI) Paper Eskola, Tolosa (Gipuzkoa)	
22. BHI (ITB) Altza, Donostia (Gipuzkoa)	

Iturria: Geuk egina. *Datuak*: EUSTAT.

Bestalde, Lanbide Heziketako Zentro Integratuaren (LHII) figura definitu eta sortu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, hau da:

> Berariazko Lanbide Heziketa, Lanerako Prestakuntza edo Etengabeko Prestakuntza eskaintzen edo ematen zuen Lanbide Heziketako ikastetxe publiko edo itundua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztutako baldintzak betetzen zituena. Gainera, pertsonen kualifikazio-premiei erantzun behar zien, bai eta ekoizpen-ingurunearen eta/edo administrazioaren premiei ere, eta bere kudeaketa-, antolaketa-, funtzionamendu- eta finantziazio-eredua izan behar zuen.

Lanbide Heziketako ikastetxeen eredu berri horri zenbait eginkizun esleitu zitzaizkion. Haien artean, hauek nabarmenduko ditugu: EAEn Lanbide Heziketako Euskal Planaren barruan garatzen diren prestakuntza-programetan parte hartzea, eta lankidetzan aritzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuarekin, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokiarekin, Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziarekin, enpresa eta enpresa-sareekin, Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearekin, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuekin, Lanerako Prestakuntza edo Etengabeko Prestakuntzako entitateekin, eta lankidetzan aritzea, halaber, Lanbide Heziketako ikastetxeetan kudeaketa integraleko eredu berriak ezartzeko.

13. Taula

EAEko Lanbide Heziketako ikastetxeak guztira, 2018/19 ikasturtea

Araba				Bizkaia				Gipuzkoa				Guztira	
Publikoa		Pribatua		Publikoa		Pribatua		Publikoa		Pribatua		Publikoa	Pribatua
BHI	9	BHIP	1	BHI	15	BHIP	35	BHI	11	BHIP	23	35	59
HHI	1	HLBHIP	5	HHI		HLBHIP	4	HHI		HLBHIP	4	1	13
LHII	4	OLHIP	2	LHII	15	OLHIP	7	LHII	15	OLHIP	6	34	15
OLHUI				OLHUI	11			OLHUI	6			17	
Guztira	14	Guztira	8	Guztira	41	Guztira	46	Guztira	32	Guztira	33	87	87
Guztira													174

Iturria: Geuk egina. *Datuak*: EUSTAT.

Hala ere, espero izatekoa zen bezala, EAEko Lanbide Heziketako ikastetxe guztiek ez zituzten baldintza horiek betetzen. Kontua da gaur egun EAEn 174 ikastetxetan ematen dela Lanbide Heziketa; haietatik 87 publikoak dira, eta beste 87 pribatuak. Ikastetxe publikoek lau modalitate dituzte: Bigarren Hezkuntzako Institutuak (BHI), Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak (LHII), Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak (OLHUI) eta Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak (HHI). Bestalde, ikastetxe pribatuak hiru talde handitan banatzen dira: Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuak (BHIP), Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuak (HLBHIP) eta Oinarrizko Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatuak (OLHIP).

5.2. **EAEko ikastetxe integratuak: sorrera, garapena eta «Kalitate»ranzko bilakaera**

EAEko Lanbide Heziketako ikastetxeen banaketaren berri izan ondoren, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen historia laburra egingo dugu. Azterketa probintziaka egingo dugu, eta aukera izango dugu egiaztatzeko ia ikastetxe guztiek ezaugarri komun asko dituztela.

5.2.1. *Araba*

Arabatik hasita, Lanbide Heziketako lau ikastetxe integratu ditugu: Ciudad Jardín (1950/2019), Eraikuntzakoa (1991/2019), Mendizabala (1981/2019) eta Ostalaritzakoa (1989/2019). Hiriburuan daude guztiak, Gasteizen.

- Ciudad Jardín joan den mendeko 50eko hamarkadan sortu zen, «Araban ikasle asko daude merkataritzako ikasketak egiteko beste herri batzuetara joatera behartuak, eta Gasteizek ekonomian lortutako garrantziak justifikatzen du Gasteizen Merkataritzako Peritu Eskola bat sortzea».

Hasiera-hasieratik, administrazio-irakaskuntzetara zuzenduta egon zen; hain zuzen, «Merkataritzako Peritu Eskola» gisa sortu zen, eta Merkataritzako Irakaskuntzak ematen abiatu zen, Floridako Eskola Taldean. Garai hartan Gasteizen kokatzen ari ziren enpresen premiei erantzuteko sortu zen Merkataritza Eskolaren proiektua, maila handiko administrazio-profesionalak sortzeko.

1951ko urriaren 8an, 25 emakumezko eta 43 gizonezkok egin zuten sarrera-azterketa, baina urte horretako abenduaren 10era arte itxaron behar izan zen inaugurazio ofiziala egiteko. Ordutik gaur egun arte,

izen-aldaketa ugari izan ditu ikastetxeak, harik eta 2016. urtean gaur egun duen izendapena eta izena hartu zituen arte: «Ciudad Jardín» LHII.

• Berriagoa da Arabako Eraikuntzako ikastetxea. Errealitateak erakusten du duela urte gutxi arte Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzako langileen bereizgarri bat ikasketa-maila apala zela. Adibidez, 2005. urtean sektore horretako langileen % 50ek lehen mailako ikasketak besterik ez zuen; beraz, badirudi prestakuntza oraindik ere konpondu gabeko arazo bat dela.

Hain aspaldi ez dela, aprendiz sartzea zen ia bide bakarra eraikuntzako zenbait lanbidetan hasteko, bai prestakuntza-eskaintzarik ez zegoelako, bai «eraikuntzan lan egiteko ez da ikasi behar» gisako aurreiritzi ulergaitzak zeudelako. Hala ere, «Eraiken/Construcción» proiektu hau errotuz joan da Arabako gizartean, eta gero eta gehiago dira uste dutenak ezinbestekoa dela behar bezala kualifikatutako belaunaldi berri bat sartzea sektorean, hots, lan-merkatuaren egungo eskakizunekin bat datozen ezagutza eta trebetasunak dituzten profesionalak sartzea.

Analisi historikoari dagokionez, «Eraikuntzaren Institutu Teknikoa 1991n sortu zen, Zigoitian (Araba), eraikuntza-sektorearekin lotutako prestakuntza-adar guztiak bilduko zituen ikastetxe bihurtzeko asmoz, ordura arte zenbait ikastetxe eta erakundetan sakabanatuta baitzeuden. Horretarako, Sustapen Batzorde bat sortu zen, erakunde hauen arteko hitzarmen baten ondorioz: Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Zigoitiko Udala eta UNECA (Arabako Eraikuntzako Enpresaburuen Batasuna).

2001. urtean, Institutua Gasteizera aldatu zen; Mendebaldea BHI zaharrean kokatu zen, eta bikoiztu egin zuen hezkuntza-eskaintza. Harrezkero, bigarren hezkuntzako ikastetxe baten instalazioak eraikuntzako lanbide-heziketako ikastetxe baten premietara egokitzeko prozesuari ekin zitzaion. Prozesu konplexu hori 2005. urtean amaitu zen, tailerren eraikin berriaren obrak amaitu zirenean. Horri esker, eskaintza bikoiztu egin zen berriz ere. 2015/16 ikasturtetik aurrera, ikastetxea Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu bihurtu zen, CIFP «Eraiken/Construcción» LHII izendapenarekin. Izen berri hori, baina, izen-aldatze hutsa baino gehiago izan zen, Zentro Integratuen sarean sartzeak ekarri baitzuen ikastetxea gai izatea Lanbide Heziketako tituluak eta/edo sektoreko profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-eskaintza guztiak emateko.

• Beharbada, duen eskaintza akademikoagatik, Mendizabala da Arabako LHIIrik garrantzitsuena. Frankismoaren amaieran du jatorria. Agintari akademiko frankistak jakitun ziren 1975ean Arabako hiriburuan Lanbide Heziketako irakaskuntzen eskaera handia zegoela, eta,

aldi berean, eskola-postuen defizit handia; beraz, Lanbide Heziketako zentro bat eraikitzeko erabakia hartu zuten, Gasteizko biztanleen premiak asetzeko. Ondorioz, agindua eman zuten Gasteizek Institutu Politekniko Nazional bat izan zezan; dena dela, hasieran, eraikin berria egin arte, Arabako hiriburuko Nikaragua kaleko lokal batzuetan kokatu ziren behin-behinean.

1980/81 ikasturtea zen, trantsizio politiko eta sozialeko uneak, eta hezkuntza-agintariek ez zekiten oso ondo nola jarri martxan institutua. Ezjakintasuna erabatekoa zen, hainbesterainokoa non ez baitzegoen irakasleen plantilla zehatzik; beraz, matrikulatuz zihoazen ikasleen arabera kontratatzen ziren irakasleak. Hala ere, egoera kaotiko hori ez zen iritsi ikastetxean lan egiten zuten langileengana bakarrik; izan ere, ez zegoen argi nork erosi behar zuen altzariekin edo material inbentariagarriarekin zerikusia zuen guztia ere. Beraz, batzuetan, Eraikuntza, Instalazio eta Eskola Ekipamenduko Batzordea izenekoari esleitu zitzaizkion erosketa horiek, eta, beste batzuetan, Patronatuari, hark «zuzentzen» baitzuen ikastetxea.

Baldintza anomalo horietan, gaur egun CIFP —«Mendizabala»— LHII dena 18 irakaslerekin jarri zen martxan, Gasteizko Institutu Politekniko Nazionala izenarekin, baina 90eko hamarkadan ikastetxearen egoera normalizatuz joan zen, eta, 1998/99 ikasturtetik aurrera, orduan Lanbide Heziketako Ikastetxe Integralen Sareko kide izatera pasatu baitzen, haren eginkizuna, beste ikastetxe batzuena bezala, Lanbide Heziketako I. Euskal Planaren garapenari laguntzea izan zen. Ondorioz, Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuaren izaera eman zitzaion, eta, aurrerantzean, LHII —«Mendizabala»— LHII izena hartu zuen. Horri esker, irakaskuntza eman ahal izan du Lanbide Heziketako hiru azpisistemetan, Hasierako Lanbide Heziketan, Etengabeko Prestakuntzan eta Lanerako Prestakuntzan.

• Arabako prestakuntza-eskaintza osatzen duen ikastetxea Gasteizko «Ostalaritza Eskola» LHII da. Gamarrako Ostalaritza Eskola esaten zaio. Lanbide Heziketako ikastetxe publiko bat da, 1989an sortua, unibertsitatez kanpoko ikastetxeak bi saretan (publikoa eta pribatua) finkatzeko prozesua amaitu ondoren. Garai hartan, beharrezkoa zen ikastetxe publikoak berrantolatzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) berehala ezartzeko; bestalde, EAEn nabarmen jaitsita zeuden jaiotza-indizeak, eta azken urteotako migrazio-fluxuak saldo negatiboa izan zuen. Horren ondorioz, jaitsi egin zen ikasle kopurua. Gainera, lurralde historiko bakoitzeko errealitate demografikoak oso desberdinak ziren. Araban, Gasteiz hiriburuaren inguruan kontzentratzen da biztanleria, eta Aiarako eskualdean eremu erdihiritar bat garatu da. Bizkaian, biztanleriaren % 75 baino gehiago Bilbo Handiaren inguruan kontzentratuta dago; Gipuzkoak, be-

rriz, biztanlegune erdihiritarrak ditu eskualde guztietan, eta hazkunde orekatua du.

Ondorioz, bizitza publikoa arrazionalizatzeko testuinguruaren barruan, arrazionalizazio hori hezkuntza-eremura ere iritsi zen, eremu horren kokapenetik, antolaketatik, banaketatik eta funtzionaltasunetik abiatuta. Eta berrantolamendu horretan sartu zen Gasteizko «Ostalaritza Eskola LHII»: 1998an, EAEko ikastetxe integralen sarean sartu zen.

5.2.2. *Bizkaia*

1970eko Hezkuntza Lege Orokorretik eratorritako hezkuntza-sistema ezartzea faktore garrantzitsua zen Lanbide Heziketako ikastetxeak sortzeko. Horrelako ikastetxeek, beren graduetan, aukera ematen zuten Legeak adierazitako helburuak osorik lortzeko, ez bakarrik alderdi akademikoan, baita funtzio sozialean ere. Bizkaian era horretako irakaskuntzen eskaera nabaria zegoen, eta, probintziaren premiei zehazki erantzuteko, kontuan izanik horretarako zenbait eraikin eraikitzen ari zirela, Lanbide Heziketako ikastetxe batzuk sortzea erabaki zen; besteak beste, Galdakaokoa.

• «Trantsizio demokratikoa» delakoa bete-betean zegoela, Galdakaoko ikastetxean gertaera garrantzitsu bat izan zen: euskara irakaskuntza-sisteman sartzea. Sartze hori ez zen berdina izan euskal lurralde osoan, hiru eremu ezarri baitziren: «zona euskalduna», «zona ez-euskalduna» eta «zona berezia»; zentro horri dagokionez, eremu euskaldunean kokatu zuten, Bilbo Handia eskualdean, zeinak Lanbide Heziketako 34 ikastetxe estatal baitzituen guztira.

Gaur egun Galdakaoko «Andra Mari» LHII izena duen ikastetxea (1978/2019) 1978an inauguratu zen, eskasia ugari zituen eraikin batean. Hamar ikasgela, bederatzi tailer eta 600 ikaslerentzako lekua zituen, nahiz eta lehenengo urtean 350 ikasle baino ez ziren matrikulatu. 1993an, zentroak izena aldatzeko eskaera egin zuen, eta «Andra Mari» izena hartu zuen, Lanbide Heziketako Institutua izena bazterrean utzita. 1997ko uztailaren 1ean, beste izen bat esleitu zitzaion ikastetxeari; harrezkero, 2010/11 ikasturtean Lanbide Heziketako Ikastetxe bihurtu arte, Galdakaoko «Andra Mari» BHI izan zen.

• Basauriko San Miguel Maisutza eta Industri Ofizialtza Eskolak (1967/2019), gaur egun «Bidebieta» LHII deiturikoak, 1967an ekin zion bere ibilbideari, Ibaizabal eskualdeko industriaren eskaerari erantzuteko, eta, harrezkero, oso lotuta egon zen Lanbide Heziketarekin eta eskualdean Lanbide Heziketak izan zuen bilakaerarekin.

Basaurin, 1908az geroztik ari zen funtzionatzen Compañía Anónima Basconiaren Lan Eskola ezaguna. Arte eta Lanbide Eskola bat baino ez zen, eta desagertzeko arriskuan zegoen; beraz, 1953an, Basauriko Udala Hezkuntza Nazionaleko Ministerioarekin gestioak egiten hasi zen Lanbide Heziketako Eskola bat sortzeko. Eta, Euskadiko beste herri batzuetan bezala, Ministerioak doan eskaini zituen eskola berria eraikitzeko lurrak. «San Miguel de Basauri» izeneko udal-patronatu batek gobernatu behar zuen eskola berria. Bitartean, Udalak herriko enpresekin eta inguruko herriekin bilerak egiten jarraitu zuen, Ministerioak huts egiten bazuen ere. Zailtasunak aurreikusitakoak baino handiagoak izan ziren, eta egoera ekonomikoa, konpondu beharrean, larriagotuz joan zen. Azkenean, 1958an, Udalak eta enpresek % 33raino gehitu behar izan zituzten laguntzak. Hori kolpe gogorra izan zen, eta basauriarrak eta haien arduradun politikoak harritu eta gogogabetu egin ziren.

Hasierako etsipenaren ondoren, 1960an, alkatea berriro elkartu zen enpresetako arduradunekin eta Hezkuntza Nazionaleko Ministerioarekin, eta laguntza berriak lortu zituen. Haiei esker, «San Miguel» Lan Eskola eraikitzeko hirugarren proiektua egin ahal izan zen. Proiektu hori bi aldeek onartu zuten, eta Udalak obren kostuaren heren bat bere gain hartzeko konpromisoa hartu zuen. 1963ko uztailean, arkitektoak hirugarren proiektu hori bidali zuen, Udalak aurrekontuaren herena ordaindu ondoren. Azkenik, 1964ko ekainaren 12ko Ministro Aginduaren bidez, eraikuntza-enpresari esleitu zitzaizkion obrak, eta 1967ko irailean bukatutzat eman zen eskola-eraikina.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak babesten du ikastetxea; Zentro Integratua da, eta Lanbide Heziketa ematen du, bai Hasierakoa, bai Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetakoa, egunez eta gauez.

• Bizkaian ere badute Eraikuntzako ikastetxe bat (1994/2019), eta haren zeregina eraikingintzaren eta eraikuntzaren arloko profesionalak prestatzea izan da. Isaac Fernández zuzendariak dioenez, «eraikingintzari eta obra zibilari berariaz eskainitako ikastetxe bat da, laneko arriskuen prebentzioari eskainitako zikloa ahaztu gabe».

Ikastetxearen helburuetako bat da ikasleek ikasketak bukatzean enplegagarritasun-maila handia izatea, eta, huts egiteko beldurrik gabe, esan daiteke «Eraikuntza Bizkaia» LHII helburu hori betetzen ari dela, ez bakarrik prestakuntza arautuan, baita ez-arautuan ere, Lanbidek sustatutako ikastaroak emanez. Errealitate horren adibide dira «Igeltserotza-fabrikak» eta «Igeltsuplaka laminatuen eta sabai aizunen instalazioa» espezialitateetarako profesionaltasun-ziurtagiriak; prestakuntza ez-arautuko ikastaroak dira, eta eskaera handia eta, esan bezala, enplegagarritasun-indize handia dute.

Ildo horretatik, enplegagarritasun-indize altua lortzeko, ikastetxearen eta inguruko enpresen eginkizuna giltzarri gertatzen ari da, are gehiago Txandakako Prestakuntza Dualaren proiektua abian jarri zenetik. Prestakuntza mota horri dagokionez, iritzi guztiak ez datoz bat. Hala, ikastetxeko zuzendariak azpimarratzen du garrantzitsua dela, «ikasleen enplegagarritasuna hobetzeko aukera ona da, lan-munduaren barnetik ematen baitizkio gaitasunak ikasleari, bere sektorearen errealitatea erakusten dio, nola lan egiten den eta zer espero den beragandik». Hala ere, Txandakako Prestakuntza Dualaren proposamen hori, batzuetan, kontrako jarrerarekin aurkitzen da, ez bakarrik enpresen aldetik, «Laneko Arriskuen Prebentziorako ziklorako proiektuak ateratzen saiatu gara, baina, enpresa interesdunik ez dagoenez, ez dira gauzatu», baita ikasleen artean ere, ikastetxeko idazkariak adierazten duen moduan:

> Txandakako Prestakuntza Dualak lan gehigarri bat eskatzen dio ikasleari, motibazio estra bat eraikuntza den bezain lan-ingurune zorrotz eta praktikoan.... beharbada heldutasun pixka bat falta da oraindik, etorkizuneko ikuspegia izatea ikastetxeko prestakuntza tradizionalak eskaintzen duen ingurune kontrolatu eta ziurretik ateratzen ausartzeko.

2008. urtearen inguruan, krisiaren eragina ikastetxeko ikasleen profilean islatu zen; izan ere, ikasle horietako asko lanean destajuan ibilitakoak ziren, eta ikastetxera jotzen zuten beren premiak asetzeko prestakuntza bila. Egoera horrek aukera ugari eman zizkien ikasleei; izan ere, ikasleek ulertu zuten ikastetxera joateak enpresa propioa sortzeko aukera emango ziela. Hala, ikaste-prozesu batean sartzen ziren, eta, horretan, ikastetxeak beti lagundu du Urratsbat programan —lehenago aipatu dugu— parte hartuz. Gaur egun, aurtengo 25. urteurrenarekin batera, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen sarean sartu da «Bizkaia Eraikuntza» LHII, eta, horretarako, erabateko kalitatearen kudeaketaren alde egin du.

• Bilboko Elorrieta-Erreka Mari LHII (1964/2019) ikastetxearen jatorriak «San Ignacio de Loyola» Institutu Sindikal zaharrean kokatu behar dira. 1964ko martxoaren 2an, Bizkaiko Industriako LHko Batzorde Probintzialak izendatutako bokal teknikoak emandako aldeko txostena jaso zuen. Txostenak proposatzen zuen ikastetxeari baimena ematea Hasierako eta Aprendizgo Mailan. Hala ere, txostenak zioen ikastetxeak bazituela gabezia batzuk, hala nola material pedagogiko gutxi izatea baimentzea eskatzen zen gai batzuetan edo irakasle gehiago izan beharra. Urtebete geroago, Lanbide Heziketako irakaskuntzak zabaldu egin ziren, eta irakaskuntza zabaltzeko prozesu hori ikastetxearen ezaugarrietako bat izan da beraren historian zehar; izan ere, 1988ko irailean, beste hedapen bat izan zuen, Administrazio eta Merkataritza Adarreko Enpresa Informatikako espezialitatea ematen hasi baitzen.

90eko hamarkadan, zentroaren izena aldatzea eskatzeko unea iritsi zen. Aurretik izan zuen beste izen-aldaketa bat ere, Bilboko «San Ignacio de Loyola» Institutu Politeknikoa izatetik, Elorrieta izen berria izatera pasatu baitzen. Hala ere, 1998. urtean gertatu zen gaur arte ia behin betikoa izan den izen-aldaketa. LOGSEk bigarren mailako ikasketei buruzko guztia arautu berri zuen, eta ikastetxeen izenak haren arabera moldatu behar izan ziren. Hala, Elorrietako «San Ignacio de Loyola» historikoa Elorrieta-Erreka Mari GBLHI/IEFPS bihurtu zen. Izen horrekin berarekin, 1998ko urrian, Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiaren ondoren, Lanbide Heziketako Euskal Planak ezartzen zuen Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sarean sartu zen, eta 2002an, Lanbide Heziketako Zentro Integratu bihurtu zen.

• Gaur egun, «Emilio Campuzano» LHIIri buruz hitz egiteak (1880/2019) esan nahi du atzera begiratu behar dela, oso atzera, ikastetxe horrek duela 140 urte inguruko Bilboko Arte eta Lanbide Eskolan baitu jatorria. Orduan, Pablo Alzola izeneko gizon batek, Bilboko alkateak, Korporazio Sostengatzaile deiturikoekin batera —Bilboko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia—, eta Bilboko familia aberats askoren eskuzabaltasunari esker, egoera ahulenean zeuden haurren heziketa hobetu ahal izan zuen, haur horien gaitasun profesionala areagotu zuten ezagutzak emanez. 1878an aurkeztu zion Pedro Alzolak Arte eta Lanbide Eskola bat sortzeko proposamena Udalbatzari. Egun bat geroago, Bizkaiko Foru Aldundiari bidali zitzaion proposamenaren testua, eta urte horretan bertan onartu zuen. Laster, eskola berria sortzeko oinarriak idatzi ziren, eta batzorde bat eratu zen. Batzorde horrek, esleitu zitzaizkion eskuduntzak erabiliz, irakasleak izendatu, lokalak gaitu eta irakaskuntza-materiala erosi zuen. Urteak igaro ahala, Eskolaren jarduera handituz joan zen. 1928. urtean, urteko azken egunean, Lanbide Heziketako Estatutua onartu zen, eta harekin sortu ziren Lan Eskolak. Orduan, aldi berri bat hasi zen gaur egun «Emilio Campuzano» LHII izenaz ezagutzen dugun ikastetxearen historian.

Lan Eskola berria 1932an hasi zen lanean Bilbon. Ondorengo urteei buruzko informaziorik ez dago, eta ez dakigu, beraz, zer gertatu zen gerra-urteetan eta gerraostean. 1954an, Arte Grafikoetako enpresaburu talde bat, langile espezializatuak falta zirela eta, harremanetan jarri zen Bizkaiko Lanbide Heziketaren Patronatuarekin Aprendizgoaurreko Eskola bat sortzea sustatzeko eta diruz laguntzeko. Ez dakigu zergatik izan zen, baina Industria Maisutzako Eskolak eta Arte eta Lanbide Eskolak beste lekualdaketa bat izan zuten Udalak hala erabakita, eta, lau urte geroago, 1959an, Eskolak gaur egun duen izena hartu zuen, «Emilio Campuzano», harik eta, Hezkuntza Lege Orokorra indarrean sartu zenean, izen berria hartu zuen arte: «Emilio Campuzano Lanbide Heziketako Institutu Po-

liteknikoa». LOGSE legearekin, Emilio Campuzano Bigarren Hezkuntzako Institutua bihurtu zen. 2010ean, ikastetxeak DBH emateari utzi zion, eta Lanbide Heziketara bideratu zen, 7 lanbide-arlotako 19 ziklotan. 2015eko irailaren 1etik aurrera, Lanbide Heziketako ikastetxe integratu bihurtu zen.

• 1982ko otsailaren 8ko Dekretuaren bidez, Plentziako Lanbide Heziketako Institutuari baimena eman zitzaion kokalekua eta izena aldatzeko. Ordutik aurrera, Leioako Lanbide Heziketako Institutuak «Ostalaritza Eskola» izena hartu zuen, eta 1981/82 ikasturtean hasi zen lanean. Leioako gaur egungo «Ostalaritza Eskola» LHII (1982/2019) Plentzian sortu zen, Ostalaritza eta Turismo Adarreko 2. mailako Lanbide Heziketa emateko. Hala ere, berehala aldatu zen Leioara, eta han jarraitzen du. Lehenengo urratsak bi jantokiri zerbitzua ematea izan ziren: lehendik zegoen menuko jatetxeari eta jatetxe berri bati. Geroago, jantoki berri bat zabaldu zuen, «buffet» izenekoa.

UPV/EHUren campusera aldatzea gertakari handia izan zen «Ostalaritza Eskola» LHIIrentzat. Irakaskuntzak kualitatiboki gehitzea ekarri zuen, lan egiteko bitarteko, instalazio eta jeneroari dagokionez hobekuntza nabarmena izan zen, eta lankidetza estutu zen beste fakultate batzuekin, baina, zalantzarik gabe, Ostalaritza Eskola LHIIra benetako iraultza ekarri zuena LOGSE legea izan zen, urdaitegi-, okintza —eta pastelgintza— tailerrak sortzea eragin baitzuen. Horretarako, instalazio berriak behar ziren, eta horrek borroka gogorra eragin zuen UPV/EHUrekin, harik eta gaur egungo eraikina lortu arte; han dago, 2003/04 ikasturteaz geroztik, «Ostalaritza Eskola» LHII.

Ikastetxeak kalitatearen kudeaketako politikan ere parte hartu du, eta horrek itxaropenak sortu ditu bere langileen artean. Ikastetxearen helburu nagusietako bat da ostalaritzaren eta elikagai-industrien arloko prestakuntzarako erreferentzia-zentro bihurtzea, sektorearen premiei erantzuteko, eta I+G+Barekin konpromiso handia duen hezkuntza-proiektua erreferentziatzat hartzea. Horretarako, Ostalaritza Eskola LHIIk kide guztien parte-hartze aktiboa sustatzen du —irakasleena, ikasleena eta administrazioko eta zerbitzuetako langileena—. Testuinguru horretan, ikastetxea kalitatearen kultura sustatzen ari da kide guztien artean, eta, horretarako, ekintza eta etengabeko ikaskuntza bultzatzen ari da, ingurumena babesteko kultura sustatuz eta, era berean, gure herrialdeko hizkuntza-errealitatea errespetatzearen alde eginez.

• LHko ikastetxeak eraikitzeko lurrak eskaintzeko hasitako politikari jarraituz, 1978ko abenduaren 1eko 3167/1978 Errege Dekretuak balio izan zuen Estatuak onar zezan Getxoko Udalak emandako 6.000 m^2

baino gehiagoko higiezina. 1970eko Hezkuntza Lege Orokorraren 2.1 artikuluak jasotzen zuen Estatuak Lanbide Heziketa eman behar ziela espainiarrei, beren buruarentzat eta gizartearentzat lan erabilgarri bat egiteko gai izan zitezen, eta, gainera, aukera eman behar ziela prestakuntza integrala egiteko eta ikasketekin jarraitzeko, orduan indarrean zegoen hezkuntza-sistemaren barruan. Premisa horren arabera, eta aurreikusitako helburuak betetzeko, gobernu-agintariek Lanbide Heziketako ikastetxe berriak sortzeko premia larria ikusten zuten. Horregatik, beharrezko azterlan sozial eta ekonomikoak egin ondoren, Getxon horrelako ikastetxe bat sortzea erabaki zen.

LOGSE indarrean sartzeak bereizketa argia ekarri zuen Erdi Mailako LHren eta Goi Mailako LHren artean, eta, horretaz gainera, 1997an Lanbide Heziketako I. Euskal Plana indarrean sartu zen. Ondorioz, ikastetxeak aldaketa nabarmena izan zuen: izendapena aldatu eta Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu (GLHBI) bihurtu zen, eta haren irakaskuntzak ere nabarmen zabaldu ziren. Aldaketak ez ziren maila akademikoan bakarrik gertatu, izendapenean ere gertatu ziren: 1998ko azaroan, Getxoko «Fadura» LHII izena hartu zuen (1979/2019), eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integralen zerrendan sartu zen. Harrezkero, Getxoko «Fadura» LHIIk bost jarduera-ildo ditu: berdintasun-politika, kudeaketa-politika, politika pedagogikoa, ingurumen —eta hizkuntza— politika. Eta erabateko kalitatearen kudeaketa aplikatzen duen ikastetxeetako bat da.

- 1978an ireki zituen ateak EAEko ostalaritza-eskola publikorik zaharrenak. Gaur egun, izen hau du: Galdakaoko Ostalaritza LHII (1978/2019). Hasiera hartan, Ostalaritza Eskola udal-igerilekuen instalazioetan kokatu zen, Elexalde auzoan. Gaur egun, ordea, herriaren erdialdean dago, bost eraikinetan banatua. Ostalaritzaren arloko makineria, ekipamendu eta baliabiderik eguneratuenak ditu. Irakaskuntza-ikaskuntza sistema berritzaile batean oinarritutako kalitatezko prestakuntza eskaintzen duten 20 profesional baino gehiago ditu, eta eboluzioa eta hobekuntza dira ikastetxea hobekien defini lezaketen ezaugarrietako batzuk.

Testuinguru berritzaile horretan, «Ostalaritza» LHIIk erreferentziaeredu izan nahi du hezkuntza-esparruan, eta bere interes-taldeen premia eta itxaropenei erantzun, bere eskaintza hobetuz bere langileen eta ikasleen kualifikazioaren eta etengabeko hobekuntzaren bidez, eta enplegua sortzen lagunduz, ingurumenaren ikuspegitik baliabideen kudeaketa optimoan oinarritutako kudeaketa aurreratu baten bidez, ekintzailetasunaren aldeko apustu garrantzitsua ahaztu gabe.

• Orain arte ikusi dugun bezala, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorraren pixkanakako ezarpena faktore garrantzitsua izan zen LHko ikastetxeak sortzeko, eta, neurri batean, legearen helburuak osorik lortu ahal izan ziren. Horren ondorioz, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Bizkaian ikastetxeak sortzen jarraitu zuen. Haietako bat da gaur egungo «Iurreta» LHII (1978/2019).

Kasu honetan, Estatuak 10.000 m^2-ko higiezin bat eman zion Durangoko Udalari, LHko ikasketak emateko eraikin bat eraikitzeko. Lanak azkar egin ziren, eta 1978ko irailean hasi zen zentro berriaren ibilbidea. Urtebete geroago, euskara sartu zen LHko irakaskuntzetan, Galdakaoko ikastetxearen kasuan bezala. Ikastetxe horretan, non eta gurasoek ez zuten behar bezala arrazoitzen ez zutela nahi beren seme-alabek euskaraz ikastea, LHko 1. mailako ikasle guztiak euskara ikastera behartuta zeuden, ikastetxea kokatuta zegoen eremua, Durangaldea, euskalduna baitzen.

1998an, beste izen bat hartu zuen, Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuak sortu ondoren. Durangoko «Iurreta»–LHII haietakoa izan zen, eta, Lanbide Heziketako I. Euskal Plana onartu ondoren, «Iurreta»LHII Durangaldeko eta inguruko beste eskualde batzuetako erreferentzia-ikastetxe bihurtzea lortu zuen. Gainera, aitzindaria izan da berrikuntza pedagogikoari eta teknologia berriei dagokienez, eta, testuinguru horretan, kalitatearen aldeko apustu sendoa egin duen LHko ikastetxeetako bat da. Helburu gisa, pertsonak eremu pertsonalean eta profesionalean heztea ezarri da, gizartearen balio eta premien arabera, eta gardentasuna, konpromisoa, errespetua… balioak eta euskara landuz eta «Iurreta» LHII ikastetxea euskarazko LHren erreferentzia-ikastetxea izan dadin borrokatuz, «euskaraz bizitzeko».

• 1952ko irailaren 25ean, Francisco Millán De Val Altos Hornos de Vizcaya SA sozietateko industria-ingeniariak, idazki batean, adierazi zuen sozietate horretako Aprendiz Eskola 1941eko otsailaren 27az geroztik ari zela lanean. Idazkian, esan zuen nahi zuela Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak eskola ofizialki onartzea, eta eskatzen zion eskabide hori kontuan har zezan eskola ofizialki onartua izan zedin. Horretarako, behar zen dokumentazioa eta barne-araudia ere aurkeztu zituen.

Hezkuntza Nazionaleko Ministerioko agintariekin eztabaida luze bat izan ondoren, 1953ko abuztuan, Hezkuntza Kontseilu Nazionalak Aprendiz Eskolari bidali zion idazkian aldeko iritzia eman zuen. Hau irakur zitekeen:

> Lehenengoa: gaur egun Altos Hornos de Vizcaya SA enpresako Aprendiz Eskolan egiten diren langileentzako Lanbide Heziketako ikas-

> ketek LHko Toki Patronatuek zuzentzen dituzten antzeko ikastetxeetan egiten direnen balio akademiko eta ofizialtasun bera izatea.
>
> Bigarrena: Barakaldoko LHko Toki Patronatuak orientazio —eta ikuskaritza— lanak egingo ditu Eskolako irakaskuntzen araubidea Ministerio honen mendeko antzeko izaerako LHko ikastetxeetan egiten direnekin koordinatzeko.
>
> Hirugarrena: Eskolak ematen dituen irakaskuntzako eta lanbide-gaitasuneko ziurtagiriak legezko xedapenetan onetsitako arau eta ereduei lotuko zaizkie.
>
> Laugarrena: aipatutako ikastetxeak, gainera, sailak gai hauei buruz ematen dituen arauak bete beharko ditu, hala nola Eskolako Zuzendaritzaren hornidura irakasleen titulazioa, gutxieneko plantilla, ikasketa-planak, lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko galdetegiak eta ikasleen azken probak, bai eta izaera pribatuko LHko ikastetxeei dagokienez ematen diren arauak ere.

Azkenik, 1953ko urrian, Aprendiz Eskoletako irakaskuntzen ofizialtasuna onartu zen; hala ere, Aprendiz Eskolako zuzendaritzek Eskola mantendu eta hazteko egindako borroka gogor baten ondoren, 1969an, eskola, LHko eskola gisa, bere amaierara iristen ari zen. Ikusirik 29 urtez funtzionatu zuen LHko ikastetxea ixtekotan zegoela, neurriak hartu zituzten itxiera hura Altos Hornos de Vizcaya enpresako Aprendiz Eskolako gazteen kalterako ez izateko. Hala ikasketak amaitu ez zituztenei Barakaldoko Eskolan amaitzeko aukera eman zitzaien.

Neurri horietaz gainera, Portugaleteko alkatearekin ere hitz egin zuten, bazekitelako interesa zuela Lanbide Heziketako ikastetxe bat sortzeko udalerri hartan, eta erabaki hau hartu zen:

> Gaur atseginez jakinarazten dizugu gure zuzemenak ontzat eman dituela Portugaleteko Udalak; beraz, udal horrek lokal egokiak utziko ditu udalerri horretan Aprendiz Eskolak trantsiziorik gabe funtzionatzen jarraitu dezan, aspalditik ONARTUA baita, eta Altos Hornos de Vizcaya enpresarena izendatu beharrean, Portugaleteko Udalarena edo, besterik gabe, Portugaleteko Aprendiz Eskola izendatuko genuke», eta, «aurreko guztiaren ondorioz, arauzkoa den moduan, zure oniritzia behar da, eta uste dugu izango dugula, nahiz eta, beti adierazi dugun moduan, zure irizpidearen mende egongo garen.

Azkenik, 1969ko azaroaren 12an, Lanbide Heziketako Batzar Nagusiko Batzorde Zentralak urriaren 24an hartutako erabakia argitaratu zen. Erabaki hau hartu zen, besteak beste:

> Altos Hornos de Vizcayaren Aprendiz Eskolari baja ematea Ikastetxe Onartuen Erroldan, eta haren ikasleak Barakaldoko Industria Maisutzako Eskolan sartzea. Eskola horretara pasatuko da Batzar Zentralaren kredituen kontura Aprendiz Eskolarako erositako makineria.

1975ean, Maisutzako Eskola izena aldatu eta Barakaldoko Lanbide Heziketako Institutu Politeknikoa izena hartu zuen, eta izen horrekin eutsi zion 1994ko apirilaren 25era arte. Orduan, eta gaur arte, «Nicolás Larburu» LHII izena hartu zuen, eta Euskadiko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen sarean sartu zen. Une horretan hasi zen, halaber, erabateko kalitatearen kudeaketaren sistema lantzen, eta horrek aldaketa garrantzitsua ekarri zion ikastetxearen funtzionamendu-estrategiari.

• Portugaleteko Maisutza Eskolak 1970/71 ikasturtean ekin zion bideari, Errepelegako San Kristobal baseliza abandonatuan, La Salleko anaien zuzendaritzapean. Altos Hornos de Vizcaya enpresaren Aprendiz Eskola ixtearekin zuzenean lotuta dago eskolaren sorrera. Ikasle batzuk Barakaldoko Lanbide Heziketako Institutuak xurgatu zituen, eta beste batzuk inguruko beste ikastetxe batzuek. Hala ere, ikastetxe hori, «Errepelega» LHII (1982/2019), sortzeko lehen urratsak herriko alkateak egin zituen 1971. urtean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari eskatu zionean ekimen pribatuko Lanbide Heziketa Industrialeko ikastetxe ez-ofiziala, «Portugaleteko Lanbide Eskola» izenekoa, ikastetxe baimendua bihurtzea eta, hala, LHko irakaskuntza eman ahal izatea.

Tokiko agintariek gero eta interes handiagoa zuten LHrekiko, eta, 1975eko ekainean, Portugaleteko Udalak 13.500 m^2-ko higiezin bat eman zion Estatuari ikastetxe berri bat eraikitzeko. Eraikin hura, baseliza zaharrarekin batera, 1989ra arte egon zen martxan, eraitsi zuten arte. Orduan, lasalletarrek ikastetxearen zuzendaritza utzi zuten, eta Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuen.

90eko hamarkadaren erdialdean, LOGSE ezartzen hasi zen, eta 1997/98 ikasturtean Goi Mailako Heziketa Zikloak sartu ziren. Orduan, ikastetxea Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu bihurtu zen, eta Lanbide Heziketako Euskal Planak ezarri zuen ikastetxe integralen sarean sartu zen. Horrek aldaketa handia ekarri zuen ikastetxearen lanfilosofian; hau da, kalitatea kudeatzeko prozesuetan parte hartzen zuten ikastetxeen multzoaren parte bihurtu zen, eta, ordutik aurrera, pertsonak gizarteratzeko prestatzea —giza kualifikazio eta kualifikazio teknikorik onenarekin prestatzen saiatzea— izan zuen helburu, bai eta inguruko gizarte —eta lan— premiei erantzuten saiatzea ere. Horretarako, ikastetxeak ulertu zuen ikastetxe lider bihurtu behar zuela, ikastetxe fidagarria eta Bizkaiko hezkuntza —eta lan— merkatuan jarduteko gai zena. Testuinguru horretan, hauek dira ikastetxea transmititzen saiatzen zen zenbait balio: profesionaltasuna, zerbitzu —eta lankidetza— jarrera, diskriminaziorik eza eta errespetua, edo iristen ari ziren edo iristear zeuden aldaketei ekiteko benetako borondatea izatea.

• Bizkaian LHko ikastetxeak sortzea proposatu zuen 1978ko ekainaren 23ko 1902/1978 Errege Dekretuaren bidez sortutako beste ikastetxe bat Santurtziko San Jorge izan zen, eta laster sartu zuen euskara bere irakaskuntza-sisteman; hala, «eremu berezia» izenekoan sartuta gelditu zen.

Irakaskuntza Arautuko LHko ikastetxe gisa hasi zenetik, prestakuntzara eta enplegura bideratutako ekimenak gehituz joan dira pixkanaka. Horren ondorioz, 1998/99 ikasturtean Goi-mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu kalifikazioa lortu zuen, eta, 1998ko uztailean, Lanbide Heziketako Euskal Planak aurreikusten zuen ikastetxe integralen sarean sartu zen. Harrezkero, Santurtziko «San Jorge» LHIIk (1982/2019) kudeaketan bikaintasuna lortzearen aldeko apustu sendoa egin du, eta, testuinguru horretan, zentroak hainbat helburu planteatu zituen, hala nola kalitatezko prestakuntza eta zerbitzuak eskaintzea, bere interes-taldeen premiei erantzuteko, eta bizitza osoan zehar autonomia eta prestakuntza ahalbidetuko zuten ikasketa-proiektu eta -dinamikak kudeatzea. Horretarako, «San Jorge» LHIIk bere zerbitzuen kalitatearen eta langileen konpromisoaren alde egin du, eta bere langileak jasangarritasunarekin eta berrikuntzarekin konprometituta egotearen alde.

• Erandioko LHren abiapuntua Industrias Aguirena SAren Aprendiz Eskola izan zen. Eskola horretatik Westinghouse Aprendiz Eskola sortu zen, eta 1975 arte iraun zuen. «Tartanga» LHII (1978/2019) Lanbide Heziketako ikastetxe bat da, 1978an sortua, eta 1997an Ategorri Batxilergo Institutuarekin bat egin zuen. Hala jaio zen Ategorri-Tartanga GLHBI. Goi-mailako Lanbide Heziketaren maila eskuratuta, eskaintza akademikoa zabaltzeko aukera izan zuen: langileei eta enpresei zuzendu zien eskaintza, hau da, Etengabeko eta Lanerako Prestakuntzako irakaskuntza ematen hasi zen, eta, horri esker, ikastetxe integralen sarean sartu zen.

LHko beste ikastetxe batzuk bezala, «Tartanga» LHII ikastetxea «kalitatearen munduan» parte hartzen hasi zen, eta, ondorioz, inguruko gizarte-eskaerei eta enpresa-premiei erantzutea hartu zuen helburu, prestakuntza-eskaerei erantzunez eta ikasleen itxaropenak eta eskakizunak betetzen saiatuz, Euskadin hasierako prestakuntzarako eta enplegurako prestakuntzarako erreferentzia-ikastetxe bihurtzeko asmoarekin. Testuinguru horretan, zentroa enpresa-mundura zabalik dago, harekin lankidetzan dihardu prestakuntza —eta esperimentazio— proiektuetan oinarrituta, baliabideak bideratzen ditu harreman hori mantendu eta handitzeko, prestakuntza ez-arautuko ikastaroetan langile asko prestatzen ditu, eta langileen gaitasunak aitortzen laguntzen du.

• 1970eko Hezkuntza Lege Orokorraren aurretik, urte horretako uztailean, ekainaren 12ko 1975/1970 Dekretuak Bilboko «Churdinaga» (sic) auzoko Irakaskuntza Ertainen Institutu Nazional Mistoa sortzea baimendu zuen, Irakaskuntza Ertainetako ikasle kopurua nabarmen handitu zelako. Ikastetxe horren kasuan, Bilboko auzo-elkarteek planteatu zuten premia hori, eta, testuinguru horretan, Txurdinagako Auzo Elkarteak presio handia egin zion Hezkuntza Sailari LHko ikastetxe bat eraikitzeko.

Urte batzuk geroago, 1974an, Loiu/Bilboko «Padre Andrés de Urdaneta» Irakaskuntza Ertainetako Eskola Ez-estatalari (gizonezkoen eskola zen) baimena eman zitzaion, behin-behinean, eta irailean hastekoa zen ikasturterako bakarrik, Institutuan Zientzia eta Letretako Goi Mailako Batxilergoa irakasteko, eta hala egin zen. Ikastetxeak gero eta ikasle gehiago hartzen zituen, eta 1977an jakin zuen uztailaren 4ko 2058/1977 Errege Dekretua indarrean sartu zela; dekretuak zioen «Santa María Micaela» ikastetxea eraikitzeko obren proiektua «gizarte-interesekoa» zela, eta ikastetxe oso gisa sailkatu ahal izan zen, OHOko zortzi unitate, Eskolaurreko Hezkuntzako bi eta LHko beste bi baitzituen. Ikastetxeak hasiera-hasieratik izan zuen hazkunde-ildo horretan, Txurdinaga eta Eskurtze ikastetxeei baimena eman zitzaien LHko 1. eta 2. mailako irakaskuntzak emateko Elektrizitate, Delineazio, Kimika eta Administrazio eta Merkataritza adarretan.

Baldintza gutxi ezarri zitzaizkien ikastetxe horiei, baina, zalantzarik gabe, hau izan zen nabarmenena: garai hartako Hezkuntza eta Zientziako ministroak, Federico Mayor Zaragozak, Julián Ibarguren zuzendaria «ezarri» zuen. Zailtasun ekonomiko handiko uneak ziren, prekaritate handikoak. Anekdota gisa, aipatzen dute ikastetxearen inguruak urbanizatu gabe zeudela eta ez zela arraroa inguruan zaldiak ibiltzea, edo ikastetxeko bilerak eta klaustroak «Txakolin» tabernan egiten zirela, ikastetxetik hurbil, edukiera handiagoa baitzuen.

Alderdi politikoak instituzioetara iritsi eta Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila sortuta, 1982an, ikastetxeak aukera izan zuen gradu eta espezialitate gehiago ematen jarraitzeko. Harrezkero, zentroak hainbat aldaketa izan zituen funtzionamenduan eta egituran, 1990eko hamarkadara iritsi arte. Orduan, «Txurdinaga» LHII (1970/2019) kalitatearen kudeaketan parte hartzen hasi zen. Hala, LHko beste ikastetxe batzuek bezala, ikasleen gaitasunak hobetzea eta zabaltzea eta haien enplegagarritasuna areagotzea ezarri zuen bere helburuetan, inguruko eskaera sozialak eta enpresa-premiak kontuan hartuta, eta, hori lortzeko, ikastetxean zenbait balio lantzea proposatu zuen, hala nola errespetuan oinarritutako elkarbizitza, segurtasuna, osasuna, eraginkortasunaren bilaketa, konpromisoa…

• «Zornotza» LHII (1945/2019), 1945ean sortua, «Centro Buen Pastor» izendatu zuten hasieran; hala ere, 1954an, Falangearen Erakunde Sindikala arduratu zen irakasleez eta ekipamenduez, eta, instalazioak handitu zirenean, ikastetxeak «Taller Escuela Sindical «Buen Pastor» izena hartu zuen.

Lehen kokalekua parrokiako etxabeetan zegoen, eta herriko parroko baten ekimenaren emaitza izan zen, hezkuntzaz eta gazteriaz arduratuta baitzegoen. Apaizak Udalaren eta herriko Izar eta Forjas de Amorebieta enpresen laguntza izan zuen. Hiruren artean osatu zuten ikastetxea zuzentzeko patronatua. Ikastetxearen helburua gazteak garai hartako industria-premiei erantzuteko prestatzea izan zen, bereziki mekanikaren sektorekoei erantzuteko. Illarramendik dioenez (Illaramendi, J. M., 2010),

> Artzain Onaren Eskola izeneko Lanbide Heziketako Obra Sindikala Izar-en benetako aprendiz-eskola izan zen, hau da, ikastetxea mantentzen lagundu zuen enpresarena. Eskolan tailerreko maisuak, industria-maisuak eta perituak aritzen ziren irakasle, eta haien ikasle asko Izar enpresakoak ziren, zeinak 18etatik 21etara joaten baitziren eskolara lau urtez.

1962an, hezkuntza-eskaintza zabaldu egin zen, eta, ondoren, erakunde sindikalak eraikin berri bat eraiki zuen, alkateak eskatuta, Udalak emandako lurretan. Trantsizio politikoan, Erakunde Sindikala desagertu zenean, ikastetxea Lehendakaritza Ministerioaren mende gelditu zen lehenik, Lan Ministerioaren mende ondoren, eta, azkenik, 1986an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera transferitu zen, eta, 90eko hamarkadan, LOGSEren aplikazioaren ondorioz, bat egin behar izan zuen Zornotzako irakaskuntza ertainetako beste bi zentroekin: Zornotzako LHko BHIrekin eta Batxilergoko Urritxe BHIrekin. Horrela sortu zen «Urritxe/Zornotza BHI». Trantsizio-aldi baten ondoren, 1998/99 ikasturtean, zentro bakar gisa hasi zen lanean, zuzendaritza-talde bakar batek zuzenduta, Irakaskuntza Ertainen Zuzendaritzaren mende, eta 2002/03 ikasturtetik aurrera, Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiaren mende geratu zen.

2015eko irailean, ikastetxea zentro integratu bihurtu zen, eta zerbitzu osoak ematen hasi zen prestakuntzan, enplegagarritasunean eta ekintzailetzan. Zeregin horretan, «Zornotza» LHIIk helburu batzuk ezarri ditu, hala nola bere inguruko gizartearen (ikasleak, familiak, enpresak, instituzioak...) eskaerak eta itxaropenak asetzea, bera dagoen Bizkaiko eskualdeko errealitate linguistikoa, soziokulturala eta ekonomikoa kontuan hartuta. Berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko ildoan, zenbait gai lantzen ari da, hala nola laneko prebentzioa eta segurtasuna, eta ingurumena errespetatu eta zaintzea; eta, ikasleen prestakuntza sendo eta integralaren bidez, desberdintasunak gainditzen laguntzen ari da.

5.2.3. *Gipuzkoa*

• 1978ko azaroan, ministro-agindu bat argitaratu zen, zeinaren bidez Aretxabaletan Lanbide Heziketaren Atal bat sortu baitzen. Haren buru irakasle bat izango zen, Bergarako ikastetxe estataleko irakasle-ordezkari gisa jardungo zuena, ikastetxe horren mende baitzegoen. Lanbide Heziketako beste ikastetxe batzuetan gertatu zen bezala, irakasleen gastuak Lanbide Heziketa Sustatzeko Patronatuak ordaindu zituen, eta material suntsigarri, inbentariagarri edo altzarien gastuak, berriz, Eraikuntza, Instalazio eta Eskola-ekipamenduaren Batzordeak edo aipatutako Patronatuak ordaindu zituen; gainerako gastuak Udalari esleitu zitzaizkion.

Esan dugun bezala, Aretxabaletako Institutuaren historia 1978an hasi zen, orduan sortu baitzen lanbide-eskola, zeren eta Arrasateko Eskola Politeknikoa gainezka baitzegoen. Horregatik, Aretxabaletako «Leniz Lanbide Ikastegia» sortu behar izan zen. Proiektuaren egilea herriko parrokoa izan zen. Ikastetxeak hasiera zaila izan zuen, Udalak laguntza eman bazion ere. Udalak finantzatutako pabiloi aurrefabrikatu batean hasi zen, eta hara joan ziren LH ikastera 14 eta 16 urte bitarteko dozenaka ikasle. Hala ere, eraikina eskasa izan arren eta zailtasunak gorabehera, ekimenak oihartzun handia izan zuen herrian, eta bi urte pasatxoan ehun ikasle baino gehiago izatera iritsi zen. Lehenengo bi ikasturteak gaindituta, ikasle asko Arrasateko Eskolara joaten ziren maisutza-ikasketak egitera, eta haietako askok lanpostua lortzen zuten gero Debagoieneko kooperatiba-sektorean.

Ikastetxearen antolaketa erdibituta zegoen. Alde batetik, alderdi administratiboak Bergarako Eskolatik kudeatzen ziren; bestetik, alderdi akademikoa, ikasketa-orduak, ikastaroen programazioa, etab. Arrasateko Eskola Politeknikoak kudeatzen zituen. Hori guztia ez zen oztopo izan matrikulazio kopurua handituz joateko eta, aldi berean, Eskoriatzako, Arrasateko eta Aretxabaletako irakasle berriak sartuz joateko.

1983an beste mugarri bat izan zen: ikastetxeak eraikin berria estreinatu zuen Udalak utzitako lokaletan, eta Eusko Jaurlaritzak proposatutako LHko ikastetxeen sarean sartu zen. Felix Ormaetxeak dioenez[6], hastapenak oso zailak izan ziren: «abian jartzeko, Oñatiko, Aretxabaletako eta Arrasateko udalen laguntza izan zen, Hezibide Elkartearen eta Arrasateko Eskola Politeknikoaren laguntzaz gainera». Hasiera hartan, Hezkuntza Ministerioak oniritzia eman zion ikastetxea sortzeari, eta baimena eman zuen aipatutako erakundeek parte hartzen zuten patronatu batek kudea zezan ikastetxea. Patronatuak bere eginkizuna bete zuen, eta 1980ko ha-

---

[6] Hezibide Elkarteko zuzendaria (Debagoieneko ikastolen elkartea) eta Gipuzkoako Lanbide Heziketaren Patronatuko idazkaria.

markadako lehen urteetan zenbait lankidetza izan zituen, helburu bakarrarekin: Debagoieneko LHren irakaskuntza hobetzea. Eta, pixkanaka, lortu egin zuen helburua. Hobekuntza horren arrakasta, neurri batean, bi arrazoirengatik izan zen: ikastetxea eskualdeko kooperatiba-ereduari jarraituz kudeatzen zen, eta Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-arloko eskumenak bere gain hartu zituen.

90eko hamarkadan, LOGSE iritsi zen, eta, haren ondorioz, Arrasateko Institutuarekin bat egin zuen. Hortik datorkio Arrasate/Aretxabaleta Institutua izena, eta 2009an zentroaren izen berria onartu zen; une horretatik aurrera, Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutua izena hartu zuen, LHko Zentro Integratu bihurtu zen arte. Gaur egun, «Aretxabaleta Lanbide Eskola» LHIIk kalitatearen arduradun bat du, eta aitortzen du Lanbide Heziketan izandako aldaketarik garrantzitsuenetako bat izan dela ikasleek enpresetan praktikak egitea. Jarduera hori Heziketa Zikloen zutabeetako bat da, eta helburu hori hasieratik lortu zen. Kalitatea Kudeatzeko Sisteman sartzeak ikastetxerako helburu berri batzuk planteatzea ekarri zuen, hala nola *ematen dituen espezialitateen aitortza lortzea edo beste kontzeptu batzuk lantzea; esate baterako, enpresek eskatzen dituzten balioak, jarrerak edo prestakuntza kualifikatua. Enpresa horiekin harreman estua izan nahi da, beste ikastetxe eta/edo instituzio batzuekin batera berrikuntza sustatzeko. Azkenik, euskararekin duen inplikazioa ere azpimarratu behar da*, eskualdeko beste errealitate bat baita; alde horretatik, «Aretxabaleta Lanbide Eskola» LHIIk ikastetxeko espazio guztietan eta ikastetxeak parte hartzen duen beste testuinguru guztietan hizkuntza hori erabiltzera bultzatzen du.

- «San Ignacio de Loyola» izeneko lanbide-eskola 1939. urtean sortu zen, Otaño-Hurtado de Mendoza familiakoak hil eta Zubiaurre etxea Jesusen Konpainiari dohaintzan eman baitzioten, Azkoitiko herriak erabili eta gozatzeko. Egokitzapena pixkanaka-pixkanaka egin zen, eta proposatu zen eman beharreko ikasketak LHkoak izatea, hasiera-mailakoak. Garai hartan, aita Madinabeitia Irizar Jesusen Lagundiko zuzendariak hau aldezten zuen: «langileen seme-alabak edozein karrera edo ikasketa egiteko gai izango dira, horretarako behar diren bitartekoak emanez gero» (Aloy, 1987).

Hala ere, 1959ko urriaren 2ra arte itxaron behar izan zen lehenengo eskolak hasteko. Inaugurazio «ofiziala», berriz, azaroaren 18an iritsi zen. Hasiera batean, irakasle sekularrak eta lehen maisu nazional bat, Santanderko bat, kontratatu ziren, baita Azkoitiko bertako irakasle gehiago ere. Probintziako LHko beste eskola askotan bezala, Azkoitiko eskolan ere ezarri zen ohiko praktika: ikastetxe «txikiak» ikastetxe «handien» mende jartzea. Kasu honetan, Elgoibarko Eskola Ofizialari atxikita egon zen, eta mutilek hara joan behar zuten azterketa egitera.

Eskola hori, haren antzeko gehienak bezala, ez zen arazo ekonomikoetatik at geratzen. Jasotako laguntza eta dirulaguntzei esker iraun zuen, eta irakaskuntzak zabaldu ere egin zituen, baina Industria Maisutza ezin izan zen lortu, dirulaguntzak ez baitziren aski helburu hori lortzeko. Gainera, lortu izan balitz, ikasleek ordaindu beharko zuten, eta hori eskolaren filosofiaren aurkakoa zen. Egoera horren ondorioz, ikasten jarraitu nahi zuten ikasleak behartuta zeuden Arrasaten ikastera, eta arratsaldez, batzuek goizez lan egiten baitzuten ikasketak ordaintzeko.

Emakumeen LHri dagokionez, herriko neskek, goi-mailako batxilergorik egiten ez bazuten, etxeko lanak beste zereginik ez zuten izaten. Horregatik, hori ikusirik, ikastetxeko zuzendariak parrokiako apaizekin hitz egin zuen, eta Lanbide Heziketa zabaldu zuen. Gero, gaueko plana hasi zen, eta, handik gutxira, Erdi Mailako Arduradunen Eskola ireki zen. Emakumeen prestakuntzara itzulita, 1965/66 ikasturtean 69 neska sartu ziren ikastetxean, 1966/67 ikasturtean 85era iritsi ziren, eta 87ra 1967/68 ikasturtean.

Azkoitiko San Ignazio Lanbide Eskolaren lanarekin jarraituz, 1968. urtean izan zen gertaera garrantzitsu bat aipatu behar da. Munduko krisi ekonomikoa gertatu zen, eta Azkoitian 350 gizon eta emakumeri eragin zien. Garai hartan, Eskolak ikastaro batzuk antolatu zituen Langileak Sustatzeko Planaren barruan, funtsezko bi arrazoirengatik: batetik, langileak birziklatzeko —ikastaroak eman ziren: Iturgintza, Automobilgintza, Elektronika, Ebaketa eta Jantzigintza, Mekanika, Ostalaritza, etab.—, eta, bestetik, eskoletara joateagatik ordaintzen zitzaielako ikasleei —60 pezeta ezkongabeei eta 70 pezeta ezkonduei—. Esperientzia horren ondorioz, Ebaketa eta Jantzigintzako neskek kooperatiba bat ireki zuten, eta Elektronika saileko mutilek beren negozioa jarri zuten Irurtzunen (Nafarroa).

Ikastetxearen mugarrietara itzuliz, 1976/77 ikasturtean publiko bihurtu zen eskola, eta hori kolpe gogorra izan zen irakasle askorentzat; izan ere, irakasle askok ez zituzten irakaskuntza emateko behar ziren titulazioak. Bestalde, aringarria izan zen ikasleentzat, aurrerantzean ez baitziren behartuta egongo amaierako azterketak beste ikastetxe batzuetan egitera. LHko Ikastetxe Nazionala desagertu eta Urola Lanbide Eskola sortu ondoren, 2016/17 ikasturtean, beste izen bat hartu zuen ikastetxeak: «Izarraitz Lanbide Heziketa» LHII. Hala, esan daiteke Urola eskualdeko Lanbide Heziketa behin betiko bereizi zela Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHItik eta bere ibilbideari ekin ziola LHko ikastetxe huts gisa, bere prestakuntza-identitatea eta eskualde-izaera sendotuta.

• Gaur egun «Bidasoa» LHII izenaz ezagutzen den eskolaren jatorria udal-jardueraren barnean kokatzen da. Gerra Zibila amaituta, Irungo

herritarren premia larrienetako bat gazteen prestakuntza eta lanbide-heziketa zen. Beraz, Carlos Rivilla industria-ingeniaria buru zuen Ekintza Katolikoko Gizonak elkarteak doako gaueko eskolak ezarri zituen langileentzat, eta, horren ondorioz, mozio bat aurkeztu zuen Udalean Lan Eskola bat sortzeko.

Proiektu hori 1946an hasi zen gauzatzen. Udalak proposamena onartu zuen, eta 40.000 pezeta eman zituen Eskola behin betiko martxan jartzeko. 116 ikaslerekin hasi zen martxan eskola: 58 ikasle Mekanikan, 33 Zurgintzan eta 25 Elektrizitatean. Urte batzuetan Udalaren babesa besterik ez zuela jardun zuen, baina 1953an, Industria eta Hezkuntza Ministerioek batera emandako agindua indarrean sartu ondoren, egoera aldatu egin zen. Ministro-agindu horren bidez, enpresek beren zonako aprendizak prestatzeko balio zuten lanbide-eskolak beren kargura sortu behar zituzten, edo eskola horien gastuak ordaindu. Horregatik, Patronatu bat sortu zen, non Udalak eta Irungo industria garrantzitsuenen ordezkariek parte hartu baitzuten.

1958an, ikastetxeak Irungo «Nuestra Señora del Juncal» Eskola izena hartu zuen. Erakunde Sindikalarena zen, eta izen horrekin funtzionatu zuen, harik eta beste agindu batek, kasu honetan Eusko Jaurlaritzarenak, izena aldatzeko baimena eman eta «Bidasoa» Lanbide Heziketako Institutua izena hartu zuen arte. 1998an, Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu bihurtu zen. Hori izan zen lehenengo urratsa Lanbide Heziketako zentro integral bihurtzeko eta erabateko kalitatearen kudeaketa hartzeko. Harrezkero, «Bidasoa» LHIIk elkarlanean, erantzukizunean eta jasangarritasunean inplikatutako pertsonak eta profesionalak prestatzen dihardu, ikastetxean parte hartzen duten pertsona guztientzako aukera-berdintasuna eskaintzeko.

• Eraikingintza eta Obra Zibilaren lanbide-arloari beste ikuspegi bat ematearren, komenigarritzat jo zen mota horretako irakaskuntzak hartuko zituen ikastetxe berri bat sortzea; beraz, 2015eko uztailaren 27ko 155/2015 Dekretua onartu ondoren, Lasarteko «Eraikin adimendunen garapen iraunkorrerako» LHII sortu zen (2105/2019), Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloak egiten zituzten ikasleei prestakuntzan jarraipena emateko. Oso ikastetxe berria da, eta hasieratik aukeratu du bere prestakuntzarekin bat datozen prestakuntza-ibilbideak eskaintzea, ikasleak lanmunduan sartzea errazteko.

• Salestarren Kongregazioak, 1954. urtearen erdialdean, Gipuzkoan Don Boscoren Mutilen Lan Hiri Salestarra sortzea erabaki zuen. Horretarako, pixkanaka eraiki behar zituen, bere baliabide eta dohaintzekin, bere ahalmenen arabera, behar ziren eraikinak, kongregazioak Intxaurrondon

zituen lurretan. Azkenean, ordea, Errenterian eraiki zen Don Bosco Lan Hiria (1960/2019), Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren eta San Frantzisko Saleskoa (Salestarrak) sozietatearen arteko sortze-akordio baten ondoren.

Irakaskuntza 1960ko irailaren 15ean hasi zen, Lehen Hezkuntzarekin eta Lanbide Hasierarekin, baina hamarkada benetan emankorra 1970ekoa izan zen. Hala, 1973an, Don Bosco Lan Hiriko Patronatu Batzarra bildu zen, eta, besteak beste, euskal dantzak eta euskararen irakaskuntza babestea erabaki zuen. 1978an, zentroaren izena aldatzea proposatu zen, izen ona eta arrazoi ekonomikoak zirela medio. 1978an, halaber, Ikastolen Elkarteak eskaera formala egin zuen ikasketak euskaraz egin ahal izateko. Horretarako, argudiatu zen Don Bosco Lan Hiria inguru euskaldunean zegoela, baina arazo handi bat zegoen: ikastetxeko 103 irakasleetatik 17 bakarrik ziren euskaldunak. Azkenean, erabaki zen ikastetxeak konpromisoa hartzea euskarazko irakaskuntza eta irakasleen prestakuntza bultzatzeko, baina gaia epe luzean gauzatzeko kontutzat hartu zen.

EAEko LHko beste ikastetxe batzuek hasitako bideari jarraituz, Don Bosco Lan Hiria ere EAEko Unibertsitatez Kanpoko Ikastetxeen Sare Publikoaren zerrendetan sartu zen. Hala, 1993an hitzarmen bat sinatu zuten, besteak beste honako puntu hauek jasotzen zituena:

— Don Bosco Lan Hiria ikastetxe publikoen sarean sartzea.
— Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak Don Bosco Lan Hiria ikastetxearen titulartasun juridiko-administratiboa ematea, eta ondasun higigarri eta higiezin eta ekipamendu-ondasun inbentariatuen jabetza lagatzea, eta Euskal Administrazioak bere gain hartzea lagatako ondasunen gaineko kargak eta zamak.
— Euskal Administrazioak bere gain hartzea irakaskuntza-jardueratik eratorritako zor guztiak, eta Don Bosco Lan Hiriak bere langile guztiekin zituen lan-harreman guztiak subrogatzea.

1999ko uztailean, Goi-mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutua izena hartu zuen, eta, 2005ean, 1558/2005 Errege Dekretua indarrean sartu zenean, Don Bosco Lan Hiria Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen sarean sartu zen, eta, ondorioz, kalitatearen kudeaketaren munduan ere sartu zen.

Kalitatearen kudeaketaren mundu horretan sartu ondoren, «Don Bosco» LHIIk funtzionatzeko modu berri bat bilatu zuen, eta helburu hau jarri zion bere buruari: bere eragin-eremuko biztanleriaren prestakuntza-premiak asetzea. Eta, horretarako, giza balioetan oinarritutako kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, eta bere ikasleei bermatzea Unibertsitatean edo lan-munduan sartzeko aukera emango zieten gaitasun teknikoak eta gizarte-trebetasunak eskuratuko zituztela, eta, bestalde, harremanak sus-

tatzea Etengabeko Prestakuntzan, Lanerako Prestakuntzan eta lan-munduan eskumenak dituzten edo haiekin harremanak dituzten eragileekin: Hobetuz, Lanbide, Eskualdeko Garapen Agentzia, Elkarteak (INSTAGI, AEGA, etab.). Halaber, handitu egin ditu prestakuntza-jarduerak enpresa eta instituzioekin lankidetza-hitzarmenak eginez (MAN, Mercedes Goiko Auto, Wurth…), etab.

• Pedro Celaya historialari eta apaiz eibartarrak galdera hau egin zuen: Nor izan zen Armeria Eskolaren sorrera proiektatu zuen gizon ospetsua?. Eta honela erantzun zion bere buruari: «Eibar izan zen, bere intuizio, zintzotasun-espiritu eta izaera aurrerakoiarekin, Eskolaren beharra sentitu eta haren sorrera sumatu zuena. Herri-intuizioa izan zen».

XX. mendeko lehen urteak ziren, eta Eibarko Udalean Armeria, Marrazketa eta Arte eta Lanbide Eskola bat sortzeko aukeraz eta herriko produktuen erakusketa iraunkor bat, Armeria Museoa, sortzeaz eztabaidatu zen. Mozioa aho batez onartu zen, eta Eskolaren inaugurazio ofiziala 1914ko ekainaren 24an izan zen, nahiz eta hilabete batzuk lehenagotik martxan egon. Armeria Eskolaren proiektuak, hasierako fasean, hiru ikasturteko ikasketa-erregimena aurreikusten zuen, ikasturte bakoitzean 25 ikaslerekin, eguneko erregimenean bakarrik, baina ez zuen asko iraun: 1926rako, ikasle guztiak ikasketa-plan berean ari ziren, teoria eta praktika barne.

Espainiako Gerra Zibilaren hasiera kolpe latza izan zen Armeria Eskolarentzat. Alde batetik, esan behar da eraikina zutik mantendu zela, tropa faxisten bonbardaketak eta haiek egindako material-lapurretak gorabehera, baina hezkuntza-proiektua erabat geldituta geratu zen, eta hutsetik hasi behar izan zen berriz ere Eskola martxan jartzeko. Baina Gerra Zibilaren ondorioak nabarmenak ziren, eta 1941. urtean gauzak ez zihoazen ondo Eskolarentzat arlo ekonomikoan; beraz, lehenengo arazoak sortzen hasi ziren, baina gainditu egin ziren ikasle kopuruaren hazkundeari esker. Ondorioz, Patronatuak plaza kopurua handitu behar izan zuen, eta, horrenbestez, instalazioak handitu.

Zalantzarik gabe, Eskolaren historiako une garrantzitsuenetako bat 1954an gertatu zen, ikastetxea Hezkuntza Ministerio Nazionalari lagatzea formalizatu zenean. Eibarko Udalean egindako bilkura batean erabaki zuten erakunde horrek eta Eskolako Patronatuak, ados jarrita, Estatuko Administrazioari lagatzea eskolako ondasun higigarri eta higiezin guztiak, milioi bat pezetako prezio sinbolikoan. Hala ere, lagapenak bazuen ordaina, eta garrantzitsua, Ministerioa Eskola zabaltzera eta lehengo irakaskuntzei eustera behartzen baitzuen. Horretaz gainera, beharrezko bitartekoak jarri behar zituen Ikasketa Plana erregimen pribatuan edo Patronatuaren erregimenean zabaltzeko, eta Unibertsitate Batxilergoa eta

Merkataritzako karrera eskaini. Eta dena konponbidean zegoela zirudienean, Industria Lanbide Heziketari buruzko 1955eko Legea iritsi zen, eta aldaketa berriak eragin zituen Armeria Eskolan. Esan beharra dago 50eko hamarkadaren erdialdetik aurrera jarduera akademiko bizia izan zuela Eskolak.

1960/61 ikasturtea hasi zenean, beste gertaera garrantzitsu bat izan zen Eskola modernizatzeko prozesuaren bilakaeran: laborategiak muntatu eta doitu ziren, eta horrek aukera eman zuen ikasleekin praktika-ikastaroak egiteko. Hori, hezkuntzaren arloan, aurrerapauso handia izan zen, eta, gainera, eskualdeko industriari erantzuna emateko balio izan zuen, horrelako zerbitzuak eskatzen ari baitzen. Laborategi xume horiek geroago Tekniker ikerketa-zentroa izatera iritsi zenaren hasikina izan ziren. 70eko hamarkadan, industrian zein munduko ekonomian gertatu ziren aldaketak izan ziren nagusi, eta horrek eragin zuzena izan zuen Eskolako irakaskuntzetan; aldi berean, oso etapa zaila izan zen irakasle askorentzat, bitartekotasun-egoeran baitzeuden, eta urtez urte luzatzen zen egoera, Ministerioak ez baitzuen oposizio-deialdirik egiten. Bitartekotasun-egoera hori ez zen oztopo izan irakasle horietako askok aukera izan zezaten bai eskolan eman ziren ikastaroetan bai nahi zutenei zuzendutako euskara-eskoletan trebatzeko.

1984tik 1987ra bitartean, pixkanaka, espezialitateak indartzeko balio izan zuten teknologia-baliabide modernoak sartuz joan ziren. Hala ere, 1986. urtea beste mugarri bat da Armeria Eskolarentzat: orduan, Ikasle Ohien Elkartearen bidez, akordio bat lortu zuen Eusko Jaurlaritzako Lan Kontseilaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, birziklatze-plan bat garatzeko, Etengabeko Prestakuntzako plan bat Debabarreneko industriako teknikarientzat. 90eko hamarkadara iristean, LOGSE sartu zen indarrean, eta, EAEko beste ikastetxe asko bezala, Eibarko Armeria Eskola Goi-mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu bihurtu zen. Hori hasiera izan zen Eskolaren gaur egungo egoerara iristeko eta erabateko kalitatearen kudeaketaren sisteman parte hartzeko, hau da, beste perspektiba bat hartzeko ikastetxearen funtzionamendua etengabe hobetzeko.

• Hernaniko Lanbide Eskola (Escuela Profesional Obrera, EPO izenaz ezaguna) 1947/48 ikasturtean hasi zen lanean, hamahiru ikaslerekin, eta 1948ko azarotik 1952ko urrira bitartean 30.000 pezeta jaso zituen dirulaguntza gisa. 1952an, Patronatuko lehendakariak idazki bat aurkeztu zuen eskolan egiten ziren irakaskuntzen onarpen ofiziala eskatzeko, eta, 1954an, Hezkuntza Nazionaleko Ministerioko LHko Batzorde Zentraleko Atalak esan zuen Eskolaren eraikinak baldintza pedagogiko eta higieniko egokiak betetzen zituela ematen ari zen irakaskuntza emateko, eta irakasleen plantilla nahikoa zela eta beharrezko titulazioa zuela. Halaber

aitortu zuen ikastetxeak beharrezko makineria eta tresnak zituela ematen ari zen espezialitateetarako eta Eskolak zazpi urte zeramatzala lanean eta eraginkortasunez lagundu zuela langile gazteak trebatzen, *«ikasleek irakaskuntza teknikoak ez ezik, erlijioari, moralari eta aberriari buruzko prestakuntza ere jaso baitzuten, eta, beraz, benetako prestakuntza integrala osatzen baitzen»*. Horren ondorioz, Atal horrek erabaki zuen orduan Eskolan egiten ziren ikasketek LHko Patronatuek zuzentzen zituzten antzeko ikastetxeetan egiten zirenen balio eta ofizialtasun bera izatea.

1994ko otsailean, Hernaniko Karmelo Labaka Lanbide Eskola sortu zen, eta egun horretan bertan onartu zuen euskal administrazioak Eskolaren ondasun higiezinen lagapena. 2015. urtean, 155/2015 Dekretuak Hernaniko «Gizarte Berrikuntza» LHII sortu zuen —gaur egun duen izena, alegia—, eta ikastetxea erabateko kalitatearen kudeaketaren munduan parte hartzen hasi zen. Duela gutxi bihurtu da LHko ikastetxe integratu; beraz, ezin izan du osorik aztertu kalitatearen kudeaketa hori, baina, oraingoz, dagoeneko ezarri ditu lehentasunak, hau da, erakundeko pertsonen garapen profesionala bultzatzea, ikasleen prestakuntza-eskaera eta itxaropenak asetzea, ikasleen ezagutzari, gaitasun profesionalari eta erantzukizun sozialari balioa ematea, ikasleen laneratzea erraztea eta kalitatearekiko eta etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoan aurrera egitea.

• Oso ikastetxe berria da Mutrikuko «Kardala» LHII (2015/2019). Ikastetxearen benetako izena «Elikagai-industrien eta Akuikulturaren Garapen Iraunkorrerako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua» da. Ikastetxe hori Mutriku BHItik bereizi zen, eta «Akuikulturako Goi Mailako Heziketa Zikloa «eraman» zuen berekin. Hala, izaera publikoko ikastetxe berri bihurtu zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa Sailaren mende. Esan dugun bezala, zentro berria da, 2015eko irailean sortua, eta 2004an sortutako Mutrikuko Akuikulturako Goi Mailako Heziketa Zikloaren eraldaketa besterik ez da. Ziklo horren instalazioak eta irakasleak bereganatu ditu.

Gaur egun, akuikultura eta elikagaien industrien arloan prestakuntza emateko eta ikasleak lan-munduan sartzeko eskuduntzak ditu, eta espazioak eta instalazioak handitu eta finkatzeko prozesuan murgilduta dago. Ikastetxearen berezko jarduerek arlo horietako prestakuntza-ekintzak biltzen dituzte, bai eta Lanbiderekin lankidetzan ikasleak lan-munduan txertatzeko ekintzak eta akuikulturari aplikatutako proiektu pedagogikoetan eta ikerketetan parte hartzea ere.

• 1997. urtean sortu zen Elgoibarko Makina Erremintaren Bigarren Hezkuntzako Institutua. Hala ere, gerora sortutako inguruabarrek kome-

nigarri egiten zuten institutu horiek sortzeko formula zehaztea, desagregazioaren bidea erabiliz, eta, hori osatzeko, funtzionamendurako behar ziren lanpostuak xehe azaldu, gero zentro berrian integratu eta lanpostu horietan behin betiko destinoa duten langileen araubidea zehaztea. Hala, Makina Erremintaren Bigarren Hezkuntzako Institutua Makina Erremintaren Lanbide Heziketako Institutua izatera pasatu zen, eta, 1998ko urrian, Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sarean sartu zen.

Harrezkero, erabateko kalitatearen kudeaketaren politika bere eginez, Makina Erremintaren LHIIko zuzendaritzak eta langileek (1997/2019) prestakuntza emateari eta berrikuntza teknologikori ekin diote industriaren eta komunitatearen zerbitzura, eta, kalitatearen alde egiten duen ildo horretan jarraituz, Makina Erremintaren LHII une oro saiatzen da kudeaketa-sistemaren eta sistema horrek dituen eremuetako jardunaren eraginkortasuna etengabe hobetzen, bere jardueran aplikatu beharreko legezko eskakizunak betetzeaz gainera. Horretarako, modu arrazionalean erabiltzen ditu baliabide materialak, energia aurreztea sustatuz eta hondakinen ekoizpena murriztuz, erakundeko langile guztien segurtasunerako eta osasunerako arriskuak ezabatuz eta arriskubideak murriztuz eta langileen hizkuntza-eskubideak zainduz, ikasleen hirueletasuna sustatuz eta euskararen erabilerari lehentasuna emanez, langileen lan-hizkuntza nagusia izatea lortzearren.

• «Asociación de Antiguos Alumnos del IFP de Elgoibar / Elgoibarko Lanbide Heziketarako Institutuaren Ikasle Ohien Elkartea»k ia 4.000 m^2-ko lurzati urbanizatu bat eman zion Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari, notario aurrean egindako salerosketa-kontratu baten bidez. Lurzati hori MEKA (Makina Erremintaren Karrozeria) prestakuntza-proiekturako eraikin bat eta haren instalazioak eraikitzeko erabili behar zen.

«MEKA» LHII (2005/2019), Lanbide Heziketako beste ikastetxe batzuen bideari jarraituz, Ikastetxe Integratuen sarean sartu zen, eta erabateko kalitatearen kudeaketan hasi zen lanean. Une horretatik aurrera, pertsonei prestakuntza emateari ekin zion, kultura-ingurunean eta lanmunduan inplikazio-maila izan dezaten, eta, hala, giza balioetan hezita eta etorkizuneko teknologietarako prestatuta egonda, gai izan daitezen hala ikasten jarraitzeko nola lanean hasteko. Ez da hor amaitzen, baina, ikastetxearen eginkizuna. «MEKA» LHII, halaber, bere proiektuak bultzatzen ari da, bere inguruko gizarte —eta lan— arloko premiei erantzun ahal izateko.

Itxaropen horiek bete ahal izateko, zenbait balio bereganatu ditu, hala nola gazteentzako etorkizun bat eraikitzea eta euskararen defentsa, zeren eta, azpimarratzen duten bezala, «gure ikasleak Euskal Herri normali-

zatu batean ikusten ditugu», eta, horretarako, ikasleek era guztietako harreman eta komunikazio-egoeretarako prestatutako euskara izango dute. «MEKA» LHIIk kultura guztiei zabalik dagoen ikastetxe bat izan nahi du, ikastetxe euskaldun gisa duen identitatetik abiatuta baina beste hizkuntza eta kultura batzuetara irekita, eta arreta berezia jarriko dio gaztelaniari, ikasleak bi komunikazio-hizkuntzetan aritzeko gai izan daitezen, eta guztien parte-hartzea sustatuko du, hau da, gurasoena, ikasleena, irakasleena eta administrazioko eta zerbitzuetako langileena. Alegia, ikastetxeak argi eta garbi egiten du etengabeko hobekuntzaren alde arlo guztietan.

• «Miguel Altuna» LHII (1928/2019) Escuela de Formación Básica y Textil izenarekin jaio zen. Eskola Bergarako Errege Mintegian zegoen, eta bertan egon zen 1936an Gerra Zibila hasi arte. Gerra Zibila amaitu ondoren, 1944ko urriaren 16an, ireki zen berriro eskola, baina, aurretik, 1942ko uztailean, Agindu bat sartu zen indarrean, Bergarako Escuela Elemental de Trabajo y Profesional Mecánico-Textil izenekoa hartuko zuen eraikin bat eraikitzea onartzen zuena. Garai hartan, bi pertsona izan ziren protagonista: batetik, José María Aguirre, Unión Cerrajerako gerentea eta eskolako zuzendaria, eta, bestetik, Miguel Altuna, idazkari gisa. 1990ean, Eskola Elementala esaten zitzaionak «Miguel Altuna» izena hartu zuen, baina aldaketa «ofiziala» ez zen gauzatu 1994. urtera arte, Lanbide Heziketako Institutu bihurtu zen arte. 1996an inauguratu ziren gaur egun eskola dagoen instalazioak, eta, 1998an, «Miguel Altuna» Goimailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu bihurtu zen. Heziketa Zikloak eta Etengabeko eta Hasierako Prestakuntza ematen ditu.

Une honetan, «Miguel Altuna» LHIIk duen erronka nagusia da Debagoieneko lanbide-heziketa erreferentzia bihurtzea, gurasoak eta ikasleak, oro har, harro egon daitezen ikastetxeak eskaintzen duen goi-mailako prestakuntzaz. Erronka hori ez da Debagoieneko eskualdera mugatzen; erreferentzialtasun hori nazioartekoa izatea nahi da, kalitatezko zerbitzua eskainiz eta ikastetxea ekintzailetzarako funtsezko leku bihurtuz. Testuinguru horretan, «Miguel Altuna» LHIIk ikasleen premiei erantzuna ematera bideratu ditu bere helburuak. Ikasleen konpromiso pertsonala lortu nahi du, eta, neurri batean, haiei autonomia eman; enpresei, berriz, beren premiei ere erantzungo dieten langile kualifikatuak eskaini nahi dizkie. Azken finean, «Miguel Altuna» LHIIk ikasleen garapen pertsonal integrala hobetu nahi du, eta haien maila akademikoa handitu, Hasierako Prestakuntzari, Etengabeko Prestakuntzari, Lanerako Prestakuntzari eta Bizialdi Osoko Ikaskuntzari erantzun, inguruko enpresei lagundu eta LHko zentro gisa erreferente bihurtu.

• Monte Albertia (1962/2019) LHIIren jatorria Val de Erro jauregian dago. Falangeko Sección Femenina delakoak Fabiola erreginari erosi

zion jauregia, eta, hasieran, Espainia osotik etortzen ziren neskentzako udako aterpetxea izan zen, baina 1962an eskola bihurtu zen, nahiz eta ofizialki 1963ko maiatzean inauguratu. Jauregiak bi eraikin zituen, «jauregitxoa eta etxetxoa», bereiziak eta oso eraikuntza desberdinekoak.

Inaugurazioan, besteak beste, Pilar Primo de Rivera izan zen, Sección Femeninaren ordezkaria, eta eskolari «Monte Albertia» Ile-apainketa, Estetika eta Kosmetika Eskola deitu zitzaion. Ordura arte, Sección Femeninak emakumeak sustatzeko zentroak zituen Espainia osoan, hau da, erizaintza-eskolak, gorputz-hezkuntzakoak, gizarte-laguntzaileen eskolak, irakasle-eskolak, musika-irakasleak, ikasle-egoitza nagusiak eta txikiak, eta lehen hezkuntzako eskolak. Baina LHra ez ziren iristen; beraz, Emakumearen Eskubide Politiko, Profesional eta Lanerako Berdintasunerako Legea onartu ondoren, Cheli Valcárcelek, garai hartan Madrilgo LHko arduraduna zenak, Ministerioko teknikariekin lankidetza estuan, ikasketa-plan bat egin zuen, hiru zutabetan oinarritua: enborreko irakasgaiak, hala nola matematika, kimika..., espezialitateko berezkoak, eta osagarriak, hala nola musika, dantza, eskualdeko dantzak, etab. 1964an, arazo larri bat sortu zen Ile-apainketako Eskolan eragin zuzena izan zuena. Jauregiaren egitura kaltetuta zegoen, eta, segurtasun-arrazoiengatik, eraikina eraitsi eta beste bat eraiki behar izan zen, eskolaz gainera ikasleen aterpea ere izango zena. Hala ere, eskolak ez ziren eten, eta urte haietan Sección Femeninak Deban zuen etxean jarraitu ahal izan zuten.

Esan dugun bezala, Monte Albertia eskola Falangeko Sección Femeninaren mende zegoen, eta 1981. urtera arte ez zen pasatu titulartasuna Eusko Jaurlaritzara; zehazki, Kultura Sailera pasatu zen, eta horrek aldaketa handia ekarri zuen ikastetxearen kudeaketan. 1985ean, zerbait bitxia gertatu zen: eraikina Foru Aldundiko Kultura Sailaren jabetza bihurtu zen, baina eskola Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak kudeatzen zuen. Beste gertakari larri bat, ordea, iristear zegoen. 1986. urtean, Hezkuntzako ordezkariak bidalitako gutun bat jaso zen ikastetxean, ikastetxea itxi egingo zela adierazten zuena. Monte Albertiako zuzendaritza-taldeak berehala erantzun zion Ordezkaritzari, eta esan zion eskolak orainaldia izateaz gainera bazuela etorkizuna ere. Gurasoen batzarrek, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen jarrerak eta baita Zarauzko Udalaren eskaerak ere agindu hori ezeztatzera behartu zuten, eta Monte Albertiak aurrera jarraitu ahal izan zuen.

Baina dena ez ziren arazoak izan. 90eko hamarkadan, albiste onenetako bat iritsi zen Monte Albertia Eskolarentzat: Ikaslan LHko Ikastetxe Publikoetako Zuzendarien Elkartearen sorrera. Monte Albertia 1991n inskribatu zen elkarte horretan; harrezkero, haren jarduerak Monte Albertia ikastetxearen Plan Estrategikoaren barruan daude. Bada gertaera aipagarri bat, geroago gertatua. Zarauzko «Etxelaguntza» enpresak etxez etxeko la-

guntza ematen die mendekotasuna duten pertsonei, eta Monte Albertiari lankidetzan aritzeko eskatu zion, adinekoak etxean zaintzen dituztenentzako zaintza estetikoen ikastaro bat egiteko. Ikastaro horretan Etxelaguntzako 20 langilek baino gehiagok hartu zuten parte.

Heziketa Zikloak hastearekin batera LH aldatu izanak ere berrikuntzak ekarri zituen; hala, irakasgaiei modulu izena eman zitzaien, eta ikasleek, moduluak egin eta gaindituz gero, Lantokiko Prestakuntza (LP) izeneko azken modulu bat egin behar zuten, 400 ordukoa. Eta, gainera, nazioartekotzea iritsi zen, hau da, ikasleek Monte Albertiatik kanpo ikasteko aukera izatea eta ikasketak kanpoko hirietan egin ahal izatea, hala nola Londres, Erroma edo Parisen. 2000ko hamarkadan, halaber, berrikuntza garrantzitsuak izan ziren maila didaktikoan ile-apainketako eta estetikako tekniketan, eta, horren ondorioz, Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, berariazko prestakuntza-programa bat prestatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Irudi Pertsonaleko lanbide-arloko irakasleentzat. Aldi hartan, kalitatearen kudeaketa ikastetxearen politikaren eta estrategiaren funtsezko parte bihurtu zen; hala, 2010/11 ikasturtean, kalitatea prozesuen arabera kudeatzeko sistema ezartzen eta adierazleak berrikusten hasi zen HOBBIDEren bidez, Kalitatearen Euskal Agentziaren laguntzarekin.

Euskarari dagokionez, 2004/05 ikasturtean, ikasleen jatorria aztertu ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak 2005/06 ikasturtetik aurrera D ereduan (euskara hutsean) irakasteko eskatu zuen, eta onartu egin zitzaion, Erdi Mailako Heziketa Ziklorako. Eta 2006/07 ikasturtetik aurrera, argitaletxeekin egin beharreko izapideak bizkortu ziren LANEKI (Lanbide Ekimena) programaren bidez gainerako euskarazko ikasmateriala lortzeko. Dena dela, 2012an irakaskuntzak bi hizkuntzetan ematen ziren, gaztelaniaz eta euskaraz.

• XIX. mendearen amaieran, industria-iraultzak aldaketa sozial eta ekonomiko handia ekarri zion Donostiari. Langile kualifikatuen eskari handiari erantzuteko, 1880an Arte eta Lanbide Eskola sortu zuen Donostiako Udalak, eta eskola hori izan zen gaur egungo «Easo Politeknikoa» LHIIren jatorria (1880/2019). Arte eta Lanbide Eskola Donostiako Garibai kalean zegoen, eta Industria eta Eraikuntza Arteak ez ezik, Arte Ederrak eta Merkataritza ere irakasten zituen. 300 ikasle baino gehiago joaten ziren ikastetxera, oso kopuru garrantzitsua garai hartarako. Hazkundeak Urdaneta kaleko eraikin handiago batera eraman zuen, han tailerretan eskola praktiko egokiak eman ahal izateko.

Urte batzuk geroago, Arte eta Lanbide Eskola harro zegoen bere irakaskuntzaren maila onaz, baita garai hartarako eta eskola mota horretako irakasgai egokiak emateaz ere. Esan dugun bezala, ikasle kopuru handia zegoen; beraz, Eskola pixka bat arintzearren, espezialitate asko baitzituen,

Ubaldo Usunarizek[7] pentsatu zuen oso ideia ona izango zela Oinarrizko Lan Eskola bat sortzea han irakasten ziren industria-irakasgaiekin. Eta hala egin zen. Eraikin berean, eta Arte eta Lanbide Eskolako irakasle batzuekin, industria-irakasgaiekin, eta Eibarko Armeria Eskolako programa nolakoa zen ikusita —orduan funtzionatzen zuen bakarra baitzen—, 1927/28 ikasturtean hasi ziren eskolak, 35 ikaslerekin. Hasiera oso gogorra izan zen, bitartekoak oso urriak zirelako, baina inoiz ez zen irakaskuntza eten, ezta Gerra Zibilean ere.

1929an, Lanbide Irakaskuntzak banandu egin ziren, eta, ondorioz, ikastetxeak izena aldatu zuen. Oinarrizko Lan Eskola izena hartu zuen, zenbait espezialitate eman zituen eta lehen aldiz sartu zen Zientzia eta Giza Zientzietako prestakuntza, hala ikasleen prestakuntza handiagoaren premia asetzeko. Gainera, aitzindari izan zen beka-sisteman eta jantokizerbitzuan. Eskola LHko Patronatu batek mantentzen zuen, eta Donostiako Udalak eta eskualdekoek 20 zentimo ordaintzen zuten biztanleko. Eskualdeko udalak Irundik Zarautzerainoak ziren kostaldetik, eta Tolosarainokoak barnealdetik.

Denborak aurrera egin ahala, Arte eta Lanbide Eskolak bere izena galdu zuen, eta Industria Maisutzako Eskola Ofizialak ordezkatu zuen. Eskola hori Hezkuntza Nazionalaren Ministerioaren mendeko zentro ofizial bihurtu zen 1929ko irailaren 6ko Errege Aginduaren bidez, eta gerragaraian ere egon zen martxan, lehen esan dugun bezala. 1938/39ko memorian, besteak beste, hau esaten zuen:

> Udal Txit Gorenaren Sustapen Batzordeak —gure hiri paregabearen askapenaren ondoren eratua— berehala hornitu zituen hutsik zeuden postuak, eta ikastaroak berriro hasi ziren modurik egokienean, egoera kontuan hartuta. Saiatu beharra zegoen, beraz, horretarako aukera egokia baitzen, ikasketa-planak ahal zen neurrian berrantolatzen. Eskolaren Zuzendaritza berrian eragina izan zuten oinarriak honako hauek izan ziren: Eskolaren xedea dibulgatzaileago egitea, goi-mailako ikasturteetara joango ziren ikasle hautatuak eskolan bertan lortzea, asistentziari buruzko kontrol medikoa ezartzea eta eskolako ikasketetan irakaskuntzen elastikotasun egokia eta, batez ere, irakasgaien artean behar den lotura ezartzea (Aloy, 1987).

Berrogeiko hamarkadan, gaueko klaseetara joateko ohitura oso zabalduta zegoen. Garai zailak zirenez, egunez lan egiten zuten mutilek, eta gauez joaten ziren ikastera, baina Arte eta Lanbide Eskolak bere irakaskuntza-lanarekin jarraitu zuen, garai eta inguruabarretara egokituz; 1956an, Amara auzoko Industria Maisutzako Eskolako eraikin berrira aldatu zen, eta 1957/58 ikas-

---

[7] Donostiako Arte eta Lanbide Eskolako Kontabilitate Ataleko irakaslea.

turtea izan zen azkena Arte Eskola gisa. Hala ere, 40ko hamarkadan bada aipatu beharreko gertaera arraro samar bat: Udalak idazki bat bidali zuen adierazteko Arte eta Lanbide Eskola desegitea erabaki zuela. Kontuan izan behar da eskolak udal-izaera zuela eta ordura arte Udalak mantendu zuela. Idazki horretan aipatzen zen beharrezkoa zela Lanbide Heziketako Toki Patronatuaren mende zegoen Oinarrizko Lan Eskolak bere gain hartzea ordura arte Arte eta Lanbide Eskolak ematen zituen irakasgaietako batzuk. Ministerioa proposamenaren alde agertu zen, baina irakasgai horiek —Marrazketa Lineala eta Atal Artistikoari eta Emakumearen Atalari zegozkienak— Oinarrizko Lan Eskolak bere gain har zitzan, Udalak lokalak eman behar izan zituen, irakasleen eta menpekoen ordainsariak bere gain hartu behar izateaz gainera.

Amarako eraikin berria eraikitzeko lurrak Udalak eman zituen, eta Industria Maisutzako Eskola berriak eraikin berri bat izan zuen, Peritu Eskolak, Maisutza Eskolak eta Arte eta Lanbideetako Eskolak partekatua. Hori gertatu zenean, 1955eko Lanbide Heziketa Industrialeko Legea sartu zen indarrean, eta, ondorioz, Institutua zuzenean Ministerioaren mende gelditu zen. 1970ean, Hezkuntza Lege Orokor berriarekin, Eskolak LHko Institutu Politekniko Nazionala izena hartu zuen; 1994an, «Easo» izen espezifikoa lortu zuen, eta, 74/1998 Dekretuari esker, Goi-mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu kalifikazioa lortu zuen. Urrats horrek ateak ireki zizkion kudeaketa-eredu berri baterako.

Harrezkeroztik, «Easo Politeknikoa» LHII lanean ari da erakundeko pertsona guztien ikaskuntzako eta gaitasun pertsonal eta profesionaleko itxaropenak betetzeko, prestakuntza-eskaintza malgu bat ezarrita, herritarren eskaeretara eta produkzio-sistemaren premietara egokitua. Ikastetxeak orientazioa eta bizitza osoan zehar ikasteko aukera ematen die pertsonei, lankidetza sustatzen du... Helburu horiek lortzeko, «Easo Politeknikoa» LHIIk antolaketa malgua, digitala, eleaniztuna, berritzailea, solidarioa, jasangarria eta segurua ezarri du, enpresa-sarearekin eta lan-munduarekin bat, zenbait baliotan oinarritua, hala nola begirunea, garapen pertsonala, jasangarritasuna, erantzukizuna, eleaniztasuna, nazioartekotzea...

• Tolosako «Tolosaldea» LHII (1950/2019) ikastetxe publikoa da, eta Tolosako Santa Lutzia auzoan dago. Han badira beste ikastetxe publiko batzuk (Samaniego Ikastetxea, Orixe BHI), eta, guztien artean, Santa Lutzia hezkuntza-gunea izenekoa osatzen dute.

«Tolosaldea» LHIIren jatorria XX. mendearen hasierako «Arte eta Lanbide Eskola» zaharrean dago. Geroago, Lan Eskola gisa jarraitu zuen lanean lehenik, eta, 1955etik aurrera, Maisutza Eskola gisa. Hura sortzeko, ministro-agindu bat argitaratu zen, honako hau zioena: «Tolosan Lanbide Heziketako Tokiko Patronatu behin-behineko bat eratzea xedatzen

da, Lanbide Orientazioko eta Ikaskuntzako Eskola baten sortze-gutunaren proiektua idazteko». Eskaera herriko Udalak egin zuen, eta, eraikin bat eskaintzeaz gainera, Eskolaren instalazio —eta mantentze— gastuetarako dirulaguntzak eta baliabide ekonomikoak eman zituen. Ministerioak, beraz, LHko Batzorde Nagusiak emandako irizpenarekin bat etorriz, Patronatu hori eratzeko baimena ematea erabaki zuen, Patronatu horrek Eskola eraikitzeko sortze-gutunaren proiektua idatz zezan. Eskolaren ikasketa-planek aprendizaren Lanbide Orientaziora joko zuten, eta haren helburua izango zen hirugarren mailako langile ofizialak prestatzea industria mekanikoekin, elektrikoekin eta papergintzarekin eta arte grafikoekin zerikusia duten lanbideetan.

Sortu ondoren, eta urte askoan ikastetxe horri buruzko berririk ez izan ondoren, 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, gaur egun «Tolosaldea» LHII izenekoak enpresa-mundura hurbiltzeko prozesuari ekin zion, txandakako praktikak modu esperimentalean martxan jarrita. Geroago, 90eko hamarkadaren amaieran, 74/1998 Dekretuak Goi-mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutu bihurtu zuen ikastetxea, eta, hilabete batzuk geroago, Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sarean sartu zen. Horren ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Eskola Mapa berregin ondoren, «Tolosaldea» LHII ikastetxea Heziketa Zikloak eta Etengabeko Prestakuntza ematen hasi ahal izan zen.

2001eko uztailean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak «Tolosaldea» LHII ikerketa —eta esperimentazio— zentro gisa kalifikatu zuen, Hasierako eta Etengabeko LH ematen zuten ikastetxeen antolaketa —eta funtzionamendu— modu berriak ikertzeko proiektu bat garatzeko: GUNEKA. 2015ean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak LHko Zentro Integratu izendatu zuen. Estatus juridiko berri horri esker, ordutik, «Tolosaldea» LHIIk autonomia handiagoa izan du, eta erreferentzia-ikastetxe bihurtu da, ikastetxe euskalduna, enpresei prestakuntza aurreratua, berritzailea, plurala eta teknologia berrietan oinarritua duten ikasleak eskaintzen dizkiena. Erantzukizunean, parte-hartzean, talde-lanean eta eleaniztasunean trebatutako ikasleak prestatzen ditu, metodologia aktiboetan oinarritutako irakaskuntza pertsonalizatu baten arabera trebatuta daudenak lan-merkatura iristen direnerako.

• «Usurbilgo Lanbide Eskola» LHII (1975/2019) landa-ingurunean galdutako eskola txiki bat zen, eta gaur egun nazioartean aintzatetsitako instituzio bat da, bertan parte hartu dutenen ilusioari eta inplikazioari esker. 1970eko hamarkadan, Usurbilgo Udalak azterlan sozioekonomiko bat eskatu zion SIADECOri, eta, haren ondorioz, Usurbilgo zenbait enpresaren, Udarregi Patronatuaren —Félix Aizpurua buru zela— eta Benantxio Otaegi herriko parrokoaren parte-hartzearekin, txosten bat egin

zen, LHko eskola bat sortzea proposatzen zuena Lasarteko Batxilergo institutuaren eskaintza osatzeko eta OHO amaitzen zuten ikasleen premiei erantzuteko.

1975ean, Administrazio eta Mekanika espezialitateek ekin zioten abentura horri Aginagako parrokiaren lokaletan, Donostiako Maisutza Eskolaren, gaur egun «Easo Politeknikoa» LHII denaren, atal gisa. Baina argi zegoen lokal haiek ez zirela egokienak eskola emateko; beraz, negoziazio zailak hasi ziren Madrilekin lokal berri bat lortzeko. Azkenean, lursail batzuk lortu ziren Zubietan, landa-ingurune batean, lehenago esan dugun bezala. 1978an amaitu ziren eraikin berria eraikitzeko lanak, eta, urtebete geroago, hara aldatu zuten eskola, Elektrizitatea espezialitatea gehituta.

80ko hamarkadaren hasieran, Espainiako Estatuaren eskumenak EAEra transferitzen hasi ziren, eta horrek erabateko bultzada eman zion «Usurbilgo Lanbide Eskola» LHIIri; izan ere, irakasleak kontratatzeko aukera ez ezik, ikastetxerako hornidura garrantzitsuak ere ekarri zituen, eta, horri esker, irakaskuntzak zabaltzen jarraitu zuen, kasu honetan Automatismoak espezialitatearekin. 80ko hamarkada horretan egin ziren, halaber, enpresetako praktiken lehen esperientziak, Michelinen, hain zuzen. Eta horrek itxaropen handiak sortu zituen beste enpresa batzuetan, Michelinen «aterki» horren azpian; izan ere, «Michelinek baietz esan badu, ni ez naiz gutxiago izango». Aldi horretan nabarmendu beharreko beste elementu bat da Gipuzkoako Foru Aldundiak baldintzarik gabeko laguntza eman ziola Lanbide Heziketari, orduko diputatu nagusi Imanol Muruak esandako esaldi historiko baten bidez: «nahiago dut mila milioi pezeta inbertitu prestakuntzan kilometro bat errepide egin baino».

Une horretatik aurrera, eta Aldundiaren filosofia horrekin, ez zen batere kostatu Etengabeko Prestakuntza eskaintzeko prest zeuden LHko ikastetxeak aurkitzea, baldintza honekin: «zuk Etengabeko Prestakuntza ematen duzu, eta nik ekipamendua finantzatzen dizut». Ikastetxeak pixkanaka ekipamendua eskuratuz joatea lortu zen, eta enpresei mezu hau bidali zitzaien:

> Ondo hornituta gaude. Zuen langileak treba ditzakegu. Hemendik aurrera, ez dugu nahi zuen tailerretako hondakin-materialik, material berri gisa erabiltzen duzuena bezalakoa nahi dugu, eta, gainera, hori lortzeko, zuek guri laguntzea nahi dugu, zuen langileen trebakuntzaren onurak jasoko dituzuelako.

Baina dena ez zen hain erraza izan, eta, krisiak langileak jo zituenean, Usurbilgo eskolak langabeei ere eskaini zien prestakuntza.

1990eko hamarkadan, ikastetxeak kalitatearen kudeaketaren aldeko apustua egin zuen zenbait urtez, eta, gaur egun, «Usurbilgo Lanbide Eskola» LHII Goi Mailako Lanbide Heziketako Zentro Integratua da, eta Hasierako Lanbide Heziketa, Etengabeko Prestakuntza eta Lanerako Prestakuntza ematen ditu, euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz, bost lanbidearlotako prestakuntza-ziklotan. Bestalde, Prestakuntzako Bitartekaritza zerbitzu oso bat du, eta Lan Poltsa bat ere bai. 2011n, lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen ZUBIGUNE Fundazioarekin. Fundazio hori hogei bat enpresak osatzen dute, «Usurbilgo Lanbide Eskola» LHIIri laguntzeko. Haren bidez, ikastetxeak nahierara eskaintzen die prestakuntza teknikoa enpresei (Hirualdeko Fundazioaren bidez finantzatua), bai eta onlineko ikastaro espezializatuak ere.

Hori guztia posible izan da «Usurbilgo Lanbide Eskola» LHIIko Zuzendaritzak, erakundeko gainerako pertsonekin batera, ardura hartu zuelako bere interes-taldeei kalitatezko zerbitzu bat eskaintzeko, talde horien baldintza eta itxaropenak beteko zituen zerbitzu bat, ingurumena errespetatzen zuena eta pertsonentzat segurua zena. Horregatik, ezinbestekotzat jo zuten, zentroko jarduera-eremu guztietan, erakundea osatzen duten kide guztiei informazioa, komunikazioa eta prestakuntza ematea, guztiek parte hartzea eta guztiei kontsultatzea, erakundearen izenean jarduerak egiten dituzten pertsonak barne.

Laburpen gisa, esan dezakegu Arabako ikastetxeak, Ciudad Jardín izan ezik, sortu berriak direla, eta laurak hiriburuan daudela eta guztiek kalitatearen kudeaketaren aldeko apustu argia egiten dutela. Bizkaiko ikastetxeei dagokienez, esan behar dugu lurralde osoan banatuta daudela eta haietako asko 1970eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran sortu zirela, Estatuak —batzuetan— eta udalek —beste batzuetan— LHko ikastetxeak eraikitzeko lurrak utzi zituztenean. Testuinguru horretan, beste gertaera bat ere izan zen, behin baino gehiagotan errepikatu zena: ikastetxe batzuk desagertu edo eraldatu egin ziren, eta, «birmoldaturik», beste era bateko ikastetxe bihurtu. Bada zerbait deigarria: haietako askok, euskararen tratamenduari buruz argitaratu zen araudian oinarrituta, hizkuntza horren aldeko apustua egin zuten, nahiz eta egoera ez zen erraza izan, hizkuntza horren zonakatzeagatik. Puntu batean, behintzat, badirudi bat datozela Bizkaiko ikastetxe guztiak: kalitatearen kudeaketaren aldeko apustua.

Gipuzkoan, hauek dira ezaugarriak: ikastetxeak aldi desberdinetan sortu ziren, sustraiak 1880an dituen Donostiako egungo Easo edo Eibarko Armeria Eskolatik hasita. Beste ikastetxe batzuek frankismoaren garaian dute jatorria, eta sortu berriak, berriz, gutxi dira. Haietan guztietan, bi apustu esanguratsu daude, bata euskararen alde eta bestea kalitatearen kudeaketaren alde.

VI. Kapitulua
EAE-ko Lanbide-Heziketa datutan: 70eko hamarkadatik gaur arte

Jon Altuna Urdin eta Hilario Murua Cartón

Kapitulu honetan, EAEko LHko sistemaren bilakaerari buruzko zenbait datu eta informazio ematen dira, hiru probintzien eta haiek osatzen dituzten eskualdeen arteko aldeak kontuan hartuta. Aztertutako datu guztiekin, EAEko Lanbide Heziketaren erradiografia orokorra egin nahi dugu, gainerako kapituluetan emandako informazioarekin batera, LHko euskal eredu bati buruz modu objektibo eta arrazoituan hitz egiteko aukera emango diguna.

6.1. **Lanbide Heziketaren arautzea eta aukera dikotomikoa**

Hezkuntzari eta Hezkuntzaren Erreformaren Finantzaketari buruzko 1970eko Lege Orokorra (HLO) oso garrantzitsua izan zen gerora Lanbide Heziketa garatzeko; izan ere, arautu egin zuen, eta hezkuntza-sistemaren egituraren barruan bere lekua izaten lagundu zion, ordura arte ez ez baitzuen izan. Zehazki, LHren ikuspegitik, Lege hori indarrean sartzeak lanbide bat prestatzeko aprendiz eta ofizialaren berezko kontzeptuaren ordez lanbide-arlo baten barruan kokatutako lanbide bat jartzea ekarri zuen, eta lanbide horren prestakuntza hiru mailatan banatzen zuen: 1. Mailako Lanbide Heziketa (LH1), OHOtik iristen ziren ikasleentzat, 2. Mailako Lanbide Heziketa (LH2), Batxilergotik, Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtetik (UBI) edo LH1etik iristen zirenentzat, eta 3. Mailako

Lanbide Heziketa (LH3), jarraipenik izan ez zuena eta benetako porrota izan zena (De Puelles, 1992).

70eko eta 80ko hamarkadetan, bi ibilbideen artean (Lanbide Heziketa edo Batxilergoa) aukeratu beharra zegoenez, dikotomiak lagundu egin zuen Lanbide Heziketak osperik izan ez zezan, eta gizartean zabaldu zen ideia esaldi honetan laburbil daiteke: «balio duenak balio du, eta balio ez duena LHra[1]». Alde horretatik, Batxilergoa ikasten jarraitzen zuten ikasleak ikasle ontzat hartzen ziren, eta LH2ra bideratua izaten zirenak edo LH2 aukeratzen zutenak, berriz, porrot egindakotzat edo eskola-sistemaren eskakizunetara ez egokitutakotzat.

Unibertsitatera sartzeko edo lan-mundurako prestatzeko ikasten jarraitzeko erabaki goiztiar horrek argi eta garbi jokatu zuen Batxilergoko matrikulazioen alde, aukera guztiak irekita uzten baitzituen ikasten jarraitu ahal izateko, eta LHren aukera bigarren lekuan uzten zuen, hezkuntza-eredu ez oso erakargarritzat hartuta. Granderen hitzetan:

> Eskola Ziurtagiria bakarrik lortu duten ikasleak nahitaez sartu behar dira Lanbide Heziketan, eta lege-zehaztapen horren ondorioek kalte nabarmena egiten diote Lanbide Heziketaren irudiari (Grande Rodríguez, 1997).

6.2. **Espainiako estatutik datozen jarraibideak eta Lanbide Heziketa Batxilergoaren aurrean finkatzeko hastapenak Euskal Autonomia Erkidegoan**

Lehenago esan den bezala, Batxilergoko ikasketak amaitu ondoren, ikasle askok, adin-nagusitasuna gertu izanik beren prestakuntza lan-esparru bereziren batean zehaztu nahi zutenez, LH2ra jotzen zuten. LH2ko ikasketa horiek askoz ikuspegi eta eskaintza praktikoagoa zuten, eta, bi urteko epe laburrean, enplegu-aukera handiak zituen lan edo lanbide baterako prestatzen zuten.

Datuei erreparatuz eta HLO legetik (1970) LOGSE legera (1990) ibilbidea eginez, ikus dezakegu LH osoa osatzen zuten ikasleen kopurua BBB ikasten zutenena baino askoz txikiagoa zela autonomia-erkidegoaren mailan.

---

[1] Arantxa Martínezi (CCOO) egindako elkarrizketa, Bilbo, 2019ko otsailaren 20a.

9. Grafikoa

Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasketen matrikulazioaren bilakaera Espainian, LGE/LOGSE aldian[2]



Iturria: Geuk egina. *Datuak*: MEC eta MECD.

10. Grafikoa

Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasketen matrikulazioaren bilakaera EAEn, LGE/LOGSE aldian



Iturria: Geuk egina. *Datuak*: MEC eta MECD.

[2] Grafikoa hobeto ikusteko, bi ikasturtetik behin ematen dira zenbakizko datuak.

6.3. Estatuak Lanbide Heziketa zentralizatzetik Eusko Jaurlaritzaren mendeko Lanbide Heziketara: ikastetxeen ekimena eta aldundien apustua

1970eko hamarkadako LHri erreparatzen badiogu, aipatu behar da zenbait erakunde agertu zirela, hala nola Prestakuntza Ekintzaren Zerbitzua (gaztelaniaz, SAF), 1973an sortua. Zerbitzu horrek Langileen Sustapenerako Plan Nazionalaren (gaztelaniaz, PPO, Plan Nacional de Promoción Profesional Obrera) erantzukizunak bere gain hartu zituen, eta enpleguaren arloko eskumenak ere bai; hala, Enpleguaren eta Prestakuntza Ekintzaren Zerbitzua (gaztelaniaz, SEAF, Servicio de Empleo y Acción Formativa) bihurtu zen. Erakunde horiek lan-jarduera bultzatzen lagundu zuten, eta 1978an sortutako Enplegu Institutu Nazional (INEM) ezagunaren ataria izan ziren. Legegintza-jarduera handiko aldi bat izan zen, bai Estatuan, bai autonomia-erkidegoan, lege eta erreforma ugari indarrean jartzea ekarri zuena. Hala, 1980an, Madrilen, azken aldiz egin ziren Estatuko probintzietako Lanbide Heziketako irakasle bihurtzeko oposizioak, eta, horren ondorioz, irakasle gazte asko sartu ziren, ordura arte egiten ari zena aldatzeko edo hobetzeko asmotan. Hala ere, ikastetxe burokratizatuegiak aurkitu zituzten, kudeaketa-eredu erabat zaharkitua zutenak, eta egoera horretan eroso zeuden irakasle zaharrak, zenbait pribilegio zituztenak eta, ondorioz, giroa gaiztotzen zutenak. Giza baliabideen eta baliabide materialen eskasiak ere —ia ikastetxe guztietako makinak zaharkituta eta desfasatuta zeuden—, ez zuen laguntzen giro hori hobetzen. Hala ere, 1983an, hezkuntza-arloko eskumenak Eusko Jaurlaritzari transferitu zizkioten, eta Eusko Jaurlaritzak, herrialdeko, tokiko eta probintziako eta, batez ere, enpresa-munduko beste eragile batzuekin batera, eta ikastetxeekin eta ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin batera, lanari ekin zion egoera aldatzeko.

Ekimen horien artean, 1983ko urte horretan bertan, Lanbide Heziketako Kabinetea sortu zen. Han, Lanbide Heziketako ikastetxe batzuek, hala nola Usurbilgoa Iñaki Mujikaren gidaritzapean[3], txandakako praktikak abian jartzeko legezko aukera aztertu zuten. Bestalde, aldi hartan garrantzi handia izan zuen beste gertaera bat izan zen: Imanol Murua orduko diputatu nagusiaren eskutik Gipuzkoako Foru Aldundiak LHren alde egin zuen apustu sendoa. Foru Aldundiak LHko ikastetxeei 1.000 milioi pezetako (6 milioi €) laguntza eman zien, ikastetxeak berritu eta ekipamenduak, materiala, tresnak, automatak eta abar jartzeko. Hori pizgarri izan zen irakasle eta ikasle askorentzat, baliabide zaharkitu, berrerabili edo merkatutik kanpokoekin lan egitera ohituta baitzeuden[4].

---

[3] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

[4] Iñaki Mujikari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko ekainaren 18a.

Errealitate horren aurrean, Araba eta Bizkaiko aldundiek ere Gipuzkoan hartutako erabakiari jarraitu zioten, eta ekipamenduak berritu eta erosteko laguntzak eman zituzten. Jakina, horrek guztiak irakasleen prestakuntza eguneratzeko beharra ekarri zuen, ordura arte ia ez baitzen halakorik izan.

6.4. **Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketak matrikulatutako ikasleen kuota hobetu du Batxilergokoaren aldean**

1990ean LOGSE indarrean sartzeak aldaketak ekarri zituen hezkuntza-etapen eraketan, eta oinarri berriak ezarri ziren LHn sartzeko ibilbide progresiboago bat definitzen laguntzeko. Lehen neurria derrigorrezko hezkuntzaren adin-muga 14 urtetik 16 urtera igotzea izan zen. Neurri horrek LHrako sarbidea atzeratzea ekarri zuen, eta Batxilergoko ikasturteak bi urtera murriztea. Alde horretatik, LHrako sarbidea eta baldintzak luzatzeak lagundu egin zuen ikasle gazteen maila akademikoa eta heldutasuna hobetzen, eta, besteak beste, lagungarria izan zen hezkuntza-eredu horrek zeukan prentsa txarra arintzeko.

Bi hezkuntza-ereduetako matrikulazioaren bilakaerak oso antzeko ezaugarriak izan zituen EAEn; hau da, HLO indarrean sartu eta lehen bost urteetan, atzerapen ikusgarria izan zen Batxilergoan matrikulatutako ikasleen indizean, eta, ondoren, LOGSE indarrean sartu baino lehen, pixkanaka hazten hasi zen. LOGSE indarrean jarri ondoren, nabarmen egin zuen behera matrikulazio-indizeak, eta hala jarraitu du ia gaur egun arte.

Bestalde, aztertzen ari garen etapa honen hasieran, Lanbide Heziketaren matrikulazio-maila oso txikia zen Batxilergoaren aldean: 20.000 matrikulatik behera, eta Batxilergoan, berriz, 100.000tik gora, baina matrikula kopurua urtez urte igoz joan zen 1987/88 ikasturtera arte. Orduan, jaisten hasi eta beheranzko joera hori 20 urtez mantendu zen, gutxi gorabehera, 2008/09 ikasturtean joera aldatu zen arte. Orduan, pixkanaka handitzen hasi zen, ia 40.000 ikaslera iritsi arte, aztertzen ari garen etaparen hasieran baino bi aldiz gehiago.

LOGSE legea EAEko hezkuntza-sisteman antolatzearekin batera, LHri ezaugarri batzuk eman zizkioten, eta, hortik aurrera, ikastetxe guztiek pixkanaka sartu behar izan zituzten ezaugarri horiek, hala nola Lanbide Heziketa Partekatua izeneko esperientzia bat, Alemaniako Lanbide Heziketa Duala erreferentziatzat hartzen zuena. Ildo horretatik, Euskal Kontseiluaren 1994/2000 Txostenak 1994/95 ikasturteari buruzko datuak ematen ditu: 8.948 ikasle praktikak egiten aritu ziren enpresetan. Bost urte geroago, 1999/00 ikasturtean, 10.349 izatera iritsi

ziren. Ikastetxeen, Administrazioaren eta enpresen arteko sintonia on eta interakzio hori, beste batzuetan bezala, lagungarria izan zen txandakako praktikak sustatu, mantendu eta hobetzeko, prestakuntza partekaturako eta Lantokiko Prestakuntzarako, bai eta Lanbide Heziketa Dualerako lehen hurbiltzea egiteko ere.

6.5. **Lanbide Heziketako ikasketen, mailen eta graduen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan**

Espainian, eta, beraz, EAEn, LH instituzionalizatzeko prozesua hasieratik markatu zuen Estatuan irakaskuntza-eredu horretarako ezarritako araudiak. Dakigun bezala, 1924ko Industria Irakaskuntzako Estatutuarekin hasi zen, 1928ko Lanbide Heziketako Estatutuak eman zion segida, 1955eko Lanbide Heziketako Legearekin jarraitu zuen, eta 1970eko Hezkuntza Lege Orokorrak eman zion amaia. Lege horrek hezkuntza-sistemaren berezkotzat hartu zuen LH, lehen aldiz, eta, ondorioz, aurrerantzean Hezkuntza Ministerioaren mende gelditu zen, eta ez, ordura arte bezala, Lan edo Industria Ministerioaren mende. Esan dugun bezala, hezkuntza-eredu horren irudia ez zen oso ona, eta LOGSE ezarri arte (1990) itxaron behar izan zen irakaskuntzaren parte horri buruz zegoen ikuskera negatiboa hobetzeko.

LOGSEk ekarri zituen aldaketa guztiek lagundu zuten LHri egonkortasun handiagoa ematen, ikasleak lanbide baterako prestatzeaz gainera goi-mailako eta unibertsitateko ikasketetan jarraitzeko aukera ematen baitzuen bide hori itxi gabe. Hala ere, Estatu osorako arautzen zuen lege bat izateak ez zuen ekarri, praktikan, autonomia-erkidego guztietarako inbertsio-, metodologia-, berrikuntza-, antolamendu —eta sarbide— maila bera. Aitzitik, estatuko txostenek eta estatistikek —hala nola Fundación Atresmedia, Fundación Mapfre, IESE Business School 2018 (Bieger, Souto, Pim, García, 2018), Addeco (Adecco, 2016), INE (INE, 2017) eta MECD, (MECD, 2015)— argi eta garbi jasotzen dute autonomia-erkidegoen arteko alde garrantzitsuak daudela LHren garapenari eta enplegagarritasunari dagokionez. Kasu batzuetan, aldeak nabarmenak dira, halaber, probintzien edo autonomia-erkidegoaren barruko eskualdeen arabera; hain zuzen, badirudi LHn matrikulatutako ikasleei buruzko estatistikak eta probintzia eta autonomia —erkidego batzuetako industrializazio— indizea Hezkuntza Lege Orokorraren eskutik doazela (Cabrera, 1997).

Jada esan den moduan, fenomeno horren arrazoietako bat Espainiako industrializazioaren atzerapena izan zen, eta haren ondorioa LH berandu ezartzea izan zen, beste alderdi batzuk ahaztu gabe, hala nola kultura-, enpresa —eta soziologia— faktoreak (Escolano, 1982). Horri dagokionez, Euskadiko frankismo-garaiko errealitateak

lagungarria izan zen enpresek eta fabrikek interes berezia izan zezaten eta prestakuntza propioan eta LHn inbertsioa egin zezaten. Euskal industria-sareak langile prestatuak behar zituen ezagutza, trebetasun teknikoa eta praktikoa eskatzen zuten lanbideak eta lanpostuak betetzeko, eta horrek balio izan zuen prestakuntza-ikastetxeen eta lan-munduaren arteko lotura garrantzitsuak ezartzeko, lan honetan dagoeneko jaso dugun moduan.

Horri dagokionez, enplegagarritasuna EAEko LHren balio garrantzitsua izan da ikasketak aukeratzeko orduan. LHren enpleguari eta okupazio-tasei buruzko datuak unibertsitateko lizentziadunen eta graduatuen tasen oso aurretik egon dira urte batzuetan. Horrek esan nahi du LHren ospe txarra pixkanaka desagertuz joan dela, eta, nolabait, badirudi goi-mailako titulazio ez gutxiri partida irabazten hasi zaiola, baina, hala ere, lan-munduan txertatze apalagoa du.

6.6. **Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta pribatuen bilakaera Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan**

Ikastetxe publiko eta pribatuen bilakaerari ekin aurretik, gogoratu behar da EAEko LHren historian zehar bidea irekiz joan dela zenbait eragile eta sustatzaileren lankidetzari esker, Muruak dioen bezala: «Euskal Lanbide Heziketa eredu hibrido bat da, eta baditu zenbait sustatzaile, eredu hori bereziki esanguratsua egiten dutenak» (Murua, 2015). Sustatzaile horiek, azkenean, parte-hartzaileen sare bat sortu dute, beren ezberdintasunen eta ezaugarri publiko-pribatuen gainetik lankidetzan arituz, eta sistema benetan bakana garatu dute, sistema horrek LHko ikaslea hala ezagutzaz nola gaitasunez kualifikatzen baitu, eta bi helburu argirekin: enpresen premiei erantzutea eta ikaslea lan-munduan txertatzea bilatzea.

Lanbide Heziketaren munduaren eta zenbait eragileren arteko harreman estu hori EAEko oso ezaugarri berezkoa da. Labakaren hitzetan[5], ikastetxe bateko edozein zuzendarik ahalmena du egun batean sailburuordearekin elkartzeko, ideia bat azaltzeko eta ideia hori abian jartzeko baliabideak lortzeko. Ez dirudi elkarrekikotasun hori dagoenik Espainian, eta eredu publiko edo pribatuan matrikulatutako ikasleen kopurua esaten ari garenaren erakusgarri garbia da.

---

[5] Jon Labakari egindako elkarrizketa, Donostia, 2019ko urtarrilaren 22a.

11. Grafikoa

Zentro publiko eta pribatuen bilakaera EAEn 2003 eta 2019 artean



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EUSTAT eta MEC.

6.6.1. *Arabaren kasua*

Arabako Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleen bilakaera aztertuz gero, ikus daiteke eredu pribatua publikoaren oso gainetik egon dela 1970. urtetik. 1975. urtera arte, Araban ez zen izan Lanbide Heziketa publikorik, eta 2008. urtera arte pribatua nagusi izan zen. Orduan, Lanbide Heziketa publikoa nabarmen hazten hasi zen, eta eredu pribatua, berriz, mantendu edo jaitsiera nabarmenen bat izan zuen, 2012an gertatu zen bezala.

12. Grafikoa

Arabako Lanbide Heziketako ikasleen matrikula, ikastetxe motaren arabera, 1970/2017



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* MEC eta MECD.

6.6.2. *Bizkaiaren kasua*

Bizkaian, Lanbide Heziketa pribatuak, 1970etik 1996ra bitartean, ikasle gehiago izan zituen beti publikoak baino, salbuespen puntual batekin 80ko hamarkadan. 1996ko urte horretatik aurrera, —ordurako LOGSE jada indarrean zegoen— aukera publikoan matrikula kopurua igotzen hasi zen, eta gero eta gehiago hazi zen pribatuaren aldean. Pribatuak, berriz, pixkanaka baina ikasle asko galdu zituen 2012. urtera arte. Harrezkero, susperraldi txiki bat nabari da.

13. Grafikoa

Bizkaiko Lanbide Heziketako ikasleen matrikula, ikastetxe motaren arabera, 1970/2017



Iturria: Geuk egina. *Datuak*: MEC eta MECD.

6.6.3. *Gipuzkoaren kasua*

Gipuzkoan, izaera pribatuko Lanbide Heziketa publikoaren oso gainetik egon zen 2008. urtera arte. Une batez, 1999. urtean, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, Lanbide Heziketa pribatuak jaitsiera nabarmena izan zuen matrikulazio kopuruan. Baina Gipuzkoako Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleen bilakaeraren unerik esanguratsuena nabarmendu beharko bagenu, 2008. urtea litzateke. Urte hartan, Lanbide Heziketa publikoak gaina hartu zion pribatuari, eta azken urteotan bien arteko distantzia aski berdintsu mantendu da.

14. Grafikoa

Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikasleen matrikula, ikastetxe motaren arabera



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* MEC eta MECD.

6.7. **Euskararen presentzia, garrantzia eta bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan**

Egiten ari garen lanean zehar, EAEko LHn ikusi dugun gabezietako bat euskarak ikastegietan duen presentzia da, edo presentziarik eza, baina egia da, halaber, egoera nabarmen hobetu dela urteen joanean, egiaztatuko dugun bezala.

Oro har, EAEri dagokionez, nabarmena da A hizkuntza-ereduaren presentzia handia (gaztelaniaz irakasten da, eta euskara irakasgai bat da), D ereduaren aldean (euskaraz irakasten da, eta gaztelania irakasgai bat da), eta are handiagoa B ereduaren aldean (irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz).

15. Grafikoa

EAEn Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak, hizkuntza-ereduaren arabera, 1983/2013 aldia



Iturria: Geuk egina. *Datuak*: Eusko Jaurlaritza.

6.7.1. *Euskararen bilakaera Euskal Lanbide Heziketan, hizkuntza-ereduen arabera*

Historikoki, gaztelania izan da EAEko LHn hasieratik gehien erabili den hizkuntza, baina euskararen ofizialtasunarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailaren 138/1983 Dekretua, zeinak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen baitzuen, indarrean sartzearekin, ateak ireki ziren euskarazko irakaskuntza eskaintzeko. Horretarako, hizkuntza-eredu hauek ezarri ziren:

— «A» eredua, non irakaskuntza ia osorik gaztelaniaz ematen baita, Euskal Hizkuntza eta Literatura (euskara) irakasgaia izan ezik.
— «B» eredua, non irakasgai batzuk gaztelaniaz ematen baitira (gehienetan, % 50) eta besteak euskaraz (gainerako % 50a).
— «D» eredua, non irakasgai guztiak euskaraz ematen baitira, Gaztelania eta Gaztelaniazko Literatura irakasgaia izan ezik (gaztelaniaz).

Seguruenik, LHn hobetzeko tarterik handiena duen gaietako bat euskarazko irakaskuntzaren eskaintza eta euskarazko adarren matrikulazioa da. Lan horretan, eta LHko ikasgeletan euskararen presentzia areagotzeko, ahaleginak egin dira, publizitate-kanpainak eta

inbertsioak egin dira, eta Administrazioak aukerak eskaini ditu. LHko ikastetxeak, irakasleak eta instituzioak ere saiatu dira hori bultzatzen eta euskarazko irakasgaiak eskaintzen. Hala ere, gauza jakina da alderdi horretan LH oraindik ere oso atzean dagoela bigarren hezkuntzan, batxilergoan eta unibertsitatean dauden ikasleen matrikula-datuen aldean.

16. Grafikoa

Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza-ereduaren arabera matrikulatutako ikasle kopurua



Iturria: Geuk egina. *Datuak*: Eusko Jaurlaritza.

6.8. Lanbide-arloen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde eta lurraldeetan, 1970/2019

1955eko Lanbide Heziketa Industrialaren Legeak ezarritako adar eta espezialitateak ia beren horretan jarraitu zuten 1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorrarekin, eta 1990ean, LOGSE indarrean sartzearen ondorioz, gaur egun Lanbide Arloak izenarekin ezagutzen dugun sistemak ordeztu zituen.

Ikus dezakegun bezala, lotura estua dago adar eta lanbide-arlo batzuen artean. Gehienetan, izena aldatzearekin batera, irakaskuntzak zabaldu dira. Bestalde, aipatutako irakaskuntza zabaltzeaz gainera, lanbide-arlo berriak sortu dira. Taula honetako sailkapenean, letra lodiz agertzen dira.

12. Laukia

Lanbide-arloen banaketa, kasuan kasuko estatu-legearen arabera

	LOGSE (1990)		Lanbide Heziketa Industrialari buruzko Legea (1955) Hezkuntza Lege Orokorra (1970)
1	Administrazioa eta Kudeaketa	1	Administrazioa
2	Nekazaritza	2	Nekazaritza
3	Arte Grafikoak	3	Arte Grafikoak
4	Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak	4	Automobilgintza
5	Osasuna	5	Erietxeko Laguntzailea
6	Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	6	Ehungintza eta Jantzigintza
7	Ostalaritza eta Turismoa	7	Ostalaritza
8	Zura, Altzariak eta Kortxoa	8	Zura
9	Fabrikazio Mekanikoa	9	Metala
10	Irudi Pertsonala	10	Ile-apainketa eta Estetika
11	Kimika	11	Kimika
	BATERATUA/BIRMOLDATUA	12	Elektrizitatea
12	Elektrizitatea eta Elektronika		Elektronika
	BERRIAK		**IRAUNGIAK**
13	Kirol-ekintza Fisikoak	13	Automatismoak
14	Artea eta Artisautza	14	Delineazioa
15	Merkataritza eta Marketina	15	Papera
16	Eraikingintza eta Obra Zibila		
17	Energia eta Ura		
18	Irudia eta Soinua		
19	Elikadura-industriak		
20	Erauzketa-industriak		
21	Informatika eta Komunikazioak		
22	Instalazioa eta Mantentze-lanak		
23	Itsasoa eta Arrantza		
24	Segurtasuna eta Ingurumena		
25	Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak		
26	Beira eta Zeramika		

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EUSTAT.

Adarren eta lanbide-familien arteko lehen hurbilketa hori egin ondoren, aztertuko dugu nola banatu ziren lanbide-arloak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan.

14. Taula

LHko ikastetxeen kopurua eta haien kokalekuak LOGSEren aurretik eta ondoren

Adarra/Lanbide-arloa	1990 arte			1990 etik		
	Ikastetxe-kop. eta kokalekua			Ikastetxe-kop. eta kokalekua		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Administrazioa/Administrazioa eta Kudeaketa	3 H	2 H eta P (1-1)	4 H y P (1-3)	3 H eta P (2-1)	22 H eta P (7-15)	20 H eta P (7-13)
Nekazaritza / Nekazaritza	3 H eta P (2-1)	0	4 H y P (2-2)	2 H eta P (1-1)	1 P	1 P
Arte Grafikoak	1 H	1 H	0	1 H	1 H	2 H eta P (1-1)
Automobilgintza/Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak	1 H	0	1 P	2 H	10 H eta P (3-7)	4 H eta P (1-3)
Erietxeko Laguntzailea/ Osasuna	1 H	0	1 P	3 H eta P (2-1)	18 H eta P (7-11)	12 H eta P (4-8)
Ehungintza eta Jantzigintza/ Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza	2 H	2 P	2 H y P (1-1)	0	1 P	1 H
Elektrizitatea eta Elektronika	2 H eta P (1-1)	12 H eta P (2-10)	17 H eta P (2-15)	3 H eta P (2-1)	24 H eta P (7-17)	15 H eta P (1-14)
Ostalaritza eta Turismoa				3 H	8 H eta P (5-3)	3 H eta P (2-1)
Zura eta Altzariak	3 H eta P (2-1)	6 P	6 H eta P (1-5)	0	2 H	3 H eta P (1-2)
Metala/Fabrikazio Mekanikoa	4 H eta P (2-2)	17 H eta P (3-14)	24 H eta P (3-21)	4 H eta P (2-2)	18 H eta P (5-13)	19 H eta P (1-18)
Ile-apainketa eta Estetika/Irudi pertsonala	1 H	0	2 P	3 H eta P (2-1)	6 H eta P (4-2)	3 H eta P (1-2)
Kimika	0	2 H	4 H eta P (2-2)	2 H	6 H eta P (4-2)	1 P
Automatismoak	1 H	0	1 P			
Delineazioa	2 H eta P (1-1)	4 H eta P (1-3)	12 H eta P (3-9)			
Energia eta Ura				1 H	1 P	1 P
Itsasoa eta Arrantza				0	2 P	2 P
Segurtasuna eta Ingurumena				1 H	2 P	1 H
Irudia eta Soinua				1 H	2 H eta P (1-1)	2 H eta P (1-1)
Elikadura-industriak				1 H	3 P	1 H
Eraikingintza eta Obra Zibila				1 H	4 H eta P (2-2)	3 H eta P (1-2)
Kirol-ekintza Fisikoak				2 H	8 H eta P (2-6)	4 H eta P (2-2)
Merkataritza eta Marketina				2 H	12 H eta P (7-5)	9 H eta P (5-4)
Informatika eta Komunikazioak				2 H	17 H eta P (8-9)	9 H eta P (4-5)
Instalazioa eta Mantentze-lanak				5 H eta P (3-2)	12 H eta P (3-9)	18 H eta P (2-16)
Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak				5 H eta P (4-1)	19 H eta P (7-12)	12 H eta P (2-10)

Hiriburua: H; Probintzia: P; Hiriburua eta probintzia: H eta P

Iturria: Geuk egina. *Datuak:* Murua (2015) eta EUSTAT.

6.9. **Lanbide Arloek badute generorik?**

Lan honetan, azken urteotan euskal gizartean izan diren aldaketak —demografikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak...— jaso ditugu, baina benetako iraultza lan-munduan gertatu da, emakumea lanean lan-munduan txertatu baita. Egia esan, ez zegoen ia emakumerik lehenengo Arte eta Lanbide Eskola haietan, lantegian lan egiteko trebakuntza ematen zen haietan, eskola horietako ikasketak gizonezkoei zuzenduta baitzeuden. Irakaskuntza Publikoaren Legeak ere ez zuen lagundu egoera hori hobetzen; izan ere, nahiz eta teorian bi sexuentzako hezkuntza eta aukera berak egon, praktikan, genero bakoitzerako irakasgaien arteko aldea zegoen (Rial Sánchez, Mariño eta Rego, 2011). Ikasketa-diferentzia horrek segida izan du hurrengo legeetan ere, non itxuraz «nesken» adarrak eta «mutilen» adarrak baitaude.

17. Grafikoa

Lanbide Heziketako ikasleen matrikularen bilakaera EAEn (1994/2017)



Iturria: Geuk egina. *Datuak*: EUSTAT.

Errealitateak adierazten digu azken hamarkadetan LHk, bere adar eta espezialitate gehienetan, gizonezkoek osatutako publiko bat zuela, eta emakumeek hautatzen zuten matrikula-eskaintza akademikoak pertsonak zaintzearekin eta laguntzearekin zerikusia zuten adarrak zituela ardatz, hala nola Erietxeko Laguntzailea, Jantzigintza, Ile-apainketa eta Estetika, Administrazioa eta Nekazaritzako irakaskuntzak.

Horrenbestez, esan daiteke gizarteak, zorionez, bilakaera handia izan duela, eta LHn emakumeen presentzia, gizonezkoen aldean, pixkanaka eta poliki hobetuz joan dela azken hamarkadetan (Rial Sánchez, Mariño eta Rego, 2011). Hala ere, nahiz eta LOGSE ezarri zenetik (1990) bi sexuetarako aukera-berdintasuna egon hezkuntza-sisteman, eta nahiz eta administrazioak eta instituzioek ahaleginak egin dituzten emakumeak ikasketa horietan matrikulatzera bultzatzeko, egia da gaur egun gizonezkoak gehiago direla EAEko LHko matrikula kopuru osoan.

6.10. **Enplegagarritasunaren bilakaera Lanbide Heziketako ikasleen okupazio-tasei dagokienez, lanbide-arloen arabera. 1999/2016**

Enplegua eta lan-mundurako sarbidea beti izan da EAEko LHren lehentasunezko helburua, eta hasiera-hasieratik enpresekin loturak eta harremanak sortzearen aldeko apustua egin da, ikasketak errealitatera eta benetako premietara hurbiltzeko. Puntu horri dagokionez, curriculuma eta arlo akademikoa zaintzeaz gainera, praktiken alde egin da helburu hauekin: prestakuntza-helburuak betetzea, oso erabilgarriak izatea, balioa ematea eta lan-kontratua sinatzeko aukera ere ematea.

18. Grafikoa

Lanbide-arlo bakoitzeko enplegagarritasunaren batez besteko ehunekoa, 1999/2016



Iturria: Geuk egina. *Datuak:* EUSTAT.

Alde horretatik, EAEko Lanbide Heziketak metodologia berriak (Ethazi) erabili ditu, lan-merkatura hurbilduz praktika berriak eta onak proposatzeko eta enpresetan praktikak egiteko askotariko aukerak eskaintzeko, helburu hauekin: ikasleen gaitasunak hobetzea eta ikasleak prestatzea (Eizagirre eta Altuna, 2014). Hori guztia lanbide-arlo eta espezialitate bakoitzeko tutore eta profesionalek gainbegiratuta egiten da, eta hezkuntza-erakundeen, ikastetxeen, administrazioaren eta enpresen arteko lankidetza eta komunikazio etengabea ekarri du, «win-win» edo «irabazi-irabazi» elkarlan-sistema batean, non guztiek jartzen baitute beren partea eta guztiek onuraren bat lortzen baitute.

Lan honetan, azterketa xume bat egin dugu LHko ikasleek lanbide-arlo bakoitzean zer okupazio-tasa duten egiaztatzeko. Hala, EAEko lanbide-arlo eta ziklo guztien 1999/2016 epealdiko batez besteko enplegagarritasun-tasa % 72,7 da, eta hori oso positibotzat jotzekoa da.

Konklusioak

Lan honetan, kapituluz kapitulu, landutako gaien alderdirik garrantzitsuenak azaldu ditugu, lortutako emaitzen berri emateko. Konklusioen kapitulu honen helburua da Lanbide Heziketaren euskal ereduari buruzko emaitza multzo bat osatzea, liburu osoaren sintesi gisa irakurri ahal izateko, eta, idazlan osoa osatzen duten ataletatik abiatuta, ikuspegi orokorra ematea. Irakurketa hori errazteko, kapituluen ordenari jarraitu diogu, eta konklusio guztiak zenbakitu ditugu.

Lehena: aurrekari historikoak. Lanbide Heziketak Euskadin azken mende eta erdian izan duen bilakaerari buruzko ibilbidea egin dugu, eta hezkuntza-modalitate horren egungo arrakasta ulertzeko balio dezaketen zenbait gako azaldu ditugu. Nabarmendu behar da badagoela faktore historiko bat: eragile batzuen parte-hartzea. Horri esker, lan-ildo bateratuak markatu ahal izan dira instituzioetan eta industria —eta hezkuntza— sarean. Enpresei buruz, toki —eta probintzia— korporazioei buruz, ikastetxeei buruz eta erakunde publiko eta pribatuen lankidetzari buruz ari gara.

XIX. mendearen azken herenean, Arte eta Lanbide Eskolak sortu ziren, hala Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuetan, nola bi lurralde horietako beste herri batzuetan. Haiek izan ziren gizarte-eragileen multzo hori abian jarri zuen lehen adibidea. Industrializazio-testuinguru batean sortu ziren eskola horiek, Estatuak inolako lege-erregulaziorik egina ez zuenean, tokiko eta probintziako erakundeek eskatuta enpresa-eskariari erantzutearren. Eskola haiek ohiko hezkuntza-sistematik kanpo garatu ziren. Arrakasta handia izan zuten, hainbesteraino non, zenbaitetan, «pobreen unibertsitatea» deitzen baitzieten, langileen seme-alabentzako irtenbide profesional onena zirela adierazi nahian. Garai batean, haietaz gainera, baziren erlijio-kongregazio batzuek batez ere merkataritza-arlorako sortutako lanbide-heziketako eskolak ere.

Aldi hartan, garapen ekonomikoaren maila apala zen, eta, horregatik, ez zegoen interes handirik lanbide-heziketari buruzko legedia garatzeko. XX. mendeko bigarren hamarkadan, dena dela, lanbide-heziketako estatutu batzuk sortu ziren, baina haien proposamenak ia ez ziren garatu 1950eko hamarkadara arte, desarrollismo frankista hasi arte. Estatuak ez zuen uste irakaskuntza-maila hori berari zegokionik; beraz, ordura arte ez zen sartzen hasi Lanbide Heziketa hezkuntza-sisteman. 1970eko Hezkuntza Lege Orokorrak ezarri zuen hezkuntza-sistema modernizatzeko lehen mugarria, eta, hala, hobeto erregularizatu ziren lanbide-heziketako ikasketak. Aldi horretan guztian, Lanbide Heziketak zenbait mendekotasun-maila izan zituen: ministerioak, instituzioak, sindikatuak. Enpresek, Elizak —erregimen frankistaren onuradun handia izan zen— edo sindikatu falangistek ikastetxe-sare bat osatu zuten, hasierako edo etengabeko prestakuntzako zenbait modalitaterekin.

Euskadin autonomia politikoa lortzeak, laurogeiko hamarkadaren hasieran abiatutako hezkuntza-transferentzien prozesuarekin, Euskadin bertan aritzea eta erabakitzea ekarri zuen. Hasiera batean, jarduerak ez ziren oso egituratuak izan, eta parte-hartzea ere ahula izan zen. Ikastetxeetako irakasle eta zuzendari gogotsuek ekin zioten lanari, Lanbide Heziketa hobetzeko aukerak ikusi baitzituzten, hain zuzen ere itxuraz ospea galtzen ari zenean. Urteak igaro ahala, eta batez ere XXI. mendearen hasieratik aurrera, estrategia batzuk garatzen hasi ziren, eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak eta ikastetxeen elkarteek desberdintasunak ezartzen hasi ziren elkarrekin egin beharreko lanari dagokionez, irakaskuntza-maila horren erreformari taxuz ekiteko.

Hala ere, lege-esparruan, 1990. urtea beste mugarri bat izan zen Lanbide Heziketaren erreforman. LOGSE legea lege organikoa da, Autonomia Estatutua den bezala, eta berak ezartzen ditu, data horretatik gaur arte, arauak garatzeko mugak eta aukerak. Ildo horretatik, jarraitutako legegintza-prozesua orekatu ahal izan dugu: batetik, Estatuaren xedapen organikoak, nahitaez bete beharrekoak, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak eskola publikoari edo lanbide-heziketari buruz emandako legeak. Prozesu legegile horretan seinalatzen dugu Euskadiko Lanbide Heziketa garatzeko esparrua; izan ere, XIX. mendean Arte eta Lanbide Eskolekin gertatu zen bezala, Euskadiko eragileek lortu dute Lanbide Heziketari maila altua ematea, hala instituzioek nola ikastetxeek, hurrengo kapituluetan ikusiko den bezala. Ikuspegi historikotik, behin betiko giltzarria, eta alde batera utzi ezin dena, printzipioekiko leialtasunari eustea da: beren jatorriko lurraldeko gizarte-, ekonomia- eta hezkuntza-premietara egokitzea, tartean diren eragile guztien parte-hartzearekin. Horregatik hitz egin dugu Lanbide Heziketa definitzen duten ezaugarriez, orain arte izandako bilakaera ulertzen laguntzen diguten giltzarriak baitira.

Bigarrena: dimentsio estrategikoa. Hezkuntza EAEra transferitu izanaren ondorioz, Lanbide Heziketa gehiago kontrolatu da EAEn bertan, eta aukera eman du erabakiak hartzeko eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren aldetik dimentsio estrategiko bat irekitzeko, 1997tik gaur arteko Lanbide Heziketako plan estrategiko guztien bidez gauzatu dena. Plan bakoitzak ekarri du agerian uztea zer esparrutatik aurkitu duen Lanbide Heziketak bere garapena, eta etorkizuneko erronkak markatu ditu haietako bakoitzean.

Lehenengo kapituluan azaldutakoaren jarraipen gisa, XX. mendeko azken hamarkadan hasi zen Euskadiko Lanbide Heziketaren sistemaren loraldia. Nolanahi ere, ez zen berez agertu, eta ez zen kasualitatearen ondorio izan. Zalantzarik gabe, zenbait faktoreren baturak prestatu zuen lurra Lanbide Heziketako euskal eredu gisa defini genezakeenaren ernamuina ager zedin. Alde batetik, tradizio historiko sendoari esker, Lanbide Heziketak, are une kritikoetan ere, instituzioen, gizarte-eragileen eta euskal gizartearen onarpena izan du. Bestetik, Gernikako Autonomia Estatutuaren ondorioz EAE eratzea ekarri zuten aldaketa politikoei esker, euskal erakundeek protagonismo zuzena izan zuten Euskadin Lanbide Heziketak hartu beharreko norabidean. Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zituen arlo horretako eskumenak, eta, pixkanaka, haren norabidea antolatu eta zuzentzeko egiturak osatuz joan zen. Baina, egoera ekonomikoa oso zaila zenean, beste euskal erakunde batzuk ere agertu ziren —batez ere, foru-aldundiak—, eta Lanbide Heziketaren garapena beren eskumenen esparruan sustatu zuten, batez ere ekipamenduen finantzaketaren eta horniduraren ikuspegitik, ulertu baitzuten Lanbide Heziketa garapen ekonomikorako faktorea dela. Esandakoari, Lanbide Heziketako ikastetxeen ekimen-gaitasuna gehitu behar zaio. Elkarlanerako talentua da haien bereizgarria. Horren ondorioz, enpresa-munduarekiko harremanak sustatu dira, ikastetxeak eraginkorrago bihurtzeko kudeaketa-tresnak bilatu, ikasketak eta lana araututako prestakuntzatik lotzeko bideak ireki, eta alternatiba metodologiko berritzaileak aztertu. Faktore horiek kontuan hartu gabe, ezin da ulertu Euskadiko Lanbide Heziketak gerora izandako bilakaera. 1980ko hamarkadan agertu ziren jada, baina dimentsio handiagoa hartu zuten hurrengoan, hezkuntza-sistema osorik berrantolatzeak eta Lanbide Heziketak berak LOGSEren eskutik izandako aldaketak markatutako testuinguruan. Horri gehitu behar zaio Euskal Eskola Publikoaren Legearen onarpena, garrantzia baitu batez ere Lanbide Heziketako ikastetxeen konfigurazio berrituari eta haien ekimen eta kudeaketa autonomorako gaitasunari dagokienez.

Lur horretan —esan bezala, ondo prestatua zegoen—, errealitate berri bat sortu zen, eta haren ezaugarri nagusia dimentsio estrategikoa da. Aurrerantzean, dimentsio horretan uler daiteke EAEko Lanbide

Heziketaren bilakaera. Alde horretatik, Lanbide Heziketako I. Euskal Planak inflexio-puntu bat ezarri zuen, eta, eragile instituzional, sozial eta profesionalen lanaren ondorioz, orduan hasi zen Euskadiko Lanbide Heziketa berriaren eraikuntza. Lanbide Heziketaren sistema integratuaren esparruan —hezkuntza, ekonomia eta lana bateratzen dituen ikuspegiarekin—, eta ikastetxeak funtsezko protagonista gisa proiektatuta, hasierako prestakuntza indartu eta kalitatea lortu nahi da, prestakuntza horrek enplegurako prestakuntzarekin bat egin dezan, eta testuinguru ekonomikora eta eboluzio zientifiko eta teknologikora modu eraginkorrean egokitu dadin, testuinguru horretan txerta dadin eta enplegurako prestakuntza lortzeko benetako alternatiba bat eskain dezan. Lanbide Heziketaren eraldaketa ezinbesteko eginkizuntzat hartu zen, eta hartan parte hartu behar zuten hala eragile instituzionalek nola sozialek, zuzenean parte hartzen dutenez gainera (ikastetxeak eta irakasleak). Erabakigarria izan zen ikastetxeek Lanbide Heziketako ikastetxeen sare baten esparruan aritzea —sare publikoan nahiz pribatuan—, sare horren eraketaren mende baitzegoen lankidetzak inplikazio hori islatzea. Hauek ziren planaren ardatz nagusiak: Lanbide Kualifikazioen Sistema, hartan kualifikazioa eta lehiakortasuna bateratzeko eta hari Katalogo Modular bat lotzeko; prestakuntzaren kalitatearen aldeko apustua, kudeaketaren kalitateaz gainera; prestakuntza ingurunearen garapenari lotzea; ekipamenduz, material didaktikoz eta espazioz hornitzea; eta prestakuntza lantokietan egitea.

Mende berria hasi zenean, Lanbide Heziketa indartuta zegoen, aurreko urteetan izan zuen aldaketaren ondorioz. Lanbide Heziketako I. Euskal Planaren emaitza nabarmenak Lanbide Heziketaren sendotasuna eta gaitasuna izan ziren, eta horri gehitu behar zaio —aurreko hamarkada antolamendu-egiturak eraikitzekoa izan zela kontuan izanik— Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren sorrera XXI. mendearen lehen hamarkadaren hasieran. Horiek izan dira, gerora, Euskal Lanbide Heziketaren ezaugarri bereizgarrietako bat. Lidergo ukaezina markatu zuen Sailburuordetzak ikuspegi estrategiko batetik, eta berehalako emaitza Lanbide Heziketako II. Euskal Plana onartzea izan zen. Bigarren plan horrek, aurrekoaren funtsezko ildo estrategikoei jarraipena eman eta indartzeko bidean, berrikuntzaren aldeko apustu garbia egin zuen. Kualifikazioen eta Prestakuntzaren Sistema Integratua eguneratzearekin, EAEko Lanbide Heziketaren kalitatearekin eta EAEko Lanbide Heziketan teknologia berriak sartzearekin batera, berrikuntzari emandako bultzada izan zen une horretako alderdi estrategikoaren ezaugarri nagusia. Eta esparru horretan, abiapuntuko helburu estrategikoek esparru zabal bat hartzen dute. Besteak beste, honako hauek: Lanbide Heziketako ikastetxeen kudeaketa, ikastetxe horien eta enpresen arteko teknologia —eta ezagutza— transferentzia, prestakuntzari aplikatutako teknologiak eta eremu berritzaileetan ikasteko

modu berriak sustatzea, eta Tknika sortzea, hau da, Lanbide Heziketaren esparruko ikerketa, garapen eta berrikuntzako zentro bat, hurrengo urteetan funtsezko erreferentzia izan zena.

Lanbide Heziketako III. Euskal Planak, jadanik mendearen bigarren hamarraldian, Lanbide Heziketaren modernizazioari ekin nahi zion, Lanbide Heziketa indartzeko beharrezko mekanismo gisa. Alde horretatik, zenbait alderdi bildu zituen: kualifikazio-sistemen erabilera, informazio-, aholkularitza —eta orientazio— sistema integratu bat, irakasleen eta prestatzaileen profesionalizatze handiagoa eta Lanbide Heziketaren irudia eta erakargarritasuna hobetzea. Planak eremu estrategiko hauek landu zituen: etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna gauzatzea Lanbide Heziketan, prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea, Lanbide Heziketatik berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatzea, eta sormena eta berrikuntza areagotzea. Berrikuntza, berriz ere; eta disruptibo bihurtuko da berrikuntza, euskal Lanbide Heziketa etengabe berrasmatzearen ildotik. Berrikuntza horrek ezaugarritu zuen, urte gutxi batzuk geroago, Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana.

Plan hori lehentasunezko jarduera-eremutzat hartu zen, EAErako izaera estrategikoa duela ulertuta, eta bera izan zen Euskadiko LH 2015 Agenda Estrategikoaren barneko lehenengo lehentasuna. Hauek izan ziren haren ardatz nagusiak: prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzailetza aktiboa, nazioartekotzea eta Lanbide Heziketako ikastetxeak berritzea, non funtsezkoa baita ikastetxe-eredu berri bat garatzea, ikastetxea kudeaketa aurreratuko ezagutza-unitate bihurtzea eta ikastetxe espezializatuen sare bat sortzea, hori guztia euskal ekonomiari bultzada emateko, eta EAEko enpresen lehiakortasuna eta herritarren enplegagarritasuna hobetzeko. Plan hori izan zen EAEko Lanbide Heziketa gehien irauli zuena bere garapen estrategikoaren ikuspegian eta Lanbide Heziketako Euskal Eredu bat sendotzeari begira. Eta beste Plan bat eskatzen zuen, V. Plana, hura osatzeko eta berrikuntzari buruz inauguratu zuen ikuspegiaren perspektiban aurrera egiteko. Gainera, planaren garapenak berak zuen eskakizun bati erantzunez, Lanbide Heziketako V. Euskal Plana onartu aurretik, lege-esparru bat eratzea ezin atzeratuzko erronka zen, eta horren emaitza Euskadiko Lanbide Heziketaren Legea izan zen.

Hirugarrena: berrikuntza, Lanbide Heziketaren nortasunaren ardatza. Lanbide Heziketako euskal ereduaren arrakastaren gakoa berrikuntza da. Lanbide Heziketaren bilakaera osoa zeharkatzen duen ardatzetako bat da. XXI. mendearen lehen urteetatik berrikuntza izan da ardatza, eta zeharka eragin die esparru horretan esku hartzen duten plano guztiei. Hala, Lanbide Heziketako berrikuntza izan da azken urteotan arreta gehien bereganatu duen gaietako bat, bai irakaskuntza —eta

ikaskuntza— prozesuetan —metodologia berriak aplikatuz—, bai kalitate-, kudeaketa- eta ikerketa-prozesuetan, bai eta nazioartekotzearen arloan ere. Alde horretatik, bi berrikuntza-maila bereizi ditugu: lehena, instituzionala, erabakiak hartzeko eta Lanbide Heziketarekin zerikusia duten alderdi guztiak legez arautzeko ahalmena duena; eta bigarrena, ikastetxe-elkarteek erabakietan eta lankidetza-sare bat ezarri duten ikastetxeen zereginetan parte hartzea.

Egitura horretan, eta paper garrantzitsua izanik, enpresen, ikastetxeen eta administrazioaren arteko harremanen gunea antolatzeko balio baitu, Tknika sortu zen 2005ean, Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentro gisa, eta 2015ean eraberritu egin zen, Euskadiko Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentro gisa berrizendatua, Lanbide Heziketan sartuta dauden eragile guztien agendan berrikuntza sartzeko. Hala, administrazioak egindako lanaren balioa nabarmentzearekin batera, azpimarratu nahi dugu berrikuntza egitea dela administrazio autonomikoak erakunde multzo bat sortzea eragile guztiak dinamizatu eta harremanetan jar ditzan, parte-hartze maila batean baino gehiagotan.

Prozesu hori guztia azaltzeko, arkitektura instituzionala nabarmendu behar da, zenbait eragile ukitzen baititu, bakoitzaren parte-hartze mailaren arabera. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren barruan 2001ean Lanbide Heziketako Sailburuordetza sortzera eraman zuen prozesua mugarri garrantzitsua izan zen, prestakuntza mota horri ikusgaitasuna eman baitzion eta agerian utzi baitzuen hezkuntzaren munduaren eta lanaren munduaren artean duen ibilbide berezia. Une horretatik aurrera, politika estrategikoak finkatu zituen erabaki politikoak hartuta, eta, era berean, garatzen ari ziren prozesu guztien eragile gisa jardun zuen. Horren guztiaren adierazgarri da Lanbide Heziketako euskal planak sortzea, arestian aipatu dugun bezala.

Bestalde, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua sortu zen. Haren jarduera gorabeheratsua izan da une batzuetan, baina helburu batekin sortu zen: eragile guztiak batzea, ikastetxeetatik enpresa-erakundeetaraino edo administrazioraino. Beste maila batean, aholkularitza-, kontrol- edo ebaluazio-funtzioekin sortutako erakundeek zeregin nabarmena bete dute kalitateko edo kualifikazio profesionaleko prozesuak eguneratzeko. Harreman instituzionalen korapilo hori osatzen duten zenbait erakunde dira.

Esparru horren barnean, eta Lanbide Heziketa barnetik berritzeko borondate irmoarekin, hau da, irakasleen eta ikastetxeen parte-hartzearekin, bai eta kanpotik ere, kanpoko lankidetzari edo nazioartekotzeari dagokionez, Tknika sortzea egokia izan zen, horixe eskatzen ari baitzen berrikuntzaren arloan. Hala, Tknika berrikuntza guztiaren ikur bihurtu da, berrikuntza zenbait mailatan mugitzen baita. Berrikuntza ikastetxeetan

gauzatzen delako ideia eta irakasleek beren ezagutzak Tknikan eguneratu eta zabaltzen dituztelako ideia lorpen handia izan da eragile guztiek prozesuetan parte har dezaten, zeren eta prozesu horiek nekez izango baitute arrakasta elkarren arteko lankidetzaren eta elkarlanaren bidez ez bada. Ideia hori oso indartsua da berrikuntzaren martxa onerako. Horregatik, egoeraren alderdirik deigarriena parte-hartzaileen arteko harreman-maila da. Harreman horiek ez dira mugatzen autonomia-erkidegora edo estatura, eta nazioartean ere ezartzen dira. Proiektuak abian jartzea eta etengabeko berrikuntzako estrategiak garatzea ere azpimarratzeko balioa da.

Berrikuntzaren bigarren planoari dagokionez, hiru ikastetxe-elkarteen zeregina ere garrantzitsua da, eta berriro ere nabarmentzen du parte-hartzeak berrikuntzaren elementu giltzarri gisa duen garrantzia; kasu honetan, ikastetxeei eta haien kudeaketari dagokienez. Ikaslan, HETEL eta AICE/IZEA elkarteek sarean lan egiten dute, zenbait proiektutan batera parte hartzen dute eta Administrazioarekin lankidetzan aritzen dira beren interesak defendatzeko. Horretaz gainera, proiektuetan lankidetza-puntuak ezartzeko eta helburu komunak izateko ere balio dute, hala nola berrikuntza, nazioartekotzea, euskara ikastetxeetan sartzea edo prestakuntza-eskaintza orekatzea. Garrantzitsua da hiru elkarteen artean dagoen errespetua eta lankidetzarako jarrera ona. Horrek guztiak haien arteko harremanen kalitatea adierazten du, norabide berean arraun egiten ari direla ohartuta baitaude.

Hain zuzen ere, norabide berean arraun egiteko lan partekatu horretan jarduten dute enpresek, ikasleek eta irakasleek, eta, «Kalitatearen Kudeaketak» bultzatuta, duela urte batzuk pentsaezina izango zen nazioarteko aintzatespenera eramaten ari dira euskal Lanbide Heziketa. Testuinguru horretan, gure ustez nabarmendu behar da ezen, nahiz eta gaur egun oso modan dagoen Txandakako Prestakuntza Dualaren gaia, hezkuntza-praktika horiek Euskal Herrian garatuta zeudela jada aurreko mendeko 80ko hamarkadan, gaur egun errealitate denaren hazia bihurtuta.

Irakaskuntza-ikaskuntza eredu hori abian jartzeko, guztion, enpresen, ikasleen eta, nola ez, irakasleen ahalegina behar izan zen. Lanbide Heziketako irakasleek, hasierako uneetan Etengabeko Prestakuntzari uko egin bazioten ere, pentsatzeko era horri 180 graduko bira eman zioten, eta ilusio betean murgildu ziren prozesu horretan. Kalitatearen kudeaketan bete-betean inplikatu ziren lau «abenturazalek» gidatu zuten prozesua, eta Lanbide Heziketako ia ikastetxe eta irakasle guztiak eraman zituzten berekin.

Ekintzailetza ere berrikuntzaren beste giltzarri bat da, eta gero eta garrantzi handiagoa hartu du Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide

Heziketan, hainbesteraino non bera baita Lanbide Heziketaren izaera berritzailea hobekien adierazten duen osagaietako bat. Era askotako eragileek parte hartzen duten ikuspegi estrategikoaren esparruan ulertu behar da haren garrantzia, baina, bereziki, Lanbide Heziketako ikastetxeen protagonismoa eta gaitasuna nabarmendu behar dira, haiek osatzen baitute ekintzailetzaren euskal eredua izenda litekeena. 1980ko hamarkadara garamatzan ibilbide horretan, ekintzailetzak balio nabarmena hartu zuen krisiari aurre egiteko. Hurrengo hamarkadaren amaieran eta XXI. mendearen hasieran, beharrezkoa zen Lanbide Heziketak ekintzailetzan prestatzeko premiari erantzuna ematea; orduan, EAEk, berriz ere, bere bokazio berritzailea erakutsi zuen, bere ibilbide finkatuan bermatuta, ekintzailetza-ekosistema propioa eraikitzeko. Tknikaren lidergoari esker, eta Lanbide Heziketako Euskal Planen babespean, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta haien enpresa-ingurunearen arteko ohiko harremanen ondorioa, ekintzailetzarako prestakuntza ez ezik, enpresen sorkuntza ere izan zen. Horretarako, era askotako programa eta baliabideak abiarazi ziren (UrratsBat, Ikasenpresa, MAE, Irekin, etab.), eta ekintzailetzarekin konprometitutako Lanbide Heziketako ikastetxeak elkarlaneko lan-sare batean bildu ziren, ikuspegi berritzaile batekin: prestakuntzaren ikuspegi tradizionala alde batera utzita, ekintzailetza enplegurako aukera gisa aurkeztea.

EAEko Lanbide Heziketak berritzaile-izaera du bereizgarri, baina berak duen gaitasun sortzailearen ondorioa besterik ez da izaera hori. Etengabe aldatzen ari diren testuinguru kritikoetan erantzunak emateko gaitasunaren euskarriak imajinatzea eta sortzea dira. Horregatik da berrikuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren eta hura osatzen duten ikastetxeen adierazgarri nabaria. Ikuspegi ebolutibotik ulertu behar den prozesu batean, sormena funtsezko elementutzat hartzen da etengabeko hobekuntzarako, lehiakortasunerako, enplegagarritasunerako, ikaskuntza autonomorako, bizitza osoko ikaskuntzarako, gaitasun ekintzailerako eta abarretarako. Planteatzen diren erronkei (ekonomikoak, sozialak eta abar) aurre egiteko erantzun egokiak lortzeko bidea izateaz gainera, baliabidetzat ez, helburutzat hartzen da sormena prestakuntzaren ikuspegitik. Horretarako, Ideatk Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua sortu zen.

Era berean, berrikuntzaren beste gako bat Lanbide Heziketako euskal sistema nazioartekotzeko prozesua da. Prozesu hori 80-90eko hamarkadan hasi zen, orduan egin baitziren mugikortasuna —ikasleena batez ere— bultzatzeko lehen saiakerak, Europako lehen programetan parte hartuta. Confebaskek ere hasitako sustatze-lanarekin batera, lehen urratsak egin ziren Lanbide Heziketako ikastetxeetan zentratutako mugikortasun-eredu bat eraikitzeko. Hurrengo hamarkadetan, ikasleen eta irakasleen mugikortasun-programak ikastetxeetako kulturan

sendotuz joan dira, eta nazioartekotze-eremua zabaltzera jo da, hala ikuspuntu geografikotik nola nazioarteko lankidetza mota guztien aldetik. Lortutako emaitza onak koordinazio-lan eta sarean egindako lan bikainaren erakusgarri argiak dira. Lan horren lider eta sustatzaileak ikastetxe-elkarteak —nagusiki, Ikaslan—, Eusko Jaurlaritza eta Tknika izan dira; koordinazioa homogeneizatze-prozesutzat hartu beharrean, lurralde bakoitzaren eta ikastetxe bakoitzaren idiosinkrasia errespetatzetik abiatu dira eta kudeaketa- eta proiekzio-autonomia bultzatu du nazioartekotzearen arloan; hala, izugarri handitu da ikastetxe bakoitzaren —eta, beraz, sistema osoaren— berrikuntza-ahalmena.

Laugarrena: enpresaren harremanak eta Lanbide Heziketa. Enpresaren munduaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko harremanari buruzko azterketaren ondoren, zenbait alderdi aipa ditzakegu. Lehenengoa da adieraztea enpresaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen artean harreman bat ezarri zela Arte eta Lanbide Eskolak sortu zirenean, iraun egin zuela frankismoaren garaian, eta, geroztik, harreman hori mantendu ez ezik sendotu ere egin dela. Ikusi ditugun azken ekimenek eta haien modukoek indartu egiten dute planteatu genuen hipotesia: Lanbide Heziketa enpresaren esku jarri da enpresa garatzeko, edo enpresak eskatu dio etengabeko bilakaera eta hobekuntza Lanbide Heziketari.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat aldi horretan izan diren ekimenen ugaritasuna da. Ekimen horietan, Lanbide Heziketaren hezkuntza-eredua ez da izan eragile bakarra, beste eragile batzuek ere parte hartu dute. Hala, batzuetan, Lanbide Heziketako ikastetxeek abiatu dituzte neurriak; beste batzuetan, berriz, Estatuko Administrazioak (INEM, FORCEM), edo EAEko Administrazioak (Hobetuz), edo probintziakoak (Diputazioak), edo Toki Administrazioak (udalak eta mankomunitateak). Erakunde sindikalak ere ez dira atzean geratu, eta enpresa-erakundeak ere ez, ez eta enpresak ere. Ikusten dugu, beraz, enpresaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremana oso estua izan dela, eta hala jarraitzen duela.

Eta bada ahaztu nahi ez dugun beste alderdi bat ere: Enpresa-Lanbide Heziketa harreman honetan parte hartzen duten eragile guztiek «sistematik kanpo» inor ez uzteko izan duten interes handia, hots, herritar guztiei aukerak eskaintzeko interesa; hala, prestakuntza-ekintzak eskaini zaizkie lanean ari diren langileei, langabeei, landa-munduari, emakumeari genero-talde marjinatu gisa, maila eta aldi guztietako ikasleei, lehen hezkuntza amaitu ez zuten gazteei... Etengabeko Prestakuntza edo Lanerako Prestakuntza askotariko kolektiboei zuzendu zaie, eta horrek erakusten du hezkuntza-eredu honek gizarte osoari jarri diola arreta.

Labur esanda, Euskal Autonomia Erkidegoan enpresaren eta Lanbide Heziketaren arteko harremana etengabea izan da historian zehar. Atzera

begiratu besterik ez dago, eta ikusten da joan den mendearen erdialdean Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait enpresak beren aprendiz-eskolak zituztela. Altos Hornos, La Naval, CAF edo Unión Cerrajera dira hizpide dugunaren adibide batzuk.

Fenomeno hori goitik behera aldatu zen 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra indarrean sartu zenean. Lege horri esker, Lanbide Heziketa behin betiko utzi zion Lan Ministerioaren mende egoteari, eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren esku geratu zen; benetan zegokionaren esku, alegia. Geroago, LOGSE onartu zenean, behin betiko finkatu ziren Lanbide Heziketaren oinarriak. Horri esker, gaur egun den bezalakoa da Lanbide Heziketa, eta gainera, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, arrakasta nabarmenarekin.

Oraingo egoerara iritsi baino lehen, Lanbide Heziketak ahultasun-uneak ere izan ditu. Estatu eta nazioarte mailako krisi ekonomikoek kalte egin diote behin baino gehiagotan haren garapenari, baina bi oinarriren gainean euskarritu da EAEko Lanbide Heziketa: 1980ko hamarkadan Espainiako Estatuak hezkuntza-arloan zituen eskumenak Eusko Jaurlaritzara eskualdatu izana, eta Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-eredu honen alde egindako apustu sendoa. Hala ere, nahiz eta oso garrantzitsuak izan, haiek ez dira izan hizpide dugun arrakastaren faktore bakarrak.

Garrantzi handiko beste faktore bat 1984an sinatu zen Etengabeko Prestakuntzako I. Akordio Nazionala da. Akordio horren arabera, Lanbide Heziketa hiru kategoriatan banatu zen: Lanbide Heziketa Arautua, Lanerako Lanbide Heziketa eta Etengabeko Lanbide Heziketa. Halaber, ezin dugu ahaztu zer ondorio izan zituen hezkuntza-agintarien enpresa-kultura aldatzeak langileen prestakuntzari dagokionez; hau da, prestakuntza beharrezkoa ez zela pentsatzetik, langile-klaseari prestakuntza kualifikatua emateko apustu sendoa egitera pasatu zen, eta, enpresa-kulturaren aldaketa horretan, funtsezkoa izan zen Europako Erkidegoen Kontseiluak egindako ekarpena. Ekarpen hori hiru premisatan oinarritu zen: sorkuntza, garapena eta prestakuntzarako estimulua.

Etengabeko Prestakuntzari buruzko I. Akordio Nazionala sinatu ondoren, proposamen ugari egin ziren helburu argi batekin: langileen kualifikazioa hobetzea, eta, testuinguru horretan, herritar guztiei zuzendutako era askotako prestakuntza-planak eta -programak sortu ziren Espainian. Hala, prestakuntza-programak egin ziren gazte eta iraupen luzeko langabeentzat, lehen lanaren bila zebiltzan gazteentzat, eskolatzea berreskuratzeko, lanbide-birziklapenerako, enpresetako langileentzat eta langile autonomoentzat, kooperatibako bazkideentzat eta lan-sozietate anonimoetako kideentzat, desgaitasunen bat zuten pertsonentzat, etorkinentzat, marjinatuentzat eta gutxiengo etnikoentzat eta beste kolektibo batzuentzat.

Jarduera horien programazioaren parte handi bat INEMek kudeatu zuen, baina, hori egin ahal izateko, hainbat erakunderen laguntza izan zuen: erakunde publiko eta pribatuak, Lanbide Heziketako ikastetxeak, udalak, mankomunitateak, eskolak eta unibertsitate-fakultateak….

Etengabeko Prestakuntza zen Lanbide Heziketaren hiru kategorietako bat, eta lehentasunezko bihurtu zen hezkuntza-agintarientzat, baina ekonomia-agintarientzat ere bai; izan ere, haren bidez, erkidegoko eta estatuko ekonomien osasuna behar bezala ezagutzeko aukera ugari zabaltzen ziren. Gainera, langileei lanbide-birziklapenerako eskaintzen zitzaien aukera bat zen, eta aukera hori ez zen alferrik galdu. Eskualde, sektore eta enpresa mailako proposamenak egin ziren; erakunde publiko eta pribatuetan orientazio —eta prestakuntza— jarduerak egitea ere proposatu zen, langileak birziklatzeko, langile horiek kualifikatuak zein ez-kualifikatuak izan; halaber, aukera eskaini zen enpresek berek eman ziezaieten prestakuntza hori langileei, eta unibertsitate-ikasketak amaitzen zituzten gazteei aukera eskaini zitzaien txandakako prestakuntza egiteko edo Junior-Enpresa programetan parte hartzeko.

Prozesu horretan, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, frankismoaren garaian aski ohikoa izan zen egoera bat errepikatu zen: euskal udalek eta aldundiek zuzenean parte hartzea Lanbide Heziketaren garapenean. Udalen kasuan, parte-hartze hori are handiagoa izan zen, beren biztanleen errealitate soziala hurbiletik ezagutzen dutelako. Hala, jatorria LOGSEn zuen Gizarte Bermerako Programaren «kudeatzaile» bihurtu ziren udal-erakundeak. Programa horrek, kapitulu honetan adierazi den bezala, bi helburu zituen: parte hartzen zutenak bizitza aktiboan sartzea eta interesa zutenak hezkuntza-sistemara itzultzeko berreskuratzea.

Beste alde batetik, 80ko hamarkadako hezkuntza-arloko hasierako transferentziak eskualdatzearen garrantzia eta Autonomia Estatutuak Euskadiko herritarrei eskaintzen zizkien aukerak azpimarratu behar ditugu. Madrilen Etengabeko Prestakuntzari buruzko I. Akordio Nazionala sinatu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, 1995ean, Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbide arteko Akordioa sinatu zuten Confebaskek, eta ELA, LAB eta CC.OO sindikatuek. UGT, berriz, hortik kanpo gelditu zen, Madrildik zer agindu iristen zitzaizkion zain. Hala ere, nahiz eta akordioa sinatu, baziren oraindik konpondu beharreko auzi delikatu pare bat, hau da, hala diputazioek nola Eusko Jaurlaritzak diruz hornitu behar zutela Etengabeko Prestakuntza, eta bigarren kontu bat Etengabeko Prestakuntzaren eta Lanerako Prestakuntzaren kudeaketari buruz, une hartan biak estatu-erakundeen mende baitzeuden. Lehenaren arduraduna INEM zen, eta bigarrenarena FORCEM.

Egoera zail horri erantzuteko sortu zen Hobetuz, Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioa. Hobetuzen helburu nagusia

oso argia izan zen: «Etengabeko Prestakuntza eraginkorragotzea». Eusko Jaurlaritzak, Enpresaburuen Konfederazioak eta erakunde sindikalek parte hartu zuten zeregin horretan, baina, funtzionamendua erraztearren, Patronatu bat sortu zuten, Fundazioaren organo gorena bihurtu zena. Patronatua sortuta, enpresari zuzendutako zenbait prestakuntza-plan jarri ziren martxan. Plan horiek taldekako izaera izan zuten (enpresataldeka); kasu batzuetan, sektorialak izan ziren, eta, beste batzuetan, sektoreartekoak. Hobetuz ere martxan zebilen.

Bosgarrena: ikastetxe integratuen bilakaera. Ikuspegi historikotik, Lanbide Heziketako ikastetxeak aztertu dira hiru euskal lurraldeetan. Horregatik, dagokion kapituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen sorrerari buruz aritu gara, eta ikusi ditugun egoera batzuek aski ongi islatzen dute euskal Lanbide Heziketaren arrakastari buruz darabilgun hipotesiaren egiantzekotasuna.

Frankismoaren garaian, Lanbide Heziketaren inguruko guztia —ikastetxeak, ikasleak, irakasleak, curriculumak eta abar— ez zen behar bezala aintzakotzat hartzen. Ondoren, hezkuntza-eskumenak Eusko Jaurlaritzara transferitzeko erabakia eta Jaurlaritzak hezkuntza-eredu horren alde egindako apustua erabakigarriak izan ziren Lanbide Heziketa bere oinarriak finkatzen hasteko ez ezik, baita gaur egun Estatuan eta nazioartean aintzatetsia izateko ere. Faktore askok hartu dute parte hori gertatzeko, baina, zalantzarik gabe, ikastetxeen bilakaera eta kalitatearen alde egin duten apustua funtsezkoak izan dira prozesu osoan.

Komeni da gogoratzea 70eko hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako ikastetxe ugari zeudela, jabe eta helburu desberdinekoak, baina bazuten ezaugarri bat esaldi baten bidez ia guztiak identifikatzen zituena: «salba bedi ahal duena». Ikusi dugu jabeak askotarikoak zirela, Eliza, enpresa, Administrazioa bere udal eta aldundien bidez edo Estatua bera, Falangearen Erakunde Sindikala izanik Lanbide Heziketaren esparruan egiten ziren jardueren fiskalizazio-organoa. Egia da, halaber, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra indarrean sartzeak balio izan zuela hezkuntza-eredu hori «arautzen» hasteko, eta LOGSE izan zela behin betiko oinarria, baina LOGSE 1990ekoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan lehen ekimenak dagoeneko martxan zeuden 80ko hamarkadaren hasieratik. Ikastetxeen inguruko egoera kaotiko hori ikusita, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ulertu zuen neurriren bat hartu behar zela irizpideak bateratzeko, beti kontuan izanik bi eredu daudela, publikoa eta pribatua, eta, gainera, azken horren barruan Lanbide Heziketako «akademiak» ere bazirela, eta ez gutxi.

Bestalde, oso garrantzitsua iruditzen zaigun beste faktore bat ere hartu behar da kontuan: Lanbide Heziketaren kategorizazioa. 80ko hamarkadaren hasieran hezkuntza-transferentziak egin ziren, eta une hori bat dator Lanbide Heziketari buruzko I. Akordio Nazionala sinatzearekin. Akordio

horren ondorioz, ezagutzen ditugun hiru kategorietan banatu zen Lanbide Heziketa: Lanbide Heziketa Arautua, Etengabeko Prestakuntza eta Lanerako Prestakuntza.

Garai hartan, Francoren garaian jatorria zuten ikastetxe asko desagertuz edo ikastetxe berri bihurtuz joan ziren, harik eta 2000ko maiatzean Lanbide Heziketako Zentro Integratu gisa ezagutzen ditugunak sortu ziren arte. Zentro horien ezaugarrietako batzuk hauek dira: ikastetxe publikoak dira, eta haietan Lanbide Heziketaren hiru kategoriak irakats daitezke. Alderdi kronologikotik begiratuta, ikusten dugu badirela ikastetxe benetan historikoak. Horren erakusgarri onak dira Bilboko Emilio Campuzano, Eibarko Armeria Eskola edo Donostiako Easo Politeknikoa. Hala ere, badira sortu berriak ere, hala nola Lasarteko «Eraikin Adimendunen Garapen iraunkorrerako Institutua» izenekoa.

Baina, egindako ikerketa ikusita, haien guztien ezaugarri nagusia «Kalitatearen kulturaren» aldeko apustu irmoa da, hori giltzarria baita euskal Lanbide Heziketaren arrakastarako. Kapitulu honetan ikusi dugun moduan, guztiak etengabeko hobekuntzako proiektuetan sartuta daude, eta guztiek dituzte ebaluazio-agentziek egindako zenbait aintzatespen, kasu batzuetan beren kudeaketagatik, beste batzuetan ingurumen-kudeaketaren arloan egindako lanagatik, beste batzuetan euskararekin egindakoagatik,… Azken finean, kalitatea Lanbide Heziketa definitzen duen marka saihestezina izan da, eta da.

Seigarrena: ikastetxeen bilakaera datutan. Ikuspegi historikoaz gainera, eboluzioaren datu kuantitatiboen jarraipena ere egin dugu; beraz, komeni da datu horien azaleko irakurketa bat egitea lan osoan zehar egin diren baieztapen asko azaltzeko eta testuinguruan jartzeko. Hala, ondorioztatzen da azken bost hamarkadetan Euskal Lanbide Heziketa nabarmen hobetu dela nortasun eta izaera propioa duen prestakuntza bihurtu arte. Beste erkidego batzuek jarraitu beharreko eredutzat hartzen dute, eta erreferentzia bat da nazioartean. Politikaren, gizartearen, hezkuntzaren eta enpresaren esparruetako hainbat eragile eta erakunderen arteko lankidetza nekagaitzari esker gertatu da hobekuntza hori.

Lankidetza jarraitu eta konstanteko lan hori indargune bat da, eta baditu emaitzak: azpiegitura hobeak, baliabide materialak eta akademikoak, praktika-aukera berriak, enplegagarritasuna eta ekoizpen-sarearekiko lankidetza. Hala ere, badu hobetzeko punturen bat ere. Adibidez, euskal Lanbide Heziketan euskarak duen presentzia; egia da azken bost urteetan matrikula kopuruak igo direla «B» eta «D» hizkuntza-ereduetan, baina bada oraindik zer hobeturik. Bada Lanbide Heziketari esleitu izan zaion beste ahultasun bat: lanbide-arlo batzuetan genero bateko ikasleen matrikula kopurua nabarmen handiagoa izatea beste generokoena baino. Alde horretatik, egoerak hobera egin du, gaur egun ez baita duela hamarkada batzuk

bezain neurriz kanpokoa, baina oraindik ere badira desberdintasun horiek lanbide-arlo gutxi batzuetan. Azkenik, EAEko Lanbide Heziketako ikasleen okupazio-tasak handiak dira; horregatik, gaur egun Euskadiko Lanbide Heziketan gradu bat ikasi eta lortzeak esan nahi du aukera gehiago izatea enplegua lortzeko eta lan —eta ekoizpen— mundura hurbiltzeko.

Hala, emandako datuak irakurrita, ondoriozta dezakegu Lanbide Heziketa nabarmen hobetu dela 70eko hamarkadatik gaur egun arte, eta euskal Lanbide Heziketa erreferente bihurtu dela nazioartean. Halaber, eragile eta erakundeen arteko lankidetza funtsezkoa izan dela euskal Lanbide Heziketa garatzeko eta hobetzeko. Era berean, euskal Lanbide Heziketan euskararen presentzia handituz joan da, eta bereziki azken bosturtekoan, «B» eta «D» hizkuntza-ereduetako matrikulak igo baitira. Bestalde, ikastetxeak berdintasuna sustatu arren, ikasketak ikasleen generoa kontuan hartu gabe hautatzera gonbidatzen baitute, errealitateak erakusten du oraindik ere lanbide-arlo askotan genero bat gailentzen dela bestearen gainetik. Azkenik, euskal Lanbide Heziketako ikasleen okupazio-tasei dagokienez, enplegagarritasunak oso emaitza onak ditu ia lanbide-arlo guztietan.

Konklusio hauek Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren ikuspegi zabal osoa jorratu dute: ikuspegi historikoa eta Eusko Jaurlaritzaren Administrazioak bere Lanbide Heziketako euskal planekin duen dimentsio estrategikoa, enpresen egoera eta Lanbide Heziketarekin duten harremana, zentro integratuen bilakaera eta hirurogeita hamarreko hamarkadatik gaur egun arteko esparru zabala hartzen duten askotariko alderdiei buruzko datuak. Ikusi ahal izan denez, ikastetxeei, hezkuntza-politikari eta enpresei buruzko informazio eta azterketa horietan guztietan oinarritzen da Lanbide Heziketako euskal ereduaren alde egin dugun aldezpena.

Nolanahi ere, Lanbide Heziketaren euskal ereduan berrikuntzak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Eusko Jaurlaritzako administrazioaren instituzio eta erakundeen eta era guztietako enpresen elkarte-sarearen parte-hartzean bermatzen da berrikuntza hori. Partaidetza-testuinguru horretan, berrikuntza horren nortasun-ezaugarriek zerikusia dute Tknikaren funtsezko zereginarekin: ekintzailetza, sormena eta nazioartekotzea, non enpresako praktikek edo irakasleen etengabeko prestakuntzak funtsezko zeregina izan baitute. Elementu horien pisuak orekatuta daude. Horregatik esan dezakegu Lanbide Heziketako euskal eredua, bere ezaugarriengatik, dinamikoa dela eta etorkizuneko berrikuntza berrietara zabalik dagoela. Hala ere, ez du inoiz ahazten gizartearen, ekonomiaren eta hezkuntzaren premietara egokitzeko helburua, etorkizuneko erronka teknologikoei aurre egiteko proiektu baten bidez, baina beharrezko gizarte —eta hezkuntza— inklusioa ere kontuan harturik.

Bibliografia

Aranguren, M.J.; Navarro, M.; Peña, I. (2013): Krisi eta irtenbide desberdinak? El caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco, *Papeles de Economía Española*, 138. zk.

Halliday, J. (2015): 4.º Plan Vasco de Formación Profesional. Hacia una Formación Profesional diferente, *Fp Euskadi News*, 1. zb.

Halliday, J. (2016): La audacia puede alterar el concepto de lo posible, *Fp Euskadi News*, 2. zb.

Astigarraga, E.; Agirre, A.; Carrera, X. (2017): Innovación y cambio en la Formación Profesional del País Vasco. El modelo ETHAZI, R*evista Iberoamericana de Educación*, 74. liburukia

Artola, B. (2015): Ideatk La creatividad en la Formación Profesional, *Fp Euskadi News*, 1. zb.

Artola, B. (2016): Una forma de pensar diferente, *Fp Euskadi News*, 2. zb.

Azurmendi, M. J., Bourhis, R. Y., Ros, M., eta García, I. (1998): Identidad etnolingüística y construcción de ciudadanía en las Comunidades Autónomas Bilingües (CAB) de España. *Revista de Psicología Social*, 13(3)

Basterretxea, I.; González, A.; Olasolo, A.; Saiz, M.; Simón, L. (2003): Experiencias de creación de empresas en centros de Formación Profesional vascos, *CEDEFOP. Formación Profesional. Revista Europea*, 29. zb.

Brunet i Icart, Ignasi & Moral Martín, David (2017): *Origen, contexto, evolución y futuro de la Formación Profesional*, Publicacions Universitat Rovira i Virgili, Tarragona.

Buesa, M. (2003): El sistema vasco de innovación http://www.euskonews.eus/0270zbk/gaia27001es.html

Castells, L. (1987). *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876/1915.* Madril, Siglo XXI; Fusi, J.P. (1984). *El País Vasco: pluralidad y nacionalidad*. Madril, Aliantza.

CEDEFOP (2015): La innovación y la formación: aliados del cambio, *Nota Informativa*, 2. zb.

Centro de Estudios Sindicales (1958): Selecciones de la serie monográfica La Formación Profesional en España. Madril. Organización Sindical de la F.E.T. y de las J.O.N.S.

Consejo Escolar de Euskadi /Euskadiko Eskola Kontseilua (2001): *EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (1994/2000)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Consejo Escolar de Euskadi /Euskadiko Eskola Kontseilua (2006): *EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (2002/2004)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Consejo Escolar de Euskadi /Euskadiko Eskola Kontseilua (2006): *EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (2005/2006)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Consejo Escolar de Euskadi /Euskadiko Eskola Kontseilua (2006): *EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (2006/2008)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Creanova (2011): Creative learning and networking for European innovation, *Creanova Conference.*

Creanova (2011): Theoretical foundations and practical solution in the field of the creative learning. *Creanova.*

Dávila, P. (1997): *Las Escuelas de Artes y Oficios y el proceso de modernización en el País Vasco, 1879/*1929, Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

Dávila, P.; Naya, L.M. eta Murua, H. (2009): *Bajo el signo de la Educación. 100 años de La Salle en Gipuzkoa*. Donostia, Hermanos de las Escuelas Cristianas. Bilboko Barrutia.

Dávila, P.; Naya, L.M. eta Murua, H. (2014): La Formación Profesional en la España contemporánea: políticas, agentes e instituciones, *Historia de la Educación*, 33. zb.

Echeverría, B. (1993): *Formación Profesional. Guía para el seguimiento de su evolución*, Bartzelona. PPU

Egaña, J.; Egurbide, I.; Valdaliso, J.M. (2018): Los centros de Formación Profesional y su misión y funciones en los sistemas regionales de innovación: el Instituto de Máquina-Herramienta de Elgoibar, *La Formación Profesional y las Estrategias de Especialización Inteligente. Ekonomiaz,* 94. zb.

Eizagirre, A., eta Altuna, J. (2014). Análisis del desarrollo de las Competencias Transversales para la empleabilidad en centros de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco. *Procedia-Social and Behavioral Sciences*, 139. zb.

Elola, J. Mª (2004): 10. Aniversario, *Ikaslan*, 1. zb. https://www.Ikaslangipuzkoa.eus/es/comunicacion/revista-Ikaslan?b_start:int=12

Escribano, M. L. (2012): La internacionalización de la Enseñanza Universitaria y los estudiantes extranjeros de Ciencia y Tecnología, Cuadernos Cervantes, época II, Año III http://www.cuadernoscervantes.com/at_44_internaz.html

Estensoro, M. (2018): Los centros de Formación Profesional en las estrategias de desarrollo local: el caso del Goierri, *Ekonomiaz*, 94. zb.

Etxeberria Balerdi, F. (2004): 40 años de educación bilingüe en el país del euskara. *Revista de Educación,* 334. zb.

Europako Batzordea (2013): Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de la Regiones. Plan de acción sobre emprendimiento 2020. Relanzar el espíritu emprendedor en Europa https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52012DC0795 LexUriServ.do?uri=COM:2012:0795:FIN:ES:PDF

Europako Batzordea (2014): *Educación en emprendimiento. Guía del Educador*. Brusela: Europar Batasuna.

Europako Parlamentuko Kultura eta Hezkuntza Batzordea (2015): Informe sobre el fomento del emprendimiento juvenil a través de la educación y la formación http://www.europarl.europa.eu / doceo/document/A-8-2015-0239_ES.html

Europako Batzordea (2000): Enpresa txikien Europako Gutuna. Luxenburgo: Europako Erkidegoetako Argitalpen Ofizialen Bulegoa.

Europako Erkidegoen Batzordea (2003): *Liburu Berdea: enpresa-espiritua Europan*. Brusela: Europako Erkidegoen Batzordea.

Europako Batzordea: Estrategia Europa 2020 https://ec.europa.eu/info/business-economy-euro/economic-and-fiscal-policy-coordination/eu-economic-governance-monitoring-prevention-correction / european-semester /framework/europe-2020-strategy_es

European Commission/EACEA/Eurydice (2016): La educación para el emprendimiento en los centros educativos en Europa. Informe de Eurydice. Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-805/es/

Eusko Ikaskuntza (1926): *Eusko Ikaskuntzaren IV. Kongresua*: Gasteizen 1926ko uztailaren 25etik abuztuaren 1era egindako kongresuko lanen bilduma. Donostia, Eusko Ikaskuntza.

Eusko Jaurlaritza (2013): Gobernu Kontseiluaren 2013ko ekainaren 11ko erabakia. X. legegintzaldiko plan estrategikoen egutegia. 2013/2016.

Eusko Jaurlaritza (2013): Euskadik birsortu egin behar du bertako Lanbide Heziketa, Irekia https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/14849

Eusko Jaurlaritza (2013): *Euskadiko Agenda Estrategikoa 2015 LH.*

Eusko Jaurlaritza (2013): Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakundearteko Plana 2013/2016. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza (2017): Euskadiko Ekintzailetzako Erakunde Arteko Plana 2020. Gasteiz: Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Saila.

Eusko Jaurlaritza (2018): «la Caixa» Gizarte Ekintzak eta Euskadiko Lanbide Heziketak ekintzailetzaren aldeko konpromisoa berritu dute https://www.irekia.euskadi.eus /eu/news/45969-obra-social-caixa-euskadi-renuevan-compromiso-con-emprendimiento-creacion-empresas-formacion-profesional?track=1

Hollywood & Media (2006), 364. zk. http://www.euskonews.eus/0364zbk/gaia36402es.html 9

EUSTAT datos estadísticos de matriculación de la mujer, 1994/2019.

Fernández, I.; Eizagire, A.; Arandia, M.; Ruiz de Gauna, P.; Ezeiza, A. (2012): Creatividad e innovación: claves para intervenir en contextos de aprendizaje, *Revista Iberoamericana sobre la Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 10. liburukia, 2. zb.

Fernández de Pedro, S. eta González de la Fuente, A. (1975). Apuntes para una historia de la Formación Profesional en España. *Revista de Educación*, 239. zb.

Fundación MAPFRE (2018): *FP, descúbrela. Reflexiones sobre la Formación Profesional de Grado Medio y Grado Superior en España.*

Gutiérrez, R., eta Olazaran, M. (2016). Monográfico Formación Profesional e Innovación, *Revista Española de Sociología (RES)*, 25. zb. (3).

LH desberdin baterantz: Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana (2011/2014).

Hernández Pérez (2019). Flexibilizar currículums de la Formación Profesional al ritmo del mercado laboral. *Revista de Educación, Innovación y Formación.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (1991): *La reforma de la enseñanza técnico/profesional.* Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Homs, O. (2008): *La Formación Profesional en España: hacia la sociedad del conocimiento.* Bartzelona. La Caixa, Colección Estudios Sociales.

Intxausti, E. (1996): Lanbide Heziketa berria: Javier Mardonesekin solasean»; *Hik-Hasi*, 8. zk. Hik Hasi (1996): «Jorge Arevalori elkarrizketa», *Hik-Hasi*, 8. zk.

Intxausti, K.; Elola, J.M.; Larrañaga, J.M.; Mujika, I. (2000): *Nuestro viaje a la calidad.* Madril: Ediciones Díaz de Santos.

IVAC (1999): El Sistema de Cualificaciones Profesionales del País Vasco. Bilbo. IVAC/EEI.

IVAC/EEI (2013): Logros y retos de la Formación Profesional en Euskadi, *Desarrollar Educación Técnica de Excelencia*. AngloAmerican / FCH.

Iztueta, P. (2016): *Hizkuntza-asimilazioa eta Hezkuntza-sistema Euskal Herrian.* Utriusque Vasconiae: Donostia.

Lanbide Heziketa laugarren industria-iraultzaren arloan: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana (2019/2021).

Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua (1998): *Lanbide Heziketako I. Euskal Plana, Lanbidez*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

Lanbidez: Lanbide Heziketako I. Euskal Plana (1998/2004).

Lavarello, P., Robert, V., Minervini, M. eta Lerena, O. (2019): *Desarrollo de clusters y polos tecnológicos en el marco de la política tecnológica nacional: El caso de la UNSAM.*

Lehendakaritza. Lehendakaritza eta Koordinazioa: Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana. http://www.euskadi.eus/

Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia. Koordinazio Zuzendaritza (2014): Koordinaziorako Zuzendaritzaren txostena, Lanbide Heziketako IV. Euskal Planari buruzkoa (X. Legegintzaldia).

Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiko Koordinazio Zuzendaritzaren txostena (2014).

Letamendia, F. (2012): La crisis en el País Vasco (2009/2012) y el clivaje de clase, *Anuari del Conflicte Social*, 2. zb.

LH berria, herri-marka: Lanbide Heziketako III. Euskal Plana (2008/2011).

Lozano, C. (2008). «El gasto público en Formación Profesional Industrial en España, 1857/1935», *Investigaciones de Historia Económica*, 11. zb.

Martínez Usarralde, M. J. (2002): *Historia de la Formación profesional en España. De la Ley de 1955 a los Programas Nacionales de Formación Profesional.* Valentzia, PUV.

Melendo Abad, F. (1962): *Legislación de Formación Profesional Industrial.* Madril. Ministerio de Educación Nacional.

Memoria actividades 2016 https://www.aice-izea.com/quienes-somos/

Merino, R. (2002). *De la contrareforma de la formació profesional de l`EGB a la contrareforma de la LOGSE. Itineraris i cicles de formació profesional després de l'ensenyament secundari comprensiu.* Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. Doktore-tesia.

Merino, R. (2006). «¿Dos o tres itinerarios de Formación Profesional? Balance y situación actual en España», *Revista Europea de Formación Profesional*, 37. zb.

Ministerio de Trabajo (1959): *Las Universidades Laborales de España.* Madril. Secretaría General Técnica. Graf. Canales S. L. Delgado, P. (2012): *Formación Profesional, Educación y Trabajo: retrospectiva de las universidades laborales.* Madril, Biblioteca Nueva.

Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2015): La educación para el emprendimiento en el sistema educativo español. 2015. urtea. Madril: Secretaría General Técnica. Subdirección de Documentación y Publicaciones

Morales, J.A. (2010): Espacio europeo de Educación y Formación Profesional, *Formación XXI. Revista de Trabajo y Formación*, 15. zb.

Morgan, K. (2016). Collective entrepreneurship: The Basque model of innovation, *European Planning Studies*, 24 (8).

Mosteiro García, M.J. eta Porto Castro, A.M. (2017): Análisis de los estereotipos de género en alumnado de Formación Profesional: diferencias según sexo, edad y grado, *Revista de Investigación Educativa*, 35(1).

Mujika, I. (2015): 10 años de Tknika, *Fp Euskadi News*, 1. zb.

Mujika, I. eta Intxausti, K. (2018): La transformación de la Formación Profesional en Euskadi. Los centros de Formación Profesional, motor del cambio, *Ekonomiaz*, 94. zb., 2. seihilekoa.

Murua, H. (koord.) (2015): *La formación profesional en Euskal Herria:* evolución y agentes promotores durante el franquismo. Madril, Delta Publicaciones Universitarias.

Murua, H., eta Garmendia, J. (2016): *El euskara dentro del espacio escolar de la renovación pedagógica del profesorado de la Comunidad Autónoma Vasca*, in Pauli Dávila (coordinador) in El profesorado y la renovación pedagógica en el País Vasco. Madril. Delta.

Murua, H. (koord.) (2020): *El modelo vasco de Formación Profesional: claves de su reciente evolución*. EHUren argitaletxea, Leioa.

Navarro, M. (2004): Sistema de Innovación y Competitividad en el País Vasco. Donostia. Eusko Ikaskuntza.

Navarro, M. (zuz.) (2013): Las infraestructuras de conocimiento. El caso vasco desde una perspectiva internacional, *Orkestra*, 3. zb.

Navarro, M. (2014): El papel de los centros de formación profesional en los sistemas de innovación regionales y locales. La experiencia del País Vasco, *Orkestra*, 7. zb.

Navarro, M (2017): La gobernanza de las políticas públicas. Retos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, *Orkestra*, 1. zb.

Navarro, M. (2017): ¿Centros de Formación Profesionales unitarios o multifuncionales?, *Orkestra*.

Navarro, M. (2018): La prestación de servicios técnicos por los centros de FP del País Vasco: la experiencia de Tkgune, *Orkestra* 44. zb.

Nieto, J.A. eta Utrilla de la Hoz, A. (1998): Las ayudas de la Unión Europea a las regiones españolas en el período 1989/1993. Fichas descriptivas y apoyos financieros. Documentos de Trabajo http://webs.ucm.es/BUCM/cee/doc/03010022.htm

Novo Miguel, Luciano (1933): *La enseñanza profesional obrera y técnico profesional en España*, Bartzelona.

Olazarán, M.; Brunet, I. (koor.) (2013): *Entorno regional y formación profesional: los casos de Aragón, Asturias, Cataluña, Madrid, Navarra y País Vasco.* URV eta UPV/EHU.

Ovejero, A., Gracia, A. eta Fernández, J.A. (1994): Correlatos psicosociales del fracaso escolar en estudiantes de Bachillerato y Formación Profesional. *Psicothema*, 2. zb. 6. liburukia.

Pérez, J. (2013): Crisis económica y territorio, *Papeles de Economía Española*, 135. zb.

Psifidou, I. (2014): Evolución histórica de la Formación Profesional en Europa, *Historia de la Educación*, 33.zk.

Proyecto Creanova: descubriendo horizontes www.ehu.eus/ehusfera/creanova/2010/06/08/ proyecto-creanova-descubriendo-horizontes/

Puelles, M. (1980): *Educación e ideología en la España* contemporánea, Bartzelona, Labor. Viñao, A. (2004): *Escuela para todos*. Madril. Marcial Pons Historia.

Recarte, M. (1990). *Ilustración vasca y renovación educativa*. Salamanca, Universidad Pontificia de Salamanca.

Rial Sánchez, A., Mariño Fernández, R. eta Rego Agraso, L. (2011): La situación de la mujer como alumna de Formación Profesional Inicial y como profesional en el mercado laboral, *Revista Iberoamericana de Educación*, 54 (6).

Rico Gómez, M. L. (2012): La Formación Profesional del obrero como mecanismo de modernización económica e industrial durante la dictadura de Primo de Rivera, 1923/1930, *Rúbrica Contemporánea*, I. liburukia, I. urtea.

Rodríguez Herrero, J.J. (1997): *La Formación Profesional en España 1939/1982*, Salamanca, Juan de Castilla y León.

Sarasola, L. (1996): *Cualificación y Formación profesional. Estudio de sus situaciones de identificación en las empresas industriales y los centros formativos no universitarios de la Comunidad Autónoma Vasca*. Leioa: EHUko argitalpenzerbitzua.

Sarramona, J. (2003): Lanbide Heziketa. Euskal Herriko kalitate eredua, *TANTAK: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria*, 30. zb.

SIADECO (1982): *Análisis de los centros de Formación Profesional en la Comunidad Autónoma*. III. liburukia, 7. tomoa.

Tknika. *Manual Urratsbat* (Tknika, Ekingune eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren laguntzarekin egindako eta argitaratutako eskuliburua), 4. zk.

Tradiziotik berrikuntzara: Lanbide Heziketako II. Euskal Plana (2004/2007).

Triguero, S. (2015): El Ecosistema Emprendedor de la Fp de Euskadi: Un apoyo integral y avanzado a favor de la cultura y de la iniciativa emprendedora, *Fp Euskadi News*, 1. zb.

Triguero, S. (2016): Inteligencia Competitiva (IC) en la Formación Profesional de Euskadi, *Fp Euskadi News*, 2. zb.

Triguero, S. (2017): El potencial de las estructuras colaborativas en la Formación Profesional del País Vasco, *Fp Euskadi News*, 3. zb.

Ugartemendia, M.A. (2017): 3 claves para desarrollar el Pensamiento creativo en la FP, *Fp Euskadi News,* 3. zb.

Un Plan Estratégico para la Formación Profesional, *Ikaslan (2006),* 5. zb.

Unzurrunzaga, E. (2012): Estrategias de reforma en la Administración pública: el caso de CORAME en el País Vasco, *Ekonomiaz*, 80. zb.

Valle, J.M. (2006): *La unión europea y su política educativa: Tomo II. Medio siglo de acciones en materia de educación*. Madril. MEC.

Viñao, A. (2004): *Escuela para todos*, Madrid, Marcial Pons Historia.

Zubero, L. (2016): Empresas con recorrido, *FP Euskadi News*, 2. zb.

Lege-araudia

Espainiako Konstituzioa, 1978ko abenduaren 6koa.

Ikastetxeen Estatutua arautzen duen 1980ko ekainaren 19ko Lege Organikoa.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen 1985eko uztailaren 3ko Lege Organikoa

1/1986 Legea, urtarrilaren 7koa, Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusia sortzekoa.

19/1997 Legea, ekainaren 9koa, Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusia sortzeko 1/1986 Legea aldatzen duena.

5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa (2006ko maiatzaren 4ko BOE).

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa, 2013ko abenduaren 9koa.

4/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoa.

Liburu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketaren bilakaeraren sintesia da. Lanbide Heziketaren hasieratik (XIX. mendea) gaur arteko aldia hartzen du.

Lan honetan, Euskadiko Lanbide Heziketak historian zehar izan dituen aldaketak ikus daitezke, nagusiki hezkuntza-arloko transferentzia autonomikoen prozesutik abiatuta gertatu direnak. Une hartan, inflexio-puntu bat gertatu zen: Euskadiko Lanbide Heziketak erdi ahaztutako hezkuntza-eredua izateari utzi zion, eta nazioarteko erreferentziako hezkuntza-eredu bihurtu da, batez ere enpresa, ikastetxe eta erakunde eta instituzio politikoen etengabeko berrikuntza eta parte-hartzeagatik. Hori posible egiteko, lau elementuk eratu dute Euskadiko Lanbide Heziketaren "lauburua" deritzoguna: kalitatea, sormena, ekintzailetza eta nazioartekotzea.

UNIBERTSITATEKO ESKULIBURUAK
MANUALES UNIVERSITARIOS

eman ta zabal zazu